



ikerketak

**ETXEKOANDREAREN/
ETXEKOGIZONAREN
LANA.**

**Ikerketa juridikoa eta
balioespen etikoa**



Bizkaiko Foru
Aldundia

Diputación Foral
de Bizkaia



Bizkaia

A la mujer que mueve el mundo
con sus sueños (...) y sueña
que algo se puede cambiar
en esta realidad (...)

Presuntos Implicados

**ETXEKOANDREAREN/
ETXEKOGIZONAREN LANA:
Ikerketa juridikoa eta
balioespen etikoa**



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación Foral
de Bizkaia

IZENBURUA: "Etxekoandreak/etxekogizonaren: Ikerketa juridikoa eta balioespen etikoa"

AUTOREAK: Eva Alonso irak. dok., Mariola Serrano irak. dok., Gema Tomás irak. dok.

EGILEA: Bizkaiko Foru Aldundia
Ahaldun Nagusiaren Kabinetea

KOORDINAZIOA: Bizkaiko Foru Aldundiko Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Unitatea

IRUDI DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Ana Rincón

DATA: Urria, 2003

ALE-KOPURUA: 1.000

DESKRIBATZAILEAK: Etxekoandreak, ikerketa juridikoa, lana, aukera berdintasuna

INPRIMAKETA: Gráficas Santamaría,S.A. Bekolarra, 4. 01010 Gasteiz

ISBN: 84-95790-06-8

LEGE GORDAILUA: VI-429-03

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	9
HITZAURREA	11
0. SARRERA	13
1. HELBURUAK	15
2. ATARIKOA	16
2.1. Etxekoandreaken egoeraren ikuspegi soziologikoa	16
2.2. Etxeko lana zer den	18
2.3. Etxeko lana erakundeek aitortzea	20
I. LEHENENGO ZATIA. ETXEKOANDREAREN/ETXEKOGIZONAREN LANA LAN ZUZENBIDEAREN IKUSPEGITIK	25
1. LEHENENGO HURBILKETA	27
2. ETXEKOANDREAREN/ETXEKOGIZONAREN LANAREN IZAERA JURIDIKOA LAN ZUZENBIDEAN	28
2.1. Etxekoandreaken/etxekogizonaren lana eta besteren konturako lana ...	28
2.1.1. Besteren konturako lana. Berau definitzen duten ezaugarriak ...	28
2.1.2. Kalifikazio irizpideak	32
2.1.3. Lan-enpresaburua	35
2.1.4. Etxekoandreaken/etxekogizonaren lana eta besteren konturako lana	37
2.2. Etxekoandreaken/etxekogizonaren lana eta Familia-etxearen Zerbitzurako Lan Harremana	40
2.2.1. Familia-etxearen zerbitzurako lan harreman berezia	40
2.2.2. Etxekoandreaken/etxekogizonaren lana, lan harreman berezi gisa	42
2.3. Etxekoandreaken/etxekogizonaren lana eta langile autonomoak	44
2.3.1. Langile Autonomoen Erregimen Bereziaren aplikazio eremua. Baldintzak	44
2.3.2. Langile autonomo kontzeptua	45
2.3.3. Langile autonomo kontzeptuaren mugak	48

2.3.4. Langile Autonomoen Erregimen Bereziko subjektuen eremuaren zabaltzea	49
2.3.5. Etxekoandrea/etxekogizona eta Langile Autonomoen Erregimen Berezia	50
2.3.6. Langile Autonomoen Erregimen Bereziaren babesa	53
3. LEHENENGO PROPOSAMENA: Etxekoandrea/etxekogizonaren lana lan autonomo moduan	65
4. BESTE PROPOSAMEN BATZUK	70
4.1. Gizarte-laguntzako soldata edo gizarte zerbitzu komunitarioak garatzea	70
4.2. Kotizazioak irabazizko ondasun legez eratzea	71
4.3. Pentsio planak/Asistentziako babesa	72
4.4. Gizarte Segurantzarekiko Hitzarmen Berezia	72
4.5. Etxekoandrea/etxekogizona kooperatibako kide moduan	73
II. BIGARREN ZATIA. ETXEKOANDREAREN/ETXEKOGIZONAREN LANA ZUZENBIDE ZIBILAREN IKUSPEGITIK	75
1. ETXEKO LANA ZUZENBIDE ZIBILEAN	77
2. ETXEKO LANA FAMILIA ZUZENBIDEAREN IKUSPEGITIK	79
2.1. Berdintasun juridikoaren printzipioa	81
2.2. Etxeko lana eta ezkontza	83
2.2.1. "Familiaz arduratzea" desoreka ekonomikoagatiko pentsioan	84
— Aparteko atala: familiako arduraren balioespen ekonomikoa	87
2.2.2. Etxeko lana eta ezkontzako erregimen ekonomikoa	89
2.2.3. "Etxerako lana" 1438. artikuluan	90
— Aparteko atala: etxeko lanaren balioespena ondasunen bananketako erregimenean	93
2.2.4. Etxeko lana ezkontzaren amaieran	99
2.2.5. Etxeko lana, ezkontzako kargetan laguntzea	100
2.3. Etxeko lana izatezko bikoteetan	105
2.3.1. Etxeko lanari buruzko jurisprudentzia izatezko bikoteetan	106
a) Arrazoirik gabeko aberastea	107
b) Ondasunen bananketako arauen aplikazio analogikoa	109
2.3.2. Izatezko bikoteetan etxeko lanari buruz erkidegoetan dagoen araudia	111
2.3.3. Izatezko bikoteetan etxeko lana aitortzeari buruzko ondorioa	113

3. <i>LEGE FERENDAKO</i> PROPOSAMENAK ETXEKO LANA AITORTUA IZAN DADIN	114
3.1. Soldata: inkoherentzia bat eta bateraezintasun bat	115
3.2. Gizarte Segurantzaren borondatez ekarpenak egitea	117
3.3. Arau proposamena ezkontzako erregimen ekonomikoan nola uztartu ..	119
3.4. Gizarte Segurantzako kuotak irabazitzat hartzea	120
3.5. Proposamenen balioespena	121
III. HIRUGARREN ZATIA. ETXEKOANDREAREN/ETXEKOGIZONAREN LANA ZERGA ZUZENBIDEAREN IKUSPEGITIK ETA ETXEKO LANA KONTUAN HARTZEKO EREDU POSIBLE BAT	123
1. ETXEKO LANARI BURUZKO HAUSNARKETARAKO OINARRIAK	125
2. LAN HONEN ESPARRUA ETA LORTU NAHI DITUEN HELBURUAK	127
3. ETXEKO LANA ETA INDARREAN DAGOEN ZERGA ARAUDIA	130
3.1. Etxeko lanaren erreferentziarik eza zerga-araudian	130
3.2. Ondorengo eta aurreko ahaideengatiko dedukzioak	130
3.3. Zergak banan ordaintzea eta biek batera ordaintzea	132
3.4. Etxeko lanagatiko dedukzioa	132
3.5. Amei laguntza bat aitortzea eta jaiotza-tasa sustatzeko beste neurri batzuk	135
3.6. Ondorioa	137
4. ETXEKO LANA ORDAINDUA IZATEKO EREDU BATEN PROPOSAMENA: ETXEKOANDREEN/ETXEKOGIZONEN KOOPERATIBA	138
IV. ONDORIOAK	147
V. BIBLIOGRAFIA	161

AURKEZPENA

Emakumea lan munduan sartzea pausu erabakiorra izan da sexuen arteko berdintasunaren bidean, horrek beste desoreka bat ekarri badu ere, bere lan arloko zereginak betetzeaz gain, emakumeak baitira, gehienbat, familiako kide ahulenen (umeak, adinekoak, gaixoak,...) zaintzaz, arretaz eta hezkuntzaz arduratzen direnak.

Baina egia da, emakumearen haurdunaldiarekin eta erditzearekin lotutako alde biologiko hutsak izan ezik, gainerako etxeko erantzukizunak genero biak berdinean eragiten dituztela.

Nabaria dirudi pertsonak, norberaren aukera bezala, etxeko lanen erantzukizunen ardura bere gain hartzea hautatzen dutela, baina praktikak erantzukizun hauek batez ere emakumeek hartzen dituztela erakusten digu. Hala ere, aintzat hartzen ez den lan bat da, ez bada afektuzko arloan, eta honek nahigabea eta estresa sortzen ditu normalean lan hori egiten duten pertsonengan. Zentzu honetan, azterlan ezberdinek ordaindutako lanak, inolako saririk jaso gabe bere etxearen zaintzaz arduratzen denarekin alderatuta, eskaintzen duen gogobetetasun-maila nabarmentzen dute.

Hala ere, etxeko lana ekonomi ekoizpen mota bat da eta azterlan honen helburua etxeko ekoizpen honen balorazio ekonomiko bat egiten saiatzea da, bere egileek adierazten duten bezala, Zuzenbidearen erronkarik handiena, herrialde honetan, milaka emakumek, inolako ordainik jaso gabe, egunero eta abnegazio osoz, egiten dituzten zereginak juridikoki lantzat hartzea baita.

Horrela, emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Genero Politikei buruzko Foru Planak emakume eta gizonen bizitza soziala, ekonomikoa, kulturala eta politikoaren zati diren elementu guztiak ikuspegi zabal batekin hartu ditu, Foru Aldundiaren eskumen-eremutik. Ildo honetatik, Plana jarduerarako zazpi eremutan egituratzen da. Horietan ekiteko, guztira, 25 helburu planteatzen dira eta 147 jardueraz zehatz. Jarduera zehatz hauen artean asko etxeko zereginetan aritzen direnen lanak, gure gizarteari, ikuspuntu guztietatik, egiten dion ekarpen garrantzitsua agerian uzteko planteatzen dira.

Zentzu honetan, Foru Aldundiak Bizkaiko emakume elkarteek, irabazteko asmorik gabeko erakundeek eta Udalek eta Mankomunitateek aurkeztutako hainbat proiektu lagundu ditu aukera berdintasun eta genero politiken alorrean; horien artean ikerketarako eta azterketarako jarduerak, genero-roletan ekintza berriak sartzen dituztenak, hala nola, etxekoandarearen paperaren berrikuspena eta juridikoki izan dezakeen izaera, oraingo azterlan honek egiten duen bezala.

Esangura horretan, gure gizartean burutu behar diren aldaketak gizarte eta ekonomi agente guztien laguntza behar dute. Horregatik, garrantzitsua da unibertsitateak egin daitekeen ekarpena, bertan egiten diren jardueren eragin biderkatzailea dela medio. Horrela, lan honetan bezala, generoari buruzko ikerketa azterlanak eta lanak egitearen aldeko apustuak agerian uzten dute unibertsitatearen alorrean aukera berdintasunarekiko dagoen interesa, erakunde hauen helburuek, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenean, Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritakoekin bat egiteak poztu egin behar gaituelarik, guztion ardura baita gizarte berdinzaleago bat lortzea.

Zentzu honetan, lan hau milaka etxekoandrek gure gizartean egiten duten ekarpen garrantzitsua aintzat hartzea lortzeko bidean lehen pausua da, pertsona hauek egiten duten etxeko lanak balorazio ekonomikoa izan dezakeenaren ikuspegi berritik abiatuta, batera gizarte aintzatespena lor dezakeelarik.



JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN JAUNA
Bizkaiko Ahdun Nagusia

HITZAURREA

Azterlan honek ikuspegi berri bat ematen du, orain arte ez delako etxekoandreairearen irudia ikuspegi juridiko batetik aztertu. Egia da Sozologian eta Ekonomian, azken hamarkadan, gaia aztertu dutela, baina inoiz ez ikuspuntu juridikotik abiatuta.

Nazio Batuen Gutunaren hitzaurrean bertan gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko aipamena aurkitu ahal dugu, eta, orduetik, Nazio Batuek, mundu osoan emakumeen egoera hobetzeko eta berdintasuna lortzeko, administrazio esparru bat sortuz joan dira. Zentzu honetan, emakumeen diskriminazioaren aurkako Nazio Batuen Deklarazioa (CEDAW), 1967koa, azpimarratu behar da.

Europako testuinguruari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak bere jatorria Europako Batasunaren Ituneko 119. artikuluan duela esan daiteke. Artikulu horretan lan arloan, emakume eta gizonen arteko ordainketaren inguruko berdintasun-printzipioa ezartzen da. Halaber, Europar Batasunak ekintza positiboaren hainbat zuzentarau eta egitarau onetsi ditu, egun, emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunaren alorrean, 2000-2005 aldirako aurreikusitako erkidego-ko estrategiaren bosgarren egitaraua abian delarik.

Ilido beretik, Bizkaian emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Genero Politikei buruzko Foru Planak Foru Aldundiaren jarduera-eremua osatzen du, emakume eta gizonen bizitza soziala, ekonomikoa, kulturala eta politikoaren zati diren elementu guztiak ikuspegi zabal batekin hartuz. Horrela, 3. Arloan norberaren erantzukizunak, familiakoak eta lanbidekoak bateratzea jasotzen da, helburuetariko bat gizonezkoek eta emakumezkoek, etxeko lanetan, elkarren arteko erantzukizuna gara dezaten laguntzea delarik.

Lan produktiboa edo ordaindutakoa eta ugalketa-lana bereizi ohi dira, azken hau famili gunearen eguneroko ugalketarako eta bere kideen beharizan fisiko eta psikologikoak betetzeko beharrezkoak diren konbinaketa bat suposatzen duena delarik. Hasiera batean, ordaindutako lanaren banaketan eta etxeko roletan dagoen desoreka emakumea etxetik kanpo lan egiten hastean desagertu egingo zela pentsa genezake, baina ez da horrela gertatzen, lan merkatuan sartu diren emakume askok bere gain baitaude etxeko lanaren zama ia guztia. Hala ere, Europako beste herrialdetan gertatzen den bezala, emakumeen lan profesionalaren denborak, pixkanaka, gorantz egiteak eta gizonen etxeko lanetan gehiago parte hartzeak, astiro-astiro etxeko rola parekatzea errazten ari dira. Estatistikek, alabaina, familia eta etxeko alorrean berdintasunaz hitz egiteko, bide luzea dagoela ibiltzeko erakusten digute. Alor horretan inon baino beharrezkoagoak dira aldaketak, baina gauzatzeko zailagoak dira ere, ez delako erraza bertan eragitea.

Etxekoandrearen lanari buruzko azterlan hau hainbat diziplina kontuan hartuz burutu da. Horrela, lan mota hau ikuspegi ezberdinetatik aztertzen da: lanekoa, zibila, fiskala; talde honek, egun, bizi duen babes faltari irtenbide juridiko bat, benetakoa eta eraginkorra, eman ahal diotela uste dugulako. Beti da beharrezkoa Aukera Berdintasunaren esparru zailean helburu espezifikokoagoetara hurbiltzea ahalbidetuko duten planteamendu berriak egitea.

Azterlanean jasotzen diren proposamenak bideragarriak dira juridikoki, horretarako egungo errealitatearekin bat datorren legegintzako aldaketa bat nahikoa izanik, eta eskaintzen duen ikuspegiak generoen arteko berdintasunean lagundu nahi du, Bizkaiko Foru Aldundiaren lehentasunezko helburua.



KOLDO MEDIAVILLA AMARIKA JAUNA
Ahdun Nagusiaren Idazkari Orokorra
Bizkaiko Foru Aldundia

SARRERA



Jarraian aurkezten dugun ikerketaren izenburua hauxe da: "Etxekoandreak/etxekogizonaren lana: ikerketa juridikoa eta balioespen etikoa". Bizkaiko Foru Aldundiak (Lehendakaritza Saileko Aukera Berdintasunaren Arloa) 2001erako diru-laguntzak arautu zituen martxoaren 27ko 53/2001 Foru Dekretuaren babespean 2001eko abenduaren 11n ikerlan bat egiteko emandako diru-laguntzaz egin ahal izan da.

1. HELBURUAK

Agerikoa da eta jakina etxekoandreak lan araudiak gehieneko lanalditzat jotzen dituen orduak baino gehiago egiten dituztela. Are gehiago, etxeko lanagatik ordaindu beharreko batez besteko soldata gordina (EUSTATen datuen arabera), hilean 150.000 pezetakoa izango litzateke, orduko 1.131 pta. ordainduta, baldin eta pertsona horiek egindako lana juridikoki eta ekonomikoki lantzat baloratuko balitz. Horixe da, hain zuzen, gure lan honen helburua. Etxeko ekoizpenari balio ekonomikoa aitortzeko lehen urratsak eman ondoren, Zuzenbidearen erronkarik handiena zera da, egunero eta eroapenik handienaz milaka emakumek inolako konpentsaziorik jaso gabe egiten dituzten lan horiei juridikoki lan izaera aitortzea.

Horrela bada, ikerketak zuzenbideko hiru ikuspegi ditu kontuan: lanarena, zibila eta zerga-zuzenbidekoa. Ikuspegi horietatik galdera batzuei erantzun nahi diegu:

- Lanaren arloan galdera hauek planteatzen ditugu: Zelan baloratzen da etxeko lana? Lana da ala lan izaera merezi ez duen betebeharra? Ordain-saria behar badu, nori dagokio ematea? Estatuari ala familiari? Bidezkoa da etxekoandreak/etxekogizonak lan eta Gizarte Segurantzako eskubiderik ez izatea?
- Zuzenbide zibilaren ikuspegitik, nork hartu behar du bere gain etxea zaintzea gure arau zibilaren arabera? Berdina da nork bere etxea zaintzea ezkontza erregimen batean edo bestean? Eta izatezko bikotearen kasuan? Nola antola liteke lan hori familiaren barruan aitortzea?
- Eta azkenik, zerga-zuzenbidearen ikuspegitik, zein neurri har litezke etxeko lanari bere izaera aitortzeko? "Lantzat" hartzen bada, zein izan liteke zerga trataera?

Lan-zuzenbideak, zuzenbide zibilak eta zerga-zuzenbideak aplikazio eremua zabaldu egin behar dutela uste dugu, etxekoandreaken lana araudiaren barruan sartuz eta kontuan hartuz, orain arte arautu gabe izan baita.

2. ATARIKOA

Azterketa juridikoan sartu baino lehen, ikus dezagun etxeko lanaren ikuspegi soziologikoa zein den, errealitate hurbila izan arren "ezkutukoa" ere bai baita.

2.1. ETXEKOANDREAREN EGOERAREN IKUSPEGI SOZIOLOGIKOA

Etxeko lanaren pisurik handiena etxekoandreari dagokio. Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen arabera, etxean bost milioi espainiar emakumek lan egiten dutela uste da¹. Datu horri gehitu behar zaizkio etxeko lanetan diharduten emakume ez-aktiboak (jubilatutakoak, ezindutakoak,...), kanpoko lana eta etxekoa bateratzen dituztenak, eta azkenik gizonak, goian aipatutako taldeetakoren batean sar daitezkeenak. Talde horiek guztiak gehituta Espainian 12 milioi eta bostehun mila pertsona etxeko lanetan ari dela esan daiteke, iraupen aldakorreko lanaldian². Huts egiteko zalantza handirik gabe baieztatu dezakegu lan talderik handiena dela³.

Baina egia esan, etxea zaintzea neurri handi batean emakumeari dagokio. Egoera horretan lanak aitoren ez izateak (afektibo hutsaz gain) sekulako asegabetasuna eta estresa sortarazten ditu eta familiako gatazka iturri bihurtzen da sarritan⁴. EUROSTek egindako txosten batean, lan ordainduak ematen duen asetasun maila nabarmentzen da eta kontrajarri egiten da inolako ordainketarik gabe bere etxea zaintzeaz arduratzen denaren egoerarekin. Txosten horren emaitzetan adierazten da emakume langileek etxekoandreak baino bi aldiz aukera gehiago dutela zoriontsu izateko. EBko etxekoandreen %16 ez daude aseta; astean 30 ordu behintzat lan egiten duten emakume-

¹ Biztanleria Aktiboaren Inkesta 1997, 3. hiruhilekoa: 5.543.900 emakume ez-aktibo etxeko lanetan; 1998 2. hiruhilekoa: 5.416.300.

² DURÁN HERAS, M^a Á., "Los trabajadores/as no remunerados en España", in *La contribución del trabajo no remunerado a la economía española: alternativas metodológicas*, Instituto de la Mujer, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Madril, 2000, 67. or.

³ EUROSTATen report delakoak aurkezten duenaren arabera, "Women in decision making" (<http://europ.eu.int>), EBn 25 eta 59 urte bitarteko emakumeen herenak etxekoandretzat du bere burua. Irlanda da emakume langile gutxien dituen herrialdea eta %60 etxekoandreak dira. Beste muturrean, Danimarkak eta Britainia Handiak dute enplegu tasarik altuena (%73 eta %67, hurrenez hurren). Lan mundura gero eta gehiago sartzen badira ere, ikerketa baten arabera, etxeko betebeharrak, etxeko lana barne, dira etxekoandreen %84rentzat lanik ez aurkitzeko arrazoi nagusiak. Hori dela-eta, 40 urtetik gora etxean geratzen diren emakumeen kopurua handitu egiten da herrialde guztietan.

⁴ THEMIS, *Guía de buenas prácticas y usos forenses para combatir la violencia de género*, Proyecto DAPHNE : "Proteger", Madril, 2001.

en artean, ordea, %7 dira asegabe daudenak. Horri gehitu behar zaio estatistiketan etxekoandreak "ez-aktibotzat" jotzen direla⁵. Egoera horrek etxeko lana ezkutatu eta deskalifikatu egiten du, garrantzi gutxikotzat hartzen da, eta, batez ere, lan hori egiten duten pertsonen familiaren barruko egoera besteen ahaleginaren menpe dagoela sinistarazten zaie.

Datu sozio-ekonomikoen azterketa zientifikoek abiaburutik bertatik gutxietsi edo ezkutuan uzten dute emakumeek herrialde honen garapen ekonomiko eta sozialean egiten duten ekarpena. Eta horren lekuko argia da etxekoandreen kasua. Otegui Pascualek argitasun osoz adierazten duenez, espainiarra bezalako merkatuko gizarte batean, balio hegemonikoak mugimendurekin eta jardunarekin lotzen diren gizarte honetan, ez-aktiboaren taldekoa izateak, langabeen taldekoa izateak bezalaxe, konnotazio ekonomiko hutsetatik harantzko ondorioak ditu gizarte-irudian eta autoidentifikazioan⁶.

Orain arte, etxekoandreen lana zuzenbidearen arloan aitortzeko ahalegin ustelen bat aparte utzita, aginte publikoak eta eragile sindikalak familia bizitza eta laneko bizitza uztartzeko ahaleginetan saiatu dira batik bat, oraindik bide luzea egin beharra duen berdintasuna legezatu nahian. Egia da gizonek etxean ekarpena egiteko joera haziz doala⁷, baina oraindik emakumeak berak du zatirik handiena⁸, eta horrek lan munduan

⁵ EAEn, 1.478.068 biztanletatik, emakumeen kopurua 736.510ekoa da (iturria: EUSTAT eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Saila. Lan merkatuaren errolda. Datu hauek 2002ko urtarrilaren 18koak dira) eta errolda honetan sailkatu egiten dira: aktiboan daudenak, langabezia daudenak, eta ez-aktiboak direnak. ESTADÍSTICO INSTITUTO NAZIONALA, *España en cifras*, 2001, 23. or., "lan merkatua" atalean aktibo (okupatuak + langabetuak) eta ez-aktibo terminoak erabiltzen ditu. "Okupatuak" soldata baten truke lan egiten duten 16 urteko gorako pertsonak dira, eta atal horren barruan sartzen ditu ikerketa egin zen aste horretan lana izan arren, gaixotasunagatik edo oporretan zeudelako, etorri ez zirenak.

⁶ OTEGUI PASCUAL, Rosario, "La invisibilidad del trabajo femenino. Andocentrismo de las categorías de actividad e inactividad", in *Mujeres: de lo privado a lo público*, Tecnos, Madril, 1999, 135-136 eta 138-139. orr.; CARRASCO, C (arg.), *Mujeres y economía. Nuevas perspectivas para viejos y nuevos problemas*, Icaria, Madril, 1999, 15. or. eta h.

⁷ Ikusi 2001eko Garapenerako Nazio Batuen Programako giza garapenari buruzko Txostena. Bertan ikus daiteke generoko desberdintasunak herrialde guztietan daudela. Espainia 21. tokian dago sailkapenean, EBko herrialde guztien atzetik, Grezia eta Portugal salbu. Eta emakumeen Parte Hartzeko Indizean Espainia 15. tokian dago. (Gaiaren inguruan, CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL, "Panorama sociolaboral de la mujer en España", Buletinaren 26. zk. (2001eko azaroa)).

⁸ Emakumearen Institutuak egin duen *Mujeres en cifras* (1996-2000) ikerketatik ateratzen dira datu horiek. Lan horren arabera, igoera oso eskasa da emakumeek egiten duten denborarekin erkatuta. Oxfordeko Unibertsitateak ere landa-azterketa bat egin zuen 2001ean eta horren arabera emakume ingeles batek batez beste 18,5 ordu ematen ditu etxeko lanak egiten. Eta emakumeak etxetik kanpo lan egiteak ia ez du eraginik etxeko arduraren. Lanaldi osoan diharduten emakumeek astean 12 ordu ematen dute etxeko lanetan; gizonak, ordea, 5-7 ordu ematen ditu garbikuzian (batez ere).

baldintza berdinetan sartzetik urrundu egiten du emakumea⁹. Espainia, gainerako herrialde mediterraneoak bezala, oso urrun dago iparraldeko herrietatik aukera berdintasunari dagokionean. Azken hauen artean, Suedia azpimarra dezakegu. Herrialde horretan hirurogeita hamargarren hamarkadaren erdi aldera lan egiteko adina zuten emakumeen bostetik batek zioen etxeoandrea zela. Iaz, 2001ean, ostera, ehuneko bi ziren etxeoandre zirela ziotenak. Oso zaila da, beraz, herrialde honetan ohiko etxeoandrerik aurkitzea¹⁰.

Baina familiako bizitza eta lanekoa bateratzeko ahaleginaren kalterik gabe¹¹, oraindik desioa baino ez dena bestalde, helburu horri etxeko lanetan huts-hutsean edo nagusiki ari denaren zuzenbide arloko onespena eta aitortpena lotzea galdatzen dugu.

2.2. ETXEKO LANA ZER DEN

Etxekoandreak/etxekogizonaren lana honelaxe definitzen da: familia-guneko kideek euren familia-gunetik eta euren bizitzeko dituzten oinarritzko beharrezko asetzeko euren etxean egiten dituzten etxeko lanak.

Harreman honen subjektuak bikotekideak dira, ezkontideak edo izatezko bizikideak; euren bizitza oneratu eta zaintzea. Seme-alabak ezin dira harreman horretako subjektutzat hartu objektutzat baino, haiekiko dauden betebeharrak zibilak direla-eta¹².

⁹ CESeK egindako "Panorama sociolaboral de la mujer en España" ikerketaren arabera (op.cit.), 2001eko azken hiruhilekoan gizonen jardueraren tasa %63,8koa zen eta emakumeena %39,7koa. Ikusi Europa mailan EUROSTAT, "100 Basic indicators from Eurostat. Yearbook 2001. The statistical guide to Europe. Data 1989-99" (*Labour force survey, results 1999*).

¹⁰ Etxeko bizimoduak aldatzeko gehien Suedian izan du eta Irene WENNEMOren arabera, "The transformation of Family life", Seminar: *The nordic alternative*, Stockholm, 12 march 2001, 1-7 orr. Suedian gizonen egiten duten etxeko lanaren kopurua era esanguratsuan igo da. Izan ere, genero berdintasuna proiektu politiko kontzientzia izan da hirurogeietatik eta familia kontzeptua aldatu egin da.

¹¹ Ikusi azaroaren 5eko 39/99 Legea, langileen familiako eta laneko bizitzak uztartzekoa (azaroaren 6ko BOE); 12/2001 Legea, enplegua sustatzea eta kalitatea hobetzea helburu duten lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriak buruzkoa (uztailaren 10eko BOE); eta azaroaren 16ko 1251/2001 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzako sistemako prestazioak eta haurdunaldiko arriskukoak arautzen dituenak. Familiari Laguntzeko Plan Integrala ere 2001eko azaroan aurkeztu du Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak. Horrez gain, zenbait zerga berrikuntza egingo omen dira 2003rako, familiari eta emakume langileari laguntzeko eta jaiotza-tasa sustatzeko. Europa mailan, ikusi COUNCIL OF EUROPE, *National machinery to promote gender equality and Action Plans (Guidelines for establishing and implementing National Machinery to promote equality, with examples of good practice)*, Strasbourg, 2001eko maiatza (Genero berdintasuna sustatzeko gobernu desberdinen politiken laburpena).

¹² Halaxe diote Kode zibileko 110.2. eta 154. eta hurrengo artikuluek. Nahiz eta seme-alabek ere familiako kargetan lagundu ahal duten 165.2 eta 155.2. artikuluetan aurreikusitako legezko terminoen arabera.

Harreman honen helburua familia-guneak bizirauteko dituen beharrian asetzea da, eta zaila da banan-banan nor bere etxea zaintzearen barruan sartzen diren zeregin ugariak aipatzea. Etxe zerbitzuan lan egiten duen pertsonak egiten dituen lanetara joenezake analogiaz, 1424/1985eko Errege Dekretuaren 1.4. artikuluan zehazten diren etxeara: etxean edo etxerako zerbitzuak eta jarduerak, etxea zuzentzea eta zaintzea oro har edo zati batean, familiako kideak edo bizikideak zaintzea, lorezaintza, ibilgailuak eta antzekoak gidatzea, etxeko zereginen barruan egiten direnean.

Denetara, eginkizun horiek hiru multzotan bil daitezke¹³: elikagaien eta etxearen mantenua zentzu zabalean; zuzendaritza lanak; eta azkenik familiakoak zaintzea (seme-alabak, nagusiak¹⁴,...). Zuzendaritza lanak ere sartzen ditugu, ez baitira soilik etxea mantentzeko eta pertsonak zaintzeko lanak, antolaketa eta kudeaketako zereginak ere badira¹⁵. Legezko irizpide horrek lanaren barruko zereginetara hurbiltzen gaitu. Hala ere, lan horren izaerak berak eta lan hori betetzen den inguruak, karga emozionala sartzeara ere ekarri du zenbait ikerketatan¹⁶.

Azken batean, ondasunak eta zerbitzuak ekoiztera bideratutako jarduera multzo bat da, etxekoak bizirauteko eta garatzeko. Etxeko lan honek ezaugarri batzuk ditu, beronen nondik norakoa deskribatu eta kanpoko lan ordainduarekiko desberdintasun nabaria markatzen dutenak:

¹³ Ildo honetatik, doktrina klasiko zibilak hiru zeregin mota aurkezten ditu (ikusi ALBALADEJO, M., *Derecho de familia*, in *Curso de Derecho civil*, IV. lib., 8. arg., Bartzelona, 1997, 201-202. orr.; LACRUZ BERDEJO, J.L., *Elementos de Derecho civil*, in *Derecho de familia*, IV-1., Bosch, Bartzelona, 1990, 525. orr.). Etxea zaintzearen barruko zeregin ugarien aurkezpen alternatiboak ere egin litezke. INSTITUT CATALA DE LA DONA erakundeak egiten duen zereginen sailkapena ikus daiteke: "Prefaci a l'elaboració del comptes satèl·lits de la producció domèstica per a Catalunya. Estimació de l'efecte d'incloure la producció domèstica dins del PIB" Jardunaldiak (Bartzelona, 2001eko urriak 5-6), 16. orr.

¹⁴ RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ, Vicente, "El trabajo no remunerado de atención a enfermos y ancianos: propuestas metodológicas"; ZAMBRANO, Inmaculada, "Los tiempos invisibles del cuidado de la salud: consideraciones sociales, políticas y económicas", biak in *La contribución del trabajo no remunerado a la economía española: alternativas metodológicas*, op. cit., 229-328. orr.

¹⁵ DURÁN, María Ángeles, "La gestión de la cotidianeidad", *La contribución del trabajo no remunerado a la economía española: alternativas metodológicas*, op. cit., 455-506. orr.

¹⁶ Izan ere, etxeko lanak, non egiten den eta norentzat egiten den kontuan hartuta, ezaugarri emozional handia du. Argi dago janaria prestatzea bezain egunerokoa den zeregin bat oso era desberdinetan egin daitekeela, besteen gustuak zainduz, osasuna zaintzeaz arduratuz, bestea ondo sentiaraziz, digestioari on egingo dion giroa sortuz,... Hau guztia ahalegin emozionalaren zati bat baino ez da, baina batzuek etxeko zereginen sartzeara eskatzen dutena (BILBOKO UDALA, "Partekatzea, partitzea, banatzea", Emakumearen Udal zerbitzua, Bilbo, 2002ko martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, 5. or. Ikerketa honen arabera, karga emozionala "es la parte de aquél en la que más energía y tiempo consumen las mujeres. Requiere una disponibilidad tal, que disminuye enormemente la posibilidad de tener privacidad, tiempo y espacio para sí, así como guardar energía para el desarrollo del propio ciudadano y crecimiento"). DURÁN, M^a A., "El cuidado de niñas/os: afecto y contabilización de recursos", in *La contribución del trabajo no remunerado a la economía española: alternativas metodológicas*, op.cit., 202-225. orr.

- Denak aipatzen zail diren zereginak sartzen dira barruan, era askotakoak direlako eta egiteko modu desberdinak dituztelako.
- Espazio pribatuan egiten da.
- Ez dago ordutegirik, eguneko 24 orduetan prest egon behar da.
- Ez dago atsedean egunik ezta oporraldirik ere.
- Ez dago denbora mugarik, bizitza osoan zehar egiten baita.
- Ez du ordain-saririk.
- Ez du lan zuzenbidean aitortzen legez agerikoa izan dadin, edo amatasun, ezintasun edo erretiroko prestazioak, besteak beste, jasotzerik izan dezan lan hori egiten duenak.

2.3. ETXEKO LANA ERAKUNDEEK AITORTZEA

Erakundeetako zenbait ekimenen bidez etxeko lan ordaindu gabea aitortzen hasiak dira eta ekonomikoki kuantifikatzearen alde egin dute. Horrek etxeko ekoizpena ezkututik ateratzea eta Barne Produktu Gordinean hipotetikoki sartzearen eragina ikustea ahalbidetzen du.

Hainbat ebazpen, ekimen eta proposamen hartu dituzte nazioarteko eta Europako erakundeek laurogeiko hamarkadatik hona

1. Nazioarte mailan behintzat dagoen oinarrizko erreferentzia NBEko Batzar Nagusiaren 1980-1985 urteetarako Ekimen Programaren 35/136 Ebazpena da. Bertan, etxe barruan zein etxetik kanpo, emakumeen gizarte eta ekonomiako paperen azterketarako eta kontzeptualizaziorako kontzeptu eta tresna batzuk berraztertu beharra berresten da. 1985etik aurrera, emakumeari buruzko hirugarren eta laugarren Batzarrek mugarrira ezartzen dute emakumearen ezkutuko lana nazioarte mailan aitortzean. Hala, emakumeari buruzko Nazio Batuen III. Konferentziak (Nairobi, 1985) proposamen batzuk egiten ditu lan ordaindu gabea, gehienetan emakumeek egiten dutena, estatistika ofizialetan eta estatuetako kontabilitateetan jaso dadin. Adierazpen horiei jarraituz, Europako Parlamentuak 1993ko uztailaren 23an Ebazpen bat onartu zuen estatu-kideek etxeko lana ekonomikoki baloratu zezaten eta datu horiek BPGan jaso zitezten.

Hamar urte geroago, Nazio Batuen IV. Konferentzian (Beijing, 1995) gobernuek euren egitura ekonomikoaren interpretazioa aldatzeko konpromisoa lortu zen, baita lan ordaindu gabea kuantifikatzekoa eta baloratzekoa ere¹⁷.

Harrezkero, gobernu eta administrazio batzuk kontu sateliteak sortzen hasi ziren emakumeen ezkutuko lanaren benetako balioa islatzeko, etxeko eta familiako lanarena alegia¹⁸.

Ekimen hauek oinarrizkoak dira, eredu industrialean nazioartean onartutako kontzeptu eta diskurtso sozio-ekonomikoek emakumearen lana ezkutatu egin baitute. Androzentrismoz kutsatutako balioetan antolatu da, alde batetik femeninoa, etxekoa eta pribatua lotuz, eta bestetik maskulinoa, lanekoa eta publikoa. Gauzak horrela, etxekoandreak "populazio ez-aktiboaren" barruan daude ezkutatuta, lehen esan den bezala, aberastasun nazionala sortzen duen rol hori duten emakumeak ezkutuan utziz, "ez-aktibo" ezer egiten ez duena baita. Hortaz, funtsezkoa da lan izaera hori aitortzea aberastasun nazionalan egiten duen ekarpena kontuan har dadin eta emakumeen jarduera tasa haz dadin. Lan estatistiketan erabat kontuan edukiko balitz, jarduera ekonomikoaren maila handitu egingo litzateke (%10-20 bitartean). Eta familiako betebeharrak estatuetako kontuetako sistemetan jarduera produktibotzat hartuko balira, munduko BPGaren balioa %25-30 bitartean haziko litzateke eta emakumearen parte-hartze tasa gizonarenaren parekoa edo handiagoa izango litzateke¹⁹.

2. Gure inguruari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan aho batez onartu zen Eusko Legebiltzarrean 1996ko apirilaren 19an aurkeztu zen Legez besteko Proposamen

¹⁷ Pekineko Konferentzian 1995eko irailaren 15ean onartu zen Jarduerako Plataformako H helburu estrategikoa, g) atala, Espainiak sinatua eta 2000ko ekainean New Yorken berraztertua. Ikusi Pekinen berdintasuna, garapena eta bakea izenburupean izan zen emakumeari buruzko munduko IV. Konferentziaz Europako Parlamentuak emandako Ebazpena (DOCE 269/146, 1995eko urriaren 16koa). Ikusi CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL, "Seguimiento y aplicación de la Declaración y la Plataforma de Acción de Beijing y de los resultados del vigésimo tercer período extraordinario de sesiones de la Asamblea General", Nazio Batuen Erakundea, 2001eko maiatzaren 31. Beijingeko Deklarazioaren eta Jarduera Plataformaren jarraipenaz eta aplikazioaz idazkari nagusiak Batzarrari, Emakumearen Baldintza juridiko eta Sozialen Batzordeari eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari aurkeztutako txostena.

¹⁸ Kontu satelitei buruz, IPIÑA, A., "Las cuentas satélites consolidan los sistemas de información sociales y ambientales", *Fuentes estadísticas. Estadísticas regionales*, 35. zk., 1998ko maiatza. Ikusi LLORENS, L., "El Plan vasco de estadística 2001-2004", *Revista Fuentes Estadísticas. Fuentes autonómicas*, 44. zk., 2000ko maiatza.

¹⁹ LANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEAREN arabera, "Emakume oro da langile", Informazio publikoko Kabinetean (2002ko apirila). Honen iturriak honakoak dira: Etorkizuneko erronkak izenburupean egin zen emakumearen laneko berdintasunari buruzko nazioarteko fororako prestatutako eskualdeetako txostenak, Lan Ikerketetako Nazioarteko Institutua (Geneva, 1994ko ekaina); emakumeak garapenean duen paperari buruzko mundu mailako Ikerketa, Nazio Batuek (New York, 1995); eta LANeko Laneko Estatistiken Urtekaria eta Laneko Estatistiken Buletina.

bat: "EAEko etxeko lan ordaindu gabearen neurketa kuantitatiboari, lan hori Elkartearen kontu ofizialetan sartzeari, balioesteari eta gizarte-politiketan txertatzeari buruzkoa". Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak Legebiltzar Taldeak aurkeztu zuen 1996ko martxoaren 23an²⁰. Legez besteko Proposamen honetan Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio lehenbailehen, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, EUSTATen bidez, parte har dezala etxeko lan ordaindu gabeari buruz eztabaidatzen den arlo desberdinetako foroetan eta lan hori neurtzeko metodologia espezifikoak onar dezala, eta ondoren jarduera horren kontu espezifikoak egin ditzala etorkizunean EAEko kontu ofizialetan sartzeko. Azterlan horiek hurrengo Estatistikako Euskal Planean sartu beharko dira. Laneko denbora zertan erabiltzen den jakiteko azterkete-tan sakontzea ere aurreikusten da, euskal herritarrek egiten dituzten lan ordainduen zerrenda bat ere eginez. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, halaber, sail desberdinen jardunean etxeko lan ordaindu gabeak duen papera kontuan izateko eta baloratzeko politikak susta ditzala, eta kontuan izan ditzala gaur egunean gizarte mailan garrantzi handia duten eta puri-purian dauden politika orokorretan dituen era-ginak, lan, osasun, gizarte zerbitzu arloan eta abarretan, [...]."

Emakundek "Enplegua, Prestakuntza eta Lan Harremanak" direla-eta aurkeztutako II. Planean, 1.1.6. Jardueran zera proposatzen du: "LANEK ezarritakoaren ildotik, etxeko lana balioesteko sistemak eta EAEko BPGan egiten duen ekarpena garatu eta aplikatu" behar direla "emaitzak aldizka agertzen diren aldizkarietan argitaratuz". Horrela, Estatistikako Euskal Planek "Denborako Aurrekontuen Inkestak" egiten dituzte eta ber-tan biltzen etxeko jarduera ordaindu gabeei buruzko estatistikak²¹.

EUSTATEk aurkeztutako etxeko ekoizpenaren kontu sateliteari buruzko emaitza nagusi-enen artean, 1998an BPGan kontabilizatu gabeko Euskal Herriko etxeko produkzioak 2,2 bilioi pezetako balioa izango luke, hau da BPGaren %40²². Nazioarte mailan, EUROSTATEk etxeko ekoizpena kuantifikatzeko gomendatzen duen metodologia apli-katzen duen institutu bakarretarikoa da eta Europa mailan lehena.

Ildo berari jarraituta, Kataluniako Parlamentuak onartutako 1997ko apirilaren 28ko 293/V Ebazpena, eta Diputatuen Kongresuan talde parlamentario guztiek 1998ko maiatzaren 10ean onartutako Legezko besteko Proposamena (etxekoandreek eginda-ko lana aitortu eta estatuko BPGan kuantifikatu ahal izateko kontu satelite batean sar-

²⁰ Zuzenketak egin zitzaizkion apirilaren 12an (ikusirik onartutako testu osoa 1996ko maiatzaren 6ko aldizkari ofi-zialean).

²¹ EUSTAT, *Metodología para una cuenta satélite de producción doméstica*, 38. koaderno, 2000.

²² Iturria: EUSTAT. <http://www.eustat.es>.

tzekoa) daude. Horrez gain, Europa mailan, 1975ean Europako Batzordea etxeoandreei babes juridikoa ematearen alde agertu zen²³ eta Europako Parlamentuak 1993an soldatarik gabeko emakumeen lanari buruzko Ebazpen bat onartu zuen²⁴.

Kataluniari dagokionez, Institut Català de la Dona erakundeak, 2001eko urriaren 5ean eta 6an izan ziren Jardunaldietan, Josep M.Comajuncosa, Francisco Loscos eta Ignacio Serranok egindako ikerketa bat aurkeztu zuen Prefaci a l'elaboració del comptes satèl·lits de la producció domèstica per a Catalunya. Estimació de l'efecte d'incloure la producció domèstica dins del PIB" izenburupean. Lan honen arabera, etxeoandreearen soldata hipotetikoaren balio ekonomikoa urtean 3.127.235 pezetakoa izango litzateke, astean 53,8 ordu lan egiteagatik. Azpimarragarriak dira, halaber, CESICek eta Emakumearen Institutuak ekonomia eta soziologiaren ikuspegitik egindako ikerlan zabalak etxeo ekoizpena ezkututik ateratzeko²⁵. Jarduera hori kopurutan jartzea etxeo lanen atzean dagoen ahalegina aitortzeko era bat da.

Era berean, garrantzi handikoak dira aukera berdintasunerako udal planak ere. Bilboko Emakumearen Udal Zerbitzuak 1997ko apirilaren 17an jarri zuen lehen Plana martxan eta 2001aren amaieran bukatu zen. Gaur egunean aukera berdintasunerako II. udal plana ari dira jorratzen, eta helburua udalerraren beharrezan diagnostikoa egitea da, Bilboko gizonen eta emakumeen artean berdintasunari dagokionean eskaririk eta hutsunerik nagusienak zeintzuk diren jakiteko. Emakumearen Nazioarteko Egunean, liburuxka bat argitaratu du "Partekatzea, partitzea, banatzea" izenburupean, aukera berdintasunean gizonek ez dutela emakumeek egin duten bidea egin erakusteko eta etxeo lanez kontzientziatzeko. Biek kanpoan lan egiten badute, etxean ere lanak eta erabakiak banatu egin behar dituzte²⁶. Ekimen honetan beste hau ere azpimarratu behar dugu: etxeoandreek/etxekogizonek egiten dituzten lanei izaera hori aitortzeko egiten den aldarrikapena.

Hortaz, ikusten dugu aginte publikoetan eta beste erakunde mota askotan etxeo lanaren aitortpen ekonomikoa egiteko mugimendu bat badela. Ona litzateke lan horren balioaren inguruan kopuru adostu bat egotea. Berez eragin psikologiko nabarmena edukiko luke, emakumearen mendekotasuna hautsi egingo bailitzateke, nahiz eta

²³ Annuaire europeen vol. XXIII, 1977, Resolution sur la securité sociale de la femme au foyer de 1975eko azaroaren 12a.

²⁴ DOCE 194/389, 1993ko ekainaren 25a.

²⁵ Beste batzuen artean hemen argitaratuak: DURÁN HERAS, M^a Ángeles, *La contribución del trabajo no remunerado a la economía española: alternativas metodológicas*, op. cit.

²⁶ Oso interesgarria da etxeo ardurak eta lanak trukatzeko lantegiak martxan jartzea, ardurakidetzarako trebetasunak garatzen baitira. Ikusi BILBOKO UDALAK argitaratutako "Partekatzea, partitzea, banatzea", op.cit. liburuxka.

inolako ordainsaririk ez jaso. Gure helburua honakoa da: *zuzenbidearen ikuspegitik nork bere etxean egiten duen lana berraztertzea, Zuzenbideak merezi duen trataera eman diezaion.*

OHARRA: Lan honetan zehar, etxekoandreaki aipamen egingo zaio hizkuntza ez sexista erabiliz, izan ere, gutxiengoa badira ere, badaude etxeko lanak oso-osorik edo neurri batean egiten dituzten gizonezkoak ere. Gauzak horrela, gure planteamendua etxeko lana juridikoki onartzea da, egiten duenak egiten duela.

Lehenengo zatia
**ETXEKOANDREAREN/
ETXEKOGIZONAREN LANA LAN
ZUZENBIDEAREN IKUSPEGITIK**



1. LEHENENGO HURBILKETA

Hemen hasten dugun ikerlan honek gure gizartean sortu den eztabaida bati heldu nahi dio, alegia, etxeakoandreak/etxekogizonak etxean egiten duen lana aintzat har dakion eskubiderik duen ala ez. Ez da gure helburua, ordea, auzi honetan gizarte eta ekonomia aldetik sakontzea; azterketa juridikoa egin nahi dugu, pertsona hauek familiegunean betetzen duten zereginaren kalifikazioaren gaineko azterketa juridikoa, hain zuzen ere. Honen guztiaren azpian eztabaida sakona dugu: badu etxeakoandreak/etxekogizonak egiten duen lanaren ordainean soldata jasotzeko eskubiderik? Nolatan ez du, lan egin arren, lan arloko eskubiderik: ez erretirorik, ez amatasun laguntzarik, ez bestelako prestaziorik?

Auzia uste baino korapilatsuagoa da, izan ere, etxeakoandreei/etxekogizonei legezko eskubideak aitortzeko lehendabizi Langileen Estatutuko langileen kategorian sartu beharko ditugu eta ikusi ea betetzen dituzten horretarako eskatzen diren baldintzak; eta besteren konturako langileak ez badira edo izan ezin badira, aztertu beharko dugu ea haien harremana lan harreman berezizat jo litekeen eta, azken aukera hori ere ezetsiz gero, langile autonomotzat har genitzakeen. Ikerlan honek, azken finean, etxeakoandreei/etxekogizonei egiten duten lana eta lan horren ondoriozko eskubideren bat behintzat aitortzeko bide juridiko bat bilatu nahi du.

Jakin badakigu hona dakartzagun proposamenak elkarren kontrako ikuspegietatik ikus litezkeela. Batzuei aurrerakoiegiak eta, hortaz, utopia hutsa irudituko zaizkie eta beste batzuei, ordea, atzerakoiak, emakumea berriz ere etxean gordetzera daramatenak, emakumea lan merkatuan sartzeko eta etxeako lanak gizonaren eta emakumearen artean banatzeko orain arte egin diren ahalegin guztien kontrakoak. Gure helburua, baina, zera da, etxeako lanak egitea hautatu duenaren lana gizartean ez ezik juridikoki ere balioetsi dadin lortzea, beste inoiz proposatu diren zenbait neurritan oinarrituta. Uste osoa dugu etxeako lanaren balioespen juridikoa ezinbesteko oinarria dela lan hori gizartean aintzat har dadin, are gehiago kontuan hartzen baditugu lan honen balioespen ekonomikorako egin diren lehen urratsek erakutsi dizkiguten kopuruak, izan ere, EUSTATen datuen arabera, Euskadin, 1998ko BPGan zenbatu gabeko etxeako lanak 2,2 bilioi pezetako balioa du, BPGaren % 40, alegia.

2. ETXEKOANDREAREN/ ETXEKOGIZONAREN LANAREN IZAERA JURIDIKOA LAN ZUZENBIDEAN

Lanari ekiteko, etxeakoandreairene/etxekogizonaren lanaren definizio hau proposatzen dugu: familia-guneko kide batek *bere familia-guneak eta berak bizitzeko dituzten oinarrizko beharrianak asetzeko bere etxean egiten dituen etxeko lanen multzoa*. Lan horren funtzioak abuztuaren 1eko 1424/85 Errege Dekretuaren arabera zehazten dira, dekretu horrek arautu baitzuen Familia-etxearen Zerbitzurako Lan Harreman berezia. Hortik abiatuta, harreman hori lan zuzenbidean kokatzen saiatuko gara. Horretarako, *a priori* subjektu hauek har litzaketen harremanak aztertuko ditugu banan-banan, haietako bakoitza ezesteko edo baiesteko arrazoi juridikoak emanez, azkenean, etxe-koandreairene/etxekogizonaren lana juridikoki kokatzeko.

2.1. ETXEKOANDREAREN/ ETXEKOGIZONAREN LANA ETA BESTEREN KONTURAKO LANA

2.1.1. BESTEREN KONTURAKO LANA. BERAU DEFINITZEN DUTEN EZAUGARRIAK

Banakako lan harremanak lan kontratuaren bidez gauzatu ohi dira. Langileen Estatutuan ez dago halako harremanen definiziorik. Soldatako langileen lehen legezko aipamena Kode Zibileko 1583. artikuluan eta hurrengoetan agertu zen, baina soldatako langilearen legezko kontzeptua ez zen finkatu harik eta lan arloko zenbait lege onartu arte. Izan ere, 1900eko Laneko Istripuei buruzko Legearen 1. artikuluan langilea nor zen zehaztu zen; 1926ko Lan Kodean, lan kontratua definitu zen eta 1931ko eta 1944ko Lan Kontratuari buruzko Legeetan gauza biak. Horien bidez joan zen finkatzen soldatako langilearen kontzeptua legerian. Gaur egun, *besteren konturako langilea* terminoaren legezko definiziorik ezean, harreman horren ezaugarriak ezagutzeko bere aplikazio eremura jo behar dugu, hau da, Langileen Estatutuaren 1.1 artikulura.

Testu horretan xedatutakoaren arabera, banakako lan harremana honako hau da: *aquella por la que un trabajador, de forma voluntaria, presta sus servicios retribuidos por cuenta ajena y dentro del ámbito de dirección y organización de otra persona, física o jurídica, denominado empresario.*

Hortaz, besteren konturako langilea izateko eta Langileen Estatutuaren aplikazio eremuaren barruan egoteko edo, bestela esanda, langileari haren xedapenak aplikatu ahal izateko, lanak ezaugarri hauek bete behar ditu: pertsonala izatea, borondatezkoa izatea, menpekoa izatea, besteren konturakoa izatea eta ordaindua izatea.

Subjektu bati langile edo enpresaburu maila esleitzea eragin handikoa da Lan Zuzenbidean, lan kontratua bera baino garrantzi handiagokoa. Langile kontzeptua aztertzea Lan Zuzenbidearen eremu subjektiboa edo aplikazio eremua agertzea da, beste barik. Langile kontzeptua kontratuaren subjektuari dagokio, noski, baina besteren konturako langilea izatearen ondorioz, harreman sindikaletako subjektu ere bihurtzen da, baita Gizarte Segurantzaren onuradun ere. Ekonomiaren ikuspuntutik, enplegu eskatzaile moduan edo *biztanle aktibo* moduan azter liteke; eta kontzeptua ikuspegi politiko edo soziologikotik erabili ahal balitz, langileriaren barruan sartuko litzateke. Hori dena kontuan hartuta, azpimarratzekoa da nolako garrantzia duen langilearen figurak lanaren ordenamendu juridikoan¹. Enpresaburuaren figura, ikusiko denez, langilearena aipatzean sortu da.

Azter ditzagun, bada, langilearen figurak bete behar dituen baldintzak eta ikus dezagun ea etxeoandreairenen/etxekogizonaren figuraren ezagutza juridikoak biderik ematen digun figura hori Langileen Estatutuaren 1.1 artikuluan aipatzen den besteren konturako lanean sartzeko.

a. Pertsonala izatea. Ezaugarri honen arabera, langileak berak egin behar du lana, bera izan da kontratatua lan hori egiteko eta berak egin behar du. Lan kontratuaren figura zehaztean, kontratuaren izaera pertsonala azpimarratzen da, izan ere, langileak berak eman beharreko zerbitzuaren inguruan egiten baita kontratua, hortaz, lan hori beste pertsona batek egin ahal badu eta egiten badu, horri ez zaio lan kontratuaren figura aplikatuko, zeren legeak berak, Langileen Estatutuaren 1. artikuluan, *beren* zerbitzuak ematen dituzten langileak aipatzen baititu, beraz, lana beste pertsona batek egiten badu hortik kanpo geratzen da –1983ko irailaren 28ko Auzitegi Gorenaren Epaia, Aranzadi. 5129, eta 1986ko ekainaren 7ko AGE, Aranzadi. 3487–. Jurisprudenziak lan zerbitzuaren baldintza hori malgutu du salbuespen moduan, kontratu harremana ezartzeko eta garatzeko langilea nor den axolarik gabekoa izan dene-

¹ PALOMEQUE LÓPEZ, Manuel Carlos, *Derecho del Trabajo*, 7. arg., Centro de Estudios Ramón Areces, 1999, 634. or.

an -1987ko irailaren 28ko AGE, Aranzadi. 6402 eta 1992ko uztailaren 24ko AGE, Aranzadi. 5655-².

b. Borondatezkoa izatea. Lan harremana askatasunez eta borondatez hartu behar da. Ezaugarri honek Langileen Estatututik kanpo uzten ditu nahitaezko prestazio pertsonalak, hala nola, soldadutza, gaur egun desagertua; hauteskunde-mahaian parte hartzea hauteskundeetako bozketak direnean; epaimahaiko kide izatea, etab.³. Adibide horietan guztietan lan eginaren ordainsaria hartzen den arren, ez dago borondatezkotasunik, hots, lan horiek egiten dituzten subjektuek behartuta egiten dituzte, ez egiteak zehapena baitakar.

Borondatezkoa izateak beste ondorio bat du, langileak nahi duenean amaitutzat eman dezakeela lan harremana, lan kontratua aldi baterakoa zein behin betikoa izan, enpresaburuak errepresalia ekonomikorik hartu gabe. Salbuespen bakarra dago: lan kontratuan langileak enpresan irauteko ituna egiten badu enpresaburuarekin⁴, hartu duen konpromiso hori ez betetzeagatik sortutako kalte-galeren ordaina eman beharko dio enpresaburuari.

c. Ordaindua izatea. Besteren konturako lana ordaindua izan behar da beti. Ordainsaria diru kopuru finko samarra da, gutxi gorabeherako maiztasun jakin batez ordaintzen dena eta, lanean emandako denboraren arabera, lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa ezin izan litekeena. Langileen Estatutuaren aplikazio eremutik kanpo geratzen dira adiskidantzazko, onginahizko edo auzo lanak.

Hala, bada, ordainsaria da langilea lan egitera bultzatzen duen motibazio nagusia. Motibazio nagusia onura ekonomikoa lortzea bada, lana kostubidezkoa da. Motibazio nagusia altruista bada -beste pertsona batzuei laguntzea edo lagundu beharrekotzat

² MONEREO PÉREZ, José Luis, "Comentario al artículo 1, párrafo 1º del ET", in *Comentario al Estatuto de los Trabajadores*, Comares, 1998, 5-6. orr.

³ Ekainaren 19ko (ekainaren 20ko BOE) Hauteskundeen Araubide Orokorren 5/1985 Lege Organikoko 27. artikulua. Maiatzaren 22ko (maiatzaren 23ko BOE) Zinpekoen Epaimahaiaren 5/1995 Lege Organikoko 6. eta 7. artikulua. Baita Soldadutzaren 13/1991 Lege Organikoa, abenduaren 20koa, (abenduaren 21eko BOE), eta Kontzientzia-eragozpena eta ordezkotza-gizarte-zerbitzua arautzen duen 22/1998 Legea, uztailaren 6koa (uztailaren 7ko BOE), baina 2001eko abenduaren 31ra arte bakarrik, soldadutza-prestazioaren etendura arautzen duen martxoaren 9ko 247/2001 Errege Dekretuan (martxoaren 10eko BOE) eta soldadutzaren ordezkotza-gizarte-zerbitzua egitea eteten duen apirilaren 4ko 342/2001 Errege Dekretuan (apirilaren 17ko BOE) aurreikusten denez. Bestalde, kontuan hartu behar da Zigor Kodeko 49. artikulua komunitatearen onurako lanen zigorra arautzen duela eta nahiz eta halako zigorrak ezingo diren jarri zigortuaren baimen barik, zigortua behartuta dagoela onura publikoko jardunetan ordaindu gabeko laguntza ematen.

⁴ Langileen Estatutuko 21.4 artikulua: "Cuando el trabajador haya recibido una especialización profesional con cargo al empresario para poner en marcha proyectos determinados o realizar un trabajo específico, podrá pactarse entre ambos la permanencia en dicha empresa durante cierto tiempo. El acuerdo no será de duración superior a dos años y se formalizará siempre por escrito. Si el trabajador abandona el trabajo antes del plazo, el empresario tendrá derecho a una indemnización de daños y perjuicios".

jotzen den ekimen baten alde lan egitea– lana onginahizkoa edo mesedezkoa da. Ordain ekonomikoa jasotzea da, jakina, besterentzako lan egiteko motibaziorik hedatuena; izan ere, garai batean nahitaezko lanean jartzen ziren zehapen edo zigorrak hartzeko beldurra motibazioa bazen ere, lan askatasunaren ondorioz beldurraren motibazio hori galdua dago⁵.

d. Mendekoa izatea. Mendekotasunak esan nahi du enpresaburuaren agintearen mendean lan egitea zuzendaritzari eta diziplinari dagokienez. MONEREOren esanetan mendeko lana da gizon batek agintezko harreman juridiko batean egiten duena. Hark dioenez, *la dependencia es configurada en el sistema del ET como heterodirección de la prestación de trabajo*⁶. Gauzak horrela, mendekotasunezko ezaugarri honek kanpoan uzten ditu langile autonomoak –Langileen Estatutuko 1. Azken Xedapena: estatutu honetan bertan haientzat ere arautzen diren kontuetan izan ezik–.

Mendekotasunaren kontzeptu estutik –mendekotasun ekonomikoa eta mendekotasun teknikoa– kontzeptu malguago batera pasatu da eta gaur egun zera ulertzen dugu mendekotasuntzat: enpresaburuaren artezkaritza, antolakuntza eta diziplina zirkuluan lan egitea. Mendekotasun horren zantzuak edo agerkariak era honetakoak izaten dira: enplegu emailearen lokaletan lan egitea, lanaldi osoa eta ordutegi erregularra betetzea, enplegu emaile bakarrarentzat lan egitea, enpresaburuaren aginduetara lotuta egotea, enpresaburuaren kontrola eta zaintza etab. Baina doktrina eta jurisprudentziatzko irizpide bateratsuek erakusten digute halako zantzurik egon barik ere gerta daitekeela mendekotasuna egotea. Hala, hasiera baten euren ezaugarriengatik Langileen Estatutuaren aplikazio eremutik kanpo gelditzen ziren lanbide batzuk eremu horretan sartu dira, hala nola, banatzaileak, gidari turistikoak eta zenbait lanbide liberal. Lan horietan guztietan ez dago mendekotasun esturik zaintzari dagokionez, enpresaburuak ez baitu langileak nola lan egiten duen gertutik zaintzen. Modu bateratsu berean ulertu behar da ez dagoela zertan mendekotasunik egon, horren zantzu batzuk egon arren.

e. Besterena izatea. Besterena izate hori bi modutara ulertu izan da doktrinan: fruituak besterenak izatea –ALONSO OLEA– edo arriskuak besterenak izatea. Lehenengo teorian ulertzen da lanaren fruituak hasiera-hasieratik langilearenak ez beste pertsona batenak direla. Bigarrenean, berriz, ulertzen da lanaren arriskuak ez zaizkiola inoiz langileari egotzi behar, lana agindu duenari baizik, enpresaburuari alegia. Besterentasuna arriskueta jartzen duen teoria gainditua dago, zeren eta arriskuen besterentasuna

⁵ MARTÍN VALVERDE, Antonio; RODRÍGUEZ-SAÑUDO GUTIÉRREZ, Fermin eta GARCÍA MURCIA, Joaquín, *Derecho del Trabajo*, 7. arg., Técnos, 1998, 46. or.

⁶ MONEREO PÉREZ, José Luis, "Comentario al artículo 1, párrafo 1º del ET", in *Comentario al Estatuto de los Trabajadores*, op. cit., 7. or.

fruituen besterentasunetik banaezina baita. Hau da, lanaren fruituak langilearenak ez badira, langilea ezin liteke izan lanaren arriskuen erantzulea. Lanaren fruituen kontzeptua ere gaindituta dago gaur egun eta, horren ordez, "ondare-baliagarritasun" terminoa erabiltzen da, ondasunak eta zerbitzuak hartzen dituenak. Ikuspuntu honetatik esan daiteke, 'besterena izatea' ezaugarria aipatzen denean zera eman nahi dela aditzera, lanaren ondare-baliagarritasuna *ab initio* langilearena ez beste pertsona batena dela, enpresaburuarena hain zuzen ere. Lanaren emaitza fruitu batean gauzatzen bada eta fruitu horretaz jabetzerik baldin badago, lanaren onuradunak hartuko du fruitu horren jabetza. Lanaren emaitza zerbitzu ukiezina bada eta, beraz, hartaz jabetzerik ez badago, edo erakunde bati egindako ekarpen ukiezina bada ere, besterena izaten jarraitzen du, zeren eta lana antolatu eta burutzen baita ez langilearen beharrianak edo komenientziak asetzeko, baizik zerbitzuen onura jasotzen duen pertsonarenak edo erakundearenak asetzeko. Dena dela, besterena izateari buruzko teoria desberdinak errealitate berberaren ikuspegi desberdinak baino ez dira. -1997ko martxoaren 31ko AGE, Aranzadi. 3578-.

Besterentasunaren ezaugarri honen barruan ulertu behar dugu, halaber, langileak ordainsari finko eta ez aldakorra bermatuta edukitzea, enpresaren emaitzak direnak direla ere. Ezaugarri honen malgutzeak arlo honetan ere izan ditu ondorioak; izan ere, langileak ordainsari aldakorra jaso dezake (soma, komisioak, errendimendu plusak) eta irabazietan eta kapital sozialean esku har dezake -2000ko maiatzaren 30eko AGE, Aranzadi. 6889-.

2.1.2. KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ezinbestekoa da ezaugarri horiek guztiak agertzea harreman bat besteren konturako lan harremantzat jotzeko -Langileen Estatutuko 1.1. artikulua-; nahikoa da haietako bat ez gertatzea harreman hori Langileen Estatutuaren aplikazio eremutik kanpo geratzeko. Are gehiago, Langileen Estatutuak bere aplikazio eremutik kanpo uzten du 1.1. artikuluan definitzen denaz bestelako harremanaz egiten den lan oro eta, besteren konturako lantzat har litezkeen baina gorago aipatu ditugun ezaugarrietakoren bat faltan izateagatik kalifikazio horretatik kanpo geratzen diren lan batzuk aipatzen ditu.

Hala, bada, Langileen Estatutuaren aplikazio eremutik kanpo geratzen dira honako harreman hauek: funtzionario publikoen zerbitzu harremana, Funtzio Publikoaren Estatutuak arautuko duena, baita Estatuaren, toki erakundearen eta autonomia erkidegoetako erakunde publikoen zerbitzura dauden langileena ere, harreman hori, lege baten babespean, administrazio edo estatutu arauen bidez araututa badago; nahitaezko gizarte prestazioak; juridikoki sozietate bezala eratuta dauden enpresetan kontseilari edo administrazio organoetako kide direnen jarduera, enpresan karguari dagozkion zereginak bakarrik eginez gero; adiskidantzazko lanak, onginahizkoak eta auzo-

lanak; familiakoen lanak, lan horiek egiten dituztenak soldatako langileak direla frogatu ezik – familiakotzat joko dira, arlo honetako ondorioetarako, eta enpresaburuarekin bizi badira, ezkontidea, ondorengo, aurreko eta gainerako odoleko zein ezkontza bidezko ahaideak, bigarren mailaraino, berau barne, eta adopziozkoak, halakorik balego⁷; enpresaburu baten edo gehiagoren kontura egindako merkataritzako eragiketetan parte hartzen duten pertsonen jarduera, pertsona horiek eragiketaren arriskua eta zoria haien gain hartzen badute eta eragiketaren bukaera onaren erantzule badira; azkenik, lan eremu honetatik kanpo geratzen da prezio jakin batekin garraio zerbitzua ematen dutenen lana, zerbitzua emateko administrazioaren baimenaren titularrak badira eta zerbitzua egiteko erabilitako zerbitzu publikoko merkataritzako ibilgailuak haien jabetzakoak badira edo haiek erabiltzeko ahalmen zuzena badute, nahiz eta zerbitzuak zamaketari edo merkatarari berarentzat egin luzarotan.

Langileen Estatutuko 1.3e artikuluari⁸ erreparatu behar diogu arretaz. Artikulu honek kanpoan uzten ditu familiakoen lanak, lan horiek egiten dituztenak soldatako langileak direla frogatu ezik. Legezko pasarte hau enpresaburuaren hurreko ahaideek negozioan edo ustiapenean egin ohi duten lanaz ari da –ahaidetasuna Kode Zibileko 915. artikuluan eta hurrengoetan zehazten da–. Halako lanak sarri izaten dira merkataritzan eta ostalaritzan eta, printzipioz, ez daude lan araudiei lotuta; gainera, Langileen Estatutuaren aplikazio eremutik kanpo gelditzeko, beste baldintza bat ere badago: enpresaburuarekin bizikidetzat fisikoa izatea, eta honetan bizikidetzat fisikoa ez ezik, ekonomi mendekotasuna ere uler daiteke. Kanpo uzte hau familiako kide izateak dakartzan betebeharrak eta eskubideetan datzala argudiatu izan da; izan ere, familia ez da bizikidetzako unitatea bakarrik, ekonomi eta kudeaketa unitatea ere bada –Kode Zibileko 1375. artikulua–. Aurreuposatzen da lan horren fruituak edo emaitzak ondare komunera doazela, familiako kargei aurre egiteko edo ahaideen arteko mantenu-beharrak betetzeko –Kode Zibileko 142. artikulua eta h.–. Ezin daiteke esan halako lanean besterentasunik dagoenik, denen jabetzako den funts bati ekarpena egiten zaiola

⁷ Etxeko langileentzako Konstituzio Auzitegiaren Epaiak: 09/1988, ekainaren 8koa, -ekainaren 25eko BOE-; 79/1991, apirilaren 15ekoa –maiatzaren 14ko BOE-; 92/1991, maiatzaren 6koa –maiatzaren 29ko BOE-; 2/1992, urtarrilaren 13koa –otsailaren 13ko BOE- eta 59/1992, apirilaren 23koa –maiatzaren 13ko BOE-. Beste alde batek, enplegua sustatzea eta kalitatea hobetzea helburu dituen lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 9ko 12/2001 Legeko 8.1b artikulua bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu Langileen Estatutuko arau honetan aipatzen diren kontratazioak.

⁸ Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 7.2 artikulua, bere aplikazio eremuaz dio ez direla besteren konturako langiletzat joko, honen aplikazio eremurako, kontrako frogarik ezean, honako hauek: enpresaburuaren lantokian edo lantokietan lan egiten dutenen artean, enpresaburuaren ezkontidea, ondorengo, aurreko eta gainerako odoleko zein ezkontza bidezko ahaideak, bigarren mailaraino, berau barne, eta adopziozkoak, halakorik balego, enpresaburuaren etxean harekin bizi badira eta haren kargu badaude. Ezkontidearen esklusioan sakontzeko ikusi 2/1992 Konstituzio Auzitegiaren Epaiak, urtarrilaren 13koa –otsailaren 13ko BOE-. Ikusten denez, ahaideen lana ez da besteren konturako lantzat hartzen halako ondorioetarako, baina altan eman behar da Langile Autonomoen Erregimen Berezian.

baizik, zeren eta ez baita beste batentzat lan egiten, norberaren familiarentzat baino –1990eko urriaren 29ko Auzitegi Gorenaren Epaia, Aranzadi. 7721 eta 1991ko urriaren 7ko Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaia, Aranzadi. 5518–. Halako lanetan, mendekotasun ezaugarria ere ez da betetzen: nahiz eta lana ahaide batek antolatu eta familia-boterearen mende egon, ez dago enpresaburuak izaten duen zuzentzeko edo diziplinazko ahalmen juridikorik –1996ko maiatzaren 23ko Kantabriako Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaia, Aranzadi. 2226–. Horrela ulertuta, Langileen Estatutuko 1.3e artikuluko arauak soldatuko lanaren nozioa argitu baino ez du egiten⁹.

Esanak esan, aipatu araua *ius tantom* presuntzioa da eta familia-gunea besterik ez du hartzen zentzu hertsian¹⁰. Hala ere, lan arloko jurisprudentziak eta doktrinak eskklusioa beste maila batzuetara zabaltzea onartu dute: bigarren mailatik gorako ahaideetara, ahaide izan barik familiak bere baitan hartutako subjektuetara eta *more uxorio* bizikidetzara, ezkontzarik ez baina bizikidetzara eta interesen erkidegoa egonez gero –1996ko uztailaren 2ko Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaia, Aranzadi. 2606; 1997ko azaroaren 17ko Kataluniakoa, Aranzadi. 4465–. GORELLI HERNÁNDEZek kontrako iritzia azaltzen du; honen esanetan eskklusioa kasu honetan Langileen Estatutuko 1.1 artikuluko eskakizunak ez direla betetzen alegatuz lortu ahal da, contra legem doan interpretazio behartu bat egin barik –halaber 1996ko martxoaren 29ko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, Aranzadi. 584–¹¹.

Adostasunik handiena Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 7.2 artikuluan dago, beronek besteren konturako langileen taldetik kanpo, eta, hortaz, Erregimen Orokorretik eta haren prestazioetatik kanpo, uzten baititu Langileen Estatutuko 1.3e artikuluan aipatzen diren ahaideak, enpresaburuarekin bizi badira¹². Artikulu honek enplegua sustatzeko ezarritako dirulaguntzetatik kanpo ere uzten ditu.

Kalifikazio irizpideen artean –jurisprudentziak lan harreman bat hertsiki lan harremana den ala ez erabakitzeko jarraitzen dituen irizpideen artean–, ez dira ahaztu behar honako hauek: aldeek euren arteko harreman juridikoari edo kontratuari zer kalifikazio ematen dioten ez du axola, garrantzizko bakarra zera da, harreman horrek betebeharre dagokienez duen benetako edukia; kontratuan harremanaren benetako izaera

⁹ MARTÍN VALVERDE, Antonio; RODRÍGUEZ-SAÑUDO GUTIÉRREZ, Fermín eta GARCÍA MURCIA, Joaquín, *Derecho del Trabajo*, 7. arg., op. cit., 189. or.

¹⁰ Artikulua, itxuraz, titulartasun indibiduala duten enpresetan egiten den lanaz ari da, ez sozietate gizako enpresez.

¹¹ GORELLI HERNÁNDEZ, Juan, "Comentario al artículo 3 del ET", in *Comentarios al ET*, op. cit., 50. or.

¹² Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 7.2 artikulua: "A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, no tendrán la consideración de trabajadores por cuenta ajena, salvo prueba en contrario: el cónyuge, los descendientes, ascendientes y demás parientes del empresario, por consanguinidad o afinidad hasta el segundo grado inclusive y, en su caso, por adopción, ocupados en su centro o centros de trabajo, cuando convivan en su hogar y estén a su cargo". Ezkontidearen esklusioaren norainokoa ikusteko, ikusi 2/1992 Konstituzio Auzitegiaren Epaia, urtarrilaren 13koa –otsailaren 13ko BOE–.

mozorrotzeko sartutako klausulek ez dute inolako baliorik benetan hala direla frogatu ezean; zenbait betebeharrak betetzeak edo ez betetzeak –langilearen alta edo altarik eza Gizarte Segurantzaren erregimenean– zantzuzko balioa baino ez du; Langileen Estatutuko 8.1 artikuluan aipatzen den lan harremanaren presuntzioa¹³.

Epaileri eta auzitegiei dagokie, kasu bakoitzeko egitateak zehatz-mehatz aztertu ondoren, harremana besteren konturako lan moduan kalifikatu behar den ala ez erabakitzea, unean uneko lan egoera kontuan harturik, Lanaren Zuzenbideari dagokion legez.

2.1.3. LAN-ENPRESABURUA

Lan harreman bat besteren konturako lan harremantzat jotzeko eta, hartara, Langileen Estatutuaren aplikazio eremuan sartzeko, ezinbestekoa da, halaber, lan harreman juridikoaren beste subjektua enpresaburua izatea, baina ez merkataritzan duen zentzuan baizik eta lan-enpresaburua.

a. Enpresaburu kontzeptua Langileen Estatutuan

Enpresaburuaren definizioa argitzeko Langileen Estatutuko 1.2 artikulura jo behar dugu. Langileen Estatutuaren arabera, lan-enpresaburuak dira Langileen Estatutuko 1.1 artikuluan aipatzen diren pertsonen zerbitzuen prestazioa edo/eta legez eraturako aldi baterako laneko enpresek enpresa erabiltzaileei lagatzeko kontratatutako pertsonen zerbitzuen prestazioa jasotzen duten pertsona fisikoak, pertsona juridikoak edo ondasun-erkidegoak.

Definizio horren arabera, enpresaburuak langile baten edo batzuen zerbitzuak jasotzen ditu, haien borondatez eta mendetasunean eginak eta besteren kontura ordainduak. Beste ikuspegi batetik, enpresaburu izaera aitortzen zaio ekoizteko materialen gainean agintzeko, erabakitzeko eta kudeatzeko botereak dituenari eta ez da beharrezkoa botere horiek jabetza-eskubidean oinarrituta egotea. Ezin da enpresaburu gisa kalifikatu ahalmen horiek ez dituenak, negozioaren arriskuak bere gain hartzen ez dituenak edo langileak zuzentzeko ahalmena mugatuta duena. Argi utzi behar dugu zertan bereizten diren enpresaburuaren kontzeptuak lanaren, merkataritzaren eta ekonomia-erlortan. Lan arloko doktrinak eta jurisprudentziak ezaugarri hauekin osatu dute enpresaburuaren kontzeptua:

¹³ Langileen Estatutuko 8.1 artikulua: "El contrato de trabajo se podrá celebrar por escrito o de palabra. Se presumirá existente entre todo el que preste un servicio por cuenta y dentro del ámbito de organización y dirección de otro y el que lo recibe a cambio de una retribución de aquél".

- Enpresaburua zerbitzuak ematen diren enpresaren titularra da. Pertsona fisikoak, juridikoak, ondasun-erkidegoak eta aldi baterako laneko enpresak izan daitezke titular. Doktrina guztia ez dator bat kontu honetan: autore batzuek diote lan arlo juridikoan enpresaburuaren kalifikazioa izateko nahikoa dela langile baten zerbitzuak erabiltzea eta ez dela beharrezkoa enpresa erakunde ekonomiko baten titularra izatea. Enpresaburu mota bataren eta bestearen arteko aldea terminologian bertan ageri da: *enpresaburua* esaten zaio langileak dituen edo ez dituen enpresaren titularrari; *lan-enpresaburua* langileak dituen enpresaren titularrari; enpresaren titularra zertan izan ez duen enpresaburuari *enplegatzailea* esaten zaio lan arloko terminologia juridikoan¹⁴. Kontua zera da, enpresa baten titularra izan ala ez, enplegatzaile ala lan-enpresaburu izendatu, Lanaren Zuzenbidean norbait enpresaburutzat jotzeko gutxienez langile bat eduki behar duela bere ardurapean.
- Enpresa kontzeptuak autonomia handia du Lanaren Zuzenbidean, zeren lan-enpresa bat dagoela onartzeko langile baten edo batzuen zerbitzuak antolatzea besterik ez baita behar, bitarteko material urri edo bat ere egon ez arren.
- Gerta liteke pertsona fisiko edo juridiko bat enpresa batzuen titularra izatea eta baita pertsona fisiko edo juridiko batzuk enpresa bakar baten titularrak izatea ere. Pertsona juridikoen titularkidetasunak enpresa-taldean arazoa dakar.
- Berdin da enplegatzailearen jardueran irabazteko asmorik dagoen edo ez.
- Lanaren inguruko legerian, goian oro har azaldu diren ezaugarriekin bat ez datozen enpresaburu edo enplegatzaile bereziak aipatzen dira. Hona hemen halako kasuak: familia-etxearen titularra den enplegatzailea, familia-etxearen zerbitzurako lan harreman berezian –abuztuaren 1eko 1424/1985 Errege Dekretuko 1.3 artikulua, Familia-etxearen Zerbitzurako Lan Harreman Berezia arautzen duena–; kirol klub edo erakundea, kirolari profesionalen lan harreman berezian –ekainaren 26ko 1006/1985 Errege Dekretuko 1.2 artikulua, Kirolari Profesionalen Lan Harremanak arautzen dituena–; Minusbaliatuak Gizartean Txertatzeko Legeko 42. artikuluan definituta dauden enplegu zentro bereziak, halako langileen lan harreman berezian –uztailaren 17ko 1368/1985 Errege Dekretuko 2.1 artikulua, Enplegu Zentro Berezietan lan egiten duten Minusbaliatuen Lan Harreman Berezia arautzen duena–.

¹⁴ Mekanografa baten zerbitzuak erabiltzen dituen abokatua jartzen da zentzu ekonomikoan enpresaburu ez den enplegatzailearen adibide gisa. MARTÍN VALVERDE, Antonio; RODRÍGUEZ-SAÑUDO GUTIÉRREZ, Fermín eta GARCÍA MURCIA, Joaquín, *Derecho del Trabajo*, 7. arg., op. cit., 222. or.

b. Enpresaburuaren zuzentzeko ahalmena

Langileen Estatutuko 20. artikulua dio langileak enpresaburuaren edo bere ordezkariaren zuzendaritzapean egin behar duela hitzartutako lana. Lanaren antolamenduzko arau hori Espainiako Konstituzioko 38. artikuluan ezarritako enpresa askatasunaren osagarria da eta zuzentzeko ahalmena esaten zaio. Lana zuzentzeko kontratu-ahalmenik gabe, enpresaburuak ez lituzke edukiko zerbitzuaren ordaina emateko beharrezkoak diren ahalmenak, eta horretarako kreditu-eskubidea du: behar-beharrezkoa du lana antolatu eta zehaztea aginduen bidez. Zuzentzeko ahalmena kontratuaren barruan gauzatzen da, haren exekuzioan, langilearen bestelako interesarekin lotuta eta modu autonomo eta heteronomoan ezartzen zaizkion mugen barruan.

Hala bada, enpresaburuaren zuzentzeko ahalmena lau aldetatik behintzat mugatu behar da: konstituzioaren aldetik, legeen aldetik, hitzarmen kolektiboen aldetik eta kontratuaren aldetik. Alde horiek guztiak, dena dela, batera bildu daitezke: langilearen eskubideetara, pertsona eta soldatapekoa den aldetik. Enpresaburuaren zuzentzeko ahalmenaren gainerako muga guztiak Espainiako Konstituzioan daude eta haien muina zera da, langilearen duintasunaren eta ezin urratuzko eskubideen errespetua. –Espainiako Konstituzioko 10.1 artikulua eta Langileen Estatutuko 20.3 artikulua¹⁵.

2.1.4. ETXEKOANDREAREN/ ETXEKOGIZONAREN LANA ETA BESTEREN KONTURAKO LANA

Lan harremanaren ezaugarriak aztertuta, ezinezkoa da bere etxean eta bere etxerako etxeko lanetan diharduen pertsonak egiten duen lana besteren konturako langileen erregimenean sartzea.

Etxekoandreak/etxekogizonak egiten duen lanaren definizioa ikusita, subjektu langilearen ikuspegitik, arazorik gabe esan dezakegu bi ezaugarri betetzen dituela: borondatezkoa izatea eta pertsonala izatea. Borondatezkoa izan behar du, izan ere, mintzagai dugun subjektuak bere borondatez erabaki du etxean gelditzea eta bertan lan egitea bere familia-gunearen beharrianak, baita bereak ere, asetzeko, lan hori egitea asebetegarri duelako edo oraindik ez duelako beste lanik aurkitu etxetik kanpo. Hau kontuan hartzekoa da, bestela pertsona honen egoera ikaragarria litzateke: etxetik kanpoko lan munduan lan egiteko porrot egiteaz gain, bere etxean egiten duen lanak ez du balorazio sozial eta juridiko egokirik. Lana pertsonala dela ere ezaugarri argia da,

¹⁵ PALOMEQUE, 1997ko apirilaren 8ko Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaia dela eta, Aranzadi. 1346. Palomeque López, Manuel Carlos, *Derecho del Trabajo*, 7. arg., op. cit., 676 eta 677 orr.

adostasunez aplikatu ahal dena, zeren eta juridikoki baloratzen ari garen pertsonaren lan hori ezin baitezake beste inork haren ordean egin. Egunen baten, askatasunez erabakita, beste subjektu bat hasiko balitz lan horiek egiten, adibidez, familia-gunekoa ez den pertsona bat kontratatuko balitz horretarako, ez legoke inolako eragozpenik orduan arte etxeoandre/etxekogizon langilea zena ikuspegi juridikotik hori izateari uzteko, dela etxean gelditu arren ez duelako lanaren ikuspegitik baloratzeko modukoa den lanik egiten, dela bere etxetik kanpoko lan merkatuan lanean hasi delako. Familia-gunekoa ez den pertsona bat kontratatuko balitz etxeo lanak egiteko, izaera bereziko lan harreman bat izango litzateke, Familia-etxearen Zerbitzurako Lan Harreman Berezia, eta lana eta lan harremana kalifikatzeko orduan ez da inolako arazorik sortzen.

Besterentasunezko eta mendekotasunezko ezaugarriek oztopatuko digute etxeoandreakon/etxekogizonaren lana besteren konturako lantzat jotzea. Ezaugarri horien arabera, langileak kontratuarekiko fede onezko egoeran egiten du lan eta enpresaburuarengandik zilegitasunez jasotzen dituen aginduei men eginez. Enpresaburuaren betebeharra da langilearen bizitza eta osotasuna babestea eta langileak produktibitate senaz eta enpresaburuaren interes ekonomikoen ildoan jokatu behar du. Soldatiko lanaren prestazioan, kontratuaren ondorioz, ukazina da enpresaburuaren eta langilearen arteko boterezko harremana. Langileak enpresaburuaren esanetara egin behar du lan, benetako eta ageriko mendekotasunez, eta enpresaburuak ezarriko du lanean jarraitu beharreko jokabidea. Lan kontratuan, enpresaburuak zuzendaritzako eta diziplinako boterea du langilearen lanaren eta jokabidearen gainean; Lanaren Zuzenbidean enpresaburuaren aginduak zilegizkotzat jotzen dira beti eta langilea agindutakoa egitera behartuta dago. Enpresa menerapeneko eta maila hierarkikoko unitate moduan ageri da: enplegatzaileari zuzendaritzako eta diziplinako boterea bermatzen dion leku moduan. Nahitazko truke harremanaren eskema juridikoaren azpian, langilea pertsona den aldetik menderatzeko modu bat ezkututzen da. Pertsona botere baten menara egote horrek meneko langilea pertsona moduan babesteko berme sistemarako joera ekarri du lan arloko konstituzionalismoan¹⁶.

Etxekoandreakon/etxekogizonaren lan esparruan, familia-gunean, ez dago halako ezaugarririk. Ez da ulertzen ezkontide edo izatezko bikotekide batek zuzendaritzako edo diziplinako botererik edukitzea besteren gainean etxean bertan, gainera, abusuak ere gerta litezke familia-etxean itxurazko lan harreman baten azpian; adibidez, laneko betebeharrak ez betetzeagatik enpresaburuak har ditzakeen neurriak, esaterako, aldi baterako enplegu eta soldata barik uztea edo lanetik bidaltzea. Bikotearen barruan

¹⁶ MONEREO PÉREZ, José Luis, "Comentario al artículo 1, párrafo 1º del ET", in *Comentario al Estatuto de los Trabajadores*, op. cit., 16. or.

onartezinak dira halako zigorrak eta bestelakoak ere. Ildo horretan, azterketa askok erakutsi dutenez, gizonezkoek etxeko lanetan parte ez hartzeagatik sortutako istiluek familiako indarkeria kasu larrien %30 sortzen dituzte. Era berean, gogoan hartu behar dugu etxeko lanen gainkarga, mendeko senideak batek bakarrik zaintzea eta errutina emakumeen aurkako indarkeria moduak direla¹⁷. Berdintasunak, duintasunak eta konstituzioko beste balio batzuek etxekoandreak/etxekogizonaren lanean bi ezaugarri hauek egotea eragozten dute. Lan harreman mota hau jaso ahal duen figura juridiko bat behar dugu, lan egiten duen subjektuak mendekotasun, obediencia eta diziplina ezaugarri hain zorrotzak ez dituen figura juridiko bat, alegia.

Bestalde, Langileen Estatutuko 1.3e artikuluan esaten zaigu Langileen Estatutuaren aplikazio eremutik kanpo geratzen direla familiako lanak, lan horiek egiten dituztenak soldatuko langileak direla frogatu ezik eta hau ere argudio sendoa izan liteke auzia planteatu ere ez egiteko. Dena dela, hori egia izanda ere, xedapen estatutario horretan xedatutakoa *ius tantom* presuntzioa baino ez da, beraz, kontrakoa frogatuz gero, ez legoke arazorik familiako kide hori besteren konturako langiletzat jotzeko. Nire aburuz, etxekoandrea/etxekogizona besteren konturako langiletzat jo ezina besterentasun eta mendekotasun ezaugarriak ez betetzetik dator gehienbat.

Atal honetan aztertu beharreko azken eskakizuna ordainsaria da. Besteren konturako lanak ordaindua izan behar du. Hauxe da gure abiapuntua. Aztergai dugun harremanean, ordea, bikoteko kide batek edo familia-guneak berak ordaindu behar dio beste subjektuari. Honi beste oztopo bat gehitu behar zaio ezkontza irabazien erregimenean eratu bada, izan ere ezkonduz gerozko sarrera guztiak ondasun-erkidegoarenak baitira; egindako lanaren fruituak edo emaitzak familiaren fondo erkidera doaz¹⁸. Teorian posible da bestelako kasuetan, hau da, *more uxorio* bizikidetzan eta ondasunen bananaketako erregimeneko ezkontzan. Gure ustean, kontua ez da etxekoandreak diru kopuru bat jasotzea kontsumoko prezioen indizearen igoerei lotua etab., aitzitik, gure ustez lortu behar dena zera da, lana harreman juridikoa izanik, familia-gunetik diru kopuru bat apartatzea etxeko langilearen etorkizuneko prestazioetarako eta etxeko langileak prestazio horiek hartzeko eskubidea izatea. Aurrerago ekingo diogu horren azterketari sakonago, orain bakar-bakarrik esan dezagun guk proposatzen dugun harremanean ez dela zertan jaso diru kopuru bat aldian-aldian, zeren eta etxekoandreak/etxekogizonaren lana aintzat hartzearen helburua soldata bat jasotzea baino urrutirago baitoa eta, bestalde, harreman honetan soldata hartzea nekez uztar bailiteke juridikoki.

¹⁷ Mac Mahon gogoan, BILBOKO UDALA, *Partekatzea, partitza, banatzea*, Bilboko Udalaren Emakumearen Udal Zerbitzua, 2002ko martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, 7. or.

¹⁸ Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 13ko 2/1992 epaiak ezarria. Epai horretan berdintasun printzipioaren kontraketat jotzen da lan harremanaren proba ez onartzea familiako lanetan eta irizpide horixe jarraitu du jurisprudentziak. Horren erakusgarri, Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1995eko uztailaren 14ko epaia, El Derecho. 1995/8606 edo Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 1997ko urriaren 8ko epaia, El Derecho. 13288.

Azkenik, ez ditugu aztertuko etxekoandreak/etxekogizonaren harremana besteren konturako lan moduan eratzea eragotziko luketen beste kontu batzuk, besteak beste, oporrak, lanaldien arteko atsedenak, etab. Izan ere, zuzenbide beharrezko erlatiboko arau horiek nekez sar genitzake proposatzen dugun harremanean eta, gainera, etxekoandreaken lana besteren konturako lanetik kanpo uzten duten argudioak ikusita, ez du merezi horretan gehiago sakontzerik.

Etxekoandreaken/etxekogizonaren lan harremana ezin da besteren konturako lan harremanen barruan sartu Langileen Estatutuaren 1.1 artikulua araberako, baina horrek ez du esan nahi juridikoki ezin sar litekeenik, ezta bere etxean eta bere etxerako lan egitera dedikatzea erabakitzen duen pertsona ezin litekeenik, beste ikuspegi batetik, langileztat har ere, horri dagozkion eskubide eta prestazioekin.

2.2. ETXEKOANDREAREN/ ETXEKOGIZONAREN LANA ETA FAMILIA-ETXEAREN ZERBITZURAKO LAN HARREMANA

2.2.1. FAMILIA-ETXEAREN ZERBITZURAKO LAN HARREMAN BEREZIA

Familia-etxearen zerbitzurako lan harremana izan liteke, lehen begiratu baten, etxekoandreak/etxekogizonak egiten duen lana kokatzeko aukera bat. Lan harreman berezia da, etxearen titularraren¹⁹ eta haren menpean eta kontura etxean lan ordainduak egiten dituen pertsonaren artean ezartzen dena, 1424/1985 Errege Dekretuko 1.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Harreman horri dagozkion zereginak erregelamenduzko arauan daude zehaztuta: etxeko edo etxerako zerbitzuak edo lanak, etxea oro har edo zatiren bat zuzentzea eta zaintzea, familiako kideak edo bertan bizi direnak zaintzea, lorategiko lanak, ibilgailuak eta antzekoak gidatzea, lan horiek etxeko lanen esparruan

¹⁹ 1424/1985 Errege Dekretuko 1.3 artikulua araberako, familia-etxearen titularra da bai benetan hala dena, bai etxeko lana egiten den etxe edo bizilekuaren titularra dena.

eginez gero²⁰ –1424/1985 Errege Dekretuko 1.4 artikulua–. Zeregin horiek beroriek aipatu ditugu etxeoandreaken/etxekogizonaren lanak zehazteko orduan. Lan harremana non gertatzen den eta subjektuen artean nolako konfiantza dagoen kontuan hartuta, lan harreman berezizat jotzen da.

Zerbitzuak familiako burua eta familia-unitatea osatzen duten gainerako pertsonak bizi diren etxean egin behar dira eta etxe hori lurralde nazionalean egon behar da. Zerbitzuak familia atenditzekoak ez eze, familiak osatzen duen bizitza-elkartea zaintzekoak ere badira. Etxeko langileak familiarekin duen lotura kontratu erakoa da, eta familiako buruak edo etxearen titullarrak hartzen du enplegatzailearen lekua²¹.

Nahiz eta lan harreman berezizat jotzen den, etxeko langilearen lanak mendekotasun eta besterentasun ezaugarriak bete behar ditu etxeko langileen erregimen berezian sartzeko –familia-etxearen zerbitzurako lan harremanari buruzko Errege Dekretuko 1.2 artikulua–, baita Langileen Estatutuko 1.1 artikulua aipatzen dituen gainerako ezaugarriak ere. Lan harremanak eskakizun horietako bat betetzen ez badu, Langileen Estatututik kanpo geratzen zaigu.

Azkenik, harreman honen ezaugarri orokorreki dagokienez, zera esan behar dugu, *iuris tantum* presuntziaz Langileen Estutuaren aplikazio eremutik kanpo dauden famili harremanak era berean kanpoan gelditzen direla harremanaren zertarakoa etxekoa izanez gero. Manua hitzez hitz hartuta, ordea, familiako lanaren eskusio presuntzio hori, ez zaio aplikatzen familiako buruari ezkondu gabe lotuta dagoen pertsonari eta, hortaz, ezerk ez du eragozten etxeko langileen erregimen berezian afiliatzea –Kantabriako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, 1993ko uztailaren 31koa, La Ley 367/94–.

²⁰ Zentzu hertsian, etxeko zerbitzuak betidanik etxeko lanak esan izan diegunak dira, hau da, etxeari –domus–edo familia-unitateari –ohe, sabai eta mahai unitate moduan hartuta– zerbitzu egiten diotenak eta hain arruntak izaki, ez dago zertan banan-banan aipatu ere egin. Hedaduraz, etxeko zerbitzuak dira, halaber, etxeko zerbitzuen kalifikazioa hartu ezin badute ere, familia-etxearen zerbitzurako egiten direnak: etxea zuzentzea eta zaintzea, oro har edo zatiren batean, senideak edo etxean bizi direnak zaintzea, haurtzain lanak, lorategiko lanak eta ibilgailuak gidatzea. LUJÁN ALCARAZ, José, *El Régimen Especial de la Seguridad Social de los Empleados de Hogar*, Aranzadi, 2000, 38. or.

²¹ Etxeko Zerbitzuaren Gizarte Segurantzako Erregimen Berezia arautzen duen irailaren 25eko 2346/69 Dekretuko 4.1 artikuluan, familiako burua da bere etxean irabazteko asmorik gabe etxeko langile bat duen pertsona fisiko oro; baina talde parafamiliarretan, Dekretu bereko 4.2 artikulua araber, juridikoki enplegatzaile izatea taldea bizi den etxearen titulartasuna duen edo taldearen ordezkaritza bere gain hartzen duen pertsonari dagokio. Familia-etxeko zerbitzuari buruzko Errege Dekretuko 1.3 artikulua arau biak hartzen ditu esaten duenean familia-etxearen titularra dela bai benetan hala dena, bai etxeko lana egiten den etxe edo bizilekuaren titularra dena.

2.2.2. ETXEKOANDREAREN/ ETXEKOGIZONAREN LANA, LAN HARREMAN BEREZI GISA

Etxekoandrearen/etxekogizonaren lana izaera bereziko lan harremanen esparruan sar liteke? Gehiago zehaztuz, familia-etxearen zerbitzurako lan harremantzat jo liteke? Nahiz eta familia-etxearen zerbitzurako lan harremanean egiten diren lanak eta etxe-koandreek/etxekogizonek egiten dituztenak berdinak izan, erantzuna ezezkoa da berriz ere, besteren konturako lan harremanetan ez sartzeko eman ditugun arrazoi berberengatik, hau da, bikote baten barruan eta bere etxean eta bere etxerako lan egiten duen langileak ez duelako beste batentzat ezta beste baten menpean lan egiten, alegia, ez dituelako besterentasun eta mendekotasun ezaugarriak betetzen.

Gainera, harreman hori, azken finean, besteren konturako harremana denez gero, bera arautzen duen Errege Dekretuan harreman horri dagozkion kontratua, lanaldia, soldata etab. aipatzen dira. Bada, berriro ere esan behar dugu kontu horiek guztiak ezin zaizkiola aplikatu guk proposatzen dugun lan harremanari, zeren eta, adibidez, ezingo baikenuke harremanak dirauen artean iraungo duen kontratua baino ezarri, zailtasun handiak edukiko baikenituzke 9 orduko gehienezko lanaldia ezartzeko bizitoki eta familia-etxe duen etxean lan egiten duenari, eta berdin atsedenaldiei dagokienez.

Eztabaidagarria iruditzen zaigu jurisprudentzian onartzea pertsona batek etxeko langileen Gizarte Segurantzako erregimen berezian alta hartu ahal izatea nahiz eta etxe horren jabearekin *more uxorio* harremana izan eta etxe horretan berarekin bizi.

Kasu horren gainekoa da Kantabriako Justizia Auzitegi Nagusiak 1993ko uztailaren 31n emaniko epaia –La Ley 367/94–. Auzia hasi zen Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, arrazoiz gure ustez, etxeko langileen erregimen berezian egindako alta deuseztatu zuenean. Langileari afiliazioa ukatzeko egindako txostenaren oinarria zen besterentasun eta mendekotasun ezaugarriak falta zirela eskatzailearen eta ustezko enplegatzailearen arteko lan harremanean, seme bat izan zutelako, prestazioen onuradunetako bat zena. Seme hori 1991ko irailaren 9an jaio zen eta etxeko zerbitzuko lan kontratua 1992ko martxoaren 1ean sinatu zen. Autoetan jasota daude emakumearen berehalako afiliazioa, gero Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak deuseztatu zuena, *kontizazio kuoten ordainketa eta soldaten ordainagiriak*. Etxe berean bizi ziren biak. Langileak demanda aurkeztu zuen Lan arloko Epaitegian erregimen bereziko alta erreklamatu eta Epaitegiak onetsi egin zuen. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak erregutze errekurtsioa jarri zuen epaitegiaren epaiaren aurka eta Justizia Auzitegi Nagusiak errekurtsioa ezetsi zuen argudiatuz *more uxorio* bizikidetzat eta lan harreman berezia ez direla bateraezinak eta ezkontzaz kanpoko elkartzek eta ezkontzazkoak ezin direla parekatu halako ondorioetarako, ez baitira juridikoki baliokide. Auzitegiak azken argudio hori arrazoitu zuen. Abuztuaren 1eko 1424/1985 Errege

Dekretuko 2.1 artikulua, Langileen Estatutuko 1.3e artikulua eta 2346/1969 Dekretuko 3.1. artikulua ez dute aipatu ere egiten izatezko elkartzea. Parekatzeko ahalegina desegokia da, ez bakarrik gaiari buruzko arauak mugak berdintzen dituztelako, baita bi egoera horien artean ordenamenduak heterogeneotasuna ezartzen duelako ere: ezkontzaz kanpoko egoerak ez du sortzen ez irabazizko ondasunen sozietatearen presuntziorik, ez mantenu eta oinordetza eskubiderik, ez Gizarte Segurantzak langile afiliatuaren ezkontideari heriotzagatik eta bizirik irauteko ematen dizkion osasun asistentziako prestazioen onuradun izateko eskubiderik ere. Ordenamenduak trataera bakarra eman behar dio *more uxorio* kontu honi, eta ez era batekoa ondorioak kaltegarriak badira, aipatutakoak kasurako, eta bestelakoa ondorioak mesedegarriak badira. Demandatuaren eta etxeko jaunaren arteko ustezko harreman pertsonalak ikuspegi juridiko eta ekonomikotik eraginik ez duenez gero, demandatuaren ustezko etxeko lanak ezin dira hartu bere onerako edo juridikoki babestutako interes komunerako egindako lantzat. Epaitegiaren iritzian, ordaintzea arrazoizkoa da eta lan harreman berezia badela legitimatzen du, baita, ondorioz, Gizarte Segurantzako afiliazioa ere.

Uste beretsukoa dugu Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2001eko urtarrilaren 12ko epaia –El Derecho 2001/4336–. Kasu honetako andreak etxeko lanak egiten zituen berarekin *more uxorio* bizi zen gizonarentzat, etxearen titularrarentzat hain zuzen, eta lau seme-alaba zituen harekin. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak andreaki etxeko langileen erregimen bereziko alta deuseztatzea erabaki zuen. Andreak demanda jarri zuen Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren erabakia deuseztatzeko eskatuz. Epaia batek ez zuen demanda hori onartu eta Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2001eko urtarrilaren 12ko epaia ezetsi egin zuen azken epaiaren aurka aurkeztutako errekurtsua. Kasu honetako gauzarik interesgarriena zera da, errekurtsua ez onartzeko arrazoia ez zela izan besterentasunik edo mendekotasunik ez egotea, lanak ordainduak ez izatea baizik. Hortaz, uler liteke lana ordaindu egiten zela frogatu izan balitz, ez zatekeela arazorik egongo lanaren kalifikazioa eta lan harreman horrek Gizarte Segurantzaren dituen ondorioak onartzeko.

Epaian xedea bizikidearen alde egitea den arren, diskriminaziozko kontu baten aurrean egon gaitezke, izan ere ez baitira berdintzen izatezko elkartzeak eta ezkontzazkoak. Zuzenbide Zibila bi elkartze motak berdintzeko bidea ari da urratzen eta bide horretatik jo beharko luke Lan Zuzenbideak ere. Gauza bat utzi behar da argi, senarrak emaztearen gaineko zuzendaritza boterea izatea bezain arriskutsua eta konstituzioaren aurkakoa da bizikide batek bestearen gainekoa izatea. Halako harremanetan ezin dira aplikatu besterentasun eta mendekotasun ezaugarriak. Bestalde, kontuan hartu behar da bizikide batek besteari soldata ordaintzea ere onartu dela. Gauzak hala ikusita, eta gu ez gaude ados ikuspegi horrekin, soldata hori berdintzen har lezake ondasunen bananketako erregimenean bere familia-gunearentzat besteren konturako langile gisa etxeko lanak egiten dituen emazteak, Langileen Estatutuko *iuris tantum* presuntzioa alde batera utzita.

Azkenik, zera esan dezakegu, familia-etxearen titularrentzat etxeko lanak egiten dituen pertsona juridikoki langiletzat jotzen bada eta etorkizunean zenbait prestazio jasotzeko eskubidea eduki badezake, ez dugu uste zuzena denik bere etxean zeregin berdin-berdinak betetzen dituen pertsona bati bere lan hori ez balioestea. Irtenbide juridiko bat bilatu behar da beren etxean eta beren etxerako zerbitzuak egiten dituzten langileen lan isila ondorio guztietarako aintzat har dadin.

2.3. ETXEKOANDREAREN/ ETXEKOGIZONAREN LANA ETA LANGILE AUTONOMOAK

2.3.1. LANGILE AUTONOMOEN ERREGIMEN BEREZIAREN APLIKAZIO EREMUA. BALDINTZAK

Bere konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako erregimen berezia arautzen duen 2530/70 Dekretuko 3. artikulua bere aplikazio eremukoak diren subjektuak zerrendatzen ditu. Esan dezagun, bidenabar, aplikazio eremu hori arian-arian zabalduz joan dela²².

Langile Autonomoen Erregimen Berezikoa izateko Gizarte Segurantzaren babespeko subjektua izateko ezinbesteko bi baldintza bete behar dira: adinari eta lurraldeari dagozkienak. Halaxe ezarrita dago aipatu dekretuko 3. artikuluan eta 70-9-24ko Aginduko 2.1 artikuluan, bertan esaten baita Langile Autonomoen Erregimen Bereziko langileek 18 urte beteta eduki behar dituztela eta nazio lurraldean bizi eta lan egin behar dutela normalean. Eskakizun hauen legezko erreferentzia Gizarte Segurantzaren

²² 3. artikulua: "Estarán obligatoriamente incluidos en este Régimen Especial de la Seguridad Social los españoles mayores de dieciocho años, cualquiera que sea su sexo y su estado civil, que residan y ejerzan normalmente su actividad en el territorio nacional y se hallen incluidos en alguno de los apartados siguientes: a.- Los trabajadores por cuenta propia o autónomos, sean o no titulares de empresas individuales o familiares; b.- El cónyuge y los parientes por consanguinidad o afinidad hasta el tercer grado, inclusive, de los trabajadores determinados en el número anterior que, de forma habitual, personal y directa, colaboren con ellos mediante la realización de trabajos en la actividad de que se trate, siempre que no tengan la condición de asalariados respecto a aquéllos; c.- Los socios de las compañías regulares colectivas y los socios colectivos de las compañías comanditarias que trabajen en el negocio con tal carácter, a título lucrativo y de forma habitual, personal y directa. No obstante lo dispuesto en los números anteriores, la inclusión obligatoria en el Régimen Especial de trabajadores por cuenta propia o autónomos de aquellos trabajadores de esa naturaleza que para el ejercicio de su actividad profesional necesiten, como requisito previo, integrarse en un Colegio o Asociación Profesional, se llevará a cabo a solicitud de los Órganos superiores de representación de dichas Entidades mediante Orden Ministerial.

Lege Orokorreko 7. artikuluan datza²³. Adinari dagokionez, konstituzionala ote den planteatu izan da, izan ere, aplikazio eremutik kanpo uzten ditu 16 urtetik 18ra bitartekoak, lan egiteko adinean egon arren, eta diskriminazioa dagoela ere esan daiteke, elkarlaneko kooperatibetako 16 urtetik 18ra bitarteko bazkide langileak Langile Autonomoen Erregimen Berezian egon ahal direlako. Doktrina laboralistaren parte bat 16 urtetik 18ra bitarteko emantzipatuak, eta horren hedapenez gurasoen baimenaz bere kontura bizi direnak, Langile Autonomoen Erregimen Berezian sartzearen aldekoa da –Kode Zibileko 319. artikulua–, baita adin nagusiko moduan onartuta dauden 16 urtetik gorakoak ere –Kode Zibileko 321. artikulua–, hau da, Kode Zibileko 323. artikuluen arabera euren pertsona eta ondasunak adin nagusikoak balira bezala gobernatu ahal dituztenak, nahiz eta ahalmen guztiak erabiltzeko zenbait muga eduki. Kontua da Gizarte Segurantzaren arauak ez zituztela jaso adin nagusitasuna 18 urtetan eta emantzipazioa 16 urtetan ezarri zituen azaroaren 16ko 33/78 Errege Lege Dekretuaren eraginak. Auzitegiek ere ez dute baterako jarrerarik erakutsi. Galdera bat egin behar: gaude: adingabekoa izan arren, 16 urtetik 18ra bitarteko gazte batek lan kontratu baten subjektu izan ahal bada eta Erregimen Orokorrean sartu ahal bada eta, era berean, bere kontura ere lan egin ahal bada, zer dela eta utzi babesik gabe bere kontura lan egiten duena?²⁴

2.3.2. LANGILE AUTONOMO KONTZEPTUA

Abuztuaren 20ko 2530/70 Dekretuak bere konturako langileen edo langile autonomoen erregimen berezia arautzen du. 3.1. artikulua subjektu babestuen artean sartzen ditu eta 2.1 artikulua honela definitzen ditu: *aquellos que realizan de forma habitual, personal y directa una actividad económica a título lucrativo, sin sujeción por ello a contrato de trabajo, aunque se utilice el servicio remunerado de otras personas*. Langile autonomo kontzeptuak legezko babesa du Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategineko 10. artikuluan. Aipatu definizioari dagokionez, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

²³ Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 7. artikulua, Gizarte Segurantzaren aplikazio eremuaz ari denean, bertan sartzen ditu bere konturako langileak edo autonomoak, hamazortzi urtetik gorakoak, araz erabakitzen diren baldintzak betetzen dituztenak.

²⁴ GÓMEZ CABALLERO Pedro, *Los trabajadores autónomos y la Seguridad Social: campo de aplicación y acción protectora del RETA*, Tirant lo blanch, Valentzia, 2000, 18. eta 19. orr.

Subjektu hauek Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) sartzearen aldeko epaia eman dute honakoek: Andaluzia-Granadako Justizia Auzitegi Nagusiaren 1996ko otsailaren 27ko Epaia, Aranzadi. 337; Galiziako JANeren 1998ko maiatzaren 8ko Epaia, Aranzadi. 967 edo Gaztela-Mantxako JANeren 1998ko azaroaren 21eko Epaia, Aranzadi. 3817

a. Norbere konturako lanean, langileak berak jasotzen ditu berehala produkzioaren emaitzak, edo bera da onuradun zuzena, eta jabetzeko modukoak diren emaitzez jabetzen da. Norbere konturako lanaren produkzioaren emaitzek bi norako izan ahal dituzte: langileak edo bere familiak erabiltzea edo kontsumitzea, edo beste pertsona batzuen esku jartzea bide juridikoren bat erabiliz. Norbere konturako lana eta besteren konturako lana bereizten dituen ezaugarria hau da: norbere konturako lanean, lanaren produkzioaren emaitzak, emaitza horiek lortu dituenaren produkzio eta lan ondarean sartzen direla, momentuan behintzat, eta bere gain hartzen dituela lanetik eratorritako arriskuak.

b. Bere konturako langileak berak erabaki ahal du nola egin lana. Horrexetan datza bereizketa, lan egiteko moduz besteren agindurik dagoen ala ez dagoen. Lan autonomoan ez dago halako agindurik, gehienez ere, enkarguzko obrak edo zerbitzuak aipatzen dira, baina horiek ere nahi bezala egiten ditu langileak. Lan autonomoak ez du baldintzapen juridikorik, baina ez dago, hala ere, merkatuaren baldintzapen ekonomikoetatik libre, ezta teknikaren arrazionalitatearen eskakizunetatik kanpo ere. Ikuspegi juridikotik langile autonomoek nahi duten bezala egin dezakete lan, baina haien jardunak errendimendu ekonomikoa izango badu, eta eragile ekonomiko moduan iraungo badute, bezeroen gustuetara eta teknologiaren eskakizunetara moldatu beharko dira²⁵. Mendekotasuna da zerbitzuak alokatzearen eta lan kontratuaren arteko muga nagusia.

c. Lan autonomoan ez dago babes beharrak dakarren erantzukizuna bere gain hartuko duen enpresabururik, beraz, langileak berak hartu behar du.

d. Langileen Estatutuko lehenengo azken xedapenak legegileari bidea ematen dio, beharrezkoa edo komenigarria iritziz gero, hainbat arloren erregulazioa autonomoei ere hedatzeko. Ildo horretan, nahiz eta gure legegariak bide hori erabiltzeko zuhur eta uzkur ibili diren, badira gure ordenamenduan erabilera batzuk, besteak beste, derrigorrezko aseguruak, langile autonomoentzako erregimen bereziaren bitartez; sindikatuko kide izateko eskubidea, Askatasun Sindikalaren Lege Organikoko 3.1 artikulua araberak; eta laneko segurtasun eta osasun arau batzuk aplikatzea, hala lehenengo araudian nola oraingoan²⁶.

e. Langile autonomoa langilea (banako langilea) zein enplegatzailea (lan arloan duen zentzuan) izan daiteke.

²⁵ MARTÍN VALVERDE, Antonio; RODRÍGUEZ-SAÑUDO GUTIÉRREZ, Fermín eta GARCÍA MURCIA, Joaquín, *Derecho del Trabajo*, 7. arg., op. cit., 42. or.

²⁶ MOLINA NAVARRETE, Cristóbal, "Comentario a la Disposición Final 1ª del ET", in *Comentarios al ET*, Comares, op. cit., 1085. or. Nire ustez, kritikagarria da laneko arriskuen prebentzioari dagozkion arauetan ezarritakoa langile autonomoei murriztuta aplikatzea.

Gainera, langile autonomoaren jarduerak baldintza batzuk bete behar ditu, honako hauek, hain zuzen ere:

a. Irabazizko jarduera ekonomikoa izan behar du. Doktrina laboralistak eta jurisprudentziak diote garrantzitsuena dela nola egiten den jarduera hori. Irabazteko asmoa kontuan hartuta, langile autonomo izango dira lan jardueran mozkin ekonomikoa lortu nahi dutenak eta jarduera hori oinarrizko ogibide edo bizibide dutenak, eskusiboa ez bada ere. Jarduera ekonomiko horrek bizirik irauteko behar den baino mozkin gehiago eman lezake. Lan autonomotik kanpo geratzen dira norberaren kontsumora bideratutako jarduerak eta ongintzan edo dohainik egindakoak²⁷.

b. Langile autonomoaren jarduera ohikoa, pertsonala eta zuzena izan behar da.

Ohikotasuna jarraipenari eta profesionaltasunari lotuta dago²⁸. Azpimarratzekoa da langile autonomoen erregimen bereziak ez duela eskusibotasunik exijitzen eta halaxe adierazi dute gure auzitegiek²⁹. Ildo berekoa dugu bere konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako erregimen berezia aplikatzeko eta garatzeko arauak ematen dituen 1970eko irailaren 24ko Ministro Aginduko 2.2 artikulua: *la inclusión obligatoria en el RETA no queda afectada por la realización simultánea por el mismo sujeto de otras actividades, por cuenta propia o ajena, que den lugar a su inclusión en alguno o algunos de los restantes Régimenes de la Seguridad Social.*

Langile autonomoen erregimen berezian sartu ahal izateko, gainera, lana modu pertsonalean eta zuzenean egin behar da: langileak produkzio jardueran esku hartu behar

²⁷ GÓMEZ CABALLERO, Pedro, *Los trabajadores autónomos y la Seguridad Social: campo de aplicación y acción protectora*, op. cit.- 27. or., honako hauek kontuan hartuta: ALARCÓN CARACUEL eta GÓNZALEZ ORTEGA, *Compendio de Seguridad Social*, 3. arg., Técno, Madril, 1991, 304. or.; BLASCO LAHOZ, José Francisco, *Sujetos incluidos en el Régimen Especial de Trabajadores autónomos*, Tirant lo blanch, Valentzia, 1996, 26. or.; ORDEIG FOS, *El Sistema Español de Seguridad Social (y de la Comunidad Europea)*, 5. arg., Edersa, Madril, 1993, 533.-535. orr.; PIÑEYROA DE LA FUENTE, A.J., *La Seguridad Social de los Trabajadores Autónomos (La Cobertura del RETA)*, Civitas, Madril, 1995, 43. or.; ALMANSA PASTOR, *Derecho de la Seguridad Social*, 6. arg., Técno, Madril, 1989, 558. or.; LÓPEZ ANIORTE, *El ámbito subjetivo del régimen especial de los trabajadores autónomos*, Aranzadi, 1996, 67. or., Auzitegi Gorenaren 1982ko apirilaren 22ko epaia, Aranzadi. 2496.

²⁸ GÓMEZ CABALLERO, Pedro, *Los trabajadores autónomos y la Seguridad Social: campo de aplicación y acción protectora*, op. cit.- pág. 28.

Orain dela gutxi, Auzitegi Gorenak, Lan Arlokoak, 1997ko urriaren 29ko Epaia, Aranzadi. 7683-, ordainsariaren zenbatekoaren irizpidearen arabera, ohikotasunaren betekizuna dagoela ikusi du, normalean, ordainsariaren zenbatekoak lotura zuzena baitu lanean emandako denborarekin. Hori izanik ohiko irizpidea, ez dela bakarrik uste dugu, eta frogatu egingo dugu, zenbait kasutan ordainsariak ez duelako izaten loturarik lanean emandako denborarekin.

²⁹ 29 Auzitegi Gorenaren 1997ko urriaren 29ko Epaia, Aranzadi. 7683; Madrileko JANeren 90-3-16ko Epaia, Aranzadi. 1453; Asturietako JANeren 1994ko irailaren 9ko Epaia, Aranzadi. 3391.

du bere ahaleginez; ez du axola bere zeregina funtsezkoa den edo ez eta zer funtzio betetzen duen enpresan, kudeaketa eta zuzendaritza lanak egiten dituztenak ere sartzen dira eta horretarako ez da beharrezkoa negozioren titularra izatea, bere konturako langileen edo langile autonomoen erregimen berezia arautzen duen 2530/1970 Dekretuko 3.1. artikuluan³⁰; erregimen berezi hori aplikatzeko eta garatzeko arauak ematen dituen 1970eko irailaren 24ko Ministro Aginduko 2.1.1 artikuluan eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 7.1b artikuluan³¹ azaldutakoaren arabera.

2.3.3. LANGILE AUTONOMO KONTZEPTUAREN MUGAK

a. Adina. Langile autonomoen erregimen berezian sartzeko 18 urte eduki behar dira. Beren konturako langileen edo langile autonomoen erregimen berezia arautzen duen 2530/1970 Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrek eta erregimen berezi hori aplikatzeko eta garatzeko arauak ematen dituen 1970eko irailaren 24ko Ministro Aginduak baldintza hori ezartzen dute bai titularrarentzat bai familiakoentzat³². Boz batzuek zalantzan jarri dute baldintza hau konstituzionala ote den Espainiako Konstituzioko 14. artikuluan xedatutakoa gogoan hartuta, besteren konturako langileentzat gutxienezko adina 16 urtetan jarrita dagoelako. Justifikazio gisa, adin nagusitasuna aipatzen da, hau ere 18 urtetan jarrita baitago, esanez adin nagusitasunarekin batera jarduteko gaitasun bete iristen dela eta, ondorioz, edozein negozioren titularra eta era guztietako kontratuetako parte izateko ahalmena ere lortzen dela. Exijentzia honetan emantzipazioa salbuespen izan beharko litzateke, Kode Zibilean

³⁰ 30 3.1 artikulua honakoak derrigorrez egongo direla LAABean (Langile Autonomoen Araubide Berezian) sartuta ezartzen du: hamazortzi urte baino gehiago dituzten langile espainiarrak, edozein izanda bere sexua eta egoera zibila, normalean nazio lurraldean bizi direnak eta bere jardura ere bertan garatzen dutenak, eta ondorengo zerrendan agertzen den atalen baten sartuta daudenean.

³¹ 2.1.1 artikulua zorrotzagoa da eta esaten du Gizarte Segurantzako erregimen berezi horretan nahitaez egon behar direla beren konturako langileak edo autonomoak, banako edo famili enpresen titularrak izan zein ez ezin, artikuluan aurrerago zerrendatzen diren baldintzak betez gero eta espainiarrak eta hamazortzi urtetik gorakoak izanez gero, haien sexua eta egoera zibila edozein dela ere. Hala dio Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 7.1b artikulua ere.

³² Bere konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako erregimen berezia aplikatzeko eta garatzeko arauak ematen dituen 1970eko irailaren 24ko Ministro Aginduko 2.1 artikulua: "Estarán obligatoriamente incluidos en este Régimen Especial de la Seguridad Social los españoles mayores de dieciocho años, cualquiera que sea su sexo y estado civil (...)".

Hirugarren Xedapen Gehigarriko 3. artikulua: "Estarán obligatoriamente incluidos en este Régimen Especial de la Seguridad Social los españoles mayores de dieciocho años, cualquiera que sea su sexo y estado civil, que residan y ejerzan normalmente su actividad en el territorio nacional y se hallen incluidos en algunos de los apartados siguientes".

Gizarte Segurantzaren Lege orokorreko (GSLO) 7.1b artikulua: "Estarán incluidos en el Sistema de Seguridad Social los trabajadores por cuenta propia o autónomos(...) mayores de dieciocho años (...)".

agertzen den moduan hartuta³³. Nolanahi ere, uste dut PYÑEIRO DE LA FUENTEren ondorioen ildotik jo behar dugula, eta Gizarte Segurantzaren Sistema osatzen duten erregimen guztietan sartzeko adin bera ezarri beharko litzatekeela, egoera errealaren formalaren gainetik jarriz³⁴.

b. Lurraldea. bere konturako langileen edo langile autonomoen erregimen berezia arautzen duen 2530/1970 Dekretuko 3. artikulua, erregimen berezi hori aplikatzeko eta garatzeko arauak ematen dituen 1970eko irailaren 24ko Ministro Aginduko 2.1 artikulua eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 7.1 artikulua, subjektu babestua izateko, Espainian legezko egoeran bizitzea edo egotea eta jarduera normalean nazio lurraldean egitea eskatzen dute, nazionalitatea alde batera utzita³⁵.

2.3.4. LANGILE AUTONOMOEN ERREGIMEN BEREZIKO SUBJEKTUEN EREMUAREN ZABALTZEA

Bere konturako langileen edo langile autonomoen erregimen berezia arautzen duen 2530/1970 Dekretuko 3. artikulua eta erregimen berezi hori aplikatzeko eta garatzeko arauak ematen dituen 1970eko irailaren 24ko Ministro Aginduko 2.1.4 artikulua diotenez, Langile Autonomoen Erregimen Berezia ezarri ondoren, haren aplikazio eremuan sartu ahal izango ziren bere konturako lana egiten zuten baina Langile Autonomoen Erregimen Berezian sartzeko baldintzekin guztiz bat ez zetozen beste langile talde batzuk, horretarako eskumena duen ministerioak proposatuta, Ministerioaren Agindu edo Dekretu bidez.

Era berean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 10. artikuluko g idatz-zatiak honela dio: *podrán configurarse como Régimenes Especiales los demás grupos que determine el Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, por considerar necesario el establecimiento en ellos de un Régimen Especial, de acuerdo con lo previsto en el apartado 1 de este artículo.*

³³ PIÑEYROA DE LA FUENTE, ALARCÓN CARACUELEk eta GONZÁLEZ ORTEGAK *Compendio de Seguridad Social* liburuan esanikoa gogoan hartuta. PIÑEYROA DE LA FUENTE, Antonio José, *La Seguridad Social de los trabajadores autónomos (La cobertura del RETA)*, Estudios de Derecho Laboral, 1995, 60. or.

³⁴ PIÑEYROA DE LA FUENTE, Antonio José, *La Seguridad Social de los trabajadores autónomos (La cobertura del RETA)*, op. cit., 60. eta 62. orr.

³⁵ Atzerritarren legeriak lan egiteko baimena eta egoitza baimena batera eskatzen ditu, aurreko legeak eskatzen zuenaren ildo beretik. Espainiako atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren erreformarako 8/2000 Lege Organikoa, abenduaren 22koa, eta hura exekutatzeko erregiamendua, uztailaren 20ko 864/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua.

2.3.5. ETXEKOANDREA/ETXEKOGIZONA ETA LANGILE AUTONOMOEN ERREGIMEN BEREZIA

Esan liteke, okertzeko arrisku barik, euren etxean eta euren etxerako lanak egiteaz arduratzen diren emakume eta gizonek modu ohikoan, pertsonalean eta zuzenean egiten dituztela lan horiek, are gehiago, ohikotasuna eta jarraikotasuna handiagoak dira lan horretan etxetik kanpoko beste edozein lanetan baino³⁶. Bestalde, langileak produkzio jardueran bere ahaleginez esku hartzea lana modu pertsonalean eta zuzenean egitea da eta halaxe egiten du etxeakoandreak/etxekogizonak bere etxean, bestela aukera baita hirugarren bat kontratatzea, alegia, besteren konturako langile bat norberaren etxean.

Etxekoandrea/etxekogizona langile autonomoen erregimenean sartzeko eragozpen bakarra zera da, etxeakoandreak/etxekogizonaren lana irabazizko jarduera ekonomiko gisa kalifikatzea. Jarduera egon behar bada, produkzio-jarduera bat gertatu behar da irabazi ekonomikoa ateratzeko –1989ko otsailaren 1eko Auzitegi Gorenaren Epaiaren Aranzadi. 770–. Garrantzizkoa ez da jarduera bera, jarduera horren nolakotasuna agertu behar duten izenondoak baino. Jarduera ekonomikoa diogunean zentzu zabalean ulertu behar da. Halaxe ulertzen du Auzitegi Gorenak, 6. salak 1965eko urtarrilaren 23an emaniko epaian –Aranzadi. 313–, dioenean produkzio terminoa –jarduera ekonomikoaren parekoa dena– izan litekeela kontsumoko edo ekipamenduko ondasunak sortzera bideratuta ez dagoena, izan ere, produkzio hitzak oso esanahi zabala du Lan Zuzenbidean, giza jarduera guztiak hartzen baititu bere baitan. Horrek ez du esan nahi ekonomiarekin eta ondasunen eta zerbitzuen produkzioarekin zerikusirik ez duen eta merkatutik guztiz at dagoen jarduera bat kontzeptu horretatik kanpo geratu ezin denik³⁷.

Langile autonomoaren jarduerak irabazi ekonomikoa lortzea izan behar du helburu; ez da ongintzazkoa edo doakoa izan behar. ORDEIG FOSen ustez, langile autonomoen erregimen berezian sartzeko, jarduera ekonomikoa eskatzea kontzeptuaren adiera hertsian, oztopoa izan daiteke abokatuak, medikuak, arkitektoak eta era horretako lanbideak erregimen horretan sartu ahal izateko, halako profesionalek ez dutelako produzitzen ondasun materialik, kontsumoko ondasunik edo produkzioko ondasunik, baina jarduera ekonomikotzat hartzen badugu ekonomikoki balioetsi ahal diren zer-

³⁶ Sarritan, ohikotasun ezaugarrian ulertu izan da lana langilearen jarduera produktibo nagusia izan behar dela. Ez dut uste hala izan behar denik, langile autonomoen erregimenean ez delako eksklusibitate eskatzen –1992ko maiatzaren 18ko Ebazpena, Gizarte Segurantzaren Ordenamendu Juridikorako eta Entitate Laguntzaileetarako Zuzendaritza Nagusiarena–.

³⁷ PIÑEYROA DE LA FUENTE, Antonio José, *La Seguridad Social de los trabajadores autónomos (La cobertura del RETA)*, Estudios de Derecho Laboral, op. cit., 42.-43. orr.

bitzuak produzitzen dituen edozein jarduera, halako profesional liberalek jarduera ekonomiko beteak dutela esan dezakegu³⁸.

Zalantzarik gabe etxekoandreak egiten duen lanak garrantzi ekonomiko handia du; izan ere, euren etxea zaintzeaz arduratzen diren emakumeek orduak eta orduak ematen dituzte etxean etxeko lanak egiten eta, batetik, ordu horiek aintzat hartzekoak eta balioetsi beharrekoak dira ikuspegi ekonomikotik eta, bestetik, kontuan hartu behar da lan horiek etxekoandreek egingo ez balituzte norbaitek hartu beharko lukeela horien ardura: edo ezkontide edo bizikideetako batek, edo biek edo familiak kontratatutako hirugarren batek. Etxekoandreen/etxekogizonen lanaren garrantzia –ordu kopuruari eta lanen tamainari eta axolari dagokienez– ez da sekula aintzat hartu. Hala, etxekoandreen/etxekogizonaren lana ezkutuko bihurtu da eta etxekoandrea/etxekogizona ikuspegi juridiko, ekonomiko eta sozialetik lan egiten ez duen pertsona da.

Etxeko lanak, *lan erreproduktiboa* ere esaten zaionak, badu zeresana ekonomian: lan honek baditu onuradunak, senarra, seme-alabak eta, batzuetan, pertsona horien zainketa eta arretaren menpe dauden beste batzuk hain zuzen ere; erabilera-balioak sortzen ditu –salgaiak produzitzen dituen lanak ez bezala, salgaiak trukeko balio dutez balio ekonomiko jakin bat baitute–; gainbalioa sortzen laguntzen du edo produkzio informalean sartu liteke; gizarteko ekonomia sistemaren erreprodukzioa bermatzen du. Gizartearen antolaketa emakumearen lanaren doakotasunean oinarritzen da. Emakumeak etxeko lanean ikusteko moduko salgaiarik edo truke-baliorik produzitzen ez duenez, lana eremu pribatukoa denez, produktu iraunkorrak barik produktu kontsumigarriak, ezkutukoak edo ikusezinak sortzen dituzenez, ez zaio lan kategoriarik aitortu eta horregatik da doakoa³⁹. Ezkutuko lan horiek beharrezkoak dira ekonomikoki, gizonezkoen lanen osagarri sarritan, baina, hala ere, ez dira ordainduak.

Etxekoandreen/etxekogizonen lana ekonomikoki balioestea eta kuantifikatzea da irtenbide bakarra. Nairobín 1985ean egin zen Nazio Batuen Konferentzian, estatistika eta kontabilitate nazionaletan ezkutukoekin amaitzeko proposamena egin zen. 1986ko urrian, Santo Domingon produkzio informala neurtzeko arazoak aztertzeko bildu zen aditu batzordeak kontu satelitea sortzea proposatu zuen, barne produktu gordinaren osagarri den produkzio ez ordaindua jasotzeko. 1995ean Pekinen izan zen Emakumeari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren ondorioz, Espainian etxeko lana ekonomikoki balioesteko ekintzak hasi ziren. Autonomia erkidegoei dagokienez, Ezkerreko Unida/Ezker Batua/Berdeak parlamentuko taldeak egindako ez-legezko proposamena

³⁸ ORDEIG FOS, J.M., *El sistema español de Seguridad Social (y el de la Comunidad Europea)*, 5. arg., Edersa, Madril, 1993, 538. or.

³⁹ SECCOMBE, LARGUÍA eta CARRASCO gogoan, GONZÁLEZ DE CHÁVEZ, M^a A., *Familia, Maternidad y Paternidad*, Premio de Investigación "M^a Isidra de Guzmán", Ayuntamiento de Alcalá de Henares, 1995, 30. eta 31. orr.

aipatu behar dugu, proposatu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoko etxeko lan ordaindu gabea kuantifikatzea, kontu ofizialetan sartzea eta gizarte politikan aintzat hartzea⁴⁰; aipatzekoa da, halaber, Kataluniako Parlamentuko 293/V Ebazpena, 1997ko apirilaren 28koa. Estatuari dagokionez, esan behar dugu 1998ko martxoaren 10ean Parlamentuak aho batez onartu zuela ez-legezko proposamen bat etxeko lan ordaindu gabearen kuantifikatze ekonomikoa eskatzen zuena.

Bere etxea zaintzeaz arduratzen den pertsonaren lana juridikoki balioetsi dadin –alde aurretik ikuspegi ekonomikotik eta aldi berean sozialetik balioetsia izan ondoren–, lehendabizi hark egiten duena lantzat jo behar da, ez dezagun itxaron lan horiek egi-tera familiatik kanpoko norbait etorri arte –horren lanak merkatuko balioa izango due-nez pertsona hori langiletzat joko baitugu– ordura arte aintzat hartu ez dena nabar-mentzeko.

Etxekoandreaken lana irabazizkoa da familia-gunearentzat –nazioko kontuetan duen garrantzi ekonomikoa alde batera utzita–. Familia-etxea zaintzea ezkontide bien bete-beharrak dela abiaburu hartuta –Kode Zibileko 110. artikulua–, baita ezkongabeko bizi-kideena ere, nahiz eta ezein lege testutan esanda ez agertu, betebeharrak hori betetzeko aukerak honako hauek dira: ezkontide edo bizikide biek etxetik kanpo lan egin eta beste pertsona bat kontratatzea etxeko lanak egiteko; ezkontide edo bizikide biek etxetik kanpo lan egin eta laneko bizitza eta familiakoa uztartzea biek berdinduz; arrazoi ekonomikoengatik, bere gogoz edo uneko egoera dela eta, bietako batek bere etxeko langilea izatea erabakitzea. Azken kasu honetan, haren lana ekonomiaren, gizartearen eta legearen aldetik balioetsia izan behar da. Gogor borrokatu da, eta oraindik ere badirau borroka horrek, etxeko lanak berdintasunez banatzeko eta baditugu horren lekukotasun batzuk, hala nola, langileen familiako eta laneko bizitzak uztartzeko azaroaren 5eko 39/99 Legea –azaroaren 6ko BOE–; enplegua sustatzea eta kalitatea hobetzea helburu duten lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriak buruzko 12/2001 Legea –uztailaren 10eko BOE–; eta azaroaren 16ko 1251/01 Errege Dekretua –azaroaren 17ko BOE–, amatasuneko eta haurdunaldiko arriskuengatik Gizarte

⁴⁰ Eusko Legebiltzarrak 1996ko apirilaren 19ko osoko bilkuran onartua eta 1996ko maiatzaren 6ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian –67. zenb.– argitaratua. EUSTATEk, 2000ko maiatzean ikerlan bat aurkeztu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko 1993-1998 urte bitarteko etxeko produkzioaren kontu satelitea jasoz. Ikerlan horren arabera, etxeko produkzioak ekarritako Balio Erantsi Gordina, Euskal Autonomia Erkidegoko barne produktu gordinean sartu gabea, barne produktu gordin horren %40,1 izan zen 1998an eta %50,2 1993an. Ikerketa honek agertu duen beste errealitate bat zera izan da, emakume gehienek esku hartzen dutela etxeko produkzioan, %75ek hain zuzen ere, eta gizonezkoen artean, ordea, kopuru hori %25,6 dela. Baina, nahiz eta etxean ohiko rolei eusten zaien, aurrerapen bat ikusten da gizonezkoen parte-hartzean, 1993an haien partaidetza etxeko produkzioan %20,7koa baitzen, beraz, 4,9 puntu igo da. Aurrerapen hori berdintsua da etxeko lan guztietan, baina esan liteke handixeagoa dela hezkuntzarekin eta etxeko pertsonen zainketaarekin zerkusia duten lanetan. <http://w.w.eustat.es/spanish/prensa/notas>.

Segurantzaren prestazio ekonomikoak arautu zituena, lan hau egiteak eskatzen duen sakrifizioa eta, batzuetan, pertsona batzuek, emakumeek gehienbat, lanaldi bikoitza egiten dutela kontuan hartuta. Bada, etxeko lanak banatzeko borroka egin bada ere, ez dezagun ahaztu irabazizko lantzat balioetsi behar dela ardura hori eta besterik ez duenarena. Balioespen ekonomikoa egiten hasita dago eta beharrezko urratsa da gero lan horren balioespen juridikoa eta soziala egiteko.

2.3.6. LANGILE AUTONOMOEN ERREGIMEN BEREZIAREN BABESA

Komeni da Langile Autonomoen Erregimen Bereziaren babesaren edukia aztertzea, ikusteko ea interesgarria litzatekeen etxekoandre/etxekogizon deritzen langileak erregimen horretan sartzea.

a. Aldi baterako ezintasuna

1994rako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 29ko 21/93 Legeak honela dio, ordura arteko arauak aldatuz: *los trabajadores autónomos incluidos en el Régimen Especial de Trabajadores por cuenta propia o Autónomos, podrán acogerse voluntariamente a la protección por incapacidad laboral transitoria en los términos establecidos reglamentariamente*. Horretarako, langileak agerian adierazi behar du aukera hori hartu nahi duela eta lan-istripu eta gaixotasun profesionalen mutua batekin formalizatu behar du –abenduaren 30eko 66/97 Legea, abenduaren 31ko BOE–.

Onuraduna izateko, langile autonomoak afiliatuta egon behar du, altan, eta gutxienez 180 eguneko kotizazioaldia eduki behar du azken bost urteetan gaixotasunaren ondoriozko egoeretarako –Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategineko 130. a artikulua–. Egoera istripu batek sortua bada, ez da gutxieneko kotizazioaldirik zehazten. –Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategineko 130. b artikulua–. Gainera, prestazioa jaso ahal izateko, aurretiaz aukera hori hartzeaz gain, langile autonomoak bere jabetzako merkataritza, industria edo dena delako establezimendua zuzenean kudeatzen duen pertsonaren gaineko aitortpena aurkeztu behar du edo, bestela, jarduera aldi baterako edo behin betiko uztearen aitortpena –abenduaren 23ko (31ko BOE) 2319/93 Errege Dekretuko 10. xedapen gehigarria– eta kuotak ordainduta eduki behar ditu⁴¹. Prestazioa noiz hasten den begiratuta, erregimen orokorrean ez

⁴¹ Prestazioa jaso ahal izateko Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta eduki beharra urriaren 28ko 2110/94 Errege Dekretuko 3.2 artikuluan ere badago ezarrita. Dekretu hori 84/96 Errege Dekretuak indargabetu zuen, Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta eduki behar direla ezartzen duen 3. artikulua izan ezik.

bezala, istripu edo gaixotasunak eragindako aldi baterako ezintasuneko prestazioa jasotzeko eskubidea hamabosgarren baja egunetik aurrera edukiko da –1978ko uztailaren 28ko Ministro Aginduko 6. a artikulua–. Prestazioaren zenbatekoari dagokionez, oinarri arautzailearen %60 izango da baja hartu eta 4. eta 20. egunen artean eta oinarri arautzailearen %75 21. egunetik aurrera –66/97 Legeko 11. xedapen gehigarria–.

Prestazio horren onuradun izateko eskubidea garrantzi handikoa da etxeoandreen-tzat/etxekogizonentzat, izan ere, haien lana aintzat hartzearen eta hilero-hilero kotizatzeak dakarren sakrifizioaren xede nagusia ez da, arestian esan dugunez, soldata bat jasotzeko interes ekonomikoa, baizik eta beharrian handieneko egoeretan laguntza gehigarri bat edukitzea. Hau da, kontua da etxeoandrea aldi baterako ezintasunaz bajan badago, aldi horretan prestazio bat jaso ahal izatea, kasurako, berak egin ezin dituen lanak egiteko pertsona bat kontratatuzko, lan horiek bertan behera utzi barik, mesede eske ibili barik edo, txarrena dena eta sarrien gertatzen dena, osasun egoera txarrean egon arren bere lanak egiten jarraitu barik. Gauzak horrela, 2319/1993 Errege Dekretuko 10. xedapen gehigarrian eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalako Zuzendaritza Nagusiaren 1994ko martxoaren 1eko ebazpenean eskatutako baldintzak malgutu edo aldatu egin beharko genituzke kasu honetarako. Era honetako langile-entzat, komeniko litzateke prestazio honetarako derrigor kotizatu behar izatea, nahiz eta langile autonomoentzat borondatezkoa izan. Dena dela, eta aurrerago esango dugunez, utopia litzateke etxeoandreek/etxekogizonek prestazio honetarako edo bes-telakoetarako kotizatzea, haien kotizazioak gainerako langile autonomoenak bezala-koak izan behar balira. Halako subjektuen kotizazioak langile autonomoen gutxieneko kotizazio oinarriak baino txikiagoak izan beharko lirateke eta, gainera, familia-erren-tekin ados daudenak, aipatu ditugun egoeretan pertsona hauek babesa eduki dezaten, are gehiago kontuan hartzen badugu ez dutela ezertariko diru kopururik edo soldata-rik jasotzen hilean-hilean. Geroago arituko gara puntu honen inguruan sakonago.

b. Amatasuna

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 11 bis xedapen gehigarriak dio Langile Autonomoen Erregimen Berezia sartuta dauden beren konturako langileek amatasu-neko prestaziorako eskubidea izango dutela Erregimen Orokorreko langileek bezalako norainokoan eta terminoetan. Langile autonomoen erregimenean aplikatzekoa den baldintza berezi bakarra zera da, Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta edukitzea. Hala ere, kasu honetan aplikatzekoa da Beren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Berezia arautzen duen abuztuaren 20ko 2530/1970 Dekretuko 28. artikuluko 2. idatz-zatian ordaintzera gonbidatzeko aurreikusten den mekanismoa.

Arlo honetan aurreikusi diren azken neurriak, langileen familiako eta laneko bizitzak uztartzeko azaroaren 5eko 39/99 Legeko neurrien jarraipen direnak, azpimarratu behar ditugu orain. Aipatu legeak jasotzen dituenak bezala, azken aldaketak ez dira besteren

konturako langileentzat bakarrik; 1251/2001 Errege Dekretuak langile autonomoak eta funtzionario publikoak ere hartzen ditu bere baitan, langile guztien erregimen juridikoa batzeko joera eta gogo modernoagoa erakutsiz, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren eta Laneko Arriskuen Prebentzioko Legearen ildotik.

Baina, beste alde batetik, ez dugu ahaztu behar amatasunaren eta bularra ematearen inguruko arauak aldendu egiten direla aspaldi honetako Lan Zuzenbidearen malgutasunetik eta desarauetatik. Kontua da enpresak, enpresaburuek eta langileek eurek ez dutela barneratuta sexuen berdintasuna lanean, batez ere amatasuneko egoeretan, eta ez direla jabetzen etxea eta seme-alabak zaintzeko lanen banaketa berdindu beharra dagoela. Berdintze hori lortzeko, legegileak familiako eta laneko bizitzak uztartzeko Legea jarri du martxan eta, honen osagarri eta garapen moduan, enplegua sustatzea eta kalitatea hobetzea helburu duten lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko 12/2001 Legea, eta azaroaren 16ko 1251/2001 Errege Dekretua –azaroaren 17ko BOE–, amatasuneko eta haurdunaldiko arriskuengatiko Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak arautu zituen. Neurri hauek arauz ezarriz lortu nahi da bestela lortu ezin dena. Erditzea, adopzioa eta atospena dira kontratu egoera berezi hori sortarazten duten jazoerak. Kasu horietan emakume langileak –edo gizonak, emakumeak hautatuta– Gizarte Segurantzaren prestazioa jasotzen du lanlekura joan barik –ez, ordea, lan egin barik, gure ustez–. Gizarte Segurantzaren prestazioa emateko ez da kontuan hartzen gurasoen egoera zibila eta seme-alaben legezko estatutua, beraz, berdin-berdina da amentzat zein aitentzat, ezkontuentzat zein ezkongabeentzat eta ezkontzako zein ezkontzaz kanpoko seme-alabentzat.

Orain prestazio honetan izan diren azken lege aldaketak aipatuko ditugu, langile autonomoek ere badagozkielako, nahiz eta oraingoz euren etxean eta euren etxerako lan egiten dutenak ezin diren haien onuradun izan.

— Amatasuneko prestazio ekonomikoa oinarri arautzailearen %100eko sorospena da⁴². Ume batez baino gehiagoz erdituz gero edo aldi berean haur bat baino gehiago adoptatu edo atotsiz gero, lehenengo seme-alabagatik hartu beharreko sorospenaren pareko sorospen berezia emango da bigarren seme-alabatik gorako bakoitzeko, sei astetan, erditzen den egunetik, atospena ebatzen duen administrazioaren edo epailearen erabakitik edo adopzioa eratzen duen epailearen ebatzenetik zenbatzen hasita –1251/2001 Errege Dekretuko 3.2 artikulua–. Sorospen horri, 1/2000 Errege Lege-dekre-

⁴² Prestazio hori jasotzeko gabealdia 180 egunekoa da gertakari kausatzailea jazo aurreko bost urteetan. Ez da eskatzen gabealdirik amaren derrigorrezko atsedeneko sei asteetan, bete beharreko lan osasuneko neurria delako. Ildo horretan, haurdun dagoen, erditu den edo bularra emateko aldian dagoen langilearen laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko neurrien aplikazioari buruzko urtarrilaren 19ko 92/85 Zuzentarauak ez du altarik eta aurretiazko kotizaziorik exijitzen prestazioaren onura jasotzeko.

tuko 2. artikuluan erditze multipleagatik araututa dagoen familiako prestazio ekonomikoa gehitu behar zaio. Babestu beharreko egoerak desberdinak direlako ematen dira bi prestazio. Lehenengo kasuan, ordenamenduak babesten duen premiazko egoera amatasunari dagokion derrigorrezko aldia da eta, bigarreanean, aldiz, erditze multipleak familiari dakartzkion gastu handiagoak konpentsatzen ditu hein batean. Horiez gain, beste prestazio ekonomiko bat gehitzen da Gizarte Segurantzaren familiako prestazioen esparruan: ordainketa bakarra hirugarrenetik gorako seme-alabak jaiotzean -172000 Errege Lege-dekretuko 2.2 artikulua-. Prestazio honen helburu bakarra jaiotza-tasa sustatzea da, zeren, arrazoirik gabe, adoptatuak kanpoan uzten baititu, seme-alaben kopurua zenbatzean izan ezik, filiazio guztietakoak hartzen baititu seme-alabatza⁴³. Emakume langileen artean jaiotza-tasa sustatzeko asmoz, arestian Gobernuak hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten emakumeei hilean 100 euroko laguntza ematea onartu du. Neurri hau pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan sartuko da 2003ko urtarrilaren 1ean, haurren zainketak dakartzan gastuei, hala nola, haurtzaindegia eta bestelako zerbitzu batzuei, aurre egiten laguntzeko helburuz. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga berrian emakumearen aldeko diskriminazio positiboa egiten duten neurrien artean, beste hau ere badugu: kenkaria handitzea bigarren umeetik aurrera (ez hirugarrenetik aurrera orain arte bezala) oraindik zehaztu gabe dagoen plus bat jarritz.

— Umeaz erditzean, ama langileak eskatzen den gutxieneko kotizazioaldia bete ez badu eta aitak baldintza hori betetzen badu, eta amak nahi badu, aitak sorospena jaso ahal izango du atsedenaldira osoan, sei asteko epea kenduta. Arau honen helburua zera da, amak gutxieneko kotizazioaldia beteta ez edukitzeagatik ez dadila etxean diru-sarreraren faltarik egon, eta ahalik eta konponbiderik bidezkoena ematen du, betebeharrak gurasoen artean banatzeko asmoaren ildoan: ohitura aldatuz, aitari etxean gertatzen uztea jaioberriaz arduratzeko eta ama lanpostura itzultzea. Tamalez, aukera hau ez da ohikoa gizonezkoen artean eta, hala, emakumea garrantzi profesional gabeko lanetara eta lanaldi partzialekoetara baztertzeko da.

Amatasuneko prestazio ekonomikoa jaso ahal izateko, honako egoera hauek dira altaren parekoak:

- Legez langabezia totaleko egoeran egotea eta hori dela-eta kontribuzio-mailako prestazioa jasotzea. Kontuan hartzekoa da langile autonomoek ez dutela langabeziako prestaziorik jasotzeko eskubiderik.

⁴³ RODRÍGUEZ ESCANCIANO, Susana, "La suspensión del contrato de trabajo por maternidad y supuestos asimilados: breves consideraciones tras la promulgación del RD 1251/2001, de 16 de noviembre", *RTSS*, 227. zk., 2002ko otsaila, 86. or.

- Probintziako, autonomia erkidegoko zein estatuko kargu publikoa edo ordezkari-tzako kargu publikoaren jarduna edo zeregin sindikalak utzi eta hurrengo hilabe-tea, kargu horren ondorioz langilea nahitaezko eszedentzian edo antzeko egoeran baldin badago, hilabete horretan egin behar baita lanera itzultzeko eskaera, Langileen Estatutuko 46.1 eta 48.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera..
- Enpresak nazio-lurraldetik kanpora eramatea langilea.
- Artistentzat eta zezenketako profesionalentzat, haien kotizazioa arautzen duten arauen arabera kotizatutzat eta altakotzat jotzen diren egunak, nahiz eta lan egin-dako egunekin bat etorri ez.
- Nekazaritzako Erregimen Bereziaren, lan arrazoiengatik atzerrira joatea, Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimen Bereziaren erregelamendu orokorreko 71. artikuluan araututa dagoen moduan –3772/1972 Dekretua, abenduaren 23koa–.
- Erregelamendu bidez erabakitzen diren bestelako egoerak.

— Erditzeagatiko etenaldiaren iraupenari dagokionez, hamasei aste jarraitu dira, ber-din denbora gabeko erditzea izan bada zein denbora betekoa, beti ere jaioberria bizi-rik badago. Hamasei aste horietatik, erditu osteko lehen sei asteak amarentzako nahi-taezko atsedenditizat hartzen dira eta, hortaz, ezin zaie ez uko egin ezta horien goza-mena aitari laga ere. Arrazoi bakarra dago horretarako, alegia, erditu ostean ama fisi-koki eta psikikoki suspertzea. Gainerako asteak amak zein aitak gozatu ditzakete, baita biek batera ere, baina norik gozatu dituen erabakitzea amatasuneko prestazioaren titularrari dagokio, ama langileari alegia. Zoritxarrez, oraindik gauza bat dago egiteke laneko eta familiako bizitzak erabat uztartzeko: amatasuneko atsedendialdiaren parte bat aitari nahitaez esleitzea. Horretara, etxeko lanen banaketan ez ezik enpresaren aurrean ere lortuko genuke berdintasuna. Asmo hau ez da berria, gai honetan dihar-duen doktrinak planteatuta dauka eta Europako herrialde batzuetan gauzatu ere egin da, beraz, ez da komeni asmoari uko egitea edo ahaztuta uztea.

Erditze multipleetarako, Legeak atsedendialdia argitu eta luzatu zuen bi aste gehiago emanez bigarrenetik gorako ume bakoitzeko. Arau hau adopzioan eta atospenean ere aplikatzekoa da. Seme edo alaba berria zaintzeak eskatzen duen ahalegina eta dedika-zioa kontuan izanik, erreforman, erditze bakarrean zenbat ume jaio diren ez ezik, fami-liak lehendik zenbat seme-alaba daukan ere hartu beharko zatekeen kontuan atsedendialdiaren iraupena luzatzeko orduan⁴⁴.

⁴⁴ RODRÍGUEZ ESCANCIANO, Susana, "La suspensión del contrato de trabajo por maternidad y supuestos asimilados: breves consideraciones tras la promulgación del RD 1251/2001, de 16 de noviembre", op. cit., 86. or., MOLINA GONZÁLEZ-PUMARIEGAK "El permiso parental por maternidad y el derecho a la protección frente al despedido tras la Ley 39/1999" obran (AS, 1998) esana gogoan.

Amatasuneko atsedenaldiaren hasieran amak aitaren aldeko hautua egiten badu, aitak erditzearen osteko atsedenaldirako baimenaren parte bat gozatzeko eta, ondorioz, etenik gabe sorospeneren zati bat jasotzeko, legerian ezarrita dagoen bezala, eta hori burutzea eragozten duen zerbait gertatzen bada, hala nola aita ez egotea, gaixotzea, istripu bat edukitzea, familia bertan behera uztea, banantzea, edo halako beste gertaeraren bat, amak bere hautu hori ezeztatu ahal izango du, 1251/2001 Errege Dekretuak ezartzen duenez. Logikoa da aurreikuspen hau sartzea, zeren, esan dugun bezala, gure herrialdean amatasuneko baimenean aita bigarren mailan baitago eta eskubide hori gozatzeko bide bakarra amak uko egitea edo aitari lagatzea baita.

— 1251/2001 Errege Dekretuko 6. artikulua aspaldiko erreibindikazio bat jasotzen du, alegia, amatasuneko sorospena haurrak ospitaleko alta hartzen duenetik jaso ahal izatea, erditu osteko sei asteak igarotakoan, epe horretan derrigorra baita lan kontratua etetea. Aukera hau aitarentzat zein amarentzat da, nahitaezko atsedenaldirako sei aste-etan izan ezik. Honen guztiaren inguruan arauketa berriak ezartzen dituen eskubideak honako hauek dira:

- Aita edo ama ordu -ordaindu- batez lanetik kanpora irten ahal izango dira eta eskubidea izango dute lanaldia murrizteko, bi orduz gehienez, soldata ere proportzioan gutxituta. Legegilea ohartu da ospitalean dagoen artean ospitalea arduratu behar dela jaioberria zaintzeaz eta, ondorioz, gurasoei malgutasuna ematen die ordutegian, haurra ikustera joan ahal izateko, eta amatasuneko atsedenaldira hartzeko eskubidea haurrak alta hartzen duenerako uzten du.
- Amatasuneko kontratu-etena ospitaleko alta hartzen denean hasi ahal izango da -nahitaezko atsedenerako sei asteak izan ezik-, amak, eta haren faltan aitak, hala eskatuz gero, eta amatasuneko sorospena ere eten egingo da eta jaioberriak ospitaleko alta hartzen duenean hasiko da berriro.

— Haurra hilez gero, amak prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango du erditu osteko sei asteko nahitaezko atsedenaldira betetzeko falta diren egunetan. Halakoetan, amak aitaren aldeko hautua egingo da, hautu hori indargabetu egingo da. Nahiz eta umekiak nortasuna izateko Kode Zibileko 30. artikulua ezartzen dituen baldintzak ez bete, amaren sabelean ehun eta laurogei egun gutxienez egin baditu, amak nahitaezko sei asteko atsedenaldira hartu ahal izango du. Haurra erditu ostean hilez gero, logikoa da amak bakarrik edukitzea nahitaezko sei asteko atsedenaldira gozatzeko eskubidea, gainerako asteak umea jagoteko baitira eta, zoritxarrez, ume horrek ez baitu bizirik irautea lortu. Umearen heriotzaren ondorioz amak izan ohi duen depresioa ezintasun egoerara bideratu beharko litzateke.

Haurdunaldiaren eten irregularra gertatuz gero, kasurako zigorgarria ez den abortua -terapeutikoa, eugenetikoa edo etikoa- edo berezko abortua, egoera hori jasan due-

naren suspertzea aldi baterako ezintasuneko prestazioan sartu beharko litzateke, nahiz eta egoeraren sortzailea gaixotasuna edo istripua izan ez⁴⁵.

— Ama hilez gero, nahiz eta heriotzak erditzearekin zerikusirik izan ez, aitak sorospen osoa edo falta dena jaso ahal izango du. Hemen aurrerapena egin da jaioberria zainketa barik ez uzte aldera, lehen bakarrik ematen baitzitaion aitari erditu osteko nahi-taezko sei asteak betetzeko geratzen zen denbora. Amak prestazioa gozatzeko aitaren aldeko hautua egin eta prestazioa amaitu aurretik aita hilez gero, ama sorospenaren onuradun izan ahal izango da atsedenaldia osatzeko falta den denboran, nahiz eta ama bere lanpostura itzulita egon.

Legea heriotzaren ondoriozko halako egoerak arautu beharrean dago, izan ere, lehen aipatu dugunez, amatasuneko etena gozatzeko eskubidea amari baitagokio, eta amak hautatuta baino ez, aitari. Baina, gogoan izan behar dugu doktrinak aspaldian planteatu duen egoera bat, alegia, amaren egoera fisikoak umea jagotea eta ahalmenak eskuordetzea ezinezko bihurtzea, erditzeak sorrarazitako koma egoera, esaterako. Balizko egoera hau ez da arauan jasotzen eta berehala eman behar zaio irtenbidea, jaioberriak gutxienez guraso baten zainketa, biena ezin bada, behar duelako. Egoera hau amaren heriotzarekin parekatzea proposatu da⁴⁶. Bada beste balizko egoera bat, korapilatsuagoa dena: ama arestian aipatutako egoeran egotea eta senarrak edo bizikideak amatasuneko prestazioa gozatu ezin izatea, ezkontidea edo bizikidea etxe- andrea/gizona izanik, haren lana juridikoki balioetsita ez dagoelako.

— Arauketa berrian haurdunaldiko arriskuagatik sorospenaren ordenamendu juridiko zehatza egin da. Sorospen hori emakumezko langile autonomoek aitortua dute Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 8. xedapen gehigarrian, azaroaren 5eko 39/99 Legean idatzi zen moduan.

⁴⁵ Argumentazio horrek ahaztu egiten du haurdunaldiko babesaren helburu nagusia langilearen lan egoera eta karrera profesionala babestea dela. Helburu hori ez da lortzen gaixotasun arruntagatik aldi baterako ezintasunak ematen duen babesarekin, aldi baterako ezintasunaren erregimen juridikoa amatasunarena baino eduki eskasagokoa delako bai kopuruz eta bat tasunez. Hutsune hori, gainera, ez dator bat nazioarteko erakundeek agertutako ardurarekin, Lanaren Nazioarteko Erakundearen amatasunaren babesari buruzko 95. gomendioarekin batez ere, beronek esaten baitu kontrol organismoek baimena izan beharko luketela zenbait kasutan haurdunaldiko eta erditu osteko atsedenaldiak luzatzeko, bereziki, ohiz kanpoko gertaerak jazotzen direnean, hala nola, abortuak edo bestelako zailtasunak. Halako egoerak arautzea proposatzen da, haurdunaldiko arriskuekin egin den bezala. RODRÍGUEZ ESCANCIANO, Susana, "La suspensión del contrato de trabajo por maternidad y supuestos asimilados: breves consideraciones tras la promulgación del RD 1251/2001, de 16 de noviembre", op. cit., 89. eta 90. orr.

⁴⁶ RODRÍGUEZ ESCANCIANO, Susana, "La suspensión del contrato de trabajo por maternidad y supuestos asimilados: breves consideraciones tras la promulgación del RD 1251/2001, de 16 de noviembre", op. cit., pág. 92.

Kasu honetan babesten den egoera, haurdunaldiko arriskuagatiko prestazio ekonomikoari dagokionez, honako hau da: haurdun dagoen langilearen lan jarduerak bere osasunean edo umekiaren osasunean eragin txarra izanez gero eta dagokion erakunde kudeatzaileko zerbitzu medikuek hala ziurtatuz gero, lan jarduna eten beharra dago; bada, etenaldi horretan haurdun dagoen langileak duen egoera babesten du ordenamenduak.

Sorospen honen onuradun izango dira haurdunaldian arriskuagatik lan jarduera eten duten bere konturako emakumezko langileak, Gizarte Segurantzako erregimenen batean afiliatuta eta altan egonez gero eta gutxienez ehun eta laurogei eguneko kotizazioaldia edukiz gero dagokion erakunde kudeatzaileko zerbitzu medikuek ziurtagiria egin aurreko bost urteetan. Ezinbestekoa da, halaber, langileak Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta edukitzea.

Haurdunaldiko arriskuagatiko prestazio ekonomikoa dagokion oinarri erregulatzailearen %75eko sorospena izango da. Oinarri erregulatzailea gertakizun arruntek eragindako aldi baterako ezintasunerako prestaziorako ezarritakoa izango da, dagokion erakunde kudeatzaileko zerbitzu medikuek ziurtagiria zer egunetan egin duten kontuan hartuta. Dagokion erakunde kudeatzaileko zerbitzu medikuek ziurtagiria egin eta hurrengo egunean sortzen da sorospena jasotzeko eskubidea, baina ondorio ekonomikoak lan jarduera benetan uzten den egunean hasiko dira gauzatzen. Langilearen edo/eta umekiaren segurtasuna edo osasuna babesteko behar den denbora guztian ordainduko da sorospena, lanera itzultzeko ezintasuna dagoen artean, alegia; eta amatasuneko atsedena hastegatik, emakumezko langilea lanera itzultzeagatik, langilearen Gizarte Segurantzako erregimen berezian baja izateagatik edo onuraduna hiltzeagatik iraungiko da. Onuradunak sorospena lortzeko edo mantentzeko iruzur egin ez gero edo sorospena jasotzeko eskubidea sortu ondoren bere kontura zein besteren kontura sorospenarekin bateraezina den edozein lan eginez gero, sorospena ukatu, ezeztatu edo eten egin dakiok. Arriskuagatiko prestazio ekonomikoa erakunde kudeatzaileak kudeatzen du zuzenean, langileak aipatu dekretuko 28. artikuluan zehaztutako prozeduraren bidez eskaera egin ondoren.

Nabarmentzekoa da, era berean, jarduera-aniztasunerako araututakoa. Langileak egiten dituen jarduera guztietan baldin badago haurdunaldiko arriskua, langileak dagozkion erregimen guztietan izango du sorospena jasotzeko eskubidea, haietako bakoitzean eskatzen diren baldintzak betetzen baditu. Haurdunaldiko arrisku egoera langileak egiten dituen jardueretako batean edo batzuetan baino gertatzen ez bada, haurdunaldirako arriskutsu diren jarduera horiei dagokien erregimenean bakarrik jaso ahal izango du sorospena. Sorospena jasotzea eta haurdunaldirako arriskugarriak ez diren jarduerak egiten jarraitzea edo hastea bateragarriak dira.

— Azkenik, aipatu behar dugu amatasuneko eta haurdunaldiko arriskuengatiko Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak arautu zituen azaroaren 16ko 1251/01 Errege Dekretuak aukera ematen duela erditu, adoptatu edo atotsi osteko atsedena-ldia lanaldi partzialeko erregimenean gozatu ahal izateko eta, hortaz, sorospena eta lan jarduera bateragarri direla kontratu mota aldatu gabe. Kasu horretan, baimenaren iraupena luzatu egingo da langileak egiten dituen lanorduen proportzioan. Neurri mal- gutzaile honen bidez, legearen zioen azalpenean ageri denez, zera lortu nahi da: fami- liako ardurak aitaren eta amaren artean banatu daitezela bultzatzea, gurasoek seme- alabak hobeto zaindu ahal izatea, eta emakumeek lanpostuarekin lotura mantendu ahal izatea, amatasuna lanbidean gora egiteko oztopoa izan ez dadin. Neurri hau, baina, ez da aplikagarria beren konturako langileentzat. Egia esan, bere konturako lan- gileak lanaldia banatzeko ahalmena du eta egoera horretan ez dago enpresabururik, hau da, ez dago lanaldia norekin negoziaturik, hortaz, ezinezkoa da lanaldi partziale- ko prestazio bat eratzea beren konturako langileentzat. Horrek ez du kentzen, ordea, aitak baimenaren parte bat gozatu ahal izatea modalitate honetan, amak hala eraba- kita eta bere enpresaburuarekin adostuta.

Etxekoandrea/etxekogizona langiletzat ez jotzea eragozpena da laneko eta etxeko bizitzak uztartzeko printzipioa benetan betetzeko. Etxekoandreek/etxekogizonek betetzen duten lana lan zuzenbidean aitortuta ez dagoenez gero, haien ezkontide edo bizikideak ezin du amatasuneko bajaz gozatu umea zaintzeko. Hauxe da egoera: Zuzenbidearen iritzian emakumeak ez duenez lan egiten, nahiz eta umea izan berri egon, lehen egiten zituen etxeko lan berberak jarraitu behar du egiten. Esan beharrik ere ez dago, halakoetan erditze multipleagatiko laguntza gehigarriak txikiagoak dire- la, emakumea juridikoki langilea ez delako. Egoera hau lehenbailehen konpondu beha- rra dago, legeak emakumea suspertzeko nahitaezko jotzen dituen sei aste horiei dago- kienez batik bat.

c. Ezintasun iraunkorra

Beren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako erregimen berezia arautu zuen abuztuaren 20ko 2530/1970 Dekretuko 27.4. artikulua baliaezintasuneko prestazioak sartu zituen erregimen berezi horretan, hiru maila bereziz: ohiko lanbide- rako ezintasun iraunkor osoa, lan orotarako erabateko ezintasun iraunkorra eta baliae- zintasun handia. Langile Autonomoen Erregimen Berezian ez da aipatzen ezintasun iraunkor partzialik. Ezintasun maila guztietarako, kontzeptuak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrerako ezarritako berberak dira. Hortaz, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bategineko 8. xedapen gehigarria Gizarte Segurantzako erregimen guztietan aplikatzekoa da, baita langile autonomoen erregimen berezian ere. Era bere- an, aplikagarria da beste artikulua hauetan xedatutakoa: 137.2 eta 3; 138. artikulua, 2. idatz-zatiko azken paragrafoan eta 5. idatz-zatian araututakoa izan ezik; 140. artikulua- ko 1., 2. eta 3. idatz-zatiak; eta 143. artikulua. Horiez gain, langile autonomoen erregi-

men berezian aplikatzekoak dira baliaezintasun mailak, onuradunak, gertakizun arruntek eragindako baliaezintasun iraunkorreko pentsioetarako oinarri arautzailearen kalkulua, kalifikazioa eta berrikuspena.

Langile autonomo bat prestazio honen onuraduntzat jotzeko, baldintza hauek bete behar ditu: Langile Autonomoen Erregimen Berezian afiliatuta eta altan egon, edo altarekin parekatutako egoeran egon prestazioaren beharra sortzen denean –autonomoen erregimen berezia arautu zuen dekretuko 28.1 artikulua– (baldintza hau ez da beharrezkoa erabateko ezintasun iraunkorreko edo baliaezintasun handiko prestazioetarako –Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategineko 138.3 artikulua–); une horretan Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta edukitzea; gutxieneko kotizazioaldia edukitzea –ez da beti berdina, ezintasuna eragin duen gertakizunaren arabera da eta–⁴⁷. Baina, 24/97 Legean ezarritakoaren arabera, ezin izango zaie prestazio hau aitortu hirurogeita bost urte beteta izan eta erretiroko pentsioa jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituztenei –Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategineko 138.1 artikuluko 2. paragrafoa eta 24/97 Errege Dekretuko 6.1 artikulua–.

Prestazioa biziarteko pentsioa edo kalte-ordaina izaten da, oroharreko prezioan, oinarri erregulatzailerak eta kasu bakoitzean aplikatzeko den portzentajea kontuan hartuta zehazten dena.

Garrantzi handikoa da prestazio hau aitortzea, izan ere, ezintasun iraunkorreko kalifikazioa merezi duen egoera fisikoan dagoen etxeoandreak/etxekogizonak ez du hone-lako prestaziorik jasotzeko eskubiderik, eta karga ekonomiko handia da bere etxe eta bere etxerako langile honek egin ezin duena egiteko pertsona bat kontratatzea laguntzarik gabe. Eta hori dena Zuzenbideak ez duelako langiletzat jotzen.

d. Erretiroa

Nahiz eta prestazio hau langile autonomoentzat Beren Konturako Langileen edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezia arautzen duen abuztuaren 20ko 2530/1970 Dekretuko 42. artikuluan araututa egon, 1/94 Errege Lege-dekretuko 8. xedapen gehigarriak ezarri duenez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategineko 161. artikuluko 1b, 4. eta 5. idatz-zatiek, 162. artikuluko 1.1, 2., 3. eta 4. idatz-zatiek, 163. artikulua eta 165. artikulua agintzen dute, hau da, Erregimen Orokorrekin parekatuta dago. Prestazio honen onuradun izateko, baldintza hauek

⁴⁷ Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategineko 138.1 eta 2. artikulua.

bete behar dira: 65 urte beteta eduki, gutxieneko kotizazioaldia beteta eduki eta kuo-
tak ordainduta eduki⁴⁸.

Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa jaso ahal izateko baldintzak, berriz, honako hauek baino ez dira: 65 urte beteta eduki, legezko bizitokia Espainiako lurraldean eduki⁴⁹ eta Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezartzen diren mugetatik gorako errentak edo diru-sarrerak ez eduki, ez norberak ez onuradunarekin bizi den familiak –Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 167.2 artikulua–. Kotizazio gabeko erretiro-pentsioaren zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean zehazten da urtero⁵⁰.

Langilearentzako *kotizaziopeko* erretiro-pentsioaren alde gaude, izan ere, bizitzan zehar egindako lana diruz konpentsatzea baita honen funtsa –aurretiaz kotizatuta, noski– gizakiok gure bizitza atsegin eta atsedean kontuetan eman behar omen dugun sasoian. Kotizaziopeko pensioa langilearen beraren eskubidea da, horretan ez da kontuan hartzen familia-unitatearen errenta ez bestelako konturik, baina kotizazio gabeko pensioa, ordea, norberaren eta familiaren errentei eta beste baldintza batzuei lotuta dago. Etxekoandreen/etxekogizonen lana, etxekoandreena gehienetan, aintzat hartzeko arazoaren konponbidea ez dago kontribuzio gabeko pensioan, honen funtsa pobrezia-egoeretan laguntzea baita eta ez egindako lana balioestea eta konpentsatzea.

e. Heriotza eta bizirik irautea

Heriotzako eta bizirik irauteko prestazioak, hau da, heriotzagaratiko laguntza, biziarteko alargun-pentsioa, umezurtz-pentsioa eta ahaideen aldeko biziarteko pensioa edo aldi baterako sorospena –Beren Konturako Langileen edo Autonomoen Gizarte

⁴⁸ Erretiro Malguari buruzko Errege Lege-dekretuak zenbait neurri ezartzen ditu adineko langileek lanean jarrai dezaten errazteko, hori dena 2001eko apirilaren 9ko Akordio Sozialeko XII. Ataleko orientabideen ildoan. Horietako batzuk langile autonomoei zuzenduta daude. Adineko langileek jardunean segitzeko pizgarriak dira, jaiotza-tasa baxuak eta pensio sistemak etorkizunean izango dituen tentsioak kontuan hartuta. 60 urtetik gorako langileen kotizazioetan hobariak aurreikusten dira, baita kotizazio sozialak ordaintzetik libratzea ere besteren konturako langileen alde eta beren konturako langileen alde ere bai, adin baldintzak eta gabealdia betez gero.

⁴⁹ Eskakizuna honakoa da: gutxienez hamar urtetan legearen barruan bertan bizi izana eskatzaileak 16 urte bete zuenetik gertakari kausatzailea jazotako egunera bitartean. Hamar urte horietatik bi gutxienez jarraituak eta prestazioa eskatu aurrekoak justu izango dira –Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 167.1 artikulua–.

⁵⁰ 357/1991 Errege Dekretua, martxoaren 15ekoa –martxoaren 21eko BOE–. Nahiz eta dekretu hori Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pensioak ezarri zituen abenduaren 20ko (abenduaren 22ko BOE) 26/1990 Legea garatzeko eman eta lege hori Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetu, indarrean dagoela ulertu behar da urtarrilaren 30eko 118/1998 Errege Dekretuaren ondorioz. 357/91 Errege Dekretua aldatu egin da Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pensioak jasotzeko eskubidea izateko baldintzak egiaztatzeari dagokionez –otsailaren 18ko BOE–.

Segurantzako Erregimen Berezia arautzen duen abuztuaren 20ko 2530/1970 Dekretuko 26. artikulua– Erregimen Orokorrean bezala aitortzen dira kausatzaileei, onuradunei, kotizazioaldiei, oinarri arautzailearen kalkulari eta prestazioaren zenbatekoa zehazteko aplikatu beharreko portzentajeari dagokienez. Ohi bezala, prestazio hauek jasotzeko Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta eduki behar dira, autonomoen erregimen bereziari buruzko dekretuko 28.2 artikuluan eskatzen denez.

Egokia litzateke familia-etxeaz arduratzen den pertsona galdu eta lan horiek egiteko norbait kontratatu behar duenari egoera horrek ondarearen aldetik dakarkion desoreka konpentsatuko balitzaio, desoreka emozionala konpentsatzerik ez baitago.

f. Osasun laguntza eta ardurapeko seme-alaba bakoitzeko prestazioa besteren konturako langileek bezalakotsuak dira babesari dagokionez

g. Langile autonomoei aitortu gabeko prestazioak

Nahiz eta aspaldian Langile Autonomoen Erregimena eta Erregimen Orokorra parekatzeko ahaleginak egin diren, oraindik bide luzea dago berdintasunera iristeko. Gure ikerlan hau Langile Autonomoen Erregimen Bereziari buruzkoa ez denez gero, ez zaigu egokia iruditzen kontu hauetan tematzea, gure xedetik ez aldentzearren; hala ere, gogora ekarri nahi ditugu, aipatze hutsez baino ez bada ere, langile autonomoei aitortzen ez zaizkien prestazioak. Langile autonomoek ez dute lan istripuengatik prestaziorik, ezta langabeziakorik ere. Lan istripuei dagokienez, prestaziorik ez egoteko eman izan den azalpena zera izan da, ez dutela kotizazio gehigarriak halako gertakizunengatik, kontribuzioetan zama handiegia izango litzatekeelako⁵¹. Dena dela, Laneko Arriskuen Prebentzioko Legeak bere aplikazio eremuan sartzen ditu halako langileak, hortaz, gure legeriak berretsi egiten du langile autonomoak izan ditzakeela, eta izaten dituela, beste langile eta/edo enpresaburu batzuekin lan egiten duenean, laneko istripuak eta gaixotasunak gertatzeko arriskuak⁵². Langabeziako prestazioei dagokienez ere, alde aurretik horregatik ez kotizatzea da langile autonomoek halako prestaziorik ez izateko arrazoia. Egoera honen bidegabekeria agertu behar dugu hemen, langabeak lan egin ezin duelako ez baitu lan egiten eta ez nahi ez duelako, are gehiago langabeziaren inguruko azken erreformen ondoren, eta ez da zuzena pentsatzea lan egiten ez duen langile autonomoak nahi ez duelako ez duela egiten eta ez ezin duelako.

⁵¹ GÓMEZ CABALLERO, Pedro, *Los trabajadores autónomos y la Seguridad Social: campo de aplicación y acción protectora del RETA*, op. cit., 102. or.

⁵² Laneko Arriskuen Prebentzioko Legea langile autonomoaz ari denean beste batzuei sorraz ahal dizkien arriskuez ari da, ez haren segurtasuna eta osasuna babestu beharraz.

3. LEHENENGO PROPOSAMENA: ETXEKOANDREAREN/ ETXEKOGIZONAREN LANA LAN AUTONOMO MODUAN

Langile autonomoak, besteren konturako langileak ez bezala, bere lana nola egin erabakitzeke ahalmena du. Besterentasuna eta mendekotasuna dira etxeakoandreak/etxezogizonaren lanari lan kategoria bat egokitzeko oztopo nagusiak, izan ere, aztergai dugun harremana oso berezia baita: bikotean erabateko konfiantza dago, edozein agindua konstituzioaren kontrakoan izan liteke eta horren atzean indarkeria psikologikoa eta tratatu txarrak egon litezke. Horrexegatik ematen du etxeakoandreak/etxezogizonaren lanari lan kategoria zehatz bat esleitzekotan, langile autonomoaren kategoria dela aukera egokia, ikusia baitugu, gorago emaniko azalpenetan, bere etxean eta bere etxerako lan egiten duen langilea halako subjektuentzako eskakizunetara egokitzen dela. *Egokitu* diogu eta ez *guztiz bat etorri*, zeren, gure ustez, Zuzenbidea malgu izan behar baita gizartearen eta gizakien eskariei egokitzeko, eta gizarteak eta etxeogandreak/etxezogizonak une honetan guztiz beharrezko ikusten baitute, baita eskatu ere, beren lana juridikoki, ekonomikoki eta sozialki aintzat har dadin eta gainerako langileak dituzten prestazioak haiei ere aitortu dakizkien.

Enpresabururik ez dagoenez, langile autonomia da kotizazioa ordaindu behar duena eta arduraren hartzen duena⁵³. Bere etxean eta bere etxerako lan egiten duen langilearen harreman berezian, ezkontza bidezko edo izatezko elkartzea egonez gero, aukera bat izan liteke kotizazioa etxetik kanpo lan egiten duen ezkontidearen edo bizikidearen soldatetik kentzea derrigorrez, aldezturik eta borondatez ezkontide edo bizikide biek batak erregimen eta lan hori hautatu duela itunduta. Nahiz eta egia den lanaren konpentsazio nagusietako bat, nagusia ez bada, ekonomikoa dela, etxeogandreak/etxezogizonak bere patrikara zuzenean diru kopuru bat eramatea posible ez bada ere, bada posible beste konpentsazio ekonomiko bat epe laburrera edo luzera: gizarte honetako gainerako langileak bezala, prestazio batzuen onuradun izan ahal izatea, hain zuzen ere.

Proposamen honek justifikazio sendoa du legerian. Legeak zabalik uzten du etxeogandreak/etxezogizonaren lana langile autonomoen erregimenean sartzeko aukera. Izan ere, nahiz eta Gizarte Segurantzaren aplikazio eremua zehazten duen Gizarte

⁵³ 2064/95 Errege Dekretuko 43.1 artikulua eta 189/1987 Konstituzio Auzitegiaren Epaia, azaroaren 24koa.

Segurantzaren Lege Orokorreko 7. artikuluan ez den zuzenean aurreikusten, Gizarte Segurantzaren Sistema batu eta arrazionalizatzeari buruzko uztailaren 15eko 24/1997 Legeko lehen xedapen gehigarrian, euren etxea zaintzen lan egiten duten eta bestelako kotizaziopeko prestazioen babespean ez daudenak langile autonomoen aplikazio eremuan sartu ahal izatea ezartzen da etorkizunari begira⁵⁴. Era berean, xedapen horrek dio horretarako azterketa tekniko eta ekonomiko bat prestatzeko eta Diputatuen Kongresuari aurkezteko⁵⁵. Txosten hori Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzak prestatu zuen 1998ko martxoan eta orduko Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaria zenak, Aparicio Pérez jaunak, aurkeztu zituen ondorioak Diputatuen Kongresuan, 1998ko maiatzaren 20an, 32. bilkuran.

Txostenak berrikuntza ekarri bazuen ere, berehala gaitzetsi zen Administrazioak azterketan ez zuela behar adinako borondaterik jarri hain beharrezkoa den pertsona talde honen lana aintzat hartzeko, Espainiako Estatuan dagoen bizi-kalitate maila altua kontuan harturik, izan ere, talde honek bere eskubidez merezi baititu gizarte prestazioak, eskubide hori aitortua duen beste edozein langilek bezala. Borondate falta txostenaren lehen orrian igartzen da, bertan onartzen baita etxeoandreek ez dutela beren eskubidez inongo gizarte prestaziorik, baizik eta beste pertsona bati aitortutako eskubideen partaidetzaz eta hedaduraz jasotzen dituztela prestazioak, bietako bat, edo alabak dira edo amak dira, baina ez zaie aitortzen zerbitzuak jasotzeko berezko eskubiderik⁵⁶. Nahiz eta European etxeoandrea/etxekogizona langile autonomotzat jotzen ez den, gogoan hartu behar dugu kalifikazio hori badela aspaldian –guk proposatzen dugun

⁵⁴ "El Gobierno, en el plazo de ocho meses desde la entrada en vigor de esta ley, presentará ante la Comisión de Política Social y Empleo del Congreso de los Diputados, un estudio técnico y económico sobre el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos que contemple la mejora de las prestaciones y su aproximación a las del Régimen General, así como la posible inclusión en su campo de aplicación, de quienes trabajen al cuidado de su propio hogar y no estén amparados por otras prestaciones contributivas".

⁵⁵ "Estudio Técnico y Económico sobre la posible inclusión en el campo de aplicación del Régimen Especial de Trabajadores por Cuenta propia o Autónomos de quienes trabajen al cuidado de su propio hogar y no estén amparados por otras prestaciones contributivas".

⁵⁶ AMORÓS I SANS andrearen mintzaldia, Talde Parlamentario Katalanaren izenean. Diario de Sesiones del Congreso de los Diputados, 1998, 46. zk., 32. bilkura, 1998ko maiatzaren 20koa. Antzeko kritika egin zuen Alderdi Sozialistako Alejandro CERCAS ALONSO jaunak, ikerketa sinplea eta sakontasun gabekoa zela salatuz.

baino murriztagoa, baina– Latinoamerikako herrialde batzuetan, Argentinan kasurako⁵⁷.

Ez da nahikoa talde hau langile autonomoen erregimenean sartzeko zailtasuna gogoratzea, aitzitik, erregimen horren malgutzera bilatu behar da, langile hauek juridikoki txertatu ahal izateko. Gure ustez, Gizarte Segurantzarentzat onuragarria eta ekonomikoki errentagarria izan liteke halako subjektuek kotizatzea. Dena dela, langile hauen egoera eta ezaugarri bereziak kontuan izanik, talde honentzako aparteko atal bat sortu beharko da langile autonomoen kotizazioetan. Kotizazioa borondatezkoa izan beharko da, noski, baina zenbatekoa familiaren errenten proportzioskoa izan beharko da, azken finean hortixe aterako baita. Kontuan izan behar dugu, gainera, ez dela soldatarik egongo halako subjektuentzat. Era honetara, ez da gertatuko egoera ekonomiko ona duten familiek bakarrik kotizatu eta prestazioak jaso ahal izatea. Langile autonomoen erregimen *tertium genus* honek gabealdi luzeagoa izan lezake prestazioak eskuratu ahal izateko eta, hala, pentsioen erosketa saihestuko litzateke. Edozelan ere, etxeoandreen/etxekogizonen balioespen ekonomikoa ezin da egon balioespen sozialaren eta giza duintasunaren gainetik. Kontuan izan behar dugu, gainera, EUSTATEk 2000ko maiatzean egindako etxeko produkzioaren kontu satelitean kalkulatu denaren arabera, etxeko lana merkatuko prezioan ordainduko balitz, hileko 150.000 pezetako batez besteko soldata ordaindu beharko litzatekeela, hau da, lanordu gordina 1.131 pezetatan baloratzen dela, eta etxeko produkzioak ekarritako Balio Erantsi Gordina, euskal ekonomiaren Barne Produktu Gordinean sartuta ez dagoena, BPG horren %40,1 izan zela 1998an.

⁵⁷ 1997ko ekainaren 26ko 24828 Legeak –1997ko ekainaren 30eko Aldizkari Ofiziala– aukera ematen du etxeoandreak beren borondatez 24.241 Legeak –1993ko urriaren 18ko Aldizkari Ofiziala–araututako eta 24.347 Legeak –1994ko ekainaren 29ko Aldizkari Ofiziala– aldatutako erretiro eta pentsio sisteman sartzeko. Lege horrek familiaren aurrekontuekin langile autonomoei eskatzen zaizkien gutxieneko kotizazioei aurre egin ezin izan dietelako Gizarte Segurantzaren sistematik kanpo aurkitzen diren etxeoandreen egoera hartzen du kontuan. Erretiroko konpentsazioa egindako kotizazioen zenbatekoari eta denborari lotuta egongo da, baita sistemak dakarren errentagarritasunari eta kostu administratiboari ere. Argentinako sisteman, gainera, istripua edo gaixotasuna gertatuz gero, etxeoandre langile autonomoek baliaezintasuneko erretiroa jasotzeko aukera aurreikusten da, baita heriotza-pentsioa ere haren eskubidedunentzat. Lege horren arabera, Botere Exekutibo Nazionalak eskumena du etxeoandreentzako elkartasuneko funtsa sortzeko, bertan ezarritako arauak betetzen dituzten onuradunen erretiroko ondasunak gehitzeko, erakunde publiko zein pribatuek egin diezazkioketelarik ekarpenak funts horri. Etxeoandreen kotizazioa honakoa da: langile autonomoentzat aurreikusitako kategoriarik baxuenaren hileko errenta zergapegarriaren %11, baina goragoko kategoriatik hauta dezakete edo borondatezko kopuru osagarriak gehitu. Edozelan ere, erabateko bateraezintasuna dago beste edozein lanekin, besteren konturakoa zein norberaren konturakoa izan. Aipatzekoa da Argentinako sisteman etxeoandreak aintzat hartu badira, Argentinako Errepublikako Etxeoandreen Sindikatuaren erreibindikazioen ondorioz hartu direla.

Bada beste arazo bat kontu honetan, etxeoandre/etxeogizon nor den zehaztea, alegia. Gure ustez, etxeoandrea/etxeogizona da proposatutako definizioari egokitzen zaion edonor, andre zein gizon, etxean ez ezik etxetik kanpo ere lan egin arren. Ezin gara mugatu euren etxeo lanetan bakarrik jarduten duten horietara, zeren, zalantza barik, etxeaz arduratzeaz gain etxetik kanpo beste lan bat egiten duena ere bai baita etxeoandrea/etxeogizona. Ezin dugu ahaztu, gainera, langile autonomoen erregimenak enplegu-aniztasuna onartzen duela. Dena dela, normalean gogoan dugun giza taldea dedikazio eskusiboko etxeoandreak/etxeogizonak dira, legerian ahaztuena eta gizartean gutxietsiena delako⁵⁸. 1997ko hirugarren hiruhileko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 5.543.900 emakume ez-aktibo zeuden etxeo lanetan zihardutenak. 1998ko bigarren hiruhileko inkestan, kopurua 5.416.300 zen. Emakume horiek jo ditzakegu etxeoandretzat zentzu hertsian, nahiz eta haien artean etxeo produkzioan ezer gutxi, edo ezer ez, parte hartzen duten gaixoak eta adineko emakumeak ere egon. Kopuru horiei beste arrazoi batzuegatik ez-aktibo diren beste 2.712.600 emakume gehitu behar dizkiogu 1997ko 3. hiruhileko inkestaren arabera eta 2.848.300 1998ko 2. seihileko inkestaren arabera. Zentzu hertsian –administrazioan eta estatistiketan– etxeoandretzat jotzen direnei beste etxeoandre batzuk gehitu behar zaizkie: aktibotzat hartzen diren emakumeak baina etxeoandre ere badirenak: 3.340.000 emakume langabezian –1997ko BAI– eta 3.043.700 emakume lanean –1998ko 2. seihileko BAI–; izan ere, emakume hauetatik gehienek nahikoa dedikazio eskaintzen diote familiari eta. Talde horiek batuta, esan liteke gaur egun Espainian hamabi milioi eta erdi emakume inguru daudela etxeo lanetan jarduten dutenak ordu gehiago edo gutxiagotan. Beste alde batetik, 1997ko 3. seihileko BAIaren arabera, 442.400 gizonezko ez-aktibo daude etxeo lanei denbora eskaintzen dietenak eta 618.000 gizonezko lanean egonda etxeo lanetan ere denbora ematen dutenak. 1998an –2. seihileko BAI– kopuruak beste hauek dira, hurrenez hurren: 424.700 eta 683.500. Gainera, badira 41.800 gizon dedikazio nagusi edo ez-aktibo izateko arrazoi nagusi etxeo lanak dituztenak⁵⁹. Guztiz premiazkoa da halako subjektuak juridikoki babestea, are premiazkoagoa kontuan hartzen badugu etxeoandreen datuak bakarrik hartuta, talde hau lanean dihardutenen talderik handiena dela, estatuko erroldako datuek erakusten dutenez.

Azkenik, etxeoandreen/etxeogizonaren lana juridikoki lantzat hartzeak asko lagunduko luke halako lanak soziologian ere balioetsi daitezen, izan ere, ikaragarria baita pertsona hauentzat biztanleria aktiboaren inkestetan ekonomikoki ez-aktibotzat

⁵⁸ Interesgarria da etxeoandreen/etxeogizonen taldeentzat ikerketa honen 3. zatian proposatzen dugun tratamendu fiskala.

⁵⁹ DURÁN, M^a Ángeles, "Los trabajadores/as no remunerados en España", in *La contribución del trabajo no remunerado a la economía española: alternativas metodológicas*, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Instituto de la Mujer, Madril, 2000, 67. eta 73. orr.

jotzen dituztela ikustea⁶⁰, ikasleak, pentsiodunak eta erretirodunak bezala, batzuek eta besteek egiten dituzten lanak oso desberdinak izan arren.

Goian aipatutako subjektuak eta etxeoandreak maila berean jartzeak, kontuan hartu gabe etxeoandreek bederatzi eta hamar eta erdi orduren bitarteko lanaldia egiten dutela -CISsek familiako eta etxeo desberdintasunei buruz egindako inkestaren arabera- ordaintzen ez zaizkien baina familiaren erreprodukziorako funtsezkoak diren lanetan, etxeo lana ezkutuko bihurtzen eta gutxiesten laguntzen du; izan ere, garrantzi gutxikotzat agertzen da eta, batez ere, lan hori egiten duten pertsonen pentsarazten zaie haien egoera familiaren barruan familia mantentzeko ahaleginaren menpean dagoela, ikasleena bezala. Adibide hauetan ikusten denez, datu sozioekonomikoen azterketa zientifikoek abiaburutik bertatik, alde aurretik kategoriak ezartzen dituzten momentutik alegia, gutxietsi edo ezkutuan uzten dute emakumeek herrialde honen garapen ekonomiko eta sozialean egiten duten ekarpena. OTEGUI PASCUALek argitasun osoz dioenez, espainiarra bezalako merkatuko gizarte batean, balio hegemonikoak mugimenduarekin eta jardunarekin lotzen diren gizarte batean, ez-aktiboek taldekoa izateak, langabeen taldekoa izateak bezalaxe, konnotazio ekonomiko hutsetatik haranzko ondorioak ditu gizarte irudian eta autoidentifikazioan, kategoria horietakoren batean txertatu behar duten subjektuentzat. Emakumeak dira, gehienbat, etxeo lanetan dihardutenen taldean aurkitzen direnak eta, ondorioz, ez-aktibotzat hartzen direnak. Arazorik handiena da ofizialki lan ordaindua baino ez dela jotzen benetako lantzat. Ildo honetan, zera diosku OTEGUI PASCUALek: "*¿Qué sucedería si por actividad se entendiera trabajo remunerado y trabajo no remunerado?, que al incorporar a la tasa de actividad el trabajo realizado por las amas de casa se produciría, de un lado, el reconocimiento de su contribución a la creación de la riqueza nacional y de otro, un fuerte incremento de la tasa de actividad. Sin embargo, al construirse un universo contable inexacto que no considera la importancia que para la reproducción económica total de la sociedad representa el trabajo no monetarizado, se está distorsionando fuertemente la imagen de la economía española teniendo en cuenta que ésta todavía se mueve en un modelo de estructura tradicional que supone una fuerte segmentación entre trabajo doméstico no remunerado y trabajo remunerado*"⁶¹.

⁶⁰ "Aunque los hogares han reducido su dedicación a la producción de bienes, siguen siendo los principales proveedores de servicios -limpieza, educación, alimentación, vivienda etc.- para la mayoría de la población española. Las familias han reducido considerablemente el número de hijos, pero ha aumentado la proporción de personas ancianas respecto a los adultos, y son los hogares quienes funcionan como hospitales o residencias de acogida para enfermos. Hay muchos recursos de trabajo que permanecen fuera del mercado de trabajo pero no por eso están inactivos. Al contrario, frecuentemente se emplean con gran intensidad e incluso penosidad, lo que ocurre es que se aplican en otro ámbito ajeno al mercado que es la producción doméstica". DURÁN, M^a Angeles, "Los trabajadores/as no remunerados en España", op. cit., 49. eta 50. orr.

⁶¹ OTEGUI PASCUAL, Rosario, "La invisibilidad del trabajo femenino. Andocentrismo de las categorías de actividad e inactividad", in *Mujeres: de lo privado a lo público*, Técnos, Madril, 1999, 135-136. orr eta 138-139. orr.

Gure ustez, adierazitakoak pisuzko arrazoibideak dira subjektu hauek langile autonomoen kategorian sartu ahal diren berriro aztertzeko.

4. BESTE PROPOSAMEN BATZUK

Atal honetan, etxeoandreek/etxekogizonek egiten duten lan ezkutua modu batera edo bestera balioestearen alde agertu direnek proposatu dituzten beste irtenbide batzuk aipatu behar ditugu.

4.1. GIZARTE-LAGUNTZAKO SOLDATA EDO GIZARTE ZERBITZU KOMUNITARIOAK GARATZEA

Ekimen honetan, emakumeek egiten duten ezkutuko lana gizartean aintzat hartzea eta gizarte zerbitzuen bidez eremu publikora igarotzea proposatzen da. Horretara, gainera, enplegu berria sortzea eta emakumeak orain pairatzen duten lanaldi bikoitzetik askatzea lortuko da⁶². Horixe da EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planaren helburuetako bat⁶³.

⁶² Proposamen hau, emakumeen eskubideen eskaeran berrikuntza ez dena, bestalde, ELA sindikatu nazionalistak egin zuen Emakumearen Nazioarteko Egunean –El CORREO ESPAÑOL. El pueblo Vasco. Economía Saila. 2002ko martxoaren 5a, asteartea–.

⁶³ Helburua da gizarte zerbitzu komunitarioak garatu eta egokitzea, pertsonen eta familien beharrianak asetzeko eta gizonen eta emakumeen lan produktiboa ahalbidetzeko. Horretarako ekintzak honako hauek dira: gizarte zerbitzu komunitarioen eskaintza eta eskaera aztertu, baita nola egokitzen diren horiek gizonen eta emakumeen egoera eta beharrian desberdinetara ere; menpekoak diren pertsonen zuzendutako zerbitzu komunitarioak haien eta haien familien benetako beharrianetara egokitu, ordutegi, garraio, opor eta abarren aldetik dauden eskariak ere kontuan hartuta; behar adina zerbitzu ez dagoen aldeetan autonomia murriztua duten pertsonen zuzendutako zerbitzuak sortu; gizarte zerbitzu komunitarioak mantentzen eta/edo egokitzen diruz laguntzen duten enpresentzat pizgarri fiskalak jarri; lan egin nahi duten familientzako laguntza programak sortu, familiaren eta menpekotasunean dauden pertsonen egoera ekonomiko, sozial eta laboralak kontuan hartuta; eskola-orduetatik kanpo eta oporraldietan umeez arduratzeko zerbitzuen antolaketa bultzatu, langile kualifikatuak egon daitezen eta jolasteko eta hezteko jarduerak egin daitezen zainduz; etxeo antolaketan ezustean sortu ohi diren premiei erantzuteko zerbitzuak sortzeko enpresa-ekimenak sustatu; adineko pertsonen etxeo eta etxetik kanpoko autonomia garatzeko programak prestatu, menpekotasun kultural, fisiko eta psikologikoa prebenitzeko, emakumeen eta gizonen beharrian desberdinak kontuan hartuta; etxean laguntza jasotzeko irizpideak berraztertu, gizonezkoen ustezko autonomia falta handiagoa emakumeentzat kaltegarri gerta ez dadin eta eta aztertu zer mekanismo sar litekeen dirua biltzeko eta gastatzeko sitema publikoetan, familiako eta laneko beharrianak uztartzera bideratutako diru laguntzak aurreikus daitezen.

Egitasmo honek emakumeen eta gizonen lan produktiboa ahalbidetu nahi du, zerbitzu merkatu bat sortuz emakumeek familietan egin ohi duten gizarte lana betetzeko. Fondo publikoek bermatu beharko lukete baliabide ekonomiko urriak dituzten familiek zerbitzu hauek eskuragarri izatea. Gu neurri honen guztiz aldekoak gara, baina proposamen hau eta gurea ez dira bateraezinak, gurea oso bestelakoa baita. Gauza bat da lan egin nahi duenari lan munduan sartzeko erraztasunak ematea; ahal den neurrian, familiako kargak gehien bat jasaten dituztenak, emakumeak alegia, karga horietatik askatzea, gizarte zerbitzu komunitarioak sortuz; eta lan munduan emakumeen bazterketa ekiditea, eta oso bestelakoa da beren etxean eta beren etxerako egiten duten lana euren lana izatea beren borondatez erabakitzen duten emakumeak juridikoki babesteko neurri *osagarri* bat sortzea. Aukera hau ez da gelditu behar gainerako langileek eskubidez dituzten gizarte prestazioetatik kanpo.

4.2. KOTIZAZIOAK IRABAZIZKO ONDASUN LEGEZ ERATZEA

UGTren XXXVIII. Kongresu Konfederalean proposatutako ideia da. Proposamen hau sindikatu honek 2002-2006 urte bitartean bultzatu nahi dituen berrikuntzetako bat da eta honako aukera hau aztertzea proposatzen du: bikoteek, beren borondatez, gizarte kotizazioak banatzea irabazizko ondasunak balira legez. UGTren ustez, beste herrialde batzuetan, Alemanian eta Suedian esaterako, hartu den neurri honek bikotekideen aukera-berdintasuna erraztuko du. Era honetara, bietako bat etxean geratzen denean familiaren onerako –seme-alabak edo menpekotasuna duen pertsona bat zaintzeko– ez du kotizazio urterik galduko. Neurri hau elkarrekin bizitako urteen gainekoa litzateke eta erretiro eta alargun pentsioetan izango luke eragina. Haien ustez, bada, gizarte kotizazioak eskuratutako eskubide, bikotearen ondareari lotuta dagoen zerbait, bihurtu beharko liriateke, banandu, apurtu edo kideetako bat desagertuz gero⁶⁴.

Proposamena euren etxean eta euren etxerako lanak egiteaz arduratzen diren pertsonen lanen balioespenik eza konpontzeko ahalegina da. Baina, alde batetik, badirudi etxeko lanez aldi baterako arduratzea erabaki duten pertsonentzat pentsatuta dagoela; zer gertatzen da bere bizitza osorako lan hori, eta hori bakarrik, hautatzen dutenekin? Beste alde batetik, arazoak sor litezke kotizazioak erdibana egitean bikotekideari kotizazio baxuak geratuz gero. Are gehiago, ez du konpontzen ezkondu barik elkarrekin bizi direnen kasua edo ondasunen bananketako erregimenean ezkondu direnena. Azken finean, neurri honekin arazoaren parte bat baino ez litzateke konponduko, ema-

⁶⁴ El PAÍS. 2002ko martxoaren 16a, larunbata. Ekonomia saila. <http://w.w.w.elpais.es>.

kumeak izan litzakeen kotizazio eta prestazio eskubideei dagokiena hain zuzen, zenbatekoa gorabehera, baina lan horren balioespen sozialean ez litzateke aldaketarik egongo, ez lukeelako bere lanagatik kotizatuko, ezkontidearen lanagatik baino, eta horrek bikotekidearen mendekotasun ekonomikoa jartzen du agerian eta ez dirudi planteatu ditugun arazoak konponduko lituzkeenik. Proposamen hau sakonago aztertzen da bigarren zatian.

4.3. PENTSION PLANAK/ ASISTENTZIAKO BABESA

Etxekoandreek/etxekogizonek gertakizun batzuei aurre egiteko izan behar duten babesa, behar adina baliabide dituztenen kasuan, gizarte babeseko mekanismo osagarrien arloan bideratu liteke, Espainiako Konstituzioko 41. artikuluan oinarrituta.

Aseguru pribatuek eta pensio fondoek ez dute konpontzen subjektu hauen arazo nagusia, hau da, haien lana lantzat jotzea eta balioestea. Bide hauek, gainera, desabantailak dituzte Gizarte Segurantzako erregimenek eskaintzen duten babesaren aldean. Asistentziako babes publikoen ganean ere iritzi bera dugu, etxekoandrea ez dutelako hartzen soldatarik eta babesik gabeko langiletzat, *bere eskubideak* izan behar dituen langiletzat, izan ere, babes horiek beste faktore batzuk kontuan hartuta ematen baitira, hala nola, ezkontidea edo bizikidea izatea eta bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak.

4.4. GIZARTE SEGURANTZAREKIKO HITZARMEN BEREZIA

Gizarte Segurantzarekiko hitzarmen berezia erabil liteke subjektu hauek Gizarte Segurantzaren sisteman sartzeko. Hala ere, asmo hau alde batera utzi behar da zeren, eratuta dagoen moduan, hitzarmen horretara biltzeko ezinbestekoa baita aldez aurretik aseguru karrera edukitzea eskuratzeko eskubideak mantentzeko eta ezin baita *ex novo* bildu⁶⁵. Dena dela, ez dirudi sistemarik egokiena denik, horrek haren definizioa

⁶⁵ Beren etxea zaintzen lan egiten duten eta kotizaziopeko prestazioen babesik ez dutenak Beren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Bereziaren aplikazio eremuan sartzeari buruzko Ikerketa Tekniko eta Ekonomikoan aipatutako ideia.

eta xedea aldatzea ekarriko lukeelako, eta badirelako beste aukera batzuk langile mota hau lan munduari bete-betean uztartzeko.

4.5. ETXEKOANDREA/ ETXEKOGIZONA KOOPERATIBAKO KIDE MODUAN

Etxekoandrea/etxekogizona kooperatibako kide egitea juridikoki oso ideia erakargarria da. Aukera honetan subjektu hauek autonomoen erregimenean sartzeko arazoak konponduko lirateke, baita langileen kotizazioen berdintasunaren ingurukoak ere. Azpimarratzekoa da, gainera, nolako garrantzia duen korporatibismoak subjektu hauen eskubideak defendatzeko orduan. Ez naiz ekimen berri honetan geratuko, hirugarren zatian sakon aztertzen baita etxekoandrea/etxekogizona kooperatibako bazkide izateko aukera. Atal honetan azaldu diren gainerako proposamenak ez bezala, hau kontuan hartu beharreko aukera bat da, euren etxean eta euren etxerako lan egiten duten pertsonen arazo juridikoak konpontze aldera.



Bigarren zatia
**ETXEKOANDREAREN/
ETXEKOGIZONAREN LANA**
ZUZENBIDE ZIBILAREN
IKUSPEGITIK



1. ETXEKO LANA ZUZENBIDE ZIBILEAN

Zuzenbide pribatuaren ikuspuntutik, etxeke lana bi ikuspegitatik aztertu behar dugula deritzogu:

a) Alde batetik, familia-zuzenbidearen barruan, ordenamendu juridikoak etxea zaintzea nola jasotzen duen, nork hartzen duen legez bere gain etxeke lana eta erantzukizun horren eraginak zeintzuk diren aztertuz. Azken hogeita bost urtetan gizarteak bizi izan duen eboluzioak aldaketa juridiko handiak egin beharra ekarri du, baina aldaketok ez dira nahikoa.

Bikoteko harremanaren barruan etxeke lanak egiteko berdintasun eta duintasunetik irakurketa egiteko helburua planteatzen zaigu. Etxeke lana ezkontza aldian nolako den aztertuko dugu, baita banatzeko edo hausteko momentuan ere. Ildo horri jarraituz, Zuzenbidean gai hori dela-eta egiten diren aurreikuspenak zeintzuk diren ikusiko dugu eta jurisprudentziaren aldetik zelan interpretatzen diren.

Egia esan, gai honen inguruko arauak ez dira ugariak. Eta ez da harrigarria hala izatea, mendeetan zehar sexuaren arabera rola banatzean, etxeke lanak "berez" emakumeari zegozkionak ezkontzako "betebehartzat" jotzen baitzen, emakume izateari biologikoki lotua. Arauak ezer gutxi zuen horren gainean esateko, berretsi baino ez zuen egoera hori egiten zuzenbide naturalaren barruan. Gizartea errotik eraldatzeak aldaketa juridiko garrantzitsuak ekarri ditu, eta ekartzen dihardu, baina astiro gertatzen dira eta nolabait esateko, tentu handiz.

Bikote harremana ezkontzaren ondoriozkoa ez ezik izatezko bikote batetik sortua ere izan daitekeela kontuan harturik aztertuko dugu gaia. Azken kasu honetan bien etxea ere badago. Hortaz etxeke lanak egiteari ere irtenbidea eman behar zaio. Baina araudia korapilatu egiten da nabarmen azken honetan, zenbait Autonomia Erkidegok puntu horren ingurukoak arautu badituzte ere (Kataluniak, Aragoik, Nafarroak, Valentziak¹), eta beste batzuek, Euskal Autonomia Erkidegoak adibidez, gai horren

¹ Katalunian, bikote batura egonkorrei buruzko uztailaren 15eko 10/1998 Legea; Aragoen, ezkondu gabeko bikote egonkorrei buruzko martxoaren 26ko 6/1999 Legea (apirilaren 21eko BOE); Nafarroan, bikote egonkorren berdintasun juridikorako 2000ko uztailaren 3ko Foru legea (irailaren 6ko BOE); eta Valentzian, izatezko baturei buruzko apirilaren 6ko 1/2001 Legea (maiatzaren 10eko BOE).

inguruan mintzatu badira ere², estatu mailan arau orokorrik ez dagoelako³. Lege kompetentzien inguruko auziak eztabaida ugari sortarazten du⁴.

b) Etxeko lana aztertzeko bigarren ikuspegi bat ere badago, ondare-zuzenbidearen barruan, etxekoandre edo etxekogizon izatea ezkontza harremanetik bereiztuz eta kontratuz kanpoko erantzukizun zibilaren esparruan sartuta. Etxekoandreak edo etxekogizonak kalteren bat jasaten duenean Zuzenbideak nola erantzuten duen azaldu nahi da, hau da, nola baloratzen den etxeko lan horiek, "bere lanak", ezin egina.

Bigarren ikuspuntu hau etxeko ardura benetako "lantzat" hartzeari oso lotuta dago. Azken ikuspegi hau da guk ikerlan honetan defendatzen duguna eta azken aldian gizarte eta erakundeetako zenbait eragilek eskatzen dutena. Baina ikuspuntu hau ez da zati honetan garatuko, bigarren batean baino. Izan ere, azken aldian pausu handiak eman dira etxekoandrearen lanaren balio ekonomikoa kuantifikatzeko eta horrela KPIIn sartu ahal izateko:

— Alde batetik, etxeko lana lan dela aitortu dute erakundeek eta botere publikoek konpromisoa hartu dute lan horren balio ekonomikoa zehazteko, lehen aipatu dugun bezala⁵.

— Bestetik, EUSTATEk, Institut Català de la Dona-k eta CSICek egin dituzten ikerketa ekonomiko interesgarrietan erakusten da etxekoandreek egiten duten baina ikusten ez den lana termino makroekonomikoetan ezagutarazteko ahalegina, orain arte balora-

² Legezko proposamen bat aurkeztu zuen Euskal Sozialisten Legebiltzarreko Taldeak izatezko bikoteei zenbait ondorio juridiko aitortzeko (2001eko irailaren 14an) baina Legebiltzarrak baztertu egin zuen (2001eko urriaren 19an).

³ Bere garaian hiru Lege Proposamen aurkeztu ziren eta hirurak baztertu zituzten: bata Sozialisten talde parlamentarioak 2000ko apirilaren 6an (122/000023/2000 Lege Proposamena), izatezko bikoteei ondorio juridikoak aitortzeko; beste bat Ezker Batuko talde parlamentarioak (122/000028/2000 Lege Proposamena, "Izatezko bikoteen berdintasun juridikorako neurriak" ezarriko zituena, 2000ko apirilaren 27an aurkeztua); eta, azkenik, Talde Mistoak aurkeztu zuena 2000ko maiatzaren 16an (122/000034/2000 Lege Proposamena, izatezko bikoteen berdintasun juridikoari buruzkoa).

⁴ Zenbait iritzi azaltzen dira ondoko liburu honetan: CERDÁ GIMENO, J., "Un retorno a mi pesar, a un olvidado tema. De nuevo sobre "parejas no casadas", *R.D.P.*, otsaila (2001), 113-125. orr.

⁵ Honakoez ari gara: Eusko Legebiltzarrak 1996ko apirilaren 19an onartu zuen lege proposamenaz; Kataluniako Parlamentuak 1997ko apirilaren 28an onartu zuen 293/IV Ebazpenaz; eta 1998ko maiatzaren 10eko Diputatuen Kongresuko osoko bilkurako ez-legezko proposamenaz. Horiez gain, nazioarteko zenbait erabaki hartu dira Nazio Batuek emakumeari buruz izan zuten IV. Biltzarraz geroztik (Beijing, 1995), eta 2000ko ekainean New Yorken berraztertu zenetik.

zio ekonomikoen indizeetatik kanpo egon baita⁶. EUSTAT nazioarte mailan etxeko jardunaren produkzioa neurtzen duen estatistikako institutu bakarretako bat da eta Europa mailan EUROSTATEk gomendatzen duen metodologia aplikatu duen lehena da.

Etxekoandreak pertsona "aktibo" gisa onartuak izan daitezten eman behar den lehen pausua da hau, horretarako zehaztuko den "merkatuko" balioa nazioko ekonomiari ekarriko diona. Helburu hau gero eta hurbilago dago, duela hamar urte iritsi ezineko kimera bazen ere.

Aurrean dugun erronka ekonomiko eta politiko garrantzitsu honek eragina izan dezake etxekoandreak jasaten dituen kalteak eta kalte-ordainak baloratzeko. Hori dela-eta, ikerketaren bigarren zatirako utziko dugu ikuspegi hau.

2. ETXEKO LANA FAMILIA ZUZENBIDEAREN IKUSPEGITIK

Familia-zuzenbideak etxeko lana nola ulertzen duen jakiteko, labur baino ez bada ere, gogoan izan behar dugu familiak izan duen garapen juridikoa eta gizarte mailakoa. Mendeetan zehar familiaren barruan sexuen araberako lan banaketa "naturala" gertatu da eta hortik abiatu behar dugu. Gizonari zegokion etxetik kanpoko protagonismoa, janaria bilatzea, emazteak eta seme-alabek biziraun zezaten etxea beharrezko gauza guztiez hornituz, azken batean "ehiztari" izatea. Beste aldetik, emakumeari bigarren mailako ezkutuko papera zegokion etxearen barruan, etxea eta haurrak zaintzea. Horrela bada, senarra zen "kanpoan", hau da, lan munduan eta politikan aritu zitekeen bakarra. Lan eta politika esparru horiek debekatuta zeuden emakumeentzat eta honek etxe zuloan geratu beharra zuen, etxeko lanetara huts-hutsean emana.

⁶ Ikusi EUSTAT, "Cuenta satélite de la producción doméstica para la C.A. de Euskadi", 38. koaderno, 2000; INSTITUT CATALÀ DE LA DONA, "Prefaci a l'elaboració del comptes satèl·lits de la producció domèstica per a Catalunya. Estimació de l'efecte d'incloure la producció domèstica dins del PIB", Etxeko Lanari buruzko Jardunaldiak (Bartzelona, 2001eko urriaren 5ean eta 6an); eta DURÁN HERAS, M^o Á. (zuz.), *La contribución del trabajo no remunerado en la economía española: alternativas metodológicas*, Emakumearen Institutua. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, Madril, 2000. Azken lan honek ikertzaile talde batek CSICen burututako zenbait ikerlan biltzen ditu. Euretariako asko sarreran aipatu ditugu eta beste batzuk bigarren atalean aipatuko ditugu.

Emakumeen etxeko lan horren garrantzia, ordea, alde batera utzi izan dute ikertzaileek hirurogeita hamargarren hamarkadara arte⁷. Edo are okerrago, lan horren gizarte eta ekonomia mailako balioa ezkutuan geratu da, amatasunaren ikuspegi psikologikoa baino goratu ez dutelako⁸. Familiako rola eta izaera biologikoa parekatuta agertzea agiri administratiboetan islatzen zen. Ikusi baino ez dago garai bateko nortasun agirietan emakumearen lanbideari zegokionean, etxeko lanetan ziharduela adierazteko, "bere sexukoak" edo "etxeko zereginak" hitzak erabiltzen zirela. Eta zeregin horiek merkatutik kanpokoak izateagatik, ordainsaririk ez onarpenik gabeak, ez dira "lantzat" hartzen, benetako lan izan arren.

Arau juridikoez ohiko eredu hau onesten zuten. Ildo honetatik, denok dakigun bezala, Kode zibilak, 1975era arte, gizona hartzen zuen "famiaren burutzat", eta, ondorioz, emakumea babestu behar zuen (57. art.). Emakumeak, bere aldetik, senarraren esanak bete behar zituen eta bere aldetik erabakiak hartzeko gaitasuna gutxitua zuen, adingabea bailitzan, eta senarraren onespena behar zuen jarduera juridiko askotarako, beronek hartzen baitzuen emakumearen legezko ordezkari. Hortaz, gutxiagotasun, mendetasun egoeran zegoen eta baztertuta esparru publikoan (politikoan eta lanean) eta pribatuan edo etxekoan, senarraren agintera makurtua eta gaitasun murrizketa jasaten (Kode zibil zaharreko 56tik 66ra bitarteko art.).

XX. mendean zehar gertatzen diren aldaketek, eta batez ere berrogeita hamargarren hamarkadatik aurrerakoek, ohiko famiaren eredu aputzea dakarte Europa osoan. Gerra arte garaian botoa emateko eskubidea onartzeak eta emakumea pixkanaka lan mundura sartzeak egiten dute bidea ezkontza barruan gizonen eta emakumeen berdintasun juridikoa onartzeko. Halaxe egin zuen maiatzaren 2ko 14/75 legeak, emakume ezkonduaren egoerari eta ezkontideen eskubideei buruzkoak⁹. Arau honek Kode zibila aldatzea ere ekarri zuen (56-66 art.), ezkontzak emakume ezkonduari ez ziola negozioak egiteko gaitasunik eta gaitasun prozesalik murrizten onartzeko. Hala, 57. artikulua berri zuten, "el marido y la mujer se deben respeto y protección recíprocos" adierazten delarik orain. Arau hau Konstituzioan ere azalduko da, gorengo mailan.

⁷ Asko dira gai honen inguruko ikerketa soziologikoa. Honen inguruan, ikusi, besteak beste, GONZÁLEZ DE CHÁVEZ, M^a A., *Familia, maternidad y paternidad*, arg.: Alcalá de Henaresko Udala, Madril, 1995 (lan honek M^a Isidra de Guzmán Ikerketa saria jaso zuen); PÉREZ-FUENTES HERNÁNDEZ, P., *El trabajo de las mujeres: una mirada desde la historia*, Historia Garaikideko Saila, EHU-UPV. EAEn sexuaren araberako lan banaketaren eboluzioaren inguruan, ikusi RODRÍGUEZ, A. eta LARRAÑAGA, M., "El tiempo de trabajo y distribución por sexos en la Comunidad autónoma vasca", Cuadernos Mujer y Cooperativismo, 2. zk., 2000.

⁸ Horrelaxe ulertzen du GONZÁLEZ DE CHÁVEZek, op.cit., 29. or. Ikertzaile honen ustez, emakumeen lanaren balioa gutxitzea, amatasunaren gorespenari loturik joan da, konpentsatzeko. Eta amatasunaren mitifikazio ideologikoa emakumeek famiaren egiten dituzten lan guztiak ama funtzioaren ondorio baino ez direla eta, beraz, emakume izateari atxikiak direla pentsatzea ekarri dute.

⁹ Gure inguruko beste herrialde batzuetan onespene hau ia garai bertsuan gertatu zen (Frantzia 1970ean eta Italia 1975ean).

2.1. BERDINTASUN JURIDIKOAREN PRINTZIPIOA

Izan ere, 1978an Konstituzioan bilduta ageri da printzipio hau, 32. artikuluko lehen leerroaldean: "El hombre y la mujer tienen derecho a contraer matrimonio con plena igualdad jurídica"¹⁰. Eta berdintasun juridikoa Konstituzioan onartzeak bere eraginak izango ditu maila guztietan: esparru publikoan ez ezik (14. artikulua indartzen da, legearen aurreko berdintasuna, sexuagatiko bereizkeriarik gabe), pribatuan, etxeokan eta familiakoan ere bai.

Hori dela-eta, "ezkontideen eskubide eta betebeharrak" (gaur eguneko Kode zibileko 66-71. art.) erregimen demokratikora egokitu ziren uztailaren 7ko 30/81 legearen bidez. Horrek adierazten du senarraren eta emaztearen eskubideak eta betebeharrak berdinak direnez gero (66. art.), elkar errespetatu eta elkarri lagundu behar diotela (67. art.), eta ondorioz:

— Lehenengo, familiaren aginpidea biena dela; hortaz, "familiako buru" ideiarri amaiera ematen zaiola.

— Bigarren, etxe-boterea ere ezkontide biena dela. 1319. artikulua dioenez, "Cualquiera de los cónyuges puede realizar los actos encaminados a atender las necesidades ordinarias de la familia, encomendadas a su cuidado conforme al uso del lugar y a las circunstancias de la misma"¹¹.

Bi berrikuntza hauek berdintasun juridikoen printzipioen isla zuzenak dira, baina benetako berdintasuna lortzea ez da kode bateko manu batzuk aldatzea bezain erraza. Ezkontza erakunde demokratiko bihurtu da, baina egunean eguneko jardunak erakutsi du familia bakoitzaren barruan aldaketa horren zailtasuna nolakoa den eta nolako oztopoak aurkitzen dituen emakumeak itxurazko berdintasun hori gauzatzeko:

— Alde batetik, lan merkatura sartu nahi duen emakumeak laneko "jardunaldi bikoitza" egin beharra izaten du sarritan.

¹⁰ Bigarren Errepublikako Konstituzioak 1931n berdintasun juridikoko printzipio hori aldarrikatu zuen, baina ez zuen ondoren lege mailan garapenik eduki, lege zibilak Konstituziora egokitzeke.

¹¹ Ikusi etxe-botereari buruz: PEÑA BERNALDO DE QUIRÓS, M., *Derecho de familia*, Unibertsitate Complutenseko argitalpen zerbitzua, Madril, 1989, 165. or. eta h.).

Alor honi dagokionean, europar espirtu argiko neurriak onartu dira oraintsu, "familia-ko eta laneko bizitza bateratzeko" ahalegina esan izan zaiona¹².

— Beste alde batetik, etxea zaintzeaz huts-hutsean arduratzen den emakumeak lan-gile gisa onartzea eskatzen du, hau da, etxeari emana egotea benetako etxeko "lantzat" hartzea.

Bigarren arlo honi dagokionean, ostera, dirutan ordaintzen ez den lan hori juridikoki onartu ahal izateko formulak falta dira oraindik. Ez da kontu erraza. Bateratzeak lanean, politikan¹³, azken batean, kanpoko esparruan¹⁴ du eragina, emakumeak gizonaren ondoan lan egin behar duen esparruan, zerga, lan edo administrazio arauen bidez. Araudi hauek guztiak goian aipatu dugun helburua sustatzera, erraztera datoz. Bigarren arloak, hau da, etxea zaintzeak, ostera, esparru pribatutik edo etxetik neurriak hartzea eskatzen du, eta hau oraindik zailagoa da.

Arlo honetan legeak ez dira nahikoa, ezin baitute behartu bikotekide bat derrigorrean etxeko lanak egitera, esparru pribatuan sartzea litzateke. Zer egin, orduan? Legeak aitortu egin diezaioke lana hori egiten duenari, bere balioa eman eta balorazio horrekin kontsekuentea izan. Eta botere publikoen aitortpen hori oinarri harturik, balio hori ez da afektiboa edo gizartekoa soilik izango, legezkoa ere bada eta egoera aldatzen lagunduko du. Horregatik ikerketa honetan proposatzen dugu, lehenengo eta behin,

¹² Euskal Autonomia Erkidegoan EMAKUNDEtik egin den lana honetan ikusi da: "Erantzukizun pertsonalak, familiakoak eta lanekoak bateragarriak izatea", Euskadiko Autonomia Erkidegoko emakumeentzako ekintza positiboan III. plana. Generoaren ikuspegia politika publikoetan (7. arloa). Honen inguruan, beste hau ere kontsultatu daiteke: MOYÚA PINILLOS, I., "Políticas Públicas de igualdad de oportunidades en relación al empleo", Sevilla, 2000ko ekaina (Emakumeari eta enpleguari buruzko Foroan izandako hitzaldia). Estatu mailan beste hauek daude: langileen laneko bizitza eta familiako bizitza bateratzea sustatzeko azaroaren 5eko 39/99 Legea (azaroaren 6ko BOE); lan merkatua berritzeko behin-behineko neurriak enplegua sustatu eta kalitatea hobetzeko 12/2001 Legea (uztailaren 10eko BOE); eta Gizarte Segurantzako sistemaren prestazio ekonomikoak eta haurdunaldiko arriskuak arautzen dituen azaroaren 16ko 1251/2001 Errege Dekretua. Horiez gain, familiari laguntzeko Plan integrala (2001-2004) aurkeztu du Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak 2001eko azaroan. Eta Pertsona Fisikoen Zergaren barruan egindako berrikuntzak ere aipatu behar dira, 2003an indarrean jarriko direnak, familiari eta lanean diharduen emakumeari laguntzeko eta, bide batez, jaiotza-tasa handitzeko.

¹³ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko erkidegoen Estrategia markoko lehentasunik behinean emakumeek erabakiak hartzean duten protagonismoa handitzea da (2001-2005). Bertan erkidegoetako erakundeei eta Estatu kideei eskatzen zaie botere postuetara emakumeak iritsi daitezen politikak hartzeko. Ikusi Report "Women in decision-making under the third medium-term EU action programme on equal opportunities for women and men" (<http://europa.eu.int/eurostat.html>).

¹⁴ Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren (CES) Ikerketa Kabineteak 26. Buletinean (2001eko azaroa) "Panorama sociolaboral de la mujer en España" gaiaz zabaldu dituen datuetan ageri denez, emakumea hezkuntza sisteman, lan merkatuan eta politikan "irrotasunez sartu" bada ere, erabakiak hartzeko orduan ez da maila berean islatu. Justizian gertatu da zuzendaritza postuen artean gizonen eta emakumeen arteko banaketa orekatuagoa.

eragin juridikoetarako "lantzat" onartzea, ez bakarrik eragin ekonomikoetarako. Horretatik aterako dira beste eragin batzuk.

Esparru pribatuan, gainera, benetako berdintasuna eta lanen banaketa gerta daitezten bikotekideak etxeko lanari bere balioa aitortu behar dio. Lan hori, juridikoki, bi ezkontideei badagokie ere, sarritan bietako bat baino ez da arduratzen guztiz edo neurri handi batean¹⁵. Hori dela-eta, hartu beharreko neurriek ezkontzaren araudiarekin eta bertako ondare harremanei aplika dakiekeen erregimen ekonomikoarekin lotuta egon behar dute.

2.2. ETXEKO LANA ETA EZKONTZA

Sarrera honek arau zibiletan etxea zaintzeari buruzko erreferentziak aztertzeke proposatzen ditugun oinarriak ezartzeko aukera ematen digu. Lehenengo legegileak etxeko lana han eta hemen nola arautu duen ikusiko dugu eta nolako hutsuneak aurkitu ditzakegun.

Kode zibilak, agerian, bi manutan baino ez du aipatzen etxeko lana: 97. artikuluan, ezkontideak banatu edo dibortziaz gero eska dezakeen "konpentsazio-pentsioa" delakoa arautzen duena, ezkontzako erregimen ekonomikoa edonolakoa izanda ere; eta 1438. artikuluan, ondasunen bananketako erregimenean, berau deuseztatzen denean.

Hortaz, badirudi agerian, legegilea gai garrantzitsu honetaz "gogoratzen" dela ezkontza krisian dagoenean edo deuseztatzeke dagoenean soil-soilik. Gainera, arau horien lehen irakurketa bat eginda, baliteke kasu horietan etxeko lanak egitea zuzenean legez aitortzea, behintzat ezkontza krisian dagoenean. Hala ere, jarraian ikusiko dugun legez, etxea zaintzeari egiten zaion ageriko erreferentzia honek ez du lan hori erabat aitortzen dela esan nahi. Azter dezagun gaia.

¹⁵ GARRIDO, A., "El reparto del trabajo no remunerado: expectativas y deseos de cambio", in DURÁN, M^a Á., *Contribución ...*, op.cit., 551-568 orr. Idazle horren ustez, etxearen barruan lanak hobeto banatzeaz arduratzen direnak ez daude behar bezain motibatuta aldaketa hori aurrera eramateko. Emakumeek arrakasta aukera gutxi dute, inkesten arabera. Horrek esan nahi du berdintasuna lortzea zaila izango dela.

2.2.1. "FAMILIAZ ARDURATZEA" DESOREKA EKONOMIKOAGATIKO PENTSIONAN

Kode zibileko 97. artikulua, uztailaren 7ko 30/1981 legean idatzitakoaren arabera, pentsioa jasotzeko eskubidea onartzen dio ezkontide bati: "al que la separación o divorcio produzca desequilibrio en relación con la posición del otro, que implique un empeoramiento en su situación anterior en el matrimonio"¹⁶. Bi aldeen arteko akordio-rik egon ezik, epaileak ezarriko du pentsio hori. Ebazpen horretan jarraian aipatzen diren zortzi egoerak izango ditu kontuan:

1. Ezkontideek hartu dituzten erabakiak¹⁷.
2. Adina eta osasun egoera.
3. Laneko kualifikazioa eta enplegu bat lortzeko aukerak.
4. Iraganean izandako eta etorkizunean izango duen familiaren ardura.
5. Bere lanarekin beste ezkontidearen merkataritza, industria edo laneko jardueran lagundu izana.
6. Ezkontzaren eta ezkontzako elkarbizitzaren iraupena.
- 7 Pentsioa jasotzeko eskubidea aldi batean galtzea.
8. Ondasunak eta baliabide ekonomikoak eta ezkontide bakoitzaren beharrianak.

Baina erabaki judiziala hartzeko parametroak ez dira goiko horiekin agortzen, 97. artikuluan horiek aipatzen baitira "beste batzuen artean". Aipatzen direnen artean, laugarren tokian agertzen zaigu "iraganean izandako eta etorkizunean izango duen familiaren ardura" izateari dagokiona. Eta erreferentzia hau agerian emanez, ezkontidee-

¹⁶ 97. artikuluko konpentsazio-pentsioari buruzko lan ugarien artean honakoak suertatzen dira interesgarri: CAMPUZANO TOMÉ, H., *La pensión por desequilibrio económico en los casos de separación y divorcio. Especial consideración de sus presupuestos de otorgamiento*, Bosch, 3. argitalpena., Bartzelona, 1994; LALANA DEL CASTILLO, C.E., *La pensión por desequilibrio en caso de separación o divorcio*, Bosch, Bartzelona, 1993; ROCA TRÍAS, E., "Comentario a los artículos 90 a 101 del Código civil", in *Comentarios a las reformas del Derecho de familia*, 1. bol., Tecnos, Madril, 1984, 540-649orr. eta idem, "Las consecuencias económicas del divorcio: la pensión compensatoria," in *La situación jurídica de la mujer en los supuestos de crisis matrimonial*, IV Seminario de estudios jurídicos, Servicio de Publicaciones de la Universidad de Cádiz y Departamento de la Mujer del Ayuntamiento de Jerez de la Frontera, Cádiz, 1996, 145-195 orr.; FERNÁNDEZ COSME, M.A., "Las pensiones compensatorias y de alimentos en los supuestos de separación y divorcio", aurretik aipatutako lanean, 215-230 orr.; GRANDAL DELGADO, C., "La valoración económica del trabajo doméstico", lan berean, 295-307 orr.; CLEMENTE MEORO, M., *Efectos comunes a la nulidad, separación y divorcio*, in V.MONTES eta E.ROCA, *Derecho de familia*, 2. argitalpena, Tirant lo blanc, Valentzia, 1995; GARCÍA SERRANO, A., "Notas sobre el trabajo doméstico", *A.D.C.* 38. zk. (1985) 3 bol., 583-622 orr.; LACRUZ BERDEJO, J.L., *Elementos de Derecho civil*, in *Derecho de familia*, IV-1º, Bosch, Bartzelona, 1990; LASARTE, C. eta VALPUESTA, M.R., "Comentario de los artículos 97 a 101 del Código civil", koord. J.L.LACRUZ BERDEJO, Civitas, Madril, 1982; PÉREZ MARTÍN, A.J., "El procedimiento contencioso de separación y divorcio", in *Derecho de familia*, Lex Nova, 2. argitalpena., Valladolid, 1998;

¹⁷ 90.1 artikulua E atalak pentsio hori bi aldeen akordioa arautuko duen parte izateko aukera aurreikusten du.

tako bati, etxean bete duen lana aitortu nahi izan dio legegileak, neurri batean etxetik kanpoko lanik egin ez duen etxeko andrearen egoerari irtenbidea emanaz. Izan ere, 1981eko legegileak pentsio eskubide hau arautzean atal hau gehitu zuen familiaz bizitza osoan arduratu den eta ezkontza deuseztatu ondoren egoera larrian egon daitekeen emaztearengan pentsatuz.

"Ardura" hori aztertzen hasita, pentsa liteke bere denbora etxea eta familia zaintzeari eman dion ezkontideak bestearen kontura diru-ordaina jasotzeko bide zuzena ikustea. Baina ez da horrela. Ez da hori 97. artikulua xedea, ezkontza hausteagatik senar-emazteen arteko oreka lehengora ekartzea baino. Egokiagoa da orekatzeaz hitz egitea, krisiaren ondoren senar-emazteen egoera berdintzeaz baino, ez baita berdintasun aritmetikoa lortu nahi, ahal den neurrian desberdintasuna edo aldea konpentsatzea baino¹⁸.

Beraz, ezkontideetako baten egoera okertzea da aurrebaldintza, banatzearen edo dibortzioaren zioa dena delakoa izanda ere¹⁹, beste ezkontidearekin konparatuta eta ezkontzan zehar izandakoarekin konparatuta. Hori da kreditu-eskubide bat sortzea justifikatzen duena, pentsioa, ezkontideetako baten lepotik eta bestearen alde. Horrengatik esaten zaio pentsio "konpentsatorio" edo "desoreka ekonomikoagatik sortua", eta jeneralean aldi behin ordaintzen da²⁰.

97. artikuluko pentsio honek ez dauka beharrianaz zerikusirik, elikaduzko-pentsioan ez bezala. Legitimazioa ez dator beharrianak eraginda, desorekak eraginda baizik²¹. Desoreka honen jatorria, pentsiorako eskubidea sortarazten duena, ezkontza apurto aurretik bazegoen, baina ezkontzak ezkututzen zuen. Behin ezkontza desagertu ondoren, iraungi egiten da elkar sokorritu beharra eta egoera hauek azaleratu egiten dira²².

Guri dagokigunean, pentsio hau ez da "familiari eskainitako denboraren" ordainsaria, hau da, etxeko lanak egiteagatik eta seme-alabak zaintzeagatik ematen dena, ikerlan

¹⁸ Code frantsesaren eta italiar Codice civile delakoen eredia hartzen da (ikusi CAMPUZANO TOMÉk egindako Zuzenbide konparatuko ikerketa, op.cit., 30. or. eta h.).

¹⁹ Pentsio hau jasotzeko eskubiderik ez dago ezkontza-deuseztasunean. Kasu horretan, 98. artikulua arabera, elkarbizitzarik egon bada, ezkontideak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango luke. Kalte-ordain horren zenbatekoa zehazteko bakarrik joko luke epaileak 97. artikuluko egoeretara.

²⁰ 99. artikulua haren ordezkari gisa, hil arteko errenta edo ondasunak edo dirua emateko kalterik gabe.

²¹ Encarna ROCAren iritzia (op.cit., 152. orr.) argia da, 97. artikulua oinarria beti eta soilik desoreka dela dioenean. Horrengatik ez da sekula elikadurazkoa. Kalte objektibo baten ordaina hartzen da: banatze edo dibortzioaren ondoriozko desoreka ekonomikoarena. Ez da, hortaz, sorotsi beharra eta beronen ondoriozko elikatu beharra luzatzea, kalte objektibo baten ordaina hartzea baizik. Kalte hori ezkontzaren estatutuari zegozkion eta dibortziaztean desagertzen diren laneko espektatibak galtzeari dagokio.

²² Ibidem, 153, 180-182 orr.

honetan ulertzen dugun bezala. Lan hauek ezkontzak iraun duen bitartean egin izana irizpide bat izango da, ez bakarria ordea, ezkontideen arteko desoreka ekonomikoak zein neurritan eragin duen zehazteko

Nola eragiten du familiari eskainitako denbora horrek pentsioaren bidez konpentsa litekeen desoreka ekonomikoan? Bi elementuk eragiten dute:

1. Bizitzako aldi luze samar batean etxeko lanetan aritu den emakumearentzat oso zaila izango da lan munduan txertatzea. Puntu honi dagokionez, 97. artikuluko laugarren egoera hau oso lotuta dago hirugarrenarekin: "laneko kualifikazioa eta lan bat lortzeko aukerak". Laneko espektatibak galtze hori kontuan izan ohi du epaileak ezkontidearengandik pentsioa jaso ahal izateko, zaila izango baita pertsona horrentzat, banatze edo dibortzioaren ondoren, era autonomoan bizi ahal izateko lana aurkitzea.

Hortaz, kontua ez da etxeko lanean aritu izan ondoren ordaintzea, lan horretan aritu izanak izan lezakeen ondasunen desoreka doitzea baino. Ez da, beraz, etxeko lana aitortzen, beronen ondorioak baino. Bi faktoreen artean harreman zuzenik ez dagoela probatzeko, esan dezagun desorekaren ondoriozko espektatiba ekonomikoen galerarik ez badago, ez dela pentsioa jasotzeko eskubiderik izango, nahiz eta ezkontideetako bat etxeko lanetan bakarrik aritu elkarrekin bizi izan diren denborarik gehienez. Horregatik, pentsioa ez da sortzen "famiaren ardura izateagatik", dedikazio horren ondorioengatik baizik.

2. Aldi batez etxeko lanetaz arduratu dena konpentsatze hutsa ere ez da, ezkontza apurtzearen ondorioz izan zezakeen ekonomia autosufizientzia izateko aukera eman go zioteten laneko espektatibak galduz, aitzitik, berezko balioa duen etxeko lan horrek familiako ondare bat ere sortu du. Familiak lan horietarako (garbikuzia, mantenua, haurrak eta nagusiak zaintzea,...) beste pertsona bat hartu balu, argi dago gastu bat izango zatekeena, baina horretan aurreztu egin du.

Azken batean, 97. artikulua etxeko lana kontuan hartzen du, baina ez da bere espirituan ageri ezkontza aldian horretan aritu den ezkontidearen lana zuzenean aitortzea. Ez da horretarako, sarritan gertatzen den bezala, zeharka pentsio hori eskatzeko legimitatuta dagoena etxekoa andrea izatearen kalterik gabe. Baina ez hainbeste lan hori egin duelako, etxetik kanpoko lan ordaindu bati "uko egin" izateagatik baino, etorkizuneko egoera ekonomikoa txarragoa izango delako. Egoera zalantzazkoagoa eta desberdintasunekoagoa izango da, laneko statusean ezkontza haustea etenik izan ez duenarekin konparatuta. Eta bi egoerak orekatze aldera hartuko du epaileak pertsona horrentzako pentsioa ezartzea.

Aparteko atala:
FAMILIAKO ARDURAREN
BALIOESPEN EKONOMIKOA

Elikadurazko pentsioan epaitegietako praktikan kalkulua errazten duten taula batzuetara jotzen da eta horrek pentsioaren zenbatekoa zehazteko orduan diskrezioaren kalteetan jokatzeko du. Pentsio orekatzailean, ordea, kontuan hartzen diren egoera eta faktoreen aniztasunak, pentsioak balioesteko zabalagokoak eta kasuaren arabera araberakoagoak izatea dakar.

Ondorengo elementu hauek izaten dira kontuan balioespen ekonomikoa egiteko:

1. Familiaren benetako arduraria izana (baliteke kanpoko laguntzaz egin izana, ez da berdina familia ugaria izatea edo ez izatea, etxebizitza mantentzeko lanaren luze-zabala,...)
2. Ezkontzaren iraupena.
3. Beste ezkontidearen egoera ekonomikoa.
4. Lan munduan txertatzeko eta diru-sarrera propioak edukitzeko aukerak.
5. Lanbide bat izanik, familiaz arduratzeagatik lan hori utzi eta jaso ez duen kopurua.

Bizkaiko Probintzia Auzitegiak azken bi urteotan 97. artikulua aplikatzearen ondorioz eta etxeko lanari balioa aitortuz eman dituen epairik interesgarrienak aztertu ditugu. Aztertu ditugun epaiak honakoak dira: 2000ko otsailaren 14koa, 2000ko martxoaren 1ekoa, 2000ko martxoaren 3koa, 2000ko martxoaren 8koa, 2000ko martxoaren 15ekoa, 2000ko martxoaren 17koa, 2000ko martxoaren 29koa, 2000ko apirilaren 5ekoa, 2000ko apirilaren 10ekoa, 2000ko apirilaren 28koa, 2000ko maiatzaren 15ekoa, 2000ko maiatzaren 16koa, 2000ko maiatzaren 17koa, 2000ko maiatzaren 22koa, 2001eko martxoaren 16koa. Hauen guztien oinarri juridikoetatik honako ondorioak atera ditzakegu:

1. Izaera. Epaileak, legearekin bat, pentsioa emateko lehen oinarria desoreka ekonomikoa izatea da beti. Eta planteatzen diren kasuak kontuan izanik, egoera horretan dagoenaren kasu tipikoa bizitza osoan familiaz arduratu den eta etxea eta seme-alabak zaindu dituen emakumearena da. Eta sarritan, egitatezko banantzea gertatu ondoren, eta epaia eman arte ere egiten duena²³.

²³ Interesgarria da 2000ko martxoaren 8an Bizkaiko Probintzia Auzitegiak (1. atala) eman zuen epaia. Bertan, 30 urte familiari eman zizkion eta lanik aurkitzeko aukerarik ez zuen emazteari 55.000 pta.ko pentsio orekatzailea ematea erabaki zuen, familiari 30 urte eman zizkiolako, lanik aurkitzeko aukerarik ez zuelako eta, egitatez banatuta 9 urte zeramaten arren, senarrari eguneko 300 pta.ren truke jana prestatzen ziolako. Epaiak egoera honi amaiera eman zion, pentsioaren zenbatekoa ezarri eta Konstituzioaren 14. artikulua kontrako zor egoerari bukaera emanez.

Desorekako probarik ez badago pentsioa ukatu egiten da. Emakumeak bere diru-iturria duenean gertatzen da hori. Kasu horretan banatzeak edo dibortziazteak ez dakar bizitza maila jaisterik²⁴.

2. Iraupena. Legeak ez du ikusten pentsioa onuradunak (emakumeak, normalean) bizitza osoan jaso beharreko errenta edo kreditua denik, eskubide erlatiboa da, baldintzatu, egoeraren araberkoa eta denboran mugatua²⁵. Hori dela-eta, aldi zehatz baterako pentsioa ezartzen da, konpentsaziorako egoki dirudiena.

Hala ere, ez dago oztoporik bi aldeek adosten duten hitzarmena muga gabekoa izateko. Kasu horretan Kode zibileko 90. artikulua jasotzen duenaren arabera moldatu ahal izango da, funtsezko aldaketak gertatu direlako. Izan daiteke pentsio hori jaso duen emazteak gerora diru sarrerak izatea eta pentsioa ezarri zenean ez zuen independentzia ekonomikoa mantendu ahal izatea orain²⁶. Azken batean, egoera aldaketak erabakiak moldatzea zilegi egiten du, normalean erabaki horiek alda ezinak izan arren. Familia gaietako erabakiak *rebus sic stantibus* erregelak baldintzatuta daude²⁷.

Baliteke judizialki mugarik gabe ezartzea ere. Hori gertatzeko honako egoerak eman behar dira:

- Emaztea adinekoa izatea (50 urte baino gehiagokoa).
- Lan kualifikazio eskasa izatea.
- Elkarrekin luzaroan bizi izana.
- Baliabide ekonomiko propiorik ez izatea.

Elementu hauek gertatzen direnean pentsioa epe-muga gabekoa izatea erabakitzen da, familiari bere bizitzarik gehiena eman dion etxeoandre batek bizitza independentea egin ahal izan dezan diru-sarrera propioak lortzeko oso aukera gutxi dituela irizten zaiolako²⁸.

²⁴ Ez da beharrezkoa sarrera iturri handia izatea, nahikoa da kalte ekonomikoaren zuzentzaile den pentsioa aplikatzea egoki ez izatea. Pentsioa ukatu egin zaio kanpoan etxeko lanak egin dituenari, nahiz eta Gizarte Segurantzian alta emanda ez egon (2000ko martxoaren 15eko Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren epaia).

²⁵ Auzitegi probintzietan behin eta berriz errepikatzen den doktrina da; Bizkaian, adibidez, 2000ko martxoaren 29an, 2000ko apirilaren 5ean, 2000ko maiatzaren 22an.

²⁶ Adibidez, 2000ko martxoaren 17ko, edo 2000ko apirilaren 5eko Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren epaia. Nahiz eta gerora pertsona horrek lana galdu, lan merkatuan sartu eta bizimodu independentea egin dezakeela erakutsi duelako (adibidez, 2000ko martxoaren 29ko Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren epaia). Edo, beste pertsona batekin "more uxorio" bizitzen jarriko balitz. Kasu horretan harreman hori etengo balitz ere ez luke gero pentsioa jasotzeko eskubiderik izango (2001eko martxoaren 16ko Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren epaia).

²⁷ 2000ko martxoaren 3ko Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren epaia.

²⁸ Arrazoi hauek direla-eta, Bizkaiko Probintzi Auzitegiak hiru urterako pentsioa jasotzeko erabakia atzera bota eta epe-mugarik gabekoa ezarri zuen (2000ko apirilaren 10eko epaia).

3. Quantum-a zehaztea. Puntu honen inguruko praktika judizialean, banatu edo dibortziatuko diren ezkontideei egoera ekonomikoaz egin zaien probaren emaitza hartzen du abiapuntutzat. Kriariaren aurretik eta ondoren izandako egoera ekonomikoa zehazte aldera, aldeek ziurtatzen dituzten diru-sarrerak aztertzen dira eta horren arabera erabakitzen da pentsioa ematea eta kontuan izaten da etorkizunean familiari eskaini bide dion denbora.

Epailak ezkontideen egoera ekonomikoa aintzat hartzen du, besteak egindako ekarpenak eurentariko bakoitzarentzat izan duen benetako aportazioa alde batera utzita. Zibilista batzuen aburuz, egoera hau familiaz arduratzea tasatu edo kuantifikatu ezinagatik sortzen²⁹, baina izatez, 97. artikuluko horretan helburua ez da etxean egindako lan hori "ordaintzea", lan hori egiteagatik sortu den desoreka konpentsatzea baino (beste arrazoi batzuen artean).

Manu horren azken oinarria bikotearen harreman ekonomikoak arautzen dituen ezkontzako erregimen ekonomikoaren likidazioarekin lotuta dago.

2.2.2. ETXEKO LANA ETA EZKONTZAKO ERREGIMEN EKONOMIKOA

97. artikulua oro har aplikatzen da, ezkontzako erregimen ekonomikoa edozein dela ere. Eta goian esan dugunez, ez du familiari denbora eskaintzea ordaintzen, baizik eta egoera horrek sortarazitako ondorioak (desoreka). Hala eta guztiz ere, ezkontideek ezkontzak iraun duen bitartean izan duten erregimenak banatzeko unean ondasunen likidazioa desberdina izatea ekar dezake.

Honekin zera esan nahi dugu: kasu batzuetan erregimena likidatzeak ezkontideen arteko desoreka ekonomikoa arindu edo doitu egiten duela eta horrekin batera familiari eskainitako dedikazioa izana. Beste era batera esanda, erregimenak berak "konpentsatzen du" ekonomikoki dedikazio hori izan duen ezkontidea³⁰:

— Hori da gertatzen dena erregimena komunitarioa bada, adibidez irabazien komunitateko ezkontza-erregimenean. Erregimen hori sarritan agertzen da praktikan, erregimen osatzailea baita Zuzenbide komunean. Irabazpidezko ondasunen sozietatea desegiten denean, sistema honek zehazten du irabazpidezko ondasunak ezkontideen artean erdibanatu behar direla (1392. art., eta batez ere 1344 eta 1404. art.). Horretara,

²⁹ Ikusi LASARTE, C. eta VALPUESTA, M.R., op.cit., 758. or. Iritzi berekoa da CAMPUZANO TOMÉ, op.cit., 113. or.

³⁰ Puntu honi dagokionean, ikusi PÉREZ MARTÍN, op.cit., 593. or.

etxekoandreak lana ordainik jaso gabe egin duenak, ezkontza desegitean ezkontideak kostu bidez jaso duenaren erdia hartzen du, bien irabazia delako (1347. art.). Izan ere, zentzuzkoa da, lan biek, ordainduak zein ordaindu gabeak izan, lagundu dute ondare komuna egiten. Eta ondare hori erdi bana egiten da ezkontide bien artean likidazioko unean³¹.

— Antzera gertatzen da partaidetzako erregimenean ere. Kasu honetan familiaren ardura izan duen ezkontideak ezkontzan zehar besteak izan dituen irabazietan parte izango du.

Baliteke hala eta guztiz ere desoreka ekonomikoa gertatzea, goian komentatu dugun bezala, ardura horrek etorkizunean lanean txertatzeko edo bizitza autonomoa izateko aukerak moztu dizkiolako. Halakoetan gainera 97. artikuluko pentsioa jasotzeko eskubidea ere izango du. Horregatik esan dugu partaidetzako erregimenak arindu edo leundu egiten duela desoreka, baina ez du erabat kentzen, pentsioak ezkontide ohien etorkizunari begira ezartzen baitira, nahiz eta etxearen ardura huts-hutsa pentsio hori emateko erreferentzia elementu historikoa izan.

— Oso bestelako egoera gertatzen da erregimena ondasunen bananketakoa izanez gero, ez baitago partaidetzarik. Kasu horretan, legeak apropos egiten dio aipamen etxeko lanari. Ikus dezagun egoera hori:

2.2.3. "ETXERAKO LANA"

1438. ARTIKULUAN

Ondasunen bananketako erregimenean, ezkontide bakoitza hasieran duenaren eta edozein kasutan erosten edo jasotzen duen guztiaren jabe da (1437. art.). Hortaz, ezkontza desegiten denean, ez daukate besteen ondasunen eta irabazien parterik jasotzerik. Gauzak horrela, etxeko lanak egiteko ardura hartu duenak, sarritan emakumeak, ez du ondare pertsonalik osatzeko modurik izan etxetik kanpoko jarduera profesional ordaindurik ezin izan duelako burutu. Irabazitako ondasunezko ezkontza-erregimenean, ordea, etxetik kanpo lan egin duenaren eta etxeko lanak egiten geratu denaren artean batutako ondarea biena da. Horregatik, legegileak beharrezkotzat jo du ondasunen bananketako erregimenean etxeko lanaz erabakitzea, komunitarioetan ez bezala (irabazienean edo partaidetzakoan). Horrela, bada, 1438. artikuluan hauxe dio etxerako lanaz: "será computado como contribución a las cargas y dará derecho a obtener una compensación que el juez señalará, a falta de acuerdo, a la extinción del régimen de separación".

³¹ Puntu honi dagokionean, ikusi CAMPUZANO TOMÉ, op.cit., 44. or.

Izan ere, bananketako erregimenean bidezkoa ez den egoera baten aurrean egongo ginateke, bietako batek lan ordaindu bati uko egingo balio (borondatez edo ez) etxeko lanez dohainik arduratzeko, bien etxearen onerako, eta bien onerako egindako lanagatik beste ezkontideak ekonomikoki aitortuko ez balu. Ezkontzako erregimen ekonomiko horretako arauak (ondasunen bananketa) bidegabekeria hori zuzentzen ez badute, ezkontideek beraiek egin beharko dute hitzarmen baten bidez³², edo, bestela, epaileak³³.

Arau hau 1978ko irailaren 27ko Europako Kontseiluko Ministroen Kontseiluko Ebazpenean dago inspiratuta³⁴. Bananketako sistema zuzentzea zuen helburu, etxeko lanaz arduratzen zen eta ordaintzen zen lanik egiten ez zuen ezkontidearengan (gehienetan emakumearengan) pentsatuz. Doktrinak azpimarratu duen moduan, gai hau oinordetzako zuzenbidearekin lotu behar da.

Oinordetzako arauetan, ezkontidearen egoera oso prekariora da, irabazien erregimena gogoan zela arautu baitzen. Azken erregimen horretan, emakumeak, gehienetan etxeaz arduratzen denak, ondarearen erdia jasotzen du. Ondasunen bananketakoan konpentsazioa arrazoi horrexegatik sartzen da, erregimena desnaturalizatuz eta izatez partaidetza erregimenaren antzerako bihurtuz³⁵.

Hori dela-eta, 1438. artikulua ez da aplikatzen ezkontideetako batek, etxeko lanez gain, ordaindutako lana baldin badu (hain maiz gertatzen den "lanaldi bikoitza"). Gu ez gatoz bat ideia horrekin eta horren ganean hausnarketa egin beharko litzatekeela uste dugu.

³² Ezkontza itunak egin ahal izango dituzte edo ez, erregimena iraungi aurretik edo ondoren. Ez dago eragozpenik, gainera, konpentsazioari uko egiteko iraungi aurretik (halaxe onartzen dute MONTESek, op.cit., 869. or. eta REBOLLEDOk, op.cit., 869. or.).

³³ Kode zibilaren 1438. artikulua doktrinak ondo hartzen duen manua da. Ikusi ALBALADEJO, M., *Curso de Derecho civil*, IV, 200-201. orr.; LACRUZ BERDEJO, J.L., *Elementos de Derecho civil*, IV, 525-526. orr.; MONTES PENADES, V., "Comentario al artículo 1.438", in *Comentario del Código civil*, Justizia Ministerioa, Madril, 1993, 863-869. orr.; PEÑA BERNALDO DE QUIRÓS, M., *Derecho de familia*, arg. Unibertsitate Complutenseko argitalpen zerbitzua, Madril, 1989; REBOLLEDO VARELA, A.L., *Separación de bienes en el matrimonio*, arg. Montecorvo, Madril, 1983. Salbuespena da beste honen iritzia: DE LOS MOZOS, J.L., "Comentario al artículo 1.438", in *Comentarios al Código civil y las Compilaciones Forales*, zuz. M.ALBALADEJO, Madril, 1985, 374. or.. Azken honen ustez, 1438. artikulua ezkontzaren komunitate ideiarekin ez dator bat, kideetako bat bestea baino komunitarioagoa delakoan baitago. Berdintasun juridikoa oinarri duen ordenamenduan konpentsazio horrek ez duela zentzurik, inkongruentzia dela iruditzen zaio, edo egoki ez diren maila edo mugetara jotzen duela. Zuzenbideak mailarik gorenean errespetatu behar duen esparru batean sartzea dela uste du, batez ere halako arazoak ezkontza hausten denean azaleratzen baitira, balorazio objektiboei eustea zailen den momentuan. Horregatik guztiagatik ez da etxerako lanaren gaia sartu behar ezkontzako kargetako ekarpenak eramateko. Helburua arrazoizkoa izan arren, bananketako erregimenean bestearen irabazietan mugatuta parte hartzeko moduan funtzionatuko zukeen elementu komunitario bat sartzea beste era batera egin zitekeela uste du (376. or.).

³⁴ *Annuaire europeen* vol.XXVI, 1980, 352-359. orr.

³⁵ Ikusi kritika hau autore hauetan: REBOLLEDO, op.cit., 435-437. orr., MONTES, op.cit., 868. or.

Kataluniako legegileak ere berdin hauteman du. Erkidego horretan ondasunen banan-
ketako erregimena da ohikoena, aplikazio subsidiarioko baita. Eta bertan ondasunen
bananketako erregimena nagusi izateak etxeko lanagatik konpentsatzea beharrezkoa-
go ikusten da:

Araudiaren ikuspuntutik, Kataluniako Familiaren Kodeko 41 eta 42. artikuluetan ageri
da (uztailaren 15eko 9/1998 Legea), eta horietan etxeko lana aitortu eta konpentsatu
beharra jasotzen da. 41. artikulua halaxe dio: "en los casos de separación judicial,
divorcio o nulidad, el cónyuge que, sin retribución o con una retribución insuficiente, ha
trabajado para la casa o para el otro cónyuge tiene derecho a precibir de éste una com-
pensación económica, en caso de que se haya generado, por este motivo, una situación
de desigualdad entre el patrimonio de los dos que implique un enriquecimiento injus-
to"³⁶.

Gainera, Zuzenbide komunera itzulita, 1438. artikuluko konpentsazioa emateak ez du
97. artikuluko pentsio orekatzailea emateko posibilitatea baztertzen, baldin eta manu
horrek aurreikusten dituen bestelako faktoreek horrela eskatzen badute. Aurretik fami-
liaz arduratu izana ez da kontuan izango, bai, ordea, etorkizunean egin beharra edo
97. artikuluan agertu edo agertzen ez diren erreferentziazko beste elementu batzuk
gertatzen badira.

Katalunian, 41. artikuluko konpentsazio edo kalte-ordainaren eta pentsio orekatzaile-
aren arteko bateragarritasuna ere onartzen da. Pentsioa 1998ko Kataluniako Familia
Kodearen 84. artikulua araberera ere onartu daiteke³⁷. Honen inguruan eztabaida
izan zen Kodea indarrean sartu aurretik, Konpilazioan gai horren gainean ezer esaten
ez zelako. Kataluniako Auzitegi Nagusiak erabaki behar izan zuen 1998ko urriaren 31n,
legea bateratzeko kasazioko errekurtsio batean, doktrina bateratzeko: dibortzio kasu
batean Konpilazioko 23. artikuluko (gaur eguneko Familiako kodeko 41. artikulua)
ordainsaria eta Kode zibileko 97. artikuluko pentsio orekatzailea (Katalunian garai har-
tan indarrean zegoena, gaur egun Familiako kodeko 84. artikulua) bateragarriak ziren.
Auzitegiak bateragarritasunaren alde egin zuen, helburuak desberdinak direlako nahiz
eta etxeko lana bietan agertu. Lehenak iraganera begiraturaz aztertzen du eta bigarre-
nak etorkizunera. Kataluniako Familiako Kode berriak bateragarritasunaren alde har-
tzen du erabakia.

³⁶ Lehenago irailaren 30eko 8/1993ko Legeak onartzen zuen Kataluniako Zuzenbide zibilaren Konpilazioko 23.
artikuluan arautzen zen puntu hau.^o

³⁷ Ikusi Kataluniako Auzitegi Nagusiak 1998ko urriaren 31n emandako epaia. Bertan bateragarritasun hori onar-
tu egiten du. Doktrinan aurkako iritziak dauden arren, pentsio orekatzailearen eta konpentsazioaren arteko
bateragarritasunak iraun egiten du (ikusi PÉREZ MARTÍN, op.cit., 594. or.; LASARTE, C. eta VALPUESTA, M.R.,
op.cit., 760. or.; LALANA DEL CASTILLO, op.cit., 69-71. orr.).

Konpentsazioak bi ezkontideen ondareak konparatu egiten ditu eta euretako baten bide gabeko aberastea zuzendu nahi du, bestearen dohaineko lanaren lepotik. Pentsio orekatzailean ezkontuta bizi zireneko egoera eta dibortziatu ondorengo konparatzen dira. Ordena logikoak eskatzen du lehenengo konpentsazioaren kopurua kalkulatzea (dirutan edo ondasunetan ordaindu beharrekoa) erregimenaren likidazioari dagokiolako, eta ondoren zehaztu eta kalkulatu da pentsioa, egoki irudituz gero.

Aparteko atala:

**ETXEKO LANAREN BALIOESPENA
ONDASUNEN BANANKETAKO
ERREGIMENEAN**

Arazoa konpentsazioa zehaztean eta kuantifikatzean datza. Kode zibilaren 1438. artikulua idatzita dagoen bezala, badirudi etxerako lanak balorazio objektiboa izan behar lukeela, balio ekonomikoa izan baduelako nahiz eta ordain-saririk ez jaso lan hori egin den bitartean. 1438. artikulua hitzez hitz irakurriz gero, badirudi konpentsazio horrek ez duela zerikusirik kalte-ordaina ordaindu behar duen ezkontidearen egoera ekonomikoarekin. Eta, teoriarik behintzat, erreklamatu dezakeela nahiz eta ezkontidea ez aberastu ezkontzak iraun duen bitartean.

Bide tradizional honi jarraitzen diote Lacruz Berdejok eta Albaladejok. Lacruzek uste du emakumeak jaso behar lukeena (bera baita gehienetan jaso behar duena), "soldata geroratutzat" hartzen dela. Hala izanez gero, etxeko lana eta bere kontrabalio ekonomikoa zein izan den zehaztea izango litzateke kontua. Autore honen arabera balio hau izango luke: etxeko langilearen soldata. Hau da, manua idatzita dagoen bezala, ez litzateke senarraren irabazien araberakoa izango, eta arrazoirik gabeko aberastearen ideiaz ez luke zerikusirik izango³⁸.

Antzera agertu da Albaladejo ere³⁹. Honek azken konpentsazio izena ematen dio, eta "langabeziagatiko kalte-ordainaren" antzerakoa litzateke. Etxetik kanpo lan egiten duen ezkontideak errendimenduak jasotzen ditu eta ezkontza bertan behera geratu arren jasotzen jarraituko du; baina etxean lan egiten duena "lanik gabe" geratzen da.

1438. artikuluan etxeko lanaren balioaz egiten den irakurketa objektiboa ez dator bat 1979ko jatorrizko proiektuarekin. Azken honetan pentsioak bazuen zerikusirik beste ezkontidearen aberastearekin, eta, lehen esan dugun bezala, senarraren irabazietan

³⁸ LACRUZ BERDEJO, op.cit., 537-538. orr.

³⁹ ALBALADEJO, op.cit., 203. or.

parte izateko modua zegoen, irabazitako ondasunezko erregimena balitz bezala⁴⁰. Baina behin betiko testuak aberasteari egiten zaion erreferentzia kendu egiten du eta 1438. artikulua idatzita dagoen bezala, legezko konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango da, etxeko lana egin ez zuen ezkontidea aberastu zein ez aberastu. Eta teoriarik senarrak edo emazteak objektiboki egindako etxeko lanaren kuantifikazioaren arabera kalkulatu beharko litzateke pentsioa ("soldata geroratu" edo "langabeziagatik kalte-ordain" espresioen ildotik erabat sinbolikotzat hartu behar direnak, etxeko lanaren kuantifikazio ekonomikoaren inguruko lanik ez zegoen garaian idatzitakoak).

Hala ere, 1438. artikulua hitzez hitzeko interpretaziotik sortzen den aplikazio praktikoa ez da interpretazio objektibora egokitzen. Ebazpenetan argi eta garbi ikusten da epaileak beti hartzen duela kontuan etxetik kanpo lan ordaindua egin duen ezkontidea aberastea. Epaileak bi ezkontideen ondarearen egoera konparatzen du eta konpentsazioa ematea erabakitzen du desoreka zuzendu behar den neurrian. Epaileek etxeko lana "konpentsatu" behar dutenean, ez dute balorazio objektiboko irizpideetara jotzen, oraindik ofizialki ez baitaude, eta are gutxiago "laneko" irizpideetara.

Baina ez bakarrik legez lantzat hartzen ez delako, ezta botere publikoek onartutako eta etxeko arduraren objektiboki zehaztu lezakeen balorazio ekonomikorik ez dagoelako ere. Beste arrazoi bat izango litzateke. Hain zuzen ere, 1438. artikulua, hitzez hitzeko interpretazioa gorabehera, etxeko lana egin duenak ezkontidearen irabazietan parte izatea du helburu. Ondasunen banaketako erregimenaren zuzengarria da, ezkontza hausten den unean desoreka egoerak saihesteko sortua. Hau da, arrazoirik gabeko aberastea zuzentzea du helburu. Eta etxetik kanpo lan egin zuena etxean lan egin zuenarekin erkatuta aberastu denean emango da. Hortaz, proiektuak zioena da benetan aplikatzen den irizpidea, nahiz eta orain hori ez esan.

Ildo honetatik, Kataluniako Kodearen 41. artikulua zehatzagoa da, konpentsazioa jasotzeko eskubidea aitortzen baitu, etxerako lanagatik honakoa gertatzen denean: "se ha generado una situación de desigualdad entre el patrimonio de los dos que implique un enriquecimiento injusto". Harrigarria bada ere, Kataluniako Konpilazioaren 23. artikulua ez zuen "enriquecimiento injusto" delakoaz hitz egiten. Oinarri berria da, 1998ko Familiako Kodeak ekarria, lehendik kontuan izaten zena, baina orain arrazoirik gabeko aberastearen doktrinak eskatzen dituen baldintzak aldi berean gertatzen direla probatzera behartzen duena.

Irizpide hau etxeko lana zehazki kuantifikatzen duten prozedura judizialean agertzen da. Interesgarriak dira aspaldi ez dela Kataluniako Auzitegi Nagusiak etxeko lanaren

⁴⁰ Halaxe zioen 1979ko proiektuak: "El trabajo para la casa será computado como contribución a las cargas y dará derecho a obtener una compensación equitativa si el otro cónyuge se hubiese enriquecido durante el matrimonio."

konpentsazioaz eman dituen epai bi. Interesgarriak dira Erkidego honetako erregimen komuna ondasunen banaketakoa delako, ezkontideei teoriarik berdintasun juridikoa ematen diena, baina praktikan emakumea ekonomikoki kaltetu ohi duena.

1998ko urriaren 31ko eta 2000ko apirilaren 27ko epaiak dira. Euren baliagarritasuna kontuan harturik, jarraian aztertuko ditugu biak. Bietan ezkontuta luzaroan egon ondoren banandu ziren eta bietan emazteak, familiaren ardura izan zuenez, konpentsazioa eskatzen duen lan horregatik:

1. 1998ko urriaren 31ko epaia legearen intereseko kasazioko errekurtsu batean eman zen, auzian eztabaidatutakoaren inguruan doktrina bateratzeko. Aipatu dugu jada garai hartako Konpilazioaren 23. artikuluko konpentsazioaren (gaur Familiako Kodearen 41. artikulua) eta Kode zibilaren 97. artikuluko pentsio orekatzailearen (garai hartan Katalunian indarrean zegoena, eta gaur egun Familiako Kodeko 84. artikulua) bateragarritasuna dela-eta. Konpentsazioari dagokionean, helburua bidegabe aberastea zuzentzea da. Ez da gai sakontasunez sartzen, bateragarritasunaren gaia hartzen baitu ardatz, baina Zuzenbide konparatuko argudioak ere ekartzen ditu. Frantziako jurisprudentzia jasotzen du (Frantziar Senako Auzitegiak 1937ko maiatzaren 27an eta 1979ko uztailaren 10ean Kasazioko Auzitegiak emandako epaiak) eta Quebeceko Kode zibil berria (1994ko urtarrilaren 1ean indarrean sartua). Epaiotan pentsio orekatzailea ezartzen da, ezkontzako erregimen ekonomikoa edozein izanda ere, ezkontide baten ekarpena ondasunetan edo zerbitzutan bestea aberasteko izan bada. Eta harrigarria bada ere, konpentsazio hau ezkontzak dirauen bitartean ere eska daiteke kasu batzuetan (427.2. art.).

2. Gai gehiago sakontzen du 2000ko apirilaren 27an emandako kasazioko errekurtsu orokorrean emandako epaiak. Epai honek emazteari hamabost milioiko konpentsazio onartu zion (45 milioi eskatzen zituen), elkarrekin berrogei urte eman eta etxeko arduraguztia bere gain izan ondoren, ezkontza haustean desberdintasuna sortu zelako.

Lehenengo baieztatzen da kalte-ordaina ondasunen banaketako erregimeneko zuzentzailea dela, musu-trukeko lana konpentsatzeko eta desberdintasun egoerak saihesteko balio duena. Baietsi egiten da konpentsazioaren espirituaz esan duguna, 1438. artikulua (jurisprudentziak ulertu duen bezala) eta Familiako Kodeko 41. artikulua diotenaren ildotik: ezkontide biak maila berdinean jartzen ahalegintzen dira, ekarpen ekonomikoa egiten duena eta etxeko lanaren ekarpena egiten duena, diruz ordaintzen ez diren zerbitzuak ematen dituenak. Hori dela-eta, neurri batean ezkontzan zehar inbertitu den giza kapitala zeharka aitortzea da. Inolako zalantzarik gabe, ideia hau gaur egunean lanari ematen zaion garrantziaren isla da. Balio hori jasotzen duen soldata kopurua alde batera utzita ematen zaio, gainera⁴¹.

⁴¹ Ikusi ROCA, op.cit., 176. or., Beronen iritziz, ordaindu gabeko giza kapitalean inbertitzeagatik konpentsazio adibide argiak dira eta ezkontza hausten denean ezkontideen arteko harreman ekonomikoa orekatzeko aitortzen dira.

Arazoa sortzen da Familiako Kodearen 41. artikuluko berriak, konpentsazioa arautzen duenak, ondare bien arteko desberdintasuna gertatzeko "bidegabeko aberastea" egon delako tesia sartzen duenean. Baldintza hau ez zen Konpilazioko antzinako 23. artikuluan ageri, baina bai gaiaren inguruko jurisprudenzia katalanean (Kataluniako Auzitegi Nagusiaren 1995eko martxoaren 6ko, 1996ko otsailaren 19ko eta 1997ko maiatzaren 5eko epaietan).

Kataluniako Auzitegi Nagusiak 2000ko apirilaren 27an emandako epaian kritikatu egiten du 41. artikuluko sartzen duen arauzko baldintza hori. Hobe izango zukeen "bidegabeko ondare desberdintasuna" dagoela esatea, bidegabeko aberastearen legezko figurara jo gabe, interpretatzeko era propioa baitu. Baldintza hori eskatzeak puntu horren inguruan iritzi ematera behartzen du. Arrazoirik gabeko aberastea familiak gastutan aurreztu duena izango litzateke alde batetik, beste ezkontideari bere denbora eta ahalegin guztia aberastasuna sortzera bideratzeko aukera eman diolako. Zentzu abstraktuan zera esan nahi da: ordain-saririk jaso gabe etxerako lana egiten duen ezkontideak bestearen aldeko aberastasuna sortzen duela. Auzi honek etxeko andeari bere eginkizunak aitortzeko desioarekin bat egiten du. Eskari hori atzera ezina dela sentitzen hasi dira eta botere publikoek astiro eta pixkanaka jasotzen dutela.

Gauzak horrela, arrazoirik gabeko aberastearen ideia dagoela azpian eta auzitan dauden ondare biak konparatu beharra nabaritzen da. Baina bidegabeko aberastearen eskaerak aldi berean gertatzea zaila izan daiteke. Bidegabeko aberastearen doktrinak lau eskaera ezartzen ditu aurrera egin ahal izateko⁴²:

1.- Aberastea. Ondarea handitzetik edo ez gutxitzetik (aberaste negatiboa) etor daiteke. Azken hau da etxeko lanean gertatzen dena, ezkontideetako batek egin beharko zituen gastuak eta indarrak aurreztu baititu, legez biei dagokien obligazio bat betetzen.

2.- Beharrezkoa da aberaste hori beste baten lepotik gertatzea eta bigarren hori neurri berean txirotzea. Kasu honetan, elkarrekin bizi izan diren aldiak etxeko ardurak izan duenak ez du kanpoan ordaindutako lanik egin, produkzio gaitasun guztia familiaz arduratzen eman du trukean ezer hartu gabe. Beraz, txirotzea lana ez ordaintzetik letorke.

⁴² Ikusi DÍEZ-PICAZO, *Sistema de Derecho civil*, II. bol., 9. arg., Tecnos, Madril, 2001, 526. or. eta h.; ÁLVAREZ CAPIROCHIPI, *El enriquecimiento sin causa*, Granada, 1989. Gaiaren inguruko beste lan askoren artean, oraintsuagoko hau ikus daiteke: ESTÉVEZ GONZÁLEZ, "Proyección en el Derecho aplicable de las distintas concepciones del enriquecimiento sin causa", *A.D.C.*, 2000, 511. or. eta h.

3.- Aberastearen eta txirotzearen kausazko erlazioa. Egia da kanpoan lan egin eta etxean egiten ez duenak baliabideak beste helburu batzuetarako aurrezten dituela. Baina, zein puntutaraino da ezkontzan zehar pilatu dena besteak etxean lan egin duelako? Etxeko lanaren balioa zehaztu beharko litzateke familiari egindako ekarpena zein izan den ikusteko, zeren eta ondasunen banaketako erregimenean ondare komunik ez izan arren, etxea mantentzea bien betebeharra baita.

4.- Ondarea arrazoirik gabe eskualdatzea, goian aipatutakoagatik gertatzen dena eta geroago zehatzago azalduko dena, etxeaz arduratzea ezkontzako kargetan ekarpena egitea delako. Oinarrizko ideia aurreratuko dugu: bien etxeaz biek arduratu behar dute, eta izatez karga batek hartu badu, besteak ondoren konpentsatu egin behar du legezko betebeharr hori. Etxean geratzen denaren aldeko kreditu bat sortzen da.

Hortaz, etxean soldatarik jaso gabe lan egiten duena txirotu egiten da, jakina, baina arazoa lan horregatik jasotzeko eskubidea duen konpentsazioa zehaztea izango da. Puntu honetan bi konturi egin behar zaie aurre:

1. Oinarrizkoa da publikoki "ez-aktiboa" den baina pribatuki benetan "aktiboa" den ezkontidearen "txirotzea" zehaztuta agertzea. EUSTATEk, Kataluniako emakumearen institutuak eta CSICek, besteak beste, eman duten gutxi gorabeherako balorazio ekonomikoak etxeko lanen ardura kopurutan zehazten du. Baina egiten den txirotzearen zehaztapenean kontuan izan behar da etxeaz arduratzen denaren lanaren zati bat norberarentzat dela, "autokontsumotzat" har daitekeela, ezkontide izateagatik duen betebeharr bat.
2. Ezkontza haustean, etxetik kanpo lan ordaindua egin duena neurri batean berari ere legez zegokion obligazio bat bete ez duelako aberastu da, ahalegina, denbora, giza eta kapital baliabideak gorde ahal izan dituelako beste helburu batzuetarako. Beste faktore batzuk ere egongo dira aberaste horretarako, jakina, guri dagokigunarekin zerikusirik ez dutenak, baina argi dago lepoan duen zorra harremanean berari zegokion betebeharra ez hartzeagatik dela.

Arazoa orain hauxe da: Nola zehaztu ezkontideetako batek bere gain hartzen duen zorra bikotekideak egin dion etxeko lanagatik?

Quantum hori zehaztea 2000ko apirilaren 27an Kataluniako Auzitegi Nagusiak emandako epaian aztertzen da. Auzitegiak baztertu egiten ditu senarraren ondarean partaidetza (kuota edo portzentajea) zehaztea eta lan merkatuko prezioetara jotzea:

— Lehen, horrek bananketa erregimena desnaturalizatu egingo lukeelako eta partaidetzakoarekin parekatuko lukeelako. Ados gaude erabaki honekin, hau ez baita bananketa erregimena kontuan izanik etxeko lana aitortzeko modua.

— Eta bigarrena ere ez, ezkontidearen ardura etxeko langile baten soldatarekin parekatzearen kontra dagoelako. Konpara ezinak diren terminoak erkatzea dela uste du. Ez zaio arrazoirik falta Auzitegiari, oso desberdina baita etxeko langile baten lana eta etxekoandrea edo etxekogizonarena. Ikerlan honetan "etxeko kudeaketa" lana funtsezkoa dela azpimarratzen dugu eta etxekoandre edo etxekogizonaren kontsiderazio juridiko eta ekonomikoan kontuan hartu behar dela, eta etxeko langile batek egiten duen lanetik bereiztu egin behar dela⁴³.

Baliteke Auzitegiak etxeko lanak balorazio objektiboagoa izan dezan egiten ari diren saioak gogoan ez izatea, ebazpen hauetan erabilgarriak izango liratekeen arren. Dena den, Auzitegi Nagusia formula orokorretatik eta bestelako irizpideak erabiltzetik (errekamatzen duen ezkontidearen jarduerak familiarengan duen eragina, ondare desberdintasunaren zenbatekoa eta beste batzuk) aldentzearen aldekoa da. Ondorioz, Auzitegi Nagusiak bidegabeko aberastearen inguruko baldintza juridikoen aldibereko-tasunaz aldeko edo kontrako iritzia ematea baztertu egiten du eta ondare desberdintasunaren oinarritzeko ideia hartzen du ohiko zentzuan, zuhurtzia judizial zabal batean barruan.

Hau guztia esanda, ondorio hauek atera ditzakegu:

1. Elkarrekin bizi izan diren artean familiaren ardura eraman duenak konpentsazioa jasotzeko legezko eskubidea du, baina konpentsazio horrek ez du balorazio objektibo batetik sortuko litzatekeenaren pareko krediturik sortzen, bidegabeko aberastearen ideian oinarritzen da.
2. Goikoa Kode zibileko 1438. artikuluaaren espiritutik sortzen da, ez letratik, eta beste arau autonomiko batzuetatik esplizituki. Puntu honen inguruko ebazpen judizialean agertzen den irizpidea da.
3. Aberastea egotera hurbiltzean kontuan eduki behar izango litzateke zein neurritan ari den gaur egunean etxeko lana balioesten, eremu pribatutik gero eta urrunago, eta merkatu-ekonomiatik hurbilago.
4. Kopuru honek islatzen du zenbatean txirotu den lan hori egin duena, bikotearen bi kideei legez dagokien betebeharrean (betebehar hori baden eta zein neurritan eska daitekeen geroago aztertuko dugu). Eta zentzu honetan etxeko lanak bere gain hartzen dituenaren "autokontsumoa" ere kontuan eduki beharko da, norberarentzat egiten den lana.

⁴³ Ikusi DURÁN, M^o Á., "La gestión de la cotidianeidad", in DURÁN, M^o Á. (zuz.), *Contribución,...*, op.cit. 455-506. orr.

5. Beste ezkontidea aberastu egiten da ahalegin pertsonalean aurrezten duelako, giza kapitalean inbertitu ez duelako. Izan ere, elkarrekin bizi izan diren bitartean juridikoki inbertsio hori egin beharko zukeen, baina biek adostuta (espreski edo isileko erabakiz), besteak izan du ardura hori (guztiz edo neurri batean).

6. Quantuma zehaztean bi ondareak konparatu beharko dira eta funtsezkoa izango da etxeko lanaren apreziazio objektiboaren erreferentzia izatea, ez bere aldeko kreditu zuzena izan dadin baizik eta irabazietan parte hartzea zehazteko erreferentzia elementu izateko.

2.2.4. ETXEKO LANA EZKONTZAREN AMAIERAN

Orain arte ikusi dugu, oro har, 97. artikulua eta ondasunen bananketako erregimena-ri begira eginda dauden 1438. artikulua eta Kataluniako kodearen 41. artikulua etxeko lana bidearen amaieran, ezkontza hausten denean aztertzen dutela: lehen kasuan bananketa edo dibortzioa gertatzen denean; eta bigarrean, ezkontza iraungitzen denean, arrazoia edozein dela ere. Baina diferentzia honetan datza, etxerako lana nola balioesten den:

— 97. artikuluko pentsio orekatzailea kalkulatzeko, eskatzen duen ezkontidearen "familiako ardurak" badu eragina kopuru hau kalkulatzeko orduan, bikotekideen arteko desoreka ekonomikoaren eragileetako bat izan baitaiteke harremana bertan behe-
ra geratzean. Baina pentsioarekin konpentsatzen dena ez da etxerako egin den lana, baizik eta lan horretan aritzeagatik sortu den desoreka. Horrexegatik ulertzen dugu etxeko lanak pentsio horren azpian daudela. Zeharka islatzen dira pentsioan.

— 1438. artikulua, bere aldetik, hitzez hitz interpretatuta, etxerako lana zuzenean eta objektiboki aitortuko luke, nahiz "ex post facto" izan, edo geroago, erregimena iraungitzen denean. Hala ere, manu honen aplikazio praktikoa ez dator bat hitzez hitzeko irakurketarekin. Ez da lan horren ordainketa balio ekonomiko objektibotan egi-
ten, lehen esan dugun bezala. Balio ekonomiko objektibotan egingo balitz, konpen-
tsazioa emango litzateke era horretara lana baloratuz.

Ondorioz, 1438. artikulua eta Kataluniako Kodearen 41. artikulua beste ratio iuris bati dagozkio: etxekoandreak edo etxekogizonak kanpoan lan ordaindua egin duen ezkon-
tideak pilatutako irabazietan zelan parte hartu antolatzea. Erregimen komunitarioetan (irabazienean eta partaidetzakoan) gertatzen den antzera. Izan ere, gertatzen dena berdina da: ezkontideetako baten irabazia kanpoko lanari denbora eta ahalegina emateari esker gertatuko da, gehienetan, etxeko lana dohainik beste bikotekideak egin duelarik. Hori dela-eta, kalte-ordaina bien ondareak konparatuta kalkulatu da. Eta

bidegabeko aberastean du oinarri juridikoa, horixe izan baitaiteke bikotearen artean ezkutuan egon daitekeena eta zuzendu behar dena.

Orain arte esandakoa laburbilduz, etxeko lana era batera edo bestera konpentsatu beharra beharrezko ikusten da ezkontza iraungitzen denean, ezkontideen arteko ondare harremanak eraentzen dituen ezkontzako erregimen ekonomikoa zein den kontuan izanda:

- Erregimen komunitario batean (irabazienean edo partaidetzakoan), berau likidatzeko arauak etxekoandreak edo etxekogizonari beste ezkontideak kanpoko lan ordainduan pilatutako irabazien erdian edo zati batean parte harrarazten diote.
- Bananketako erregimen batean, parterik ez izatea ezkontideetako batek egin duen etxeko lana konpentsatzearekin zuzentzen da eta horrela bidegabeko aberastea saihestu egiten da.

Gainera, bi kasuetan, erregimena likidatu ondoren, pentsio batek (Kode zibilaren artzinako 97. artikulutik, edo Kataluniako Familiako Kodeko 83.etik abiatuta) zuzendu dezake etxekoandreak edo etxekogizonak bere ondarean izan dezakeen desoreka. Desoreka hori, besteak beste, etxeaz bakarrik arduratzeagatik gerta dakioko etxekoandreak edo etxekogizonari, horrek lan merkatutik urrundu egin duelako eta etorkizunean merkatu horretan txertatzea zaildu egiten zaiolako.

Baina etxeko lana konpentsatzea ezkontza *bukatzen denean* gertatzen bada, ezkontzak dirauen *bitartean* esanahi juridiko bat ere baduela esan nahi du. Ikus dezagun jarraian:

2.2.5. ETXEKO LANA, EZKONTZAKO KARGETAN LAGUNTZEA

Legegile zibilak ezkontzan zehar egiten den etxeko lanari egiten dion aipamen bakarra orain arte aipatu dugun 1438. artikuluan da eta halaxe dio: "... el trabajo para la casa será computado como contribución a las cargas..." (familiako kargez ari da). 1438. artikulua, ikusi dugun bezala, ondasunen bananketako erregimenari buruzkoa izan arren, etxerako lana matrimonioaren kargetako ekarpentzat hartzen da, erregimena edozein izanda ere. Familiaren kargetako ekarpena da beti⁴⁴. Beste erkidego batzuetako arauetan (Katalunian eta Nafarroan) ere etxerako lanak familiaren kargetako ekarpentzat jotzen dira⁴⁵.

⁴⁴ Normalean Zuzenbide konparatuan onartzen den irizpidea da (ikusi REBOLLEDO, op.cit., 433-434. orr.)

⁴⁵ Halaxe dakar Kataluniako Familiako Kodeko 5. artikulua; eta; Nafarroako Konpilazioko 103. Legearen b) atal-lak (5/87 foru legea).

— Egiten dugun lehen galdera hauxe da: zergatik aipatzen du Kode zibilak ondasunen bananketako erregimenaren harira, eta ez xedapen orokorren artean, bikote ezkondu guztiei badagokie? Ziur aski sistema horretan azpimarratu beharrekoa irudituzaiolako, senarraren eta emaztearen ondareen erabateko banaketagatik. Kasu honetan beharrezkoa da ezkontideek bien etxea nola mantenduko duten adostea, eta akordio-rik egon ezik, legeak bakoitzaren baliabideen arabera izatea aurreikusten du.

Horregatik errepikatzen du ezkontza harreman guztiei komuna zaien ideia: "los cónyuges contribuirán al sostenimiento de las cargas del matrimonio", eta ondokoa gehitzen du: "a falta de convenio lo harán proporcionalmente a sus respectivos recursos económicos".

— Bigarrenez: "matrimonioko karga" horiek⁴⁶ zeintzuk diren 1362. artikuluko 1. atalean ageri dira, irabazizko ondasunen sozietatearen karguko gastuen harira, nahiz eta manu hori ezkontza harremanei orokorrean aplikatzekotzat jotzen den⁴⁷:

- Familiaren sostengua.
- Bien seme-alabak elikatzea eta heztea (baita ezkontideetako baten seme-alabak ere familiaren etxean bizi badira).
- Familiaren usadioetara eta ingurura egokitutako aurreikuspeneko zerbitzuak.

"Familia" zer den zehazteko orduan, irizpide murriztailea egon ohi da, eta bikotea eta seme-alabak baino ez dira barruan sartzen, etxeko ardura duenak sarritan beste ahai-de batzuk zaintzearen kalterik gabe. Hori dela-eta uste dugu irizpide murriztaile horrek balio duela konpentsaziorako ondasunen bananketako erregimenean⁴⁸, baina ez beste kasu batzuetan. Izan ere, etxeko andre askok eroapen handiz hartzen duten atazetari-ko bat etxeko nagusiak edo gaixoak zaintzea da⁴⁹.

— Hirugarrena: Bi ezkontideek laguntzen dute matrimonioko karga horiek jasotzen, 1348.1. artikulua dioenez, ezkontza erregimena dena delakoa izanda ere, seme-alabek egin lezaketen ekarpenaren kalterik gabe⁵⁰. Gogoan izan dezagun ezkontide biek dutela elkarri lagundu beharra, familiaren interesean jardutekoa eta elkar sokorritzekoa.

⁴⁶ "Matrimonioko kargak" espresioa (1.318.1 art.) "familiako gastuak" edo "familiaren sostengu eta arreta" espresioen sinonimoa da (MONTES, op.cit., 863. or.) eta lan honetan "etxeko lan" izenez aipatzen duguna ere sartzen da haren barruan.

⁴⁷ ALBALADEJOK, op.cit., 149. orrialdean dioen bezala, arau hau ezkontza erregimen primarioaren barruan dago, eta arau hauek batez ere "matrimonioko kargak" aztertzen dituzte.

⁴⁸ Kode zibilaren 1438. artikulua harira, MONTESek (op.cit. 864. or.) irizpide murriztaile hau defendatzen du.

⁴⁹ Gaixoak eta zaharrak ordainsaririk jaso gabe zaintze lanaz, ikusi RODRÍGUEZ, V. eta ZAMBRANO, I.ren lanak, in DURÁN, M^o Á. (zuz.), *Contribución* ..., op.cit., 229-328. orr.

⁵⁰ Kode zibilaren 165.2 eta 155.2. artikuluek ezkontzako kargak jasotzeko, behar den neurrian, gurasoen agintean dauden eta gurasoekin bizi diren seme-alaben diru-sarrerak ere erabil daitezkeela diote.

Betebehar generikoak dira horiek edozein ezkontzatan (67 eta 68. art.), ez bakarrik ondasunen bananketakoa. Ezkontideek egiten duten ekarpena ezkontzaren erregimen ekonomikoaren arabera izango da. Horrela irabazietakoan, kargak altxatzeko erabiltzen direnak irabazitako ondasunak dira, eta irabazirik ez dagoenean edo nahikoa ez direnean, senar-emazteen ondasun pribatiboak, bakoitzaren errekurtsoen arabera. Parte hartze edo bananketako erregimenetan, ondasun komunik ez dagoenez, kargak senar-emazteen ondasunekin altxatzen dira zuzenean, eta bakoitzaren baliabideen proportzioan⁵¹.

— Laugarrena: Ekarpena baliabide ekonomiko guztiekin egiten da, ez bakarrik ondasun eta eskubideekin, baita lanarekin ere, etxetik kanpo eta etxe barruan⁵². Eta lehen zatian esan zen bezala, etxeko lan hau, ez da bakarrik lan materiala, baita familiako gainerako kideak zuzendu, zaindu eta arreta eskaintzea ere. Gaur egunean ez dago zalantzarik pertsona batek dituen lan gaitasunak pertsona horren "baliabideen" artean daudela⁵³.

Matrimonioko kargetan ekarpena egitea norbere etxeko lanetan aritzea denean, zenbait kontu planteatzen dira:

1. Lana nork egin behar duen ezkontide bien artean erabakiko da, berdintasun juridikoaren, duintasunaren eta askatasunaren printzipioak kontuan izanik:

– Berdintasuna (Konstituzioaren 32. art. eta Kode zibilaren 66. art.), bien eginbeharra baita etxea zaintzea, eta betekizun hau lan merkatura baldintza berdinetan sartzeko eskubidearekin bateragarri egitea⁵⁴.

– Duintasuna (Konstituzioaren 10. art.), etxerako lana bere gain hartzen duenak hartzen duela, ezin baita maila apalagoko edo gutxiagoko ekarpen zat hartu. Horregatik garrantzitsua da botere publikoek lan hori kuantifikatzea eta KPI n sartzeari, soldatarik ez jasotzea edo aitortpen ekonomikorik ez izatea arindu eta psikologikoki eta gizarte mailan konpentsatu egingo duelako⁵⁵.

⁵¹ Legegilearen irizpidea, agerikoa denez, proportzioa da, ez biek berdin ekartzea. Eta horren ondorioz, senar-emazteetarik batek egin behar badu ekarpen guztia besteak baliabide propioarik ez duelako, horrek ez dio berreskuratzeko eskubiderik ematen, bestearen egoera ekonomikoa hobetzen bada (ALBALADEJO, op.cit., 200. or.).

⁵² "Etxerako lana" espresioa etxeko lanarekin identifikatzen da, nahiz eta baserri giroan "etxeak" diren beste lan ordaindu gabe batzuk sartzen diren. Gai honen inguruan ondokoa kontsulta daiteke: PANIAGUA MAZORRA, A., "Un análisis de la reestructuración y cambio en la remuneración y dedicación al trabajo en la agricultura familiar española", in DURÁN, M^a A. (zuz.), *Contribución...*, op.cit., 525-550. orr.

⁵³ REBOLLEDO, op.cit., 431. or., MONTES, op.cit., 867. or.

⁵⁴ Familia bizitzaren eta lan bizitzaren arteko kontziliazioa lortzeko ahalegina egiten hasia dela ikusten da azken aldirian (ikusi goiko oharra honen inguruko ekimenei buruz).

⁵⁵ Ikusi goiko oharra etxeko andreen lanaren aitormen ekonomikoaren inguruan emandako pausuez.

– Eta askatasuna, gaur egun bikotearen harremanetan lehen hain murriztuta zegoen autonomia pribatua gero eta gehiago sustatzen delako. Kide bakoitzak egunero ebaluatzen du elkarbizitzako konpromisoak betetzen dituen ala ez. Horretara eskubide indibidualak azpimarratzen dira, eta norbere nortasuna baieztatzen da maila afektiboan⁵⁶.

2. Matrimonioko kargetan ekarpena egiteko erabakia, eta zehatzago esanda, nor bere etxean egin beharreko lana ezartzen den era:

Ez da ahaztu behar etxe-ahalmena bien artean banatuta dagoela (1319. art.) ezkontideen berdintasun juridikoaren printzipioaren arabera (66. art.), eta eurek, ados jarririk, banatuko dituztela lanak edo erabakiko dutela bietako batek egitea, egokien deritzena⁵⁷.

Akordio horrek har dezakeen itxura ezkontzako hitzarmenarena izan daiteke, edo idatzizko besteren batena, baina, egia esan, ez da maiz gertatzen. Gehienetan isilekoa izango da, jokabide eztabaiaezina, hau da, lan horietaz de facto arduratzeagatik. Maiz, ikerketa estatistikoek diotenez, emakumeak hartzen du automatikoki etxeko lanik gehienak egiteko ardura⁵⁸. Berdintasuneranzko bidea motela da⁵⁹.

Hala ere, gaur egun bikoteetan dagoen joera automatiko hori mugatzea da, gaia "negoziatu" egiten da eta horretatik barne antolaketa aterako da borondatearen arabera (Kode zibileko 1255. art.)⁶⁰.

3. Etxerako lanak berak egitea onartu duen ezkontideak besteari bere zatia ez duela bete planteatzen diezaioke, matrimonioko kargetan ekarpena egiteko modu legez:

Familia-zuzenbidearen harreman juridikoek ezaugarri bereziak dauzkate. Horregatik akordio horietako bat ez-betetzea gertatuz gero, ezin dira ondare-zuzenbideko in

⁵⁶ Ikusi FERRER RIBA, J., "Relaciones familiares y límites del derecho de daños", *INDRET*, urria (2001) 1-21. orr.

⁵⁷ Gai honen inguruan, ikusi GARCÍA SERRANO, A., "Notas sobre el trabajo doméstico", *A.D.C.* 38. zk. (1985) 3. bol., 590. or. eta h.

⁵⁸ *Mujeres en cifras* (1996-2000) Emakumearen Institutuak egindako ikerlanaren arabera, emakumeek etxeko lanei eskaintzen dieten denbora gizonena baino bost aldiz gehiago da. EUSTATENaren arabera, etxeko ekoizpean emakumeek parte hartzen dute gehien (%74,4), gizonen %25,6 eskastxoarekin konparatuta. Etxeko rol tradizionalen banaketa mantendu egiten da, nahiz eta gizonen parte hartzea handituz doan. 1993an gizezkoen ekoizpena %20,7koa zen eta ordutik 1998ra %4,9 puntutan igo da. CSICen ikerketa soziologikoen erakusten dute eta etxeko lan ordaindu gabea osatzen duten funtzio desberdinak sexuaren eta jardueraren arabera banatzen direla (ikusi DURÁN, M^a A., (zuz.), *Contribución...*, op.cit.).

⁵⁹ EUSTATEN inkestetan, *Cuenta satélite...*, op.cit., gizezkoaren progresioa homogeneoa da ataza edo eginkizun guztietan, eta hezkuntzan edo etxeko pertsonak zaintzearekin zerikusia dutenetan aurrerapena handiagoa da.

⁶⁰ Familia modernoak inplikaturako interesak patrimonializatzeko joera du (E. ROCA, ibid.).

natura konponketak edo betetze espezifikoko arauak aplikatu. Ez dago arrazoirik eus-tezinezko eginbeharrak derrigorrez egiteko. Eta kalte eta galeren konponketa ekonomikoa era desberdinean egiten da (Kode zibileko 97. eta 1438. art., jada ikusiak). Hortaz, ez dirudi ohiko ondare erantzuna eman dakiokeenik, bete dadin edo ez betetzeagatik zigor dadin⁶¹.

Batzuek iradoki dute sorotsi beharra ez betetzetzat har daitekeela, eta ondorioz, erantzun juridiko-matrimoniala eman dakiokeela ezkontzako betebeharrak hausteagatik (Kode zibileko 66-68. art.) eta banatzeko arrazoia izan daitekeela (art. 82)⁶².

4. Etxerako lana benetako lana da eta kuantifikatu egin daiteke:

Argi dago Kode zibileko 1438. artikuluan matrimonioko kargetara ekarpena egiten duela legez aitortzeak eduki ekonomikoko atribuzio inplizitua adierazten diola etxeko lanari. Bakoitzak ekarpen ekonomikoa eta pertsonala egiten du familia aurrera ateratzeko, baita gizarteak ere oro har aurrera egin dezan.

Beste kontu bat izango da balio horren quantuma zehaztea. Lan honetan aipatzen ari garenez, ahalegin handiak egin dira balorazio horrek etxekoandreak egiten duten ezkutuko lan hori baloratua izan dadin. Honek lagundu egin beharko luke doktrina klasiko zibileko irizpidea gainditzen. Doktrina horrek arazoa konpontzen zuen balorazioa hirugarren pertsona batek lan hori egiteagatik kobratuko lukeen soldataren arabera egin beharko litzatekeela esanez⁶³. Baina etxea zaintzea gehiago da eta hirugarren pertsona horrek egiten duen lanak duen baino ardura handiagoa izango luke etxekoandreak.

Aurrerakuntza honen bidez, benetako aitormen ekonomikoa eta juridikoa izango luke "ezkontzan zehar" egiten den lan horrek, familiako kargen kuantifikazioari esker, bere gain hartzen dituen lanen balioespenaren arabera, ezkontza krisian dagoen edo iraungitzen den uneetara itxaron beharrik izan gabe.

Garrantzitsua deritzogu puntu honi, ezkontideen arteko harremana demokratizatzen laguntzen duelako, etxeko lana ordaindua izan ez arren, onarpenak gizarte kontzien-

⁶¹ GARCÍA SERRANO, op.cit., 599. or.

⁶² Horrelaxe ulertzen du ZURITA MARTÍN, I.k, "La incidencia del trabajo doméstico en la crisis matrimonial: ¿posible causa de separación?", in *La situación jurídica de la mujer en los supuestos de crisis matrimonial*, IV Seminario de estudios jurídicos, koord. M^a P. SÁNCHEZ GONZÁLEZ, Servicio de Publicaciones de la Universidad de Cádiz y Departamento de la Mujer del Ayuntamiento de Jerez de la Frontera, Cádiz, 1996, 265-279. orr. Ildo berekoa da GARCÍA SERRANO, op.cit., 600. or. REBOLLEDOren irizpideei jarraituz, op.cit., 433. or., ez du ikusten zein neurri ekonomikoa har litzakeen epaileak 1318. 2. artikulua dioena betetzen dela ziurtatzeko. Zigor aldetik "familia bertan behera uzteztat" jo daitekeela dio. Azken iritzia muturrekoegia eta bidera ezina iruditzen zaigu.

⁶³ Hauxe da ALBALADEJOren iritzi klasikoa, op.cit., 202. or., edo LACRUZena, op.cit., 537-538. orr., dagoeneko aipatu ditugunak, familiak aurreztu egiten baitu etxekoa ez den bati ordaindu beharrekoa.

tzia sortarazten duelako etxeko ekarpenaz eta horrekin nortasuna autoafirmatu egiten delako.

2.3. ETXEKO LANA IZATEZKO BIKOTEETAN⁶⁴

Ezin dugu azterlan honetan alde batera utzi izatezko bikotekideen etxeko lana ere. Honen inguruko legerik ez izateak, erkidegoetako arauak salbu, ez du saihesten izatezko bikoteetan Zuzenbideak zaindu beharreko ondorio juridikoak agertzea. Guri dagokigunez, *more uxorio* erara bizi diren bikoteei orain arte ikusi ditugun arauak analogiaz aplikatu dakizkiekeen ala ez jakitea da arazoa. Ikus dezagun Zuzenbide komunean nola planteatzen den arazoa, gero erkidegoen legedira pasatzeko.

Gure ustez, honelako bikote bat apurtu arte, etxeko lana kargetara egiten den ekarpen zat hartu behar da, ez ezkontzara egiten den kargatzat, ez baitago ezkontzarik, baina bai familiara eta bai batera osatu duten etxera egiten den ekarpen zat. Uneren batean erabakiko zuten nola atenditu etxea eta hipotesi guztiak dira posible. Ezkontza batean bezala, baliteke biek etxeko lanak egitea, edo eurentariko batek egitea gehien batean, kanpoko laguntzarekin edo laguntzarik gabe,...

Izatezko presupostua eta ezkontzakoa antzekoak dira. Eta ezkontza harremanean gertatzen den bezala, arazoa krisia dagoen unean agertzen da, familia zaintzen eta etxeko lanak egiten denbora eman duenak konpentsazioa eskatzen duenean. Eskari hau ezkontzaren egongo balitz egingo lukeenaren antz-antzekoa da. Azken batean, ezkontzaz kanpoko elkarbizitza amaitzen denean kalte-ordainik jasotzea legokiokeen jakitea da. Une horretara arte Zuzenbidea alde batera utzi dute eta orain berorren babes eskatzen dute.

Horren inguruko araurik ez dagoenez, *more uxorio* bizitza arautzen duen lege orokorrik onartu ez denez, ikus dezagun jurisprudentziak zein bide hartzen duen halako kasuetan. Auzitegiek ez dute era bakar batean erabakia hartu, denboran zehar irizpi-

⁶⁴ Gai honen inguruan, besteak beste, honakoak ikus daitezke: MESA MARRERO, C., *Las uniones de hecho*, Aranzadi, 2. arg., Iruñea, 2000; ROCA TRÍAS, E., "Comentario a los artículos 90 a 101 del Código civil", in *Comentarios a las reformas del Derecho de familia*, I. bol., Tecnos, Madril, 1984, 540-649. orr. eta idem, "El régimen económico de las parejas de hecho", in *La situación jurídica de la mujer ...*, op.cit., 29-46. orr.; Cerdá Gimeno, op.cit., 91-140. orr.; Corral Gijón, M.C., "Las uniones de hecho y sus efectos patrimoniales", *R.C.D.I.*, martxoa-apirila (2001), 559-622. orr.; Talavera Fernández, P.A., *La unión de hecho y el derecho a no casarse*, Granada, 2001, 15. or. eta h.

de desberdinak erabili dituzte. Azken urteotan eman diren epaiarik interesgarrienak izatezko bikotekideen etxeko lana konpentsatzeari buruzkoak izan dira.

Ikus dezagun izatezko bikotekide horrek, oro har emakumeak, nola aurkeztu duen erreklamazioa. Eta jarraian, nola arautzen duten gai hau erkidegoetako araudiek:

2.3.1. ETXEKO LANARI BURUZKO JURISPRUDENTZIA IZATEZKO BIKOTEETAN

Begien aurrekoa da ezkontzaz kanpoko harreman bat hausteak desoreka ekonomikoa sor dezakeela, ezkontza harreman bat haustean gertatzen den bezala. Azken harreman hauei dagokienean, goian aipatu dugun 97. artikulua haustura hori konpentsatzeko pentsioa eskatzea legitimatzen du. Manu horri jarraiki, ezkontideen artean desberdintasunik dagoen baloratzen da, bertan aipatzen diren egoerak gogoan izanik, euren artean "familiatz arduratzea" dagoelarik. Hala ere, manu horrek "ezkontidea" aipatzen du; beraz, izatezko bikotekideen harremanari ezin zaio aplikatu manu hori.

Halaxe ulertu du jurisprudentiak behin eta berriro, halako harreman bat ez dela ezkontza harremana eta ezin zaizkiola legegileak ezkontzarako soilik emandako arauak aplikatu esanez. Zentzu honetan, Auzitegi Gorenaren lehen gelak onartu du errepikatutako doktrinatzat eta doktrinaren arlo batek bermatua izan da⁶⁵ ezkontza araudira antzekotasunez jotzea ezegokia dela izatezko bikoteak arautzeko.

Baieztape hau irabazitako ondasunen erregimeneko arauak direla-eta egiten du Gorenak, arau orokor moduan izatezko bikoteari aplikatu ezin direla ulertzen baititu, bikote hori ez delako ezkontza egoeraren baliokide (ikusi Auzitegi Gorenaren 1992ko urriaren 21eko, 1992ko abenduaren 11ko, 1993ko otsailaren 18ko, 1993ko uztailaren 22ko, 1994ko maiatzaren 27ko, 1994ko urriaren 20ko eta 1997ko apirilaren 4ko epaiak). Irizpide hau ondasunen bananketako erregimenera ere hedatu da (ikusi Auzitegi Gorenaren 1994ko azaroaren 24ko epaia, *more uxorio* elkartzeei 1438. artikulua aplikatzea espreski ukatzen diena).

Salbuespena onartzen da bikoteak ezkontzarako legez ezartzen dituen erregimen ekonomikoetariko bati atxikitzeko hitzarmena sinatu duenean. Kode zibilak hiru erregimen arautzen ditu: irabaziena, ondasunen bananketakoa eta partaidetzakoa. Eta etxe-

⁶⁵ Ikusi CORRAL GIJÓN, op.cit., 559-622. orr. eta GALLEGU DOMÍNGUEZ, I., *Las parejas no casadas y sus efectos patrimoniales*, Colegio de Registradores, Madril, 1995.

ko lana elkarrekin bizi direnen hitzarmen honetan ager liteke, nahiz eta praktikan halako akordioak maiz gertatzen ez diren, are gutxiago, etxeko lanez aurreikuspenik egin ere ez denean.

Ondorioz, elkarrekin bizi izan diren bitartean familiaren ardura izana konpentsatzeko erreklamazioa egiten denean, zertan oinarritzen da?

a) Arrazoirik gabeko aberastea

Batzuetan beste argudio batzuetara jo izan den arren⁶⁶, arrazoirik gabeko aberastea da irizpide nagusia, ezin baitira analogiaz 97. eta 1438. artikulua aplikatu (1992ko abenduaren 11ko Auzitegi Gorenaren epaia⁶⁷, eta 1994ko azaroaren 24koa dira aipagarrienak).

Epaia horietan Auzitegi Gorenak ondorengo presupostuak eskatzen ditu bidegabeko aberasteak aurrera egin dezan⁶⁸:

1.- Bizikide demandatua aberastea. Aberaste hori negatiboa da, bestela egin behar izango zukeen ahalegina egitea saihestu baitu⁶⁹.

2.- Beste baten lepotik aberastu behar da. Erreklamazioa egiten duenaren txirotzearekin korrelazioan egon behar du, hau da, dirutan dezenteko galera izan beharko du: Lana dohainik egitea halakoxea da. Gure kasuan, txirotzea lanagatik ordain-saririk ez jasotzearen ondorioa da.

3.- Aberastearen eta txirotzearen arteko kausazko harremana.

⁶⁶ Bizikideetarik baten aldeko konpentsazio edo kalte-ordaina bi argudiotan oinarritu nahi izan da: Joan den mendearen hasierako epaia batean, "betebehar naturalean", bizikide batek betebehar moralaren barruan sartzen duen kalte-ordain ekonomikoaren legezkotasuna babestu nahi izan dionean harremana etetea (1914ko maiatzaren 9ko eta 1932ko urriaren 17ko Auzitegi Gorenaren epaiak). Beste batzuetan harremana doluzko sedukzio batekin hasi denean (adibidez, ezkontzeko hitza eman denean eta gero bete ez denean), iruzurra jasan duenak Kode zibilaren 1902. artikuluan oinarritu du kalte-ordaina jaso nahia, kontratuz kanpoko erantzukizun zibilaren gainekoa (ikus 1996ko abenduaren 16ko Auzitegi Gorenaren epaia). Baina kasu isolatu hauetatik kanpo ezin da oro har 1902. artikulua aplikatu izatezko harreman baten hausturaren ondoriozko desoreka ekonomikoa konpontzeko.

⁶⁷ Demandatzaileak 50 milioi pezeta eskatu zituen bikotekideak pilatu zuen ondareari erreparatuta, baina auzitegiek 14 milioi baino ez zizkioten eman.

⁶⁸ Ikusi goian bidegabeko aberastearen inguruko doktrina.

⁶⁹ Auzitegi Gorenak 1994ko azaroaren 24an eman zuen epaiako kasuan, demandatzaileak ezin izan zuen probatu demandatuaren ondarea handitu egin zela. Eta, ondorioz, auzitegiak atzera bota zuen eskaria.

4.- Ondarearen lekualdatzearen arrazoi falta.

Baldintza hauek betetzen badira, akzioak aurrera egiten du baina muga iraganezin batekin: ekintzailearen txirotzea, ezin du gehiago erreklamatu, aberastea handiago izan bada ere. Ondasunen bananketako erregimenean konpentsazioarekin planteatutako egoeraren antzeko batean gaude. Eta jurisprudenziak aurkitzen dituen oztopoak berdinak dira:

1. Txirotzearen norainokoak, gehienez ere eman dakiokkeenak, elkarrekin bizi izan diren aldiaren etxeaz arduratu denak egin duen etxeko lanaren balio ekonomiko objektiboa zehaztea eskatuko luke.

Oztopo hau orain arte egin izan diren neurketetara joz gainditu daitezke. Neurketa horiek, goian proposatu den bezala, kopurua zehazteko erreferentzia fidagarriak izan daitezke.

2. Begi-bistakoa da prestazio honek alde bat aberastea eta bestea neurri berean pobretzea ekarri duela, eta egoera honek bigarrenaren alde kreditu bat sortarazten duela. Familiaren kargetara ekarpena egiteko betebeharra alde batek baino ez du bete; hortaz, puntu honi aurre egin behar zaio harremana bukatzean.

Hala ere, bizikideetako bat etxeko lanez arduratzeak besteak pilatutako ondarean norainoko eragina izan duen zehaztea konplexuagoa da. Frantzian, adibidez, izaera subsidiarioz onartzen da aberasteko jarduera honetan aritzean bizikide batek bestearentzat dohainik egin duen lanagatik kalte-ordaina jasotzeko bidetzat. Konplexuagoa da, ordea, elkarrekin bizi izan diren aldiaren batek egin duen etxeko lana denean. Izan ere, jarduera hori elkarrekin bizi izan diren aldiaren jaso duen mantenuarekin "konpentsatu" egiten da⁷⁰.

Egia esan, ez zaio arrazonamendu honi arrazoirik falta, etxea zaintze horretan "auto-kontsumoko" zati bat badagoelako, goian ondasunen bananketako erregimenean aipatu zen bezala, eta puntu hori kontuan izan beharko da bizikideak jasotzeko esku-bidea daukan kopurua kalkulatzeko orduan, baina ez eskubide hori ukatzeraino.

Hori dela-eta, puntu honetan berriro proposatzen dugu etxeko lanaren zehazte kuantitatiboa kontuan hartzea, ez erreferentzia bakarra izateko, "kalte-ordaina" kalkulatzeko abiapuntua izateko baino. Diskrezionalitate judiziala murriztu nahi da, kopurua zehazteko parametro zehatzak emanez.

⁷⁰ MESA MARRERO, op.cit., 239. or. eta h., ikusi honen inguruko jurisprudenzia frantsesa.

Autore batzuek bidegabeko aberastearen teoria jotzen dute etxeko lanagatik konpentsazioa jasotzeko aukera bakartzat, analogiara jotzea ezinezkoa baita⁷¹. Ildo horretatik, Bizkaiko Auzitegi Probintzialeko doktrinak bidegabeko aberaste horren alde egin du (ikusi 2001eko maiatzaren 24ko epaia)⁷².

Hala ere, gai honen inguruan Auzitegi Gorenak oraintsu hartu dituen erabaki berri-tzaile batzuek oinarri horiek alde batera geratuko direla pentsatzera garamatzate.

b) Ondasunen bananketako arauen aplikazio analogikoa

2001eko martxoaren 27ko epaiak ari gara, inflexio-puntu garrantzitsua izan baitzen izatezko bikoteei buruzko jurisprudenziari dagokionean⁷³. Bizikideak 30 milioi pezeta erreklamatzeko zituen hogeitun urte luzez familiaren ardura izateatik sortutako kalteengatik, eta harremana hautsi ondoren zegoen desberdintasun ekonomikoagatik. Gorenak 15 milioi pezeta ematea erabaki zuen.

Interesgarria deritzogu hiru erakundeek izan dituzten irizpide desberdinak ikusteari. Lehen auzialdiko epaitegiak 97. artikulua analogiaz aplikatu zitekeela iritzi zion; Auzitegi probintzialak, ostera, kasu hauetan bide bakarra bidegabeko aberastea zela pentsatu zuen; eta, azkenik, Auzitegi Gorenak beste argudio batzuk erabili zituen kalte-ordaina jasotzea bidezkoztat jotzeko, ez bakarrik bidegabeko aberastea, baita, eta batez ere, analogiaz ondasunen bananketako arauak aplikatzea⁷⁴. Ikus ditzagun argudiook:

1. Auzitegi Gorenaren iritziz bidegabeko aberastea badago egon eta honako oinarriak gertatzen dira aldi berean:

- a) Bizikide demandatuaren ondarea handitu egiten da.
- b) Demandatzailea txirotzea, etxeko lana ez ordaintzeagatik, eta demandatuaren ondarea handitzea ekarri du.

⁷¹ MESA MARREROren kasua, op.cit., 241-244. orr. Autore honentzat, arazoa kausa erlazioa probatzeko egon daitekeen zailtasunean dago, bat aberastea besteak etxean egin duen lanaren ondoriozkoa dela probatzean, hain zuzen.

⁷² *More uxorio* elkarbizitzan hamar urte eman zituzten, eta emakumeak etxearen eta seme-alaben ardura osoa izan zuen tarte horretan. Hortaz, hilean 35.000 pezetako kalte-ordaina eman zitzaion, hiru urtetan zehar, bidegabeko aberastearen oinarrituta.

⁷³ Ikusi SALAZAR BORT, S.ren komentarioa, "Comentario a la Sentencia del Tribunal Supremo de 27 de marzo de 2001. Uniones de hecho y compensación del trabajo doméstico", *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 2001eko abendua, XI. urtea, I. atala, 513. zk., 1-6. orr. eta II. atala, 514. zk., 1-4. orr.

⁷⁴ SALAZARri iruditzen zaio, op.cit., II, 3. or., analogiara jotzea, horretarako beharizanik izan gabe, azken batean, legegileak izatezko bikoteen eragin ekonomikoak arautu ditzan "behartzeko" era bat izan daitekeela.

- c) Ondasunaren tokialdaketa justifikatzeko arrazoirik ez izatea, ordenamenduak ez baitu aurrekusten elkarrekin bizitzeak elkar zaindu beharra.
- d) Bidegabeko aberastearengatiko kalte-ordaina jasotzea baztertzen duen legezko manurik ez izatea.

Auzitegi honek oinarritzat hartzen du usadiozko jurisprudentziak irizpide horri jarraitzen diola eta erkidegoetako arauak ere jaso dutela, aurrerago ikusiko dugun moduan.

2. Ezkontzako arauen aplikazio analogikoa, ondasunen bananketako erregimenari dagozkionak, zehatzago esanda, kontrako hitzarmenik egon ezik izatezko bikoteak eraentzen dituztenak direlako⁷⁵. Horregatik uste du 1438. artikulua aplikagarria dela kasu honetan. Ezkontza arauen hedakuntza indarrak iradokitzen dio agian 97. artikulua balio lezakeela izatezko bikoteentzat ere, nahiz eta kasua hau ez izan.

Hil batzuk beranduago, Auzitegi Gorenak 2001eko uztailaren 5eko epaia eman zuen. Bertan bizikideak hamabost urteko harremana hautsi ondoren, pentsio orekatzaileak erreklamatzeko eskaria bidegabeko aberastearen oinarritzen zuen demandatzaileak, baina Auzitegi Gorenak uste du, ordea, badagoela antzekotasunik edo arrazoizko berdintasunik ezkontza baten hausturaren ondoriozko eta *more uxorio* elkarbizitza luze eta alde batetik hautsiaren ondorengo desoreka ekonomikoaren artean. Hortaz, komentatu dugun 2001eko martxoaren 27ko epaian oinarrituz, 97. artikulua analogiaz aplika daitekeela aldarrikatzen du. Hau da, "ordenamenduaren indar hedatzaileak berak" irtenbidea eman diezaioke erreklamazio horri, bidegabeko aberastasunaren argudiora jo gabe, azken honek baldintza guztiak betetzea eskatuko bailuke.

3. Traszendentzia juridikodun izatezko egoera baten ondorioz bizikide kaltetua babes-teko oinarri orokorra, Gorenak beste kasu batzuetan ere aplikatu duena⁷⁶.

Hiru argudioen artean, berritzaileena bigarrena da ezkontzako edo ezkondu gabeko elkarbizitza haustearen ondoriozko eraginak parekatzearen aldeko ildoak zabaltzen duelako, analogiaz ondasunen bananketa erregimeneko arauak aplikatuz. Bat gatz irizpide honekin, kontrako hitzarmenik egon ezean, *more uxorio* elkarbizitza irabazietan elkarren parterik ez dagoelako. Beharrezkoa litzakete, beraz, etxeko lanak egin dituenari beste bizikideak kalte-ordain bat ematea. *Ratio iuris* delakoa ondasunen

⁷⁵ SALAZARen arabera, op.cit., l. 4.or., jurisprudentziako doktrina berri honek irabazizko ondasunen sozietatearen, izatezko sozietatearen edo laneko hitzarmenaren eskema gainditzea suposatzen du; izan ere, eskema horiek erabili ziren urte luzeetan konpentsazio ekonomikoa lortzeko.

⁷⁶ Epaia honen magistratu txostengileak (José Almagro Nosete jaunak) aplikatu zuen 1998ko martxoaren 10eko epaian.

bananketakotik hurbil legoke. Eta *more uxorio* elkarbizitzan aurreikusi daitekeen erregimenik badago hauxe da, 2001eko urtarrilaren 22ko eta 2001eko martxoaren 27ko Auzitegi Gorenaren epaiek argi eta garbi diotenez.

Auzitegi Probintzial batzuek irizpide hori jarraitu dute dagoeneko, adibidez Valentziako Auzitegiak 2001eko uztailaren 18an egin zuen bezala, 1438. artikulua analogiara joz. Zortzi milioiko konpentsazioa eman zion demandatzaileari etxeaz arduratzen emandako hogei urteengatik. Hala ere, beste epaia batzuek bidegabeko aberastearen doktrinari eusten diote, 2001eko urriaren 9ko Asturiaseko Auzitegi Probintzialaren epaiak bezala. Azken honek, ezkontzako erregimeneko arauak aplikatzea baztertu egin zuen eta bidezkoago iruditu zitzaion bidegabeko aberasteari buruzko arrazoiei jarraitzea.

2.3.2. IZATEZKO BIKOTEETAN ETXEKO LANARI BURUZ ERKIDEGOETAN DAGOEN ARAUDIA

Bidegabeko aberasteari buruzko jurisprudentiako tesi klasikoa da kalte-ordainaren oinarri gisa erkidegoetako legerietan jaso dena. Lau erkidegok onartu dute izatezko bikoteei buruzko araudi propioa: Kataluniak, uztailaren 15eko 10/1998 bikote batu egonkorrei buruzko Legearen bidez (abuztuaren 19ko BOE); Aragoik, martxoaren 26ko 6/1999 ezkondu gabeko bikote egonkorrei buruzko Legearen bidez (apirilaren 21eko BOE); Nafarroak, 2000ko uztailaren 3ko bikote egonkorren berdintasun juridikoari buruzko Foru Legearen bidez (irailaren 6ko BOE); eta azkenik Valentziako erkidegoak, apirilaren 6ko 1/2001 izatezko bikoteak arautzen dituen Legearen bidez (maiatzaren 10eko BOE)⁷⁷. Lau legeetatik hiruk (egiten ez duen bakarria Valentziakoa da⁷⁸) aurreikusten dute konpentsazio ekonomikoa etxerako lana egin edo beste kidearentzat egin duen bizikidearentzat irizpide honi jarraituz:

1. Kataluniako legeak 13. artikuluan egiten du: "cuando la convivencia cesa en vida de los dos convivientes, aquel que, sin retribución o con retribución insuficiente, haya trabajado para el hogar común o para el otro conviviente, tiene derecho a recibir una compensación económica en caso de que se haya generado por este motivo una situación de desigualdad entre el patrimonio de los dos que implique un enriquecimiento injusto".

⁷⁷ Madrilako Erkidegoko Asanbladak 2001eko abenduaren 13an Izatezko Bikoteen Lege bat onartu zuen, izatezko bikoteen eskubide administratiboak parekatzen dituen, ezkondu gabeko bikoteetan lege onartzen diren onura berak eskatu ahal izateko, Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan izena emanda egonez gero.

⁷⁸ Lege hau M^a B. FERNÁNDEZ GONZÁLEZek komentatu zuen *Actualidad civil*-en (2001eko abendua - 2002ko urtarrila). Bertan legearen edukia beste erkidegoetako izatezko bikoteei buruzko legeak baino laburragoa eta ezberdinagoa dela eta artikulua era generikoagoan daudela idatzita azpimarratzen du. Beste desberdintasun batzuen artean, bikotea hausteari ondorioak aipa daitezke.

to". Elkarbitza arautzen duen 3. artikulua, 3. lerroaldean zera dio: "a falta de pacto, los miembros de la pareja contribuirán al mantenimiento de la casa y a los gastos comunes con el trabajo doméstico, con su colaboración personal o profesional no retribuida, [...]"⁷⁹.

2. Aragoiko legearen 7. artikuluan, ezkondu gabeko bikote egonkorreko kide biak bizi direla harremana hausten bada, ondarearen gaineko eraginei dagokienean zera dio: "si la convivencia ha supuesto una situación de desigualdad patrimonial entre ambos convivientes que implique un enriquecimiento injusto, podrá exigirse una compensación económica por el conviviente perjudicado en los casos siguientes: b) cuando el conviviente, sin retribución o con retribución insuficiente, se ha dedicado al hogar, o a los hijos comunes, o del otro conviviente, o ha trabajado para éste."

3. Nafarroako foru legeak, antzera, zera dio elkarbitza arautzen duen 5.3. artikuluan: "[...] se considerará contribución a los gastos comunes el trabajo doméstico,...". Eta bosgarren lerroaldean beste hau dio: "en defecto de pacto, cuando la convivencia cesa en vida de los dos convivientes, aquel que, sin retribución o con retribución insuficiente, haya trabajado para el hogar común o para el otro conviviente, tiene derecho a recibir una compensación económica en caso de que se haya generado por este motivo una situación de desigualdad entre el patrimonio de ambos que implique un enriquecimiento injusto."

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionean, izatezko bikoteei zenbait ondorio juridiko aitortzeko lege-proposamenak, 2001eko irailaren 14an Eusko Legebiltzarrean aurkeztuak, 7.2. artikuluan jasotzen zuen izatezko bikoteko kideek etxeko mantenuan eta gastuetan ekarpena egin behar zutela diru bidez edo lan pertsonalaz, eurek ahal zuten proportzioan. 8. artikulua gaineratzen zuen bikotea deseginez gero, konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango zuela ikuspegi ekonomikotik kaltetua ateratzen zen kideak. Konpentsazioa bi aldeek zehazten dutena izango da, edo bestela, epaileak aztertu eta ponderatuko du egoera ezkontzetan egiten den bezala.

Arau hauetan guztietan, etxean lan egin duen bikotekideari konpentsazio ekonomikoa ematen zaionean, bien ondarean desberdintasun egoera sortu delako eta horrek bidegabeko aberastea ekarri duelako egiten da. Erkidegoetako arau hauek izatezko bikoteei buruz jurisprudenzian islatzen den usadiozko arrazonamenduaren ildokoak dira.

⁷⁹ Aurreikuspen berdina dago bikote homosexualentzako 22.2. eta 31. artikuluetan.

2.3.3. IZATEZKO BIKOTEETAN ETXEKO LANA AITORTZEARI BURUZKO ONDORIOA

1. Bizikideetako baten etxerako lanak konpentsazio ekonomikoa merezi du. Arrazoa ondasunen bananketa erregimenekoaren berdina da, euren harremanak eraentzeko oinarri desberdinak ezarrita ez badaude. Bikotearen ondareen artean harremanik ez izateak elkarrekin bizi izan diren aldian beharrezko lanak dohainik egin dituenaren aldeko kreditua sortarazten du, bikotekide biak baitaude etxerako lan hori egitera behartuta.

Ezkontza batean, obligazioak legean ezarritako berdintasun juridikoan du jatorria. Horren arabera, biei dagokie neurri berdinean ezkontzako kargetan ekarpena egitea, eta karga horietako bat familiaz arduratzea da. Izatezko bikoteetan, oinarri faktikoa berdintsua da eta berdintsu izate horrek irtenbide bera ematera garamatza. Izatezko bikoteetan, familia, bien etxea sortzen den heinean, hauetaz ardura izatea derrigorrezkoa da, eta biei dagokie arreta ematea. Konstituzioak berak ere, 39. artikuluan, familia babesten du, ezkontza batean edo ezkontzaz kanpokoa den ezberdindu gabe.

2. Zein da izatezko bikote batean konpentsazioa emateko oinarri juridikoa?

Bidegabeko aberastearena izan daiteke edo Kode zibilaren 1438. artikuluan ondasunen bananketako erregimenean aurreikusitako arauak analogiaz aplikatzea. Urte luzeetan, jurisprudentziak analogiara jotzeko aukera eman zezaketen berdintasun guztiak baztertu egin ditu; hortaz, kalte-ordaina bidegabeko aberastearen ondorioz ematen zen. Hauxe da, hain zuzen, egoera honi begira erkidegoetako arauak jarraitzen duten irizpidea.

Auzitegi Gorenaren azken erabakiek, ordea, ordenamenduak hedatzeko duen indarra jotzen dute eta analogiaz aplikatzen dituzte ezkontza arauak. Honek zera esan nahi du.

- a) Ezkontza harremanaren eta ezkontzaz kanpoko harremanaren artean hurbilketa juridikoa eman dela, eragin ekonomikoei dagokienean.
- b) Analogiara jotzean, bidegabeko aberastearen baldintzak betetzen diren ala ez konprobatu beharrik ez duela auzitegiak, teoriarik behintzat.

3. Jurisprudentziaren ildoko aldaketa hau berritzaileagoa suertatzen da lehen arrazoiagatik bigarrenagatik baino, Kode zibileko 1438. artikulura jotzeak ez du kentzen bidegabeko aberastea antzematea, ondarearen desberdintasunaren bertsio malguan behintzat. Gorago ere esan dugu, bertsio horren literaltasuna gorabehera, praktikan ez dela etxeko lanaren balorazio objektibo ekonomikoa egiten. Bi aldeen arteko ondare-

aren arteko desberdintasuna gogoan izaten da, bidegabeko aberastearen doktrinako baldintzan "zenbaketa" zabal eta agerikorik egin gabe.

Jurisprudentziaren eremu aldaketa berri hori, hortaz, printzipio kontua da gehiago, gure aburuz, sakonekoa baino, batari zein besteari jarraitu, azken erabakia berdintsua izango delako

4. Arazorik nagusia konpentsazio horren zenbatekoaren balioespenean datza. Orain arte bi ondareen egoera konparatzen da eta ondare horiek zehaztean diskrezionalitatez jokatzeko da, bi ondareak, elkarrekin bizi izandako urteak eta hauekin batera gerta daitezkeen beste faktore batzuk kontuan hartuta.

Ondasunen bananketako erregimenean etxerako lanaren konpentsazioarekin egin genuen bezala, erreferentzia moduan etxean egindako lan ez monetarizatuaren balio ekonomiko erreala izatea proposatzen dugu, ez hainbeste kopuru hori beste barik ebazpenean ager dadin, juridikoki ezegokia litzatekeena, bere aldeko kreditua sortu duen etxearen ardura zenbaterainokoa den eta zer ahalegin eskatzen duen jakin dadin. Premisa horretatik abiatuta, jaso beharreko kopuru hori eta beste bizikidearen ondarea harremanetan jarri beharko dira eta ikusi zer eragin duen hark honengan eta kasuko beste kontu zehatz batzuk.

Honaino heltzen da indarrean dagoen Zuzenbideak familiari dagokionean etxeaz arduratu den pertsonari aitortzen diona. Baina sakonago jotzen saia gintezke. Etxeko lana egiteko izaten den eskuzabaltasunak ez digu pentsarazi behar lan hori egiten duenak elkarrekin bizi diren aldiak maitasuna eta, harremana bukatzean, ondarearen zati bat jasotzea baino ez duela itxaroten. Aspaldion, Zuzenbideari gehiago eskatzen zaio. *Ezkontzan zehar* aitortpen juridikoko beste formula batzuk antola daitezke? Zelan txertatuko lirateke familian? Eta ezkontzako arau juridikoetan?

3. LEGE FERENDAKO PROPOSAMENAK ETXEKO LANA AITORTUA IZAN DADIN

Atal honetan etxean egiten den lanak benetako lanaren kalifikazio juridikoa izan dezan ekimen batzuk proposatzen dira. Eurretaz lan arloan hitz egin da, baina orain arlo juridiko zibilari dagozkionak ikusiko ditugu.

3.1. SOLDATA: INKOHERENTZIA BAT ETA BATERAEZINTASUN BAT

Baztertu egiten dugu etxeko lana "soldata" antzeko bat ematearekin aitortzea. Ez dugu horretarako komenentzia politiko edo ekonomikoko arrazoirik, diru-kutxa publikoak gastu horri aurre egiteko izango lukeen zailtasunari loturik. Gure ezetzak beste jatorri bat du, defendatzen dugun oinarriarekin kontraesanean dago: etxeko lana benetako "lantzat" jotzen dugu eta gainera, gure garaiko familia nozioarekin bateraezina iruditzen zaigu:

Hau da, lehenengo eta behin norbere etxeko ardura lantzat hartu behar da. Lana den neurrian aitortzea merezi du, eta ez funtzio edo zerbitzu "sozial" bat betetzeagatik jasotzen den ordainketa publikoaren oihartzunak litzateke laguntza publikoa. Koherentziarik gabea litzateke lan izaera aitortzea, gero Estatuaren ongintzara jotzeko.

Are gehiago, bultzatzen dugun familiaren ideiarekin bateraezina eta inkongruentea litzateke. Familiak jasotzen du onura eta beronen barruan aurkitu behar dira lan hori aitortzeko formulak. Familia kontsumo eta ekoizpeneko unitate ekonomikoa litzateke, lan atipikoak, etxekoa esatebaterako, juridikoki agertu daitezkeen baliabideak sortu behar dituena.

Gary S. Becker-en pentsamendua oinarritzkoa iruditzen zaigu, familia *"a kind of little factory- a multiperson unit producing meals, skills, children, and self-esteem from market goods and the time, skills, and knowledge of its members"* dela ulertzen⁸⁰. Laurogeietatik hona soziologoek eta ekonomialariek txalotu dituzten ideia hauek, Zuzenbidean ez dira oraindik onartu, ez behintzat etxeaz arduratzeari dagokionean⁸¹.

Oraingoan, beste askotan bezala, ordenamendu juridikoak iragazgaitz jarraitzen du familiaren beste ikuspegi bat eskatzen duen mugimenduaren aurrean. Autore hau ezaugun egin da familia instituzioa merkatuko oinarriekin aztertu duelako, transakzio monetarioak egiteko erabili izan diren tresna eta ereduekin egin izan direlako. ekonomia eta soziologiatik, azken urteotan familia ekoizpen eta kontsumo unitate gisa ikus-

⁸⁰ BECKER, G.S., *A treatise on the family*, Harvard University Press, Cambridge-Massachusetts, 1993 enlarged edition (4. argitalpena., 1998). "Division of labor in households and families" gaiaren inguruan, ikusi. 30-79. orr. 1981eko lehen ediziotik, ikusi C. PERAITA DE PRADOn gaztelaniazko itzulpena, *Tratado sobre la familia*, Alianza, Madril, 1988. "La división del trabajo en los hogares y las familias" puntuaz (30-59. orr.). Ikusi, halaber, CARRASCO, C (ed.), *Mujeres y economía. Nuevas perspectivas para viejos y nuevos problemas*, Icaria arg., Madril, 1999, 15. or. eta h.

⁸¹ Gary S. Becker-ek Ekonomiako Nobel Saria jaso zuen 1992an.

ten da, neurtu behar den lana inbertitzen dela, zaila izan arren. Hala bada, hau posible bada, familiak berak izan behar du bere onarpen juridikoaren antolagune. Horretarako arauen euskarriekin, noski. Baina irtenbidea ezin da inondik inora ere kutxa publikotik datorren "soldata" izan.

Hortaz, guk proposatzen duguna zera da: lan horrekin onura jasotzen duen familia-arentzako etxeko lanaren lan izaera juridikoki onartzea. Eta hori edozein lani lotuta doan berezko ezaugarri bat ez izan arren: soldata.

Gauzak horrela, eta lan horren izaera juridikoarekin bat etorriz, derrigorrezkoa litzateke etxekoandreak edo etxekogizonak eskatzeko dituen eskubideei arreta eskaintzea:

Euren artean nagusiena, erretiroko pentsioa jasotzekoa litzateke, Gizarte Segurantzaren erregimenaren barruan eskura ditzakeen beste prestazio batzuekin batera (lan garaian amatasun edo ezintasuneko prestazioak jasotzeko eskubideak, adibidez). Eskakizun hori sarritan egin izan dute emakumeek, etxean urte luzeetan eroapenez lan egin ondoren ez baitute ordainsaririk jasotzen. Erretiroa ez jasotzeaz gain, euren lana ez da hirurogeita bost urtera iristean amaitzen. Bizitzako azken egunera arte luzatzen da. Zenbait herrialdetan, Argentinan kasurako, zailtasunak gorabehera, etxekoandreei eurak babesteko sistema bat onartu zaie⁸². Beste batzuetan, gizarte eztabaida fina sortarazten du, egikaritzeko formula guztia berria bilatuz. Gure artean, Diputatuen Kongresuko gizarte eta enpleguko Politika Batzordean eztabaidatu zen 1998an 1998⁸³. Eztabaida hau Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak agindutako Txostena Ganbera horretan aurkeztu zenean izan zen. Dokumentu hori teknikari talde batek burutu zuen eta autonomoen erregimenean izan zitekeen sartzeaz ari den. Era berean, erregimen horretan sartzea ere ezinezkoa zen, gaur eguneara araututa dagoen bezala⁸⁴.

⁸² Argentinaren kasua da hau: 24828 Legea, 1997ko ekainaren 26an emana, etxeko andreentzako aurreikuspeneko aurrezki sistemari buruzkoa. Sartu nahi dutenek aportazio kopururik txikienekoen kategorian egin ahal izango du eta aukera izango du gorako kategoriakoa egiteko. BROCAS, A.M, CAILLOUX, A.M. eta OGET, V., *Las mujeres y la Seguridad Social*, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, Madril, 1990.

⁸³ Ikusi Diputatuen Kongresuko Saioen Egunerokoa, VI. Legegintzaldia, 461. zk. (Gizarte Politika eta Enpleguko Batzordea. 32. saioa, 1998ko maiatzaren 20koa, 13258-13269. orr.). "Etorkizunean etxekoandreei gizarte prestazioak eskaintzeko asmoak" gaiari buruzko eztabaida 1998ko maiatzaren 20ean egin zen, Convergencia i Unió Parlamentuko taldeak eskatuta.

⁸⁴ Ikusi "Estudio técnico y económico sobre la posible inclusión en el Régimen de autónomos de quienes trabajen al cuidado de su propio hogar", Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak agindutako txostena (Madril, 1998ko martxoa). Txostena (Madril, 1998ko martxoa) Gizarte Segurantzaren sistema Sendotu eta Arrazionaltzeari buruzko uztailaren 15eko 24/1997 Legeko lehen Xedapen Gehigarrian gobernuari ematen zaion agindua betetzeko idatzi zen.

Lan arloko kontuetarako azterlan honen lehen zatira jotzea dago, baina guri dagokigunean, etxeko lan ordaindu gabeak Gizarte Segurantzari kotizatzeak beste arazo batzuk planteatzen ditu ekonomia eta ezkontzaren Zuzenbidean.

Oztopoa hasieran bertan agertzen da, nor bere etxea ordainetan dirurik jaso gabe zaintzen baitu eta kotizazioa hornitzeko familiaren ondarean inkardinatu beharko baita. Horrek suposatzen du kostu ekonomikoaz gain, gogoan izan beharreko puntu garrantzitsua beratu, kotizazio gisa egindako kopuruen kalifikazioa aztertu behar dela.

Eman dakiokkeen beste irtenbide alternatibo bat ezkontide edo bizikide bakoitzak Gizarte Segurantzari emandako kuotak irabazitzat hartzea da. Azken formula hau U.G.T. sindikatuak Madrilen berriki izan duen 38. Biltzar Konfederalean (2002ko maiatza) proposatu zuen. Sindikatu honek sistema hau Europako herrialde batzuetan (Alemanian eta Suedian, adibidez) indarrean dagoen sistema hau analizatzea proposatzen du, eta Akzio Programa betetzen den urteetan aztertu egingo dute. Banan aztertuko ditugu ekimen biak:

3.2. GIZARTE SEGURANTZAN BORONDATEZ EKARPENAK EGITEA

Ikerlan honen lehen zatian etxeko lana langile autonomoaren kategoriara egokitzen dela hoberen iruditu zaigu. Baieztapen honen derrigorrezko ondorioa da lan hau egiten duenak Gizarte Segurantzari ekarpenak egin ditzakeela onartzea, hala nahi izanez gero, beronek eskatzen dituen eta jaso beharko lituzkeen berezitasunekin, izaera bakana kontuan izanda. Bestela, autonomoen erregimena automatikoki aplikatzeak bide-erazin bihurtuko luke. Iritzi horretara heldu ziren aipatutako 1998ko txostenaren egileak⁸⁵, nahiz eta iritzi hori sinpletzat jo daitekeen.

Egoera desberdinak era desberdinean tratatu behar direla uste dugu, ezaugarri berdintsuak izan arren. Etxekoandreek/etxekogizonek ezaugarri bereziak dituen lan bat egiten dute eta hori gogoan izan behar da, izaera autonomoaren kalterik gabe.

Horrela adibidez, beste zailtasun tekniko batzuen artean, kotizazio honen onargarritasunak bi egoera planteatzen ditu:

⁸⁵ Ibidem.

1. Arruntena erretiroko prestazioa jasotzeko eskubidea laneko bizitza bukatu ondoren edukitzea izango litzateke. Baina familiaren etxearen kasuan etxeko lanak, lana bera, ez da laneko adin batean desagertzen. Etxea zaintzeak jarraitu egiten du. Ez da denborarekin desagertzen, familia desagertu edo harremana eten delako baino. Hortaz, egotez ez dago laneko bizitzaren bukaerarik. Beharrezko bateratasun bat egongo litzateke, ondorioz, pentsioa jasotzearen eta lanean jarraitzearen artean, balizko onarpenean kontuan eduki beharko litzatekeena. Puntu hau, ordea, ez da onartzeko oztopo.

Gaur egunean laneko bizitza malgutzeko joera dago eta etxeko lana bezalako egoerek zalutasun handiagoz jokatzeko aukera ematen dute, gure pentsioen sistema publikoa eraentzen duten oinarrien errespetuaren eta sistema honen berezitasunen arteko harmonia bilatu behar delarik.

Madriren duela gutxi izan den Zahartzeari buruzko Munduko II. Biltzarrean (2002ko martxoa) pentsio sistemak, lanaldien antolaketa, jubilatzeako adina, ... aldatu beharra zegoela ikusi zuten. Hortaz, inguru berri horretan onartu egin beharko litzateke salbuespen gisa nork bere etxea ordainsaririk jaso gabe zaintzearena, izaera berezia duelako.

2. Amatasunagatik edo lanerako ezintasunagatik prestazioak jasotzea antitesi teorikoa da, halako egoerarik ez dagoenean, lehenago edo geroago, ez baita inolako kopururik jasotzen. Honi dagokionean ere gorago erabili dugun arrazonamendua erabil genezake. Galdatzen den malgutasuna ez da jubilatzeako adina luzatze edo "etxeko lana" egiten jarraitze moduan bakarrik ulertu behar, "laneko" bizitzan zehar beste prestazio batzuk eskaintzearekin ere lotu beharko litzateke.

Baina zailtasun hauek gainditzearen gaineratik, beste eragozpen garrantzitsu bat legoke: Gizarte Segurantzari egin beharreko ekarpenak etxeko ekonomian duen kostu ekonomikoa ez da erdeinagarria. Finantza merkatuak zergetan aurrezteko eta inbertitzeko (pentsio planak eta antzekoak) hainbat alternatiba ematen ditu, lanari uzten zaion aldirako ez ezik epe laburrean ere zerga-funtzio erakargarria duena. Horrek planteatuko luke bikoteak borondatezko aurreikuspen plan pribatu baten edo pentsio sistema publikoaren arteko aukera egin beharra.

Ez dugu bien arteko ikerketa konparatiborik egingo, ikerlan honen esparrutik kanpo dagoelako, nahiz eta ezkontideek edo izatezko bikotekideek baloratu beharrekoa izango den puntu hau. Bi sistemen arteko erkaketa egiteko Gizarte Segurantzari ekarpenak nola egingo zaizkion eta nolako prestazioak jasotzeko eskubidea egongo den eta hori guztia nola arautuko den izan beharko da kontuan.

Zuzenbide zibilari dagokionez, nola uztar daiteke ekonomia eta ezkontzako erregulazioan?

3.3. ARAU PROPOSAMENA EZKONTZAKO ERREGIMEN EKONOMIKOAN NOLA UZTARTU

Ettxekoandreak edo etxekogizonak Gizarte Segurantzaz kotizatu ahal izango balu, lan errendimendurik ez dagoen egoera batetik abiatuko ginateke. Hortaz, ekarpenak borondatezkoak izango lirateke eta etxeko lana egiten duenaren ondare pribatutik eginak, beste bikotekidearenetik, edo bien ondasunetik etorriko lirateke. Azkena maiz gertatuko litzateke, kanpoan ordainduta lan egiten duen ezkontidearen etekinak izango bailirateke ekarpenen iturri.

Ekarpen horiei adierazi dakiekeen kalifikazio juridikoa zein izango litzatekeen planteatzen diogu geure buruari, garrantzi handia izango bailuke ezkontza haustean

1. Irabazitako ondasunen erregimenean, 1347. artikulua arabera, irabazitako ondasunak dira "los adquiridos a título oneroso a costa del caudal común, bien se haga la adquisición para la comunidad, bien para uno de los esposos". Ekarpene hauek bikoteak bien ondasunetik erosten duen balioa dela uler liteke, eta bai bientzat izan, bai baten-tzat izan, kalifikazio horixe izango luke. Ekarpeneak egiteko baliabideen jatorriaren inguruko zalantzarik egonez gero, irabazitakoen legezko presuntzioa emango litzateke (Kode zibileko 1361. art.), kalifikazio desberdina eman ezean.

Ekarpen hauek bien irabazien ondaretik kopuru bat "inbertitzearen" isla izango dira, familiari begira, nor bere etxerako egiten duen sakrifizioa juridikoki "kompentsatze-ko". Hautazkoa da egitea, bikotearen adostasuna eskatzen du, berdintasun juridikoaren printzipioaz bat, biei dagokien eginkizuna betetzeko biek adostutakoaren arabera (ageriko edo isileko hitzarmen bidez).

Arazorik nabarmenena ezkontide baten heriotzagatik, dibortzioagatik edo baliogabetasunagatik ezkontza haustean planteatuko litzateke, irabazitakoen erregimena likidatzen denean, eta kotizatutako kopuruei kalifikazio hori ematen zaienean. Une horretan planteatu daiteke, kasu horietan, kopuruen izaera dela eta, etxeko lanengatik hartutako eskubideak ezkontideen artean banatzea eta eurentariko bakoitzari, edo bizirik irauteen duenari, kasuaren arabera, laneko bizitzan zehar pilatutako kotizazio horretan sartzen den lan horri dagokion zatia eman beharra.

2. Ondasunen bananketako erregimenean definizioz ez dago ondare komunik. Ohikoena ekarpenak ondasun pribatibo batetik edo bestetik egitea da. Berdintsu gertatzen da izatezko bikoteetan ere. Hauetan, bizikideen kontrako hitzarmenik egon ezik, irizpide berbera aplikatuko litzateke analogiaz.

Lehen ikusi dugun bezala, kasu hauetan elkarrekin bizi izan diren bitartean etxea zain-tzeaz arduratu denak konpentsaziorako eskubidea du, ondasunetan edo dirutan, bananketako erregimena iraungitzen denean (Kode zibileko 1438. art.). Eta konpentsazio hori Gizarte Segurantzari egin dakiokeen ekarpen posiblearekin lotu behar da.

Bikoteko kide batek etxeko lanagatik bere ondasunetatik kotizatuko balu, ez luke bestearen ondarearekin inolako loturarik planteatuko eta bere horretan mantenduko litzateke orain arte ikusi dugun bezala beste bikotekidearengandik konpentsazioa jasotzeko eskubidea. Alderantziz, ekarpenak etxeaz arduratzen ez denaren ondaretik egingo balira, "aurretiazko konpentsaziotzat" har litezke (ondasunen bananketako erregimena desagertu aurretik), 1438. artikuluaaren arabera, ezkontzako kargetan egindako ekarpenagatik, karga horien izaera pribatiboaren kalterik gabe.

Ildo horretatik, ekarpen horiek Kode zibileko 1438. artikuluaaren arabera (eta erkidego-etako parekoen arabera) jasotzeko eskubidea izango lukeen konpentsazioa urrituko luketen planteak liteke, neurri batean behintzat familiako kargetan ekarpena egin duelako, etxeko lana egiten duenarentzat haren ondasunetatik kotizatuz. Gogoan izan erretiroko pentsioa laneko bizitzaren amaieran kobratzen dela eta balitekeela bananketa erregimena arinago haustea.

Galdera horri baieztoko erantzuna eman geniezaioke, erreserbekin bada ere. Aztertu beharko litzatekeena da zein neurritan "ordaindu" den elkarrekin bizi izan diren artean etxerako lana Gizarte Segurantzaren erregimenera egindako ekarpenen bidez, eta ondorioz, zein neurritan murrizten den etxerako lanagatik eska daitekeen konpentsazioaren kopurua. Azken batean, epaileak zehaztu beharko luke jaso beharreko kopurua.

3.4. GIZARTE SEGURANTZAKO KUOTAK IRABAZITZAT HARTZEA

U.G.T. sindikatuak 2002ko martxoan izan zuen Kongresu Konfederalean Akzio Programa bat onartu du. Bertan pentsioei dagokienean planteatzen du, pentsioa kalkulatzeko orduan, ezkontideak elkarrekin bizi diren aldiko kotizazioak banatzea borondatez egiteko aukera egotea. Proposamenaren ardatza gizarte segurantzako kuotak, bikotekide bakoitzak bakarka ziurtatuak, "irabazitzat" hartzea da, doakienek

hala nahi izanez gero, dibortziatu ondoren edo oro har bakoitzak bere kotizazio independenteak formalizatu ahal izan ditzan⁸⁶.

Ezkontidearengandik banandu edo ezkontidea hilez gero, familiaz edo seme-alabez arduratzeko laneko bizitza bertan behera utzi beharraren ondorioz etorkizuneko pentsioan murrizketa nabarmena izan duen ezkontideak konpentsazioa jasotzeko eskubidea edukiko du. Sekula kotizatu ez duen edo ordaindu gabeko (etxeko) lana egin ez duenarengan ere pentsa dezagun.

Proposamen sindikal honen oinarria hauxe litzateke: lanaren fruituak irabazitako ondusunak badira, fruitu horiei lotutako eskubideak ere halaxe dira, gizarte segurantzakoak, besteak beste (Kode zibilaren 1347.2. eta 1349. artikulua). Are gehiago, Kode zibilaren 1355. artikulua dioenez, "podrán los cónyuges, de común acuerdo, atribuir la condición de gananciales a los bienes que adquirieran a título oneroso durante el matrimonio, cualquiera que sea la procedencia del precio o contraprestación y la forma y plazos en que se satisfagan". Gure ordenamenduan arau berritzailea litzateke, nahiz eta Alemanian eta Suedian dagoeneko aplikatzen den. Sakonago aztertu beharko liratekeen alde positiboak eta negatiboak ditu. Balioespen orokorra baino ez dugu egingo gure planteamenduari lotuta.

3.5. PROPOSAMENEN BALIOESPENA

Goiko proposamenak abantaila bi ditu: bata, familiak ez du aparteko ordainketarik egin behar; eta bestea, Gizarte Segurantzari bikotekide batek egiten dion ekarpenak bientzako balio izateko modua da, jasoko den pentsioa familiak bizirauteko egin behar izan diren bi lanena izango baita: lan ordainduena (bat baino gehiago badira) eta etxearen ardura izatearena, bestea bezain beharrezkoa.

Beste bikotekideak etxeko lanari bere garrantzia aitortzeko zeharkako modua da, gizarte eskubide berdinak izango dituztelako eta bakoitzak familiako kargak eramaten era batera laguntzen duelako: batak kanpoan jasotzen duenarekin (ordainsaria, soldata,...) eta besteak barruan, soldatarik gabe; baina biena izango litzateke lehenak

⁸⁶ Iturria: Soledad Ruiz Seguín. UGTko Idazkaritza Exekutibo Konfederala (Emakumearen arloa). Ezin izan dugu Akzio Programaren testu osora zuzenean jo, argitaratzeko inprimatzen ari baitira. Ikusi 2002ko martxoaren 16ko *El País*.

Gizarte Segurantzaren kotizatzen duena. Neurri honek etxeko lanekiko familiaren konpromisoa nolakoa den erakusten du.

Hala ere, badu bere alde ezkorra, etxeko lana benetako lantzat hartzearen ideiarekin koherentea ez delako. Ez du laguntzen etxeko lanak egiteak onarpen autonomoa izan dezan, lan horiek egiten dituenak prestazioa jasotzeko eskubidea bikoteko beste kideak egiten duenarena elkarbanatzeetik dator, ez berezko eskubidetik; edo bestearen jarduerak ematen du konpentsazioa lortzeko eskubidea. Hortaz, proposamen honetatik zera atera daiteke:

1. Menpetasun kontzeptuala mantentzen da beste ezkontideak egiten duen ordaindutako lanarekiko. Hau ez litzateke gertatuko etxekoandreak/etxekogizonak borondatez eta autonomo gisara kotizatuko balu, aseguru karrera independentea sortuko bailitzateke. Bide hau koherenteagoa litzateke Lan Zuzenbideak "soldata gabeko etxeko langile" gisa agerian onartzearekin.

2. Ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen kotizazioaren zati bat, irabazizkoa, enpresarioaren lepotik egiten da, inoren kontura diharduen langilearen kasuan. Horrek esan nahi du kotizatzen duen langileak egiten duen lanari ez dagokion kostua leporatzen zaiola enpresarioari.

Arrazoi horiengatik errezeloz ikusten dugu azken proposamen hau, nahiz eta ekonomikoki bideragarriena izan, batez ere koherentzia ideologikoagatik, gune ekonomiko batean, familian, etxekoandreei/etxekogizonei euren lana maila juridikoan aitortzearekin bat ez datorrelako.

Lehen proposamenak, zailtasunak zailtasun eta sakonago aztertu beharko litzatekeen arren, langile "atipiko", nazio mailako kontabilitatean ezkutuan dauden baina ikaragarriko aberastasun pertsonala eta soziala ez ezik ekonomikoa ere sortzen duten hauentzako babes sistema berezia arautzearen aldeko apustua egiteko aukera ematen du. Ekimen hau benetako berdintasunaren aldeko familia eta politika mailako konpromisoan urrats handiagoa izango litzateke.



Hirugarren zatia
**ETXEKOANDREAREN/
ETXEKOGIZONAREN LANA ZERGA
ZUZENBIDEAREN IKUSPEGITIK ETA
ETXEKO LANA KONTUAN HARTZEKO
EREDU POSIBLE BAT**



1. ETXEKO LANARI BURUZKO HAUSNARKETARAKO OINARRIAK

Hurrengo orrietan egingo dudan hausnarketari ekin aurretik, esan dezadan neure alde-tik, etxeke lana ikuspegi juridikotik aztertzeraz bultzatzen nauden lehen oinarria hauxe litzatekeela inolako zalantzarik gabe: agerian utzi nahi dut gure gizarteak gutxieneko justizia egin behar duela urte luzez emakumeek bizi izan duten egoeratik; izan ere, emakumeak, ikasteko edo lan produktiborako "aukera mugatuak" zituelako gizarte kontzientzia sorturik, besteentzako (senarra, seme-alabak, gurasoak, neba-arrebak,...) zerbitzu emaile bihurtu ditu, eta zerbitzu horien ordez gizartearengandik ezer jasotzeko edo eskatzeko eskubiderik gabe utzi ditu, nahiz eta gizarteari euren ekarpena egin amatasunaren bide isiletik.

Zorionez, gaur egun emakume asko gara prestakuntza jaso eta lan ordaindua izateko "miraria" iritsi ahal izan dugunak. Konturatzen naiz "mirari" hori ezin izan zela amarengan, amamarengan, eta beste emakume askorengan gertatu, eta euren bizitza besteenganako zerbitzuari eskaini ziotela. Hori horrela izanik, hasierako hausnarketa apal honen oinarria ezin da bestelakoa izan, eta nik neure harri-koskorra ekartzen dut egunen batean zuzenbideak etxeke lanaren balioa kontuan hartu dezan eta gizarteak, egiten dion ekarpen hori konpentsatu diezaion.

Oinarri nagusi honen ondoren, gure lanaren bigarren zutabea ondokoa litzateke: indarrean dauden zerga arauak, foruen esparruan zein esparru orokorrean, ez dutela etxekekoandreen/etxekegizonen jardueraren ia inolako aipamenik egiten.

Gure gizartean dagoen bakarkako eta taldeko egoeren aniztasuna kontuan izanda, ulertzekoa da zerga-legediak denetan ez erreparatzea (eta ezin erreparatu izatea). Hala ere, deigarria suertatzen da gizarteko sektore zabal eta kopuruz handia den etxekean lan egiten duten pertsonen buruzko araudirik ez izatea.

Horrela, gure zerga sistemak, PFEZen pertsona fisikoen zerga-ordainketa arautzean (zer esanik ez gainerako zergetan), adibidez, ordaintzen ez den jarduera bat egiten duten pertsonen egoera ahaztu egiten du, nahiz eta talde horrek ere ekarpen bat egiten dion gizarteari.

Ahazte horren formulazioan bertan azaldu dugula zergatia argudia daiteke, PFEZen zerga egitatea pertsona fisiko batek eskuratzen duen errentatik egiten dela; hortaz, definizioz, zerga egitatea halakoa izanik, ulergarria da errentarik ez duten etxekean-

dreen/etxekogizonen lana ez agertzea, nahiz eta horrek ez duen esan nahi lanik ez dagoenik, goian aipatu dugun bezala. Berez, lan hori ordaindua izatea ez da aitortzen.

Desberdintasuna "ordainketa" elementuan datza, PFEZek zergapetu egiten baitu lan berdintsua egiten duen pertsona (zaharrak edo umeak zaindu, etxeko garbikuzia egin,...), lana soldata baten truke egiten badu.

Hortaz, PFEZen zerga egitatearen barruan etxeko lana egiten duten pertsonak ez agertzea bidezkoa eta logikoa da (zer zergapetuko du zergak errentarik ez badago?), baina hain logikoa iruditzen ez zaiguna da PFEZek pertsona hauek osatzen duten gizarte sektore zabala badela ahaztea. Zerga honen araudiari begiratzea baino ez dago, legegilea lan ordaindu gabea egiten duten beste gizarte sektore batzuek une batzuetan "gogoratzen dela" ikusteko. Halaxe gertatzen da, adibidez, zerga arauak irabazasmorik gabeko jarduerak burutzen dituzten pertsona edo taldeei buruzko aipamena egiten dutenean. Etekinik ez izateak zergapetzeko orduan ere kontuan ez hartzea dakar, baina geroago bai hartzen dituela kontuan, exentzioetan, kenkarietan,... eta etxeko lanean gertatzen den bezala, ez dute errentarik sortzen. Zergetako legegileak kontuan hartzen ditu talde hauek zerga-araudia gizarte eta ekonomia politika tresna gisa erabilita, kasu honetan, gizartean honelako erakundeen existentzia eta presentzia sustatzeko zerga neurriak sartuz.

Ez da halakorik gertatzen etxeko lanarekin. Ez da beronen izateaz aipamenik egiten. Beste hitz batzuetan esanda, zergetako legegileek ekoizpen faktore bat (hori bai, ordaindu gabea) badela ahaztu egiten dute, nahiz eta ikerketen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari gagozkiola, BPG %40an igoko lukeen¹. Ez agertze horren larritasuna estatistika handietara jo gabe ere ikus daiteke. Geure ingurura begiratzea baino ez dugu eta ikusi zenbat denbora ematen diogun eta ematen dioten, zuzenean edo zeharka, etxea, umeak, zaharrak,... zaintzeari. Eta ulertuko dugu ez duela bat ere loturirik halako lan pila inongo zerga-arauek aipatu ere ez egiteak.

Aurreko guztia ikusita, ondorio hau atera dezakegu: gizarteak, zeinen isla diren arau juridikoak eta areago zerga-arauek, gure ustez, aitortu egin behar diela euren etxean etxeko lanak egiten dituzte pertsona guztiei merezimendua ez ezik gizarte osoari egiten dioten ekarpena ere. Gaur egunean soldata bidezko aitorten ekonomikoa bidera ezina izateak ez du ekarri behar bestela aitortzeko moduak ukatzea. Aitortzeko modu horien artean, zerga-zuzenbideak zer esana eduki beharko luke gastu eta sarreraren publikoen funtzionamendua arautzen duen elementu den aldetik.

¹ Eustat, *Cuentas satélite de la producción doméstica para la Comunidad Autónoma Vasca*, Gasteiz, 2000.

2. LAN HONEN ESPARRUA ETA LORTU NAHI DITUEN HELBURUAK

Sarrera honen ondoren eta aurrera egin aurretik, etxeko lanaren arloan aipatuko ditugun egoera desberdinetan erabiliko ditugun terminoak zehazte aldera deskribapen bat egingo dugu.

Oro har, "etxekoandre/etxekogizon" izena emango diegu ikerlan honetan etxeko egin-beharrez edo etxeko lanez arduratzen diren pertsoneri. Lan horiek, ordainsaririk jaso gabe, nor bere etxean egiten dituenak dira: arropa garbitu eta zaintzea; familiak, oro har, edo kideren batek kontsumituko dituen premiazko ondasunak eta beste batzuk erostea; familiari jaten emateko janariak prestatzea; etxea txukun eta garbi mantentzea; gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena egitea eta baliabide ekonomikoen erabilerara arrazionala egitea; umeen eta adinagatik edo gaixotasunagatik arretera edo zainketa bereziak behar dituzten pertsonen beharrezko erantzutea.

Etxekoandreen/etxekogizonen barruan, eta zergen ikuspegitik aztertu ahal izateko, gaitasun ekonomikoko eta segurtasun juridikoko zerga-oinarriek, baina batez ere zerga-berdintasuneko oinarriak, etxekoandreen/etxekogizonen taldean sartuko liratekeen pertsonen artean sailkapena egin beharra eskatzen dutela uste dugu.

Lehenengo talde batean etxekoandreen/etxekogizonen lanak egin eta ordaindutako lanak egiten ez dutenak egongo lirateke. Erabat etxeko lanetara emanak dauden pertsonak izango lirateke. Lehen talde honetan sartzeko berdina dio zertan ematen duen etxeko lanetan ari ez den denbora (ikasten, atsedean hartzen, kirola egiten,...). Garrantzitsua da etxekoandre/etxekogizon horrek ez duela ordainsaririk jasotzen bere lanarengatik edo jarduera profesionalarengatik. Talde honetako pertsonak eta euren egoera izango dira ikerlan honetan aztertuko ditugunak, babesik eza jasaten dutenak eurak baitira, batez ere.

Bigarren taldean sartuko genituzke etxeko lanetan erabat ari ez diren pertsonak. Talde honetakoek etxeko lanak egiteaz gain, kanpoan ordaindutako lan bat ere egiten dute. Lanaldi partzialeko lana hirugarren batentzat egin eta etxeko lanez ere arduratzen diren pertsonen kasua litzateke.

Badakigu jakin lanaldi osoko lana kanpoan egiten duten askok, emakumeek batez ere, etxeko ardurari aurre egin behar diotela bertara heltzean. Horrek aparteko ahalegina eta nekea eskatzen ditu, batzuetan etxeko kideen artean banatzen dena, baina hala ez denean, andreentzat sekula bukatzen ez diren egun bihurtzen direnak. Halako egoerak kritikagarriak izan daitezkeen arren, talde hau ez dugu ikerlan honetan aztertuko,

etxekoandrentzat/etxekogizonentzat eskatzen dena eduki badutelako: babesten dituen Gizarte Segurantzako kotizazio erregimena, eta soldata.

Uste dugu bi egoerei, etxeko lanetan lanaldi osoan edo denbora partzialeko dedikazioan aritu, erantzuna eman behar diela zerga-zuzenbideak, seguru asko batari eta besteari eman beharreko erantzuna desberdina izan arren, era horretara baino ez baita lortuko Konstituzioaren 31. artikuluan aurreikusten den zerga berdintasuneko oinarria, egoera berdinak berdin eta desberdinak desberdin tratatzera behartzen gaituena. Zerga arloko legegilearen eskumena izango da beharrezko kontroleko neurriak eta mugak sortzea, hartzen diren formulak kasu bakoitzeko beharrian edo egoerei erantzun diezaieten.

Lanaren esparrua finkatu ondoren, lau helburu izango lituzke batez ere azterlanak.

Lehena izango litzateke inolako ordainsaririk jasotzen eta gizarte mailako aitorpenik ez duen baina gizarteak normal eta hobeto funtzionatzeko egiten den lan bat egiteagatik zerga sistemaren bidez konpentsatzeko formulak lortzea. Beste era batera esanda, etxekoandreek/etxekogizonek "gauzatan" egiten diote ekarpena gizarteari eta honek konpentsatu egin behar ditu lan horri bere balioa aitortuz, horrela, gutxienez, gastu publikotan aurrezten baita, bestela sarritan sektore publikoak eman beharko lituzkeen zerbitzuak eta zainketak emanez.

Bigarrenez, lan-ordenamenduarekin eta Gizarte Segurantzarekin koordinatuta, zerga-araudiak formulak prestatu behar ditu etxea eta familia zaintzeko etxean gelditzea aukeratzeko duen pertsonak zuzenbidearen babesa izan dezan, hau da, edozein pertsonak eduki dezala bizitza osorako edo aldi baterako etxekoandre/etxekogizon lanetan lanaldi osoan jarduteko aukera zuzenbidez eta ez bakarrik izatez.

Hirugarren helburua oreka formulak bilatzea izango litzateke, gurasoetariko batek dedikazio osoan edo partzialean seme-alabak, euren bizitzako lehen urteetan behintzat, zaintzeko lanari edo karrera profesionalari uko egin beharrik izan ez dezan, gaur egunean gertatzen den moduan. Gizartearen onura lortzeko, jaiotza-tasa igotzeko adibidez, emakumerik gehienek (eta hemen errealitateak sexua zehaztea eskatzen digu), behin adin batera helduta, seme-alabak zaintzearen edo lana mantendu eta karrera profesionala aurrera eramatearen artean aukera egin beharra saihesteko neurriak asmatzea izango litzateke helburua. Gure ustez, gaur eguneko zuzenbide modernoak formulak sortu behar ditu emakumeek (eta gizonek, gaur egun gutxiengoa auzi honetan) aukera erabat askea egin dezaten. Etxeaz eta familiaz arduratzeak ez dezala ekarri etorkizunean eskubide batzuk ukatzea (adibidez, erretiro-pentsioa); eta, berdin, etxetik kanpo lan egiteagatik ez diezaiola ama izateko aukerari, seme-alaba txikiak zaintzeari, edo beharrian dauden senideak zaintzeari uko egin. Kontua ez da etxetik kanpo lan egiten duenari seme-alabekin egoteko erraztasunak ematea soil-soilik,

etxea eta familia zaintzea aukeratu duenak ordainsaria jasotzeko eskubidea, edo behintzat behar duenean gizarte-prestazioak jasotzeko eskubidea (erretiroa, langabezia,...) izateko erraztasunak ematea baizik, beste edozein lan produktibo bezalako bat egiten ari baitira. Izan ere, etxeko lana produktiboa da hirugarren batentzat egiten denean, baina ez norberaren familiarentzat denean. Beste era batera esanda, denek ulertzen dute, baita Administrazio Publikoak ere, auzokoaren umeak zaintzeagatik edo etxea garbitzeagatik ordaintzea, baina piperminak baino gehiago sumintzen du jendea etxekoak edo etxea bera zaintzeagatik ordaintzeko eskatzen badut, nahiko jarrera koherentziarik gabea gure ustez, bestalde.

Laugarrenik, formulak aurkitu beharko lirateke urte batzuetan etxea gobernatzen eta batez ere seme-alaba txikiak zaintzen lan-merkatutik kanpo egon diren pertsonen berriro laneratzeko erraztasuna izan dezaten.

Helburu hauek guztiak planteatzean, badakigu zein zaila den gaur egun etxekoandrei/etxekogizonei soldata bat aitortzea, zeren eta soldata hori Altxor Publikoak ordaindu beharko lukeela diotenei halako kostuak aurrekontua pikutara bidaliko lukeela erantzuten baitzaie, eta inork ez baitu planteatzen dena familiaren lepotik egin behar denik ere, gehienek ezin izango bailiokete halako gastutzarrari aurre egin.

Agian eztabaida irekia ezin da "dena edo ezer ez" terminoetan planteatu, praktikoa-goia izango litzateke urrats txikiak ematea, lehenengo eskubideak aitortzea, adibidez, eta horrela etorkizunerako helburu handiagoak lortzeko bidea urratzea.

Arrazoi eta ideia praktiko berberagatik, ez litzateke egokiena izango Altxor Publikoaren lepotik etxeko lanetan diharduten pertsonentzako soldata edo kotizazio sistema bat planteatzea, aurrekontua apurtzen duelako argudioaz baliatuz halako ekimen guztiak baztertu egingo bailituzke Administrazioak.

Horregatik guztiagatik, formulatzen ditugun ideiek argudio hori apurtu nahi dute, hasieratik, eta gizarteak eta ondare publikoak erdibana ordainduko luketen sistema bat proposatzen dugu, aurrekontuak apurtzen dituelako argudioa saihestuz, baina familientzako ere sekulako sakrifizioa izan ez dadin, eta arian-arian formula zehatza-goak eta hobeak sortzeko balio dezan.

3. ETXEKO LANA ETA INDARREAN DAGOEN ZERGA ARAUDIA

3.1. ETXEKO LANAREN ERREFERENTZIARIK EZA ZERGA-ARAUDIAN

Indarrean dauden zerga-arauak irakurtze hutsarekin, bai esparru orokorrean, bai Foru esparruan, konturatzen gara ez dagoela etxeko lanetan diharduten pertsonen inolako erreferentziarik, ezta lan horren onura hartzen dutenenik ere. Arrazoia, zalantza izpirik gabe, hauxe da: etxeko lan hori soldatarik jaso gabe egiten denez, ez zaio balio ekonomiko propiorik ematen; beraz, "ez da kontuan hartzen" zerga sistema antolatzeke orduan. Etxeko lanak sortzen duen BPG ez da konputuan sartzen eragin ekonomikoe-tarako ezta zergetarako ere. "Ez dela kontuan hartzen" diogunean ez dugu esan nahi soilik aztertu ere egiten ez denik, alde batetik logikoa litzatekeena, edozelako zerga-ren subjektu pasiboak, zergapeko egitateak edo zerga-oinarriak definitzeko, baizik eta ez dela inolako eraginetarako kontuan hartzen, ezta exentzio, kenkari, hobari edo bes-telako onura fiskaletarako ere.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari erreparatzen badiogu, esaterako, etxeko-andreen/etxekogizonen egoeraren gaineko erreferentziarik ez dela araudian agertzen ikusiko dugu. Arauak tributazio aukera, familia kenkari, karga maila berberak ezartzen dizkio ezkontidea etxeko lanetan, seme-alabak eta eurekin bizi diren senideak zain-tzen, soldatarik jaso gabe aritzen zaion bati eta lan ordaindua duen eta ezkontideak ere lan ordaindua duenari, senideak zaintzeari ekin zein ez ekin. Bataren eta bestearen zergak parekatzean, legegilea ez da bataren eta bestearen arteko desberdintasunez ohartzen, bigarren kasuko senar-emazteek etorkizunari begira sortzen ari diren esku-bideez, edo eskubide hauek ez izatean, zein egoeratan geratuko litzatekeen lehen kasuan etxean lan egiten duena kanpoan lan egiten duen ezkontidea falta izanez gero, adibidez.

3.2. ONDORENGO ETA AURREKO AHAIDEENGATIKO DEDUKZIOAK

Bizkaiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauan, zergadunarekin batera bizi diren ondorengo senideengatik dedukzio ba-

tzuk agertzen dira kuotan². Dedukzio horiek handituz doaz zenbat eta ondorengo gehiago izan (lehenengoagatik 390,66 euro; 901,52 euro laugarrenetik gorakoentzat). Gainera, seme-alabetarikoren batek hiru urte baino gutxiago baditu, 210,35 euroko dedukzio gehigarria aplikatzen zaio, ordenari dagokiona³.

Zergadunarekin bizi diren aurreko ahaideen kasuan, dedukzioa 194,13 eurokoa da, berdin dio zenbat diren⁴.

Adibide hau dugu etxeko lana batere kontutan hartzen ez den kasua. Lehen planteatzen genuen bezala, dedukzioa berdin-berdin aplikatzen da, familiaren egoera edozein dela ere eta dedukziorako eskubidea sortarazten duten ondorengo eta aurreko senideen zainketa egiten den eran egiten dela ere. Arrazoa argia da. Arauak ez du kontuan hartzen txikiei eta nagusiei eskaini behar zaien arretak dakarren lana edo ahalegina konpentsatzeko dedukziorik, batzuk eta besteak zaintzeak sortarazten dituen gehiegizko gastuak baizik. Argiago planteatzeko, dedukzio berdina izango du aita eta ama lanean ari den (soldata bi) eta semea edo alaba haurtzaindegira eramaten duen familiak, eta aitak edo amak bakarrik lan egiten duen familiak (soldata bat) eta bestea etxean geratu eta semeaz edo alabaz arduratzen denak. Argi eta garbi ikusten dugu kasu honetan bigarren familiaren kasuan umea etxean zaintzean dagoen gastu publikoa aurrezteko kontuan ez hartzean dedukzioa bidegabekeria batean erortzen dela. Arrazoibide eta kritika berdina egin dakioke bizikide diren aurreko ahaideengatik aplikatu daitekeen dedukzioari ere, berdina baita aurreko ahaide hori zaintzen duena udalak bidalitako gizarte-laguntzailea bada edo lanik egiten ez duen alaba bada.

Lan eta ahalegin fisiko hori konpentsatzeko era bat, adibidez, izan daiteke gastua ardatz duen dedukzio orokor horri (etxekoak zein kanpokoak zaindu eztabaida ezina da gastua) gainerako beste dedukzio bat gehitzea zergadunak berak edo familia-unitateko beste kide batek pertsona horiek zaintzen baditu. Baina zaila izan daiteke pertsona horrek lan hori egiten duela probatzea eta kasu horretan ahalegin hori leporatzen zaion pertsonari inolako ordainketarik ez zaiola egiten suposatuta behar da honako kontzeptuengatik: lan pertsonala, higigarrien kapitala, higiezinen kapitala. Dedukzio osagarria seme-alabak edo aurretiko ahaideak zuzenean zaintzeagatik familiak altxor publikoari aurrezten dion gastuagatik konpentsazioak justifikatuko luke.

² Bizkairako PFEZI buruzko abenduaren 21eko 10/98 Foru Arauaren 71. artikulua.

³ Oro har, dedukzioa ez zaie aplikatuko hogeita hamar urtetik gora dituzten, urtean lanbide arteko gutxieneko soldata baino errenta handiagoa duten, edo familiako kideetako batek soldata hori duen beste familia unitate bateko kide diren, edo aldi horretarako zerga aitortpena aurkezten duten ondorengoei. (71.3. art.)

⁴ Bizkairako PFEZI buruzko abenduaren 21eko 10/98 Foru Arauaren 73. artikulua.

Gure ustez, kontuan izan beharreko aukera litzateke, eta diskriminazioagatiko kritikak saihesteko neurri osagarriak izan ditzake, euren seme-alabak edo nagusiak zuzenean zaintzen ez dituzten zergadunen egoera aztertzen duten neurriak. Hala ere, neurri osagarri horiek planteatzea gure hausnarketaren gaindik dago; guri dagokiguna etxeko lanaren zerga ikuspegiari dagokio, zaintzeko ardura hori norberak hartzen duenean. Bestalde, era honetako neurriak diskriminatzaileak izan daitezkeela eta, gogora dezagun umeen haurtzaindegiko gastuak jaso diren arauetan ez dela erreparatu diskriminaziozko tratua egon daitekeela haurrak eurek zaintzen dituzten zergadunentzat.

3.3. ZERGAK BANAN ORDAINTZEA ETA BIEK BATERA ORDAINTZEA

Tratu homogeneotasunari buruzkoan egin den hausnarketa berbera egin behar da zergak banan ordaintzeko eta biek batera ordaintzeko kasuen artean ere. Bi kasu horietan legegileak oro har baino ez ditu konfiguratzeko, eta ez du hirugarren aukera bat planteatzeko edo dauden bien artean beste posibilitate bat ematen, ezkontideetako batek kanpoan lan egin eta besteak etxeko lanak egin eta seme-alabak eta aurreko ahaideak zaintzen dituen hainbeste familiaren errealitatea jasotzeko⁵.

3.4. ETXEKO LANAGATIKO DEDUKZIOA

Bi hutsune hauei kontrajarrita, azter dezagun etxeko lana espreski jasotzen duen zerga-arau bat: Valentziako Autonomia Erkidegoko 13/1997 Legea⁶. PFEZen esparruko dedukzio autonomiko partikularrak planteatzean⁷, zerga honen kuotan 120,20 euro kendu ahal izango direla dio ezkontideetako batek familiaren etxean etxeko lan ordaindu gabea egiten badu. Aukera hau jasotzea bera da positiboa, nahiz eta lege honen konfigurazio zehatza kritikagarria edo hobetzeko modukoa izan batzuen iritziz. Lege

⁵ Zergak bakarka edo biek batera ordaintzeko arau eta aukeren inguruan zabal eta sakon dihardu Paloma de Villotak: "Aproximación al estudio de la política fiscal en España desde la perspectiva de género", in *Mujeres y Economía*, C. Carrasco (arg.), Bartzelona, 1999, 307-333. orr.

⁶ 13/1997 Legearen 4. artikulua, 9/2001 Legearen 14. artikulua sartutako erredekzio aldaketaren arabera.

⁷ Eskumen hori onartzen dio abenduaren 30eko 14/1996 Legeak, Autonomia Erkidegoei Zergak Lagatzea arautzen duenak.

honek ekarpen nagusi bat egiten du: bidea urratzen du eta oraindik aurrera bide horretan jarraitzea eta sakontzea geratzen da.

Dedukzio hau egin ahal izateko lau baldintza ezartzen ditu Valentziako legeak.

Lehenengo eta behin, dedukzioa aplikatzeko egoera horretan egon behar da, hau da, ezkontideetako batek familiaren etxean ordaindu gabeko lanak egiten ditu eta besteak lan-etekinak jasotzen ditu jarduera ekonomikoetatik edo zerga-argitasunean diharduten erakundeetako zerga-oinarri egotzietatik.

Geroago azalduko dugun ereduaren ez bezala, baldintza honi egin diezaiotzekun lehen kritika zera da: dedukzioak ez du eskubide hori sortarazten duen pertsonarekin (etxe-koandrearekin/etxekogizonarekin) zer gertatzen den ardatz moduan hartzen, bere inguruan dauden pertsonekin zer gertatzen den baino. Dedukzioa ez zaio etxeko lana egiten duen pertsonari lotzen, familiari baizik.

Gaitasun ekonomikoa huts-hutsean hartuta, familia-unitatearen likidazio-oinarria orokorra 12.020,24 euro baino gehiagokoa ez izatea eskatzen da. Beraz, dedukzioa ez da lan horretan diharduten guztientzat, maila ekonomiko apaletan daudenentzat baino. Ildo horretan, gu etxeko lanerako zergetan arautzen dena denentzako izatearen aldekoak gara, ahal den neurrian, lan hori egiten dutenen ahalmen ekonomikoan bereizketarik egin gabe, etxeko lanak berdin "balio" baitu etxe-koandrea edo etxekogizona aberatsa izan edo behartsua izan. Printzipioz lanak balio berdina duela uste dugu; beste kontu bat da lan hori neurri batean diru publikoak finantzatuko badu, Administrazioak bereizi behar izatea zer ahalmen ekonomiko duten diru publiko hori jasoko duten pertsonak.

Beste aukera bat litzateke, adibidez, ahalmen ekonomiko handiko pertsonen dedukziorik egiten ez uztea baina euren etxean etxeko lanak egiten dituen pertsonari ordaintzen dioten soldataren portzentaia bat deduzitzen uztea, eta horrela inoren etxean egiten den lana argitan jartzea, gehienetan ezkutuko ekonomiaren barruan egiten baita lan hori.

Hirugarren baldintza da familia-unitateko kideetako batek ere errendimendu guztia ez jasotzea higiezinaren errendetatik ez higiezinaren kapitalek ez higigarrietatik 300,51 euro baino gehiagoan, ezta ondare irabazi edo galerarik ere. Aurreko kasuan bezala, dedukzioa aplikatzeko muga ikuspegi ekonomiko hutsetik egiten da, dedukzio eskubidea sortarazten duen pertsonak (etxe-koandreak edo etxekogizonak) laneko edo jarduera profesionaleko errendimendurik ez izanda ere, ondare higigarri edo higiezinakoei dagozkienak izan ez ditzan.

Azken baldintza da, agian, kritikagarriena. Dedukzioa aplikatzeko familian ondorengo ahaide bi edo gehiago egotea eskatzen du gutxieneko familiagatik murrizketa egiteko eskubidea izateko. Aurreikuspen honen arabera, beraz, ezin zaio dedukzioa aplikatu ume bakarra edo aurreko ahaide bat edo batzuk norberarekin bizitzen eduki eta etxe-koandreak/etxekogizonak zaindu behar izanez gero. Arauak ez du kontuan hartzen beste ezkontidea, laneko errendimenduak jasotzen dituen ere zaintzen duela etxe-koandreak/etxekogizonak. Eztabaidagarria izan daitekeen ildo batetik, erabat bazterten da ezkontide batek (estatistiken arabera gehienetan emaztea da etxean geratzen dena) senarra, umea eta aurreko ahaide edo ezgaitasunen bat duen ahaide kopuru mugagabe bat duen familia unitate bati dedukzioa aplikatzea.

Azkenik, itxuraz behintzat hala dirudi, dedukzioa familia unitatearen zergari lotzean, ezinezkoa da izatezko bikoteei aplikatzea.

Ez genuke komentario hauekin etxe lanari zerga onuraren bat emateak sortzen digun poza ilundu nahi, lege hori aztertzen duten pertsonen arabera puntu kritikagarriak izan arren.

Valentziako legeak egiten duena gorabehera, ezkontidea etxe lanetan ari zaion zergadun baten PFEZen dedukzio bat egitea gure ustez bereziki justifikatuta dago ondasunen bananketako erregimena aplikatzen den foru erregimenetan, Kode zibilaren 1348. artikulua⁸ argudio ukaezin bat sartzen duelako. Artikulu honek dio ezkontzako erregimen ekonomiko hau iraungitzen denean "El trabajo para la casa será computado como contribución a las cargas y dará derecho a obtener una compensación que el Juez señalará, a falta de acuerdo, a la extinción del régimen de separación." Beste hitz batzuetan, Kode zibilak diosku ezkontzak irauten duen bitartean soldata jasotzen duen ezkontideak zorra duela etxean lan egiten duenarekin, baina zor hori ez da diruz ordaintzen ezkontza iraungi arte⁹. Baina zorra egon badago. Eta ondasunen bananketako ezkontza erregimenaren antolaketan (ez hain erromantikoa, hala esan badezaket), honek esan nahi du lanik egiten "ez" duen ezkontideak lan egiten duenak irabazten duenari esker "bizirauten" duela (jan, jantzi, irten,...), eta etxe lanengatik eta ezkontidea zaintzeagatik ematen zaion ordaintzat har daiteke. Irabazitako ondasuneko erregimenean ez bezala (dena biona da eta biok gastatzen dugu), ondasunen bananketan, ezkontideak errenta propioirik ez badu, nirea neurea baino ez da, baina biok gastatzen dugu.

⁸ Artikulu hau luze eta zabal aztertu da ikerlan honen bigarren atalean.

⁹ Honen inguruan, ikusi Kataluniako Auzitegi Nagusiaren 1996ko uztailaren 1eko eta 2000ko uztailaren 17ko epaiak.

3.5. AMEI LAGUNTZA BAT AITORTZEA ETA JAIOTZA- -TASA SUSTATZEKO BESTE NEURRI BATZUK

Zerga-zuzenbidean etxeko lana jorratzen duen hain arau gutxi agertzearen erantzukizuna lotuta dago, jakina denez, gaur egun familiako eta laneko bizitza bateratzeko dagoen joeraz, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeengan pentsatuz, eta neurri handi batean, jaiotza-tasa handitzeko neurriei begira.

Bide honi jarraitzen dio, adibidez, Alderdi Popularraren Gobernuak hiru urtetik beherrako haurrak dituzten amei hilean laguntza bat aitortzeko prestatu berri duen proposamenak, amaren maila ekonomikoa edozein dela ere¹⁰. Laguntza honek haurra hazteak lehen urteetan dituen gastuak konpentsatu nahi ditu. Neurri honen inguruan irakurketa bihurriagoak edo zabalagoak egin daitezke baina denak ondo oinarrituak, gure aburuz. Lehenengo eta behin, laguntza eratuta dagoen moduan, pentsa genezake umea zaintzeaz arduratzen dena, arduradun bakarra, ama dela, aitak, umeari dago-kionean, zer esanik ez zer gastaturik ez balu bezala.

Proposamen hori dela-eta egin daitekeen bigarren komentarioa zera da: banandu edo dibortziatu, alargundu edo ezkongabe bizi diren aitak zein egoeratan geratzen diren umea eurek bakarrik hazi behar dutenean. Eurei, ama ez direnez, ez dagokie laguntza jasotzea, eta inork ez dio seme-alaben gastuak ordaindu behar ez dituztenik. Zer esanik ez, bestalde, amak ume bat, bi, hiru, lau,... baditu baina hiru urtez beherakorik ez badu. Ez du laguntzarik jasoko. Gauza bat baino ez genuke gehitu nahi bukatzeko: laguntza ematearen arrazoia gastu gehiegi izatea bada, laguntza hori aldakorra izan beharko litzateke, ama horrek hiru urtetik behera dituen seme-alaben kopuruaren arabera.

Jakina, neurria, hobeto edo txarrago eratua, emakume langilearen aldeko keinu bat dela uste dugu, jaiotza-tasa sustatzeko ildoari jarraituz egina, eta botere publikoen inplikazio falta eta familiei umea izaten duteneko gastuetan laguntzarik ez ematea (berdin dio umeak zenbat urte dituen, seme-alabek hiru urtetik aurrera ere jateko ohi-tura mantendu egin ohi dute eta) kritikatzeko duten ahotsak isiltzeko planteatua, gurea bezala.

¹⁰ 2002an Alderdi Popularreko Gobernuak Familiari Laguntzeko Plan Integralean jaso duen neurria.

Gure ustez, laguntza hau eratzeko beste modu bat¹¹, eta kontrako kritikak saihestuko dituen, batez ere gizonen diskriminazioari dagokionekoak, laguntza umeari lotzea litzateke, eta ez aitari edo amari. PFEZen autolikidazioan seme-alabengatiko dedukzioa aplikatzen duenak bizikidetzako baldintzak betetzen dituelako, hileroko prestazio hau jasotzeko eskubidea izango du. Dedukzioa bi gurasoen artean banatzen den kasuetan, laguntza ere halaxe banatuko da. Aukera honekin, bikote ezkondu bat semearekin bizi denean, eta zerga-aitorpena batera egiten badute eta dedukzioa aplikatzen bada, nahiz eta bi gurasoetako bati bakarrik aitortu, familia unitatearen onurarako izango da. Autolikidazioa banakakoa bada ezkontideetako bakoitzak umeari dagokion portzentaia aplikatuko du eta neurri horretan ordainduko zaio laguntza. pertsona bat, gizona zein emakumea, semearekin edo alabarekin bakarrik bizi bada, ezkongabea, alarguna, banatua edo dibortziatua delako, pertsona horrek baino ez du laguntza osoa jasotzeko eskubidea izango. Nire umearen aitarekin izatezko bikotea osatzen badut, eta beraz, aitorena batera ezin badugu egin, orduan ere biok jaso ahal izango dugu laguntza bi zati berdinetan, dedukzioa bezala. Baina ez litzateke hori gertatuko umearen ama bakarrik ezaguna bada.

Gainera, laguntza umeari lotzeak, eta ez amari, seme edo alaba kopuruaren arabera jasotzen duena automatikoki biderkatzeko abantaila du, ez pertsona batek duen haur kopuruaren arabera, baizik eta berarekin bizi den haur kopuruaren arabera eta beraiekin gastatzen duenaren arabera.

Euren seme-alabekin bizi ez diren aita/ama banatuen kasuan baina urteroko mantenuen bidez gastuetan ekarpena egiten dutenenean, laguntza koordinatzeko eraren bat agertu beharko litzateke, azken hauek ere gastatu egiten baitute seme-alabak zaintzen, gutxi gorabeherako zenbaterako batean bada ere.

Honelako neurriak, gainera, bateratu egin daitezke amatasun edo aitatasuneko bajaran sortutako errentetarako zerga formulekin. Adibidez, pertsona baten laneko errenten salbuespen osoa edo partziala planteatu liteke amatasun edo aitatasuneko baja, baime-na, eszedentzia gozatzen dagoen bitartean. Horrekin batera, amatasunerako/aitatasunerako aurreikusitako hobariak mailakatu egin litezke baja edo baimen hori gozatuko duen horren seme-alaba kopuruaren arabera; horrela, ume kopuruak gora egin ahala hobariak ere gora egingo luke, %25 lehenengoan, %50 bigarreanean, e.a. Gainera, aitek aitatasun baja gehiagotan har dezaten, zerga tratu hobea eman dakieke aitek baja aldi horretan jasotako errentei amek kasu berean jasotzen dutenarekin konparatuta.

¹¹ Kataluniako Generalitatearen urtarrilaren 14ko 7/2002 BES Aginduak hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei eta 6 urtetik beherako haurrak dituzten familia ugarietako laguntzeko sistema bat antolatzen du umea txertatuta dagoen familia unitateari, hau da, aitari eta amari edo bietako edozeini laguntza emanez, laguntza jasotzeko eskubidea sortzen duten haurrekin bizi badira.

Sozietateen gaineko Zergaren esparruan amatasun edo aitatasun bajaran dauden pertsonen ordez kontratatzen diren langileei ordaintzen zaien soldataren inguruan dedukzioak sar litezke. Dedukzio hori handitu egin liteke ordezkia egiteko kontratatu den pertsona emakumezkoa bada. Eta gehitu egin liteke emakume hori ama bada. Era horretara enpresek ez lukete hainbeste eragozpen jarriko ugaltzeko adinean dauden pertsonak kontratatzeko (batez ere emakumeak), eta emakumeak kontratatzea sustatu egingo litzateke, are gehiago emakume horiek amak badira.

3.6. ONDORIOA

Orain arte esandako guztiaz gain, egia esan, legegileak etxetik kanpora lan egiten duen emakumearen arazoak hartzen ditu ardatz etengabe, eta ez da gogoratzen etxean lan egiten duenaz. Etxeko lana egoki araututa, legegileak lor lezake etxeokondek/etxekogizonek ume gehiago izaten animatzea, edo independentzia ekonomikoa lortzearen edo bihar-etzirako baliabideak edukitzeko kanpoan lan egiten duten emakume eta gizon asko etxeko lanetan aritzea eta seme-alabak eta beste ahaide batzuk zaintzen geratzea.

Honez gain, zerga-politika beti aurpegi bikoitzez eratzten dela izan behar dugu gogoran. Bata, diru-sarrera publikoarena, dedukziotan, hobaritan, e.a. etxeko lanerako zerga-arauek aurreikusten duten zerga tratamenduak oinarritzko papera betetzen dueneko. Bigarrena, gastu publikoarena. Azken kasu honetan Administrazioari dagokio zerbitzu publikoen sistema zabal eta ahal bezain osoa eratztea, zainketa eta arreta behar duten pertsonen (haurrei, nagusiei, ezgaitasunak dituztenei,...) eman beharreko denbora eta diru ardua osoa familiek, gehienetan emakumeek, eduki ez dezaten¹². Puntu honen inguruan egiten diren aukerak, proposamenek, e.a. aparteko garrantzia edukiko dute, batez ere emakumeentzat, eurek izaten baitute neurri handi batean etxeko lanaren eta etxekoak zaintzeko ardua¹³.

¹² Paloma de Villota oso egoki adierazten du Espainian bizi izandako egoera Europan bizi izandakoarekin erkatuta: "Si comparamos el nivel de cobertura de los servicios públicos de guardería para menores de dos años en relación con la Unión Europea la comparación resulta sumamente desventajosa que obstaculiza la incorporación de las mujeres con hijos pequeños al mercado laboral. Por ejemplo, en 1.992, en Dinamarca, según Eurostat (Eurostat, 1.992, p. 52) más del 40% de los menores de dos años asistían a guarderías públicas; El 20% en Bélgica y Francia, mientras en España dicha proporción no llegaba al 2%." Paloma de Villota in "Aproximación al estudio de la política fiscal en España desde la perspectiva de género", in *Mujeres y Economía*, C. Carrasco (arg.), Barcelona, 1999, 318. or.

¹³ Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioako Emakumearen Institutuko 2001eko *Mujeres en cifras* txostenak dioenez, 1996an emakumeek 7 ordu eta 35 minutu ematen zituzten etxeko lanetan eta gizonek 3 ordu eta 5 minutu. 2001ean estatistikak diosku egoera orekatu egin dela, baina bost minututan. Orain emakumeek 7 ordu eta 22 minutu eskaintzen dizkiote, eta gizonek 3 ordu eta 10 minutu.

4. ETXEKO LANA ORDAINDUA IZATEKO EREDU BATEN PROPOSAMENA: ETXEKOANDREEN/ ETXEKOGIZONEN KOOPERATIBA

Garatuko dugun proposamena etxeakoandreei/etxekogizonei euren lana aitortzeko bidean kokatu behar da. Gure ustez, praktikotasunari begira, oinarrizko bi ideari erantzuna eman nahi dio. Lehena, etxeako lanaren kostu guztia Administrazio Publikoaren lepotik egiten ez duen proposamena da, bestela une honetara arte erakundeek izan duten jarrera kontuan izanda, lan hau aztertze hutsari atea itxiko bailioke. Bigarrenez, abian jartzeko formula gisara planteatzen da, sistemaren oinarriak jartzeko balioko duena, eta gutxieneko batzuetatik abiatuko dena. Gutxieneko horiek hauek lirateke, gure iritziz: etxeako lanari gizarteak bere balioa aitortzea, gaur eguneko eta etorkizuneko gertakizunetarako eskubideak sortaraztea, eta etorkizunik hurbilenean lan honi soldata bat aitortzeko oinarriak finkatzea.

Sistema hau ezarri eta ahalik eta pertsonarik gehienengana iritsi dadin, borondatezko formula batetik hasiko gara. Guk planteatzen dugun erakundera nahi duten guztiak bil daitezke baldintza batzuk betez gero. Gure erakundean sartzeari ondorengo hiru modalitate hauen barruan egin ahal izango da, sartuko den bakoitzaren lan egoeraren arabera. Azken helburua erakundea autofinantzatzea da eta epe ertainean eredu horretan dauden etxeakoandreei/etxekogizonei benetako soldata bat aitortzea. Formula horren bidez, halaber, lortu nahi da, zeharka bada ere, inoren etxean lanean diharduen pertsonaren lan baldintzak hobetzea.

Ikerlan honen lehen zatian aipatu dira etxeako lana autonomoen erregimenean eta Gizarte Segurantzaren erregimenean sartzeari nolako arazoak sortzen dituen, ematen den zerbitzua ezkontzaren edo familiaren barrukoa delako. Oztopo hau gainditzeko aukera bat etxeakoandreen/etxekogizonaren eta beronen familiaren artean hirugarren elementu bat sartzeari litzateke, harremanean bitartekaritza egingo duena eta egoerari irtenbidea emango diona.

Hirugarren elementu horri itxura emateko aukera desberdinen artean, gure aburuz, arazoari irtenbiderik egokiena emango liokeena kooperatiba da, beronen barruan dauden xehetasun guztiekin.

Guk proposatzen dugun eredu, lortu nahi diren helburuen argitan (etxeke lanaren balioa aitortzea eta gaur eguneko eta etorkizuneko gertakizunetarako eskubideak sortaraztea, etorkizunik hurbilenean lan honi soldata bat aitortzeko oinarriak finkatzea, norbere etxean eta inorenean lan hori egiteko baldintzak hobetzea), eta zein egoeratan gauden gogoan izanda (etxeakoandreen/etxekogizonen lana ordaintzeko administrazioaren ezezko borobila, soldataren pisu osoa familiako ekonomiak ezin jasan izatea), hasiera ona izan liteke pixkanaka etxeke lana ordaindua izan dadin aitortzeko bideari ekiteko.

Guk proposatuko genuke lan elkartuko kooperatiba bat eratzea etxea zaintze lanetan (garbikuzian, janari prestaketan, e.a.) eta pertsonak zaintzen diharduten emakume eta gizonen artean, berdin dio pertsona horiek menpekoak izan zein ez izan (ezkontidea, bikotekidea, seme-alabak, aurreko ahaideak, familiakoak), etxe berean bizi nahiz ez bizi, lan jardunaldi osoan zein beste lan batekin konbinatuta egin. Eskubideak sortuko litzatekeen kotizazioa lortzeko bidea izango litzateke lehen unean, gerora, egiten den lana ordaintzeko soldata aitortzeko mekanismoetara jotzeko pentsatua. Formula hau erdi bana finantzatu beharko lukete administrazioak eta familiek, nahiz eta onena hasieran administrazioak pisu handiagoa izatea litzatekeen. Gerora, etxeakoandreak/etxekogizonak autosufizienteak izan beharko lukete biziraupena eta independentzia bermatzeko, eta jakin beharko lukete beste edozein langilek bezalako lan ordaindua egiten dutela.

Aurreko orrialde batean aipatu dugun bezala, ez du zertan desberdintasunik egon inoren etxean egiten den etxeke lanaren eta nork bere etxean egiten duenaren artean. Baina azken honi soldata aitortzeko, lana etxean geratzen denez, familiak berak edo Altxor Publikoak ordaindu beharko lioke. Eta hauxe da, hain zuzen, etxeke lanak duen oztoporik nagusia.

Proposatzen dugun lan elkartuko kooperatibaren gizarte helburua etxeke lana egitea litzateke, lan hori oso-osorik nork bere etxean egitea, edo zati batean handik kanpo.

Ikus dezagun zelan funtzionatzen duen inoren etxean lan egiten duten pertsonak osatutako lan elkartuko kooperatiba batek: 1.- zerbitzua behar duen pertsonak kooperatibara jotzen du etxean zerbitzu bat (adibidez, garbikuzia) egingo dion langile bat eskatzeko; 2.- langile bazkidea lan hori egiteko eskatu duenaren etxera joan eta zerbitzua ematen dio, garbikuzia egiten du; 3.- zerbitzua jaso duen pertsonak ezarritako dirukopuru bat (hainbeste euro orduko) ordaintzen dio kooperatibari langile bazkideak egin dion lanagatik; 4.- kooperatibak, bazkide guztiek emandako zerbitzuengatik jasotzen duen diruarekin, denen gizarte segurantza ordaintzen du eta lansari-aurrerakin bat ematen die bazkideei, edo urtearen bukaeran itzulkina, bakoitzak egin duenaren lansaritzat, eta bazkide guztien artean banatuko da lanean jardun duten orduen arabera.

Orain antzerako eskema bat aplikatu beharko litzaioke nork bere etxean egiten duen lanari.

Etxeko lana egiteko kooperatiba bat eratuko da, euren etxean lanaldi osoan edo zati batean etxeko lana egingo duten pertsonekin, kooperatibako bazkideekin. Kooperatibak ez du ordaindu behar Ondare-eskualdatzeen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gainerako Zerga, beste sozietateek ordaindu behar duten bezala¹⁴. Kooperatiba bat martxan jartzeak sor ditzakeen gainerako gastuak Administrazioaren laguntza motaren batekin kitatu litezke, hasierako eta martxan jartzeko gastuei aurre egin ahal izateko.

Kooperatiba bateko bazkide izateko, Euskadiko Kooperatiben 4/93 Legeak eskatzen du bazkideek hasierako kapital bat ekarri behar dutela. Gure kasuan, kapital hori, Administrazioak guztiz edo neurri batean lagunduta jarri ahal izango litzateke, sozietateko bazkide izan nahi duten guztientzat edo batzuentzat (adibidez, maila ekonomiko baxuenekoentzat), edo Administrazioak hasierako diru-laguntza eman lezake, bazkideen kapital ekarpena txikiagoa edo sinbolikoagoa izan dadin. Beste aukera bat Administrazio bat kooperatibako bazkide izatea litzateke (Udala, Diputazioa, adibidez), baina kapitala ekartzen duen bazkide delarik eta bestelako jarduerarik egin gabe, bazkide kapitalista hutsa izatea. Horrek aukera emango lioke funtzionamendua eta sozietateak hasteko duen edo funtzionatzeko beharko duen diruaren antolaketa (neurri batean publikoa) kontrolatzeko.

Era batera edo bestera izan, interesgarri deritzogu kooperatibaren hasierako urrats horietan Administrazioa ekonomikoki inplikatzeari, errazagoa eta merkeagoa izango baita familien inplikazioa lortzea.

Hasierako kapital hori jarrita, bazkideek euren lana, etxeko lana, egingo dute, egoera zein den kontuan izanda, guri bururatzen zaizkigun hiru aukera hauen arabera.

1. aukera: Kooperatibarako eta familiarentzat neure etxean lanaldi osoan dihardut.

2. aukera: Jardunaldi osoa baino gutxiagoko lan-kontratu bat dut enpresa batean. Egunean ordu batzuetan enpresarako egiten dut lan, eta honek Gizarte Segurantzaren kotizatzen duen nigitik eta soldata bat ematen dit ordu horietan egindako lanagatik. Enpresa horretan lan egiten ez dudana gainerako orduetan neure etxean kooperatibarako eta neure familiarentzat dihardut. Irakasle, dendari, ingeniari,... lan egiten dut egun-erdian eta gainerakoan etxeko lanak egiten ditut, seme-alabei edo gurasoei laguntzen diet, e.a. Kooperatibako jardunean egun-erdiz bakarrik hartzen dut parte.

¹⁴ Kooperatiben zerga-erregimenari buruzko urriaren 14ko Bizkaiko 9/97 Foru Arauko 25. art.

3. aukera: Ez dut inolako hitzarmenik inongo enpresarekin. Jardunaldi osoan lan egiten dut kooperatibarako. Egunaren erdia neure etxean eta neure familiarentzat lan egiten dihardut, eta beste erdia garbikuzia egiteko, umeak zaintzeko, ezgaitu bat zaintzeko, e.a. kooperatiba kontratatu duen bezero batentzat lanean ematen dut. Egun-erdian egiten dudan lanagatik bezeroak honenbesteko bat ordaintzen dio kooperatibari zerbitzua eman dion enpresa den aldetik.

1. aukera: Kooperatibarako eta familiarentzat neure etxean lanaldi osoan dihardut.

Kasurik errazena bere etxean, bertan dauden beharrizan orokorrak betetzen (garbikuzia, intendentzia, e.a.) eta bertako pertsoneri (bikotekidea, edo/eta seme-alabak, "onuradun" esango diegunak) kargu egiten lan egiten duen pertsonarena da (gizonezkoa zein emakumezkoa, etxeoandrea/etxekogizona). Etxekoandreak/etxekogizonak ematen dien zerbitzuaren truke, onuradunek ekarpen ekonomiko bat egiten diote kooperatibari, hasieran etxeoandreak/etxekogizonaren Gizarte Segurantzako kotizazioa izango litzatekeena. Kooperatibari nire Gizarte Segurantzako kotizazioa 300 euro kostatzen bazaio (kopuru biribil bat ematearren, ez zehatza), "onuradunek" 300 euro emango dizkiote kooperatibari. 300 euro horiekin kooperatibak nire Gizarte Segurantzako kotizazioa ordainduko du. Ez dut soldatarik, baina kotizazioa edukitzea lortu dut eskubide batzuk gozatu ahal izateko.

Eredu honetan sartu ahal izateko baldintza bakarra inoren kontura lan egiteko kontraturik ez izatea eta profesional autonomo ez aritzea litzateke.

Eredu honen kontra berehala egin litekeen kritika kostu osoa familiaren lepotik jartzen dela da. Ados. Bila ditzagun kostu hori arintzeko eta banatzeko neurriak Administrazioarekin. Bi proposatzen ditugu: lehen gastu publikoa handitzea, eta bigarrena diru-sarrera publikoak murriztea

Lehen neurria izan liteke Administrazioetariko batek kooperatibako bazkide guztiei edo maila ekonomiko apalena duten familiei kotizazioaren zati batean laguntzea. Nire kotizazioa kooperatibak ordaintzen du zati batean familiak jartzen duenarekin eta bestean Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak,... jartzen duenarekin. Esan dudan moduan, hau bazkide guztientzat egin daiteke: adibidez, Foru Aldundiak honenbeste euroko laguntza ematen du bazkideen Gizarte Segurantzako kotizazioa ordaintzeko, eta aporazio hau denen artean banatzen da. Edo kooperatibako bazkide batek, eskaria aurkeztu ondoren, lor dezake kooperatibara egin behar den ekarpenaren zati bat Foru Aldundiak finantzatzea. Batean zein bestean, familiek ez liokete kostu osoari aurre egin beharrik izango.

Bigarren neurri bat familiak egindako ekarpenaren zerga trataerari lotuta joan liteke. Urtero, kooperatibak agiri bat luzatzen dio bazkide bakoitzari beronen lanaren kontura kooperatibara egin diren ekarpenekin eta Gizarte Segurantzaren horrek izan duen kostuarekin. Lehen aukera honen abiapuntua, familiaren ekarpena kotizazio bat lortzeko eta ez soldata bat lortzeko egiten dela bada, ekarpenek eta kotizazioek bat etorri beharko dute.

Agiri hau aurkeztuta, ekarpena egin duen pertsonak (adibidez, kasurik errazenean, etxekoandarearen/etxekogizonaren bikotekideak) eduki duen kostuaren konpentsazioa jasoko du zergen bidez. Bidezkoena iruditzen zaigun zerga konpentsazioa PFEZen oinarrian murriztea da. Horretara kooperatibari egindako ekarpenengatik ez dute zergarik ordaindu beharko, irabazi ez balitu bezala da. Irtenbiderik bidezkoena dela iruditzen zaigu, ekarpen hori egiteak ahalmen ekonomikoa gutxitzen baitio, eta hori oinarrian islatzen da. Bestalde, kopuru hauek pentsio planetara egindako ekarpenei egiten zaien tratamenduarekin parekatzeko modua da, azken batean xede "berdina" baitute. Zergetako parekatzea pentsio-planetarako aurreikusten den murrizketarekin, oraindik justifikatuago dago, zeren eta PFEZen araudi berriaren arabera, zergadunak pentsio-planeari dagokien murrizketa egin ahal izango du bere ezkontideak eurentara egiten dituen ekarpenengatik¹⁵. Zerga-onura hautemateko era honek bide ematen du PFEZ aurkeztu behar ez duten pertsonak ere onura jaso dezaten, kopuru horiek oinarritik kanpo geratzen direnez, subjektuak jaso duen errenta osoaren gaineko atxikipena handitu egiten baita

Zergaren kuotan ere ezar liteke dedukzio bat, adibidez, bikotekideak egin duen lanagatik kooperatibari eman zaizkion kopuruen %50.

Formula honek eskaintzen duen abantaila hau da: pertsona bati kotizazio erregimena mantentzen dio, adibidez, inoren kontura urte batzuetan ibili eta kotizatu ondoren, lanik gabe gelditu eta etxea eta/edo familia zaintzen hasten denari. Berdin baina aldearantziz, etxekoandre/etxekogizon izateari uzten diot inoren konturako lan bat aurkitu dudalako; kooperatibatik irten eta kotizatzen jarraitzen dut. Kasu bietan, daturik inportanteena da kotizazioa ez dela eteten, eta kooperatibako bazkideak etorkizunerako eskubideak sortzen jarraitzen duela.

¹⁵ Art. 62.4: "Los contribuyentes cuyo cónyuge no obtenga rendimientos de trabajo ni de actividades económicas, o cuando los rendimientos del trabajo resultantes de minorar el rendimiento íntegro en el importe de los gastos deducibles, y los rendimientos netos de actividades económicas obtenidos por el cónyuge, sean inferiores a 7.212,15 euros, podrán reducir en la Base Imponible las aportaciones realizadas a Mutualidades, Planes de Pensiones y EPSV de las que sea socio, participe o mutualista dicho cónyuge, con el límite máximo de 2.404,04 euros anuales"

Lana bikotekidearentzat eta seme-alabentzat barik beste pertsona batzuentzat egingo balitz ere, beti ere lehen aukera honetan, ez litzateke konplikaziorik egongo. Kooperatibak bi ekarpen jasoko lituzke negatiboki, bata bikotekideak egiten duena, eta bestea gurasoek egiten dutena, adibidez, eurak ere zaintzen ditudalako. Zerbitzu baten eta bestearen artean laneko denbora banatzen den proportzio berean banatuko da kooperatibara egiten den ekarpena ere. Kooperatibak bi ekarpenak egiten dituztenak, bikotekidea eta aita, esaterako, jasotzen dituen agiri bat luzatuko du, eta euretariko bakoitzak negatiboki kooperatibari egin dion ekarpenaren murrizpena edo dedukzioa egingo du PFEZen. Ekarpena egiten duenatariko batek, aitak kasurako ahalmen ekonomikorik ez badu, administrazioak diruz lagun dezake ekarpen hori, eta, oro har, ni berarekin nagoen denbora horretan gizarte laguntzaile bat ordaintzea baino merkeago aterako zaio.

Etxekoandreak/etxekogizonak bikotekidearekin batera zergak ordaintzen baditu ere, ez dago oztoporik kooperatibari egindako ekarpenegatik murrizpena egiteko.

Kooperatibak luzatzen duen agiriaren bidez kontrolatu ahal izango da ekarpena egin duenak egin duela murriztapena eta ez beste batek. Beraz, egoera honetan kontrol maila berdina eta, enpresa batek hirugarren batekin izan dituen harreman ekonomikoak justifikatzeko luzatzen duen agiri batez murrizpen edo dedukzio edo sarrera bat egitean gerta daitekeen iruzur arrisku berdina egongo litzateke.

2. aukera: Jardunaldi osoa baino gutxiagoko lan-kontratu bat dut enpresa batean, eta gainerakoan kooperatibarako egiten dut lan nire etxea eta familia zaintzen.

Egoera honetan bi jarduera egiten ditut batera: ordu batzuetan enpresarako egiten dut lan, honek Gizarte Segurantzari ordu horienegatik kotizatzen du eta soldata bat ordaintzen dit; eta enpresan lanean ez nabilen orduetan kooperatibarako egiten dut lan nire etxean eta nire familiarentzat.

Kasu honetan aurreko kasuko ideia eta formula berdinak komentatu beharko lirateke, baina berezitasun batekin: kasu honetan familiaren lepora datorren kostua txikiagoa da, kotizazio osoak sortzen dituen eskubideak lortzeko, badagoelako subjektu bat, beste enpresa, kotizatu beharko nukeenaren zati bat negatiboki kotizatzen duelako. Gauzak horrela, nire bikotekideak/ezkontideak, nire aurreko ahaideek,... nik zerbitzua ematen didan nire familiako pertsonak gutxiago ordaindu beharko diote kooperatibari, kotizazio osora iristeko falta zaidana. Eurek PFEZen duten zerga-onura, murrizpena edo dedukzioa, berdina izango da, baina ordainketa txikiagoa izan denez, zerga-onura ere txikiagoa izango da.

Etxekoandreak/etxekogizonak PFEZen aitortpena egin behar badu, ez ditu Gizarte Segurantzari beragatik egiten zaizkion ekarpenak sartu behar, ez baitiote errentarik edo ordain-saririk ematen, eta gainera, langileek ez dutelako zergarik ordaindu behar Gizarte Segurantzaren enpresak ezartzen dituen kopuruengatik.

3. aukera: Lanaldi osoan dihardut kooperatibarako, jardunaldiaren zati bat neure etxea eta familia zaintzen ematen ditut, gainerakoan hirugarren bati ematen diot zerbitzua.

Kasurik konplexuena da, baina etxekoandreak/etxekogizonari kotizazioa lortzeko ez ezik berehala ordain-saria jasotzeko era emango diona, orain etxean dohainik egiten duen lan berdina egiteagatik. Hemen ordain-sariaren ideia agertzen da eta uste dugu egoera hau etxekoandreak/etxekogizonari soldata aitortzeko formuletarako bereziki interesgarria dela.

Denbora %50ean banatzen abiatuz, honela garatuko litzateke. Nire kotizazioa ordaintzeko 500 euro behar badira, familiari (erraztearren, bikotekidea eta seme-alabak) lanaldi erdia eskaintzen diodanez, hauek kopuru horren erdia ordaindu behar liokete kooperatibari, 250 euro, goiko beste kasuetan aipatu dugun bezala PFEZen deduzitu daitekeelarik kopuru hori.

Hirugarren batzuei zerbitzua ematen diegan egun erdiagatik, hirugarren horiek merkatuko prezioa ordainduko liokete kooperatibari, eman dezagun 720 euro hilean. 720 euro horietatik, kooperatibak 250 hartuko lituzke eta nire familiak ekarritako beste 250ekin, Gizarte Segurantzari ordaintzeko balioko liokete, eta gainerakoa, 470 euro, eman egingo lizkidake, soldata izango litzateke. Kasu honetan, kooperatibak luzatutako agirian nire bikotekideak emandako 250 euroak eta hirugarrenek emandako 720 euroak agertuko lirateke. Nire bikotekideak jarritako 250 euroak PFEZen deduzitu egin ahal izango dira, aurreko kasuetan bezala. Ezin izango lirateke deduzitu hirugarrenek PFEZen eurek jarritako 720 euroak, ezin izaten baita etxea garbitzera edo umeak zaintzera datorkizunaren soldata deduzitu.

Iruzurra saihesteari dagokionean ereduaren ardatza hauxe da: ezin dira pertsona baten PFEZen deduzitu kooperatibari emandako diru-kopuruak eta etxekoandreak/etxekogizonaren ordaintzeko izan direnak. Deduzitu ahal izango den bakarra Gizarte Segurantzarako emandakoa da. Gertatuko balitz kooperatibak luzatutako agirian familiak ekarritako kopurua Gizarte Segurantzari kotizatutakoa baino gehiago dela ikustea, kotizazioa baino ezin izango da deduzitu, argi baitago familiak egindako ekarpenean niretzat errenta erreala den zati bat dagoela, eta errenta (onura) ezin da PFEZen deduzitu.

Azken bide honetatik abiatuta, baliteke emakume askok, kasurako euren kontura seme-alabarik ez dutenean, edo bakarrik bizi direnean, jardunaldi osoan hirugarren batzuei zerbitzua ematen jardutea eta soldata jaso ahal izatea, nahiz eta antolaketa mota honetarako beste kooperatiba batzuk sor daitezkeen. Gureak nork bere etxean egiten duen etxeko lanaren inguruan aritu nahi du, neurri batean beste batekin batera egin arren errenta bat jasotzeko bide moduan.

Hala ere, formula honek, argi eta garbi, etxeko lanetan kotizatu gabe, kontraturik gabe, e.a. ari diren emakume askoren lan egoera erregularizatzea lortuko luke. Kooperatibaren bidezko lanak emango lizkiekete eskubide horiek guztiak. Etxe berean jarraitzen dut lanean baina etxeko arduradunak kooperatibaren bidez kontratatzen nau, eta kooperatibari ordaintzen dio. Inongo zalantzarik gabe, gaur egun ezkutuko ekonomiaren barruan dauden laneko prestazio asko argitara ekarriko lituzke.

Jakin badakigu proposatzen dugun ereduaren aztertu eta hobetu beharreko arloak daudela, baina uste dugu nahiko formula koherentea dela abiapuntuen eta planteatutako helburuen aldetik. Onuragarria litzateke epe labur eta ertainean gaur egunean etxeko lana aitortzen ez dutenentzat, batez ere emakumeentzat, baita Administrazioarentzat ere diruaren zirkulazioan duen ekarpenagatik, Gizarte Segurantzako kotizazioen kopuruan eta zenbatekoan, etxearen zerbitzuko lanarekin lotutako ezkutuko ekonomia blokeak azaleratzeagatik, BEZ ere agian sor lezakeelako, e.a.

Gainera, pixkanaka gurgil batean sar liteke, eta kooperatibista bat jubilatzean, bere etxea zaintzeko zerbitzua edo bera zaintzea bazkide gazteago batek egin dezake. Jubilatua, kooperatibako kidea izateagatik, pentsio bat jasoko lukeenez, bazkide gaztearen Gizarte Segurantzako kotizazioaren zati bat ordaindu egin ahal izango luke, eta bazkide izateagatik, agirian azalduko litzatekeenez, gaztearen PFEZen deduzitu ahal izango litzateke eta familiakoenean egiten den neurri berean, beti ere kotizazioen atalean eta ez errentarenean.

Baina proposatutako ereduaren abantailarik azpimarragarriena zera litzateke: etxeko-andrearen/etxekogizonaren inguruan eratuta dagoenez, berdin dio zer-nolakoak diren beronen familiako harremanak, legez banatuta dagoen edo izatezko bikotean bizi den, zaintzen zituen ahaideak hil diren, kooperatiban etxeko lana egiten jarraitzen duen bitartean, berarekin bizi direnentzat edo zaintzen dituenentzat, bizitzan zehar desberdinak badira ere, edo hirugarren batzuentzat, kotizazioak eta eskubideak sortzen jarraituko du.

ONDORIOAK



LEHEN ZATIA: ETXEKOANDREAREN/ ETXEKOGIZONAREN LANA LAN ZUZENBIDEAREN IKUSPEGITIK

1. Etxekoandreen/etxekogizonen taldearena da, gaur egun, Zuzenbide orokorrak eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzenbideak bereziki gaintitu gabe duten gaia. Pertsona hauek gizartean baloratuak izan daitezten juridikoki ere kontuan hartu behar dira.

2. Juridikoki ezin dira etxekoandreak/etxekogizonak besteren kontura diharduten langiletzat edo etxe-zerbitzuko langiletzat hartu, horrek inorentzat egiten dela lan eta mendekotasuna dagoela suposatzen baitu, eta hori ezkontzan edo izatezko bikote batean aplikatzea arau konstituzionalen kontra egon daiteke edo gehiegikeriak ezkutatut ditzake —indarkeria psikikoa eta tratu txarrak— bikotearen barruan¹.

3. Talde hau babesteko beste aukera batzuk baztertuta, printzipioz etxekoandrea/etxekogizona langile autonomoen kontzeptu eta erregimenaren barruan koka liteke, malguak izan behar badugu ere pertsona hauek erregimen horietan sartzeko baldintzei dagokienez. *Langile Autonomoen Erregimenean etxekoandreak/etxekogizonak sartzeari berriro aztertu beharreko kontua da.*

4. Ezinezkoa da langile talde honentzat soldata edo ordain-sari bat egotea. Hala ere, euren etxean eta euren etxerako lan egiten duten langileek gainerako langile autonomoek dituzten prestazioak jasotzeko eskubidea eduki beharko lukete. Horretarako beharrezko baldintza da Gizarte Segurantzaren kotizatzea.

5. Soldatarik ez dagoenez, kotizazioak ezkontidearen soldatetik edo izatezko bikotean bizikidearenetik kendu beharko lirateke. Ezkontutako edo izatezko bikoteak, *erabat borondatez*, euren baten lana eta babestuko duen erregimen hau izango dela erabaki duenean hasten da derrigortasuna.

6. Kotizazioaren zenbatekoak familiako errentaren arabera izan beharko luke; horretara konpondu egingo litzateke egoera ekonomiko hobean dauden familiek bakarrik kotizatu eta etorkizuneko prestazioak izatea.

¹ Ildo honetatik, ezkontzaren eta izatezko bikoteen parekatze juridikoak erabatekoa izan behar du.

7. Prestazioak jasotzeko gabealdiak gaur egunekoa baino zabalagoa izan beharko luke, eta horretara saihestu egingo litzateke Gizarte Segurantzako pentsioak erostea. Hala ere, irizpide ekonomikoak ezin dira gizarte eta giza duintasuneko irizpideen gainetik egon.

8. Etxekoandrea/etxekogizona Langile Autonomoen Erregimenean sartzeak esan nahi du langile horiek talde honi aitortzen zaizkion Gizarte Segurantzako prestazio *guztien* onuradun izango direla, ez bakarrik erretiroko pentsioaren onuradun. Beste edozein langile taldek bezala, etxeaz arduratzen direnok ere onura guztien beharra dutela frogatu ahal izan da.

9. Etxekoandrea/etxekogizona ekonomikoki subjektu ez-aktibotzat jotzeak beronen lana deskalifikatzea eta lantzat ez hartzea dakar. Kontu Sateliteak sortzeak eta euren lehen emaitza estatistikoek erakutsi dute zein balio handia duen Barne Produktu Gordinerako *lan erreproduktiboak*. Etxekoandreak/etxekogizonaren lanak balorazio ekonomikoa izateko eman diren lehen urrats hauen ondoren babes juridikoa eman behar zaie lan horiek egiten dituztenei.

10. Lan hau mentalitate zabalez baloratu eta irakurri behar da, bestela emakumea bere etxean, etxeko lanetan zokoratu nahi dela eman dezake, orain arte lanean eta etxeko lanen banaketan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna lortzeko egin den lan guztia pikutara bidaliz. Lanaren hasieran esan genuen bezala, ez da hori gure asmoa, ezta gutxiagorik ere, bere borondatez edo aldi baterako lan horiek egitea erabaki duen edo egin behar dituen etxekoandreak/etxekogizonak egiten duen lanari bere balioa ematea baizik; baina gizonen eta emakumeen artean lan baldintza berdinak lortzeko eta familiako bizitza eta lanekoa uztartzeko asmoa alde batera utzi gabe. Ez dugu ahaztu behar, alde batetik, emakumeak direla kanpoko eta etxeko lanari ordurik gehien eskaintzen diotenak, eta bestetik, ordaintzeko orduan desberdintasunek bere horretan jarraitzen dutela eta enpleguaren kalitateak behera egin duela. Herrialde industrializatuetan, emakumeak laneko indarrean gero eta gehiago parte hartzea egun erdiko lanaren hedapenaren ondorioa da. Ia herrialde guztietan, munduan dagoen lehiak ezarri duen errendimendu ekonomikoa bilatu beharrari lotuta, gero eta gehiagotan jotzen da emakumeengana laneko indar malgu eta merke gisa, eta horrek lanpostu egonkorak eta lanaldi osorakoak mugatzea dakar atzetik. Aurrerakuntza teknologikoak urritu egin ditu kualifikazio eskaseko lanpostuak, emakumeak gehien ziren kategoriakoak. Emakumeek egin ohi zituzten lan batzuk zaharkituta geratu dira, bulegoko lana, industriako muntaia lana eta nekazaritzako eskulanak barne. Egoera horrek lan mota ez hain tipikoak garatzea dakar, adibidez lanaldi erdikoa, aldizkakoa, azpikontratatua edo etxean egiten dena. Lan mota horiek prekarioak izan ohi dira, gaizki ordainduak, prestakuntzarako aukera gutxiago ematen dute eta karrerarako ikuspegi kaskarragoak. Baina are gehiago, lan hauek nekez izaten dute legearen, laneko hitzarmen kolektiboaren eta Gizarte Segurantzaren babesa, etxetik lanean, kasurako, ger-

tatzen den bezala². Ez ditugu irtenbiderik gabe dauden arazo handi horiek ahaztu, ezta beste batzuk ere, besteak beste, jaiotza-tasa handitzeko estatuaren laguntza handiagoa lortu beharra eta beharrian pertsonalak eta familiakoak asetzeko eta gizonen eta emakumeen lan produktiboa ahalbidetzeko gizarte zerbitzu komunitarioak garatu eta egokitu beharra, eta aukera honetaz baliatzen gara hemendik horiek denak erreklamatzeko³.

11. Langile Autonomoen Erregimena sakonago aztertu behar da talde berezi honi aplikaturik, baita lan mota hau sustatzeko neurriak ere. Hala eta guztiz ere, barne mailan zein maila komunitarioan, lan autonomoa edo norbere kontura egiten dena sustatzea-ri lotuta joan behar da lan hori egiten duenaren babes juridikoa bermatzeko neurriak sortzea. Honek besteren konturako zein norbere konturako lanari dagokion Lan Zuzenbidea onartzea dakar, neurri batean behintzat. Horrela ikus daiteke enplegu politikaren ikuspegitik Lan Zuzenbidearen aplikazio subjektiboaren arloko eztabaidara jotzen dela. Izan ere, kalitatezko enplegurako neurriek baldintzatu egiten dute kantitatezko enplegu politiken eraginkortasuna. Lan autonomoaren erregimen juridikoak behar adinako babesik ematen ez badu, ez du sustatuko lan egiteko modu honetan sartzea edo bertan luzaro irautea, behintzat. Norbere kontura lan egiteko baldintzetan gutxieneko babesa bermatzen bada soilik lor daiteke lan autonomoa enplegu bide normalizatua izatea, eta ez azken errekurtsua edo behin-behineko neurria izatea, besteren konturako lana lortzeko zailtasuna dagoenean. Hortaz, lan-babes hori zabaltzea, enplegu autonomoaren inguruko politikako neurrien eraginkortasunaren oinarri bat da eta, garrantzi juridikorik handiena duena, lortu nahi den lan askatasunaren oinarria ere bai—lan askatasunaren agerkari nagusia baita besteren konturako lana edo norbere konturako lana aukeratzea edo biak tartekatzea bizitza profesionalean—⁴.

² OIT. KOMUNIKAZIOA, *La mujer y el mundo del trabajo: los costos sociales de un verdadero progreso*, <http://www.ilo.org/public/spanish/bureau/inf/pkits/women1.htm>, 3. or.

³ Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planeko helburuen artean sartuta dago.

⁴ GUTIÉRREZ SOLAR CALVO, Beatriz, "La política de empleo autónomo", in *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 33. zk., 2001, 277. or.

BIGARREN ZATIA: ETXEKOANDREAREN/ ETXEKOGIZONAREN LANA ZUZENBIDE ZIBILAREN IKUSPEGITIK

Zuzenbide zibilaren ikuspegitik egindako azterketak familiaren eta zuzenbidearen arteko harremana hartzen du ardatz. Zera aztertu da: ordenamendu juridikoak etxea zaintzea nola ikusten duen, nork hartzen duen bere gain jardun hori eta nola aitortzen den indarrean dagoen ordenamendu juridikoan. Era berean, *lege ferendako* proposamenak familian txertatzeko ahalegina egin da.

1. Zuzenbide zibilak etxeko lana ezkontzako kargetara egiten den ekarpentzat jotzen du (Kode zibileko 1438. art., Kode horretako 1318. artikuluekin lotuta). Kalifikazio bera eman behar zaio nork bere familia zaintzeari izatezko bikoteen kasuan ere, bien etxea zaindu beharrak antzeko beharrianak sortzen baititu. Halaxe iritzi diote puntu hau arautu duten lege autonomiko desberdinek

Etxean egiten den ekarpen hau, hortaz, ez da "doakoa" edo "desinteresatua", nahiz eta horrela dela sentitu, ez baita ezer trukean jasotzen, hurbilekoen maitasuna edo asetasun morala edo pertsonala izan ezik. Juridikoki kontuan hartzen da. Ezkontzaren barruan eta ezkontzaz kanpoko harremanetan legezko onarpena du. Hau da, lan hau egiteagatik ez da soldatarik jasotzen, baina familiako bizitza (etxea, umeak,...) aurrera eramaten eta zaintzen ari dela ulertzen da. Beste kontu bat da aitorten hori noraino-koa den eta nolako ondorioak sortzen dituen.

2. Etxea zaintzea biei dagokien betebeharra da, berdintasun juridikoko oinarria aplikatuta, eta oinarri hori ezkontideen eskubide eta betebeharrak guztietara hedatzen da. Etxerako lana bikoteko kideek erabakitzen duten eran egin daiteke (biek, edo bietako batek eskusiboki, edo lanak banatzea adostuta, kanpoko laguntzaz edo laguntza barik,...). Dena dela, banaketa berdintasun, duintasun eta askatasun printzipioetan oinarrituta egin beharko da. Printzipio horiek lanen banaketako benetako berdintasunaren oinarri juridikoak dira.

3. Ezkon bizitzan edo elkarbizitzan zehar etxeko ekarpen horren balioa ezkutuan dago, benetan ezkutukoa da ondorio juridikoetarako. Elkarbizitza hori hautsi edo apurtzen denean azaleratzen da etxeko dedikazioa Familia Zuzenbideari dagokionez. Orduan ematen zaio balioa egindako ahaleginari eta horretan emandako denborari, baita kanpoan ordaindutako jarduera bat egiteari uko egin izanari ere (borondatez edo "derrigorrean").

4. Arau juridikoek etxeko ardura hori maitasunezko harremanaren amaieran bi kontutan zehazten dute:

a) Ezkontideak banatu edo dibortziatzen direnean desoreka ekonomikoan geratzen den ezkontideari ematen zaion pentsio orekatzailean (Kode zibileko 97. art.), ezkontzako erregimen ekonomikoa dena delakoa izanda ere.

b) Ondasunen bananketako kasuetan (Kode zibileko 1438. art. eta erkidegoetako antzeko arauak) eta *more uxorio* harremanak hautsi ondoren (kontrako hitzarmenik egon ezik) eman beharreko konpentsazioan.

5. Pentsio orekatzaileari dagokionez, 97. artikulua araberaz, kalkulatzeko faktore nagusietako bat familiari eskainitako dedikazioa da, ardura hori izan duena lan merkatutik aldentzea, eta gerora merkatu horretan sartzeko eta diru-sarrera propioak izateko zailtasuna ekarri duen neurrian. Egoera horrek sorraz dezakeen desoreka ekonomikoa arintzea da helburua. Hortaz, pentsio horrek ez du nork bere etxeko ardura izatea ordaintzen; ardura hori pentsioa emateko erreferentzia historikoa baino ez da. Zentzu horretan, pentsioan ez dago familia zaintzeagatik ordainketarik, praktikan azpian egon daitekeen arren, etxeko lanen ardura izana izango baita sarritan desoreka ekonomiko horren arrazoia.

6. Ondasunen bananketa duten ezkontzetako konpentsazioari dagokionez (1438. art.), etxeko lana zuzenago aitortzen da, elkarrekin bizi izan diren artean beste bikotekideak izan dituen irabazietan etxeko ardura izan duenak parte izatea baita helburua. Ezinezkoa da bide hau erregimen komunitarioetan: irabazienean, eurentariko edozeinek kostu bidez lortutako edozer biera erdibana baita; eta partaidetzakoan, egoki den proportzioan egiten baita. Baina bananketakoan, ezkontza erregimen hau likidatzeko arauak aplikatzeak ez du partaidetza horretarako biderik ematen. Ez dago inolako loturarik independenteak diren bi ondareen artean. Ondorioz, etxeaz, adostu bezala, arduratu denaren aldeko kreditu bat sortzen da, legez biei zegokien obligazio bat bete delako.

7. Bananketako erregimena desnaturalizatu egiten da horrela, batak bestearen irabazietan parte izateko printzipio teorikoa beteko ez delako. Konpentsazio hori egoteak etxeko ardura izan duen ezkontidea hurbildu egiten du, ezkontza erregimena edozein izanda ere. Badaude aldeak, ordea. Irabazien erregimenean erdi banakoa izatetik, partaidetzakoan dagokion portzentajera; edo ondasunen bananketakoan, epaileak zehaztutako kopurura, akordiorik egon ezean. Egia esan, Kodeak ez du zehatz-mehatz esaten konpentsazio hori nola kalkulatu den. Are gehiago, 1438. artikulua hitzari estu lotuta, pentsa genezake legegileak etxerako lanaren balorazio objektiboagorantz jotzen duela. Baina ez da horrela. Balorazio hori zehaztean, ez da egoki etxeko lanaren hurbilketa objektibo batera jotzea. Bai jurisprudentziak bai autonomietako legediek ulertzen dute konpentsazioak ezkontideen arteko ondarearen desberdintasuna kon-

tuan izan behar duela bidegabeko aberastea egon dela probatzeko. Kataluniako erki-degoa erreferente interesgarria da puntu hauetan, euren zuzenbide zibilean ondasunen bananketako erregimena baita subsidiarioki eraentzen duena, eta beraz praktikan gehien gertatzen dena baita. Ez datoz denak bat "bidegabeko aberastea" zer den ulertzeko orduan. Doktrinak eskatzen dituen baldintza guztiak gertatu behar diren printzipio horretara jotzeko, ala nahikoa den ondarean desberdintasuna dagoela probatzea etxetik kanpo lan egiten duena etxean dohainik lan egiten duenaren lepotik aberastearen ideia generikoaren azpian. Juridikoki elkarrekin bizi izan diren artean egin behar zuen giza kapitaletan inbertsio handia egitea aurrezten du, biek adostuta (agerian edo ezkutuan) beste parteak egin duena (guztiz edo neurri batean).

8. Antzerako irizpidea ezartzen da izatezko bikoteak hausten direnean. Kontrako hitzarmenik egon ezean etxerako lanagatik ere konpentsazioa eska daiteke. Ratio iuris delakoa bananketako erregimenaren antzekoa da (aldeek euren harremanak era desberdinean eraentzea adostu ez badute). Arrazoi horrengatik, jurisprudentziak ondo ikusten du ezkontuta ez dauden bikoteetan ondasunen bananketako arauak analogiaz aplikatzea. Bide horretatik harremanak iraun duen bitartean etxearen ardura izateak sortarazi duen ondare desberdintasuna zuzentzen da. Lehenago auzitegiek bidegabeko aberastearen doktrinara jotzen zuten, puntu hau arautu duten arau autonomikoek agerian egiten duten bezala (Katalunian, Aragoian eta Nafarroan; Valentziakoak ez dio ezer).

Egia esan, ez dago barneko desberdintasun handirik bananketa erregimeneko analogiara jotzearen eta bidegabeko aberastearen oinarritzearen artean, sistema horren konpentsazioaren kalkuluan desberdintasuna eta balizko bidegabeko aberastea kontuan izaten baita, lehen esan den bezala.

9. Balizko konpentsazio edo kalte-ordain hori ematean, berdina dio zein izen ematen zaion, kontuan izan behar da "lanaldi bikoitza" nortzuek egiten duten, bai ondasunen bananketako erregimenean bai izatezko bikoteetan. Halako egoera batean ere ezin zaio etxeko lanagatik konpentsazioa jasotzeari ezetz esan, etxetik kanpoko jarduera bat egiten dela-eta. Bikoteko kide biei dagokien lana egiteagatik (etxeko lanak egiteagatik kasurako) sortzen den kreditua de facto batek bakarrik, eskusiboki edo ia eskusiboki, egin behar duen unetik sortzen dela ulertzen dugu, ardura horri etxetik kanpoko jarduera bat gehitu dion ala ez kontuan hartu gabe.

10. Kontua quantuma zehaztea da. Zentzu honetan proposatzen dugu hasierako erreferentzia puntu gisa etxeko lana baloratzen den kopuru objektiboa hartzea. Zifra horrek ez du zuzenean ordaindu beharreko konpentsazioa izan behar, juridikoki desegokia litzateke-eta, elkarrekin bizi izan diren denboran bikoteko kideetako batek familiari egin dion ekarpena islatuko duen parametroetako bat izango da. Hortik aurrera egoki izango da kide bien ondarearen egoera konparatzea eta batera gertatzen

diren beste zirkunstantzia batzuk baloratzea. Beste kuantifikazio sistema batzuek (EUS-TAT, Emakumearen Institutu Katalana, Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseilua, Emakumearen Institutua,...) ere sustatu dituzten botere publikoek bultzatu duten onarpen ekonomikoak eta kuantifikazioak balio dezakete BPGn etxeko produkzioaren eragina ezagutzeaz eta Kontabilitate Nazionalean sartze desiragarriaz gain, ondare izaerako beste gai juridiko batzuetarako ere.

11. Familia Zuzenbidean indarrean dagoen ikuspegitik, orain arte ikusi ahal izan den bezala, atera daiteke etxeko lanak baduela onarpena ezkontzak *irauten duen bitartean* familiako kargetan egiten den ekarpen gisa, baina harremanaren bukaeran agertu edo azaleratzen dela, ezkontza iraungitzean edo krisia sortzean, pentsio eta kalte-ordainen bidez, baita ezkontza erregimena bera likidatzearen bidez ere. Baina duela aldi batetik honantz, etxeko ardura duenak, bikotearen harremaneko berezko kontsiderazio horrez gain, Zuzenbideari beste zerbait eskatzen dio: jarduera hori, berez, benetako lantzat hartu dadila. Halaxe ulertzen dute egunero ahalegin guztia etxea zaintzen jartzen duten milaka emakumek (gizonak, oraindik, gutxiengoa dira). Begibistakoa da giza kapitaletan sekulako inbertsioa eskatzen duela eta, dirutan neurtuta egon ez arren, balio ekonomiko eta juridikoa onartu behar zaizkiola. Bide honetan aurrera egin beharra eta ordenamendu juridikoari aldaketa sakona eskatu nahia nabaritzen dira.

12. Zuzenbideak familia kontsumo eta etxeko ekoizpen unitate eta ekonomia atipiko edo informala sortzen duen ideiarekin oihartzuna jaso beharko luke. Orain arte ekonomian ikusezina izan da, baina gero eta agerikoagoa, ondare kutsu handiagokoa da, garai berriei egokitutako erantzun juridikoa eskatzen duena. Bai ekonomia bai soziologia ikuspegi berria markatzen ari dira lauogeigarren hamarkadatik hona, etxekoandrea ikusezintasun horretatik ateratzeko. Hala ere, orain arte Zuzenbideak ez du jaso ezta kontuan izan ere etxeko lana benetako lantzat.

13. Ikerlan honetan nork bere etxeko lana lantzat juridikoki onartzea proposatzen dugu eta *lege ferendako* proposamen batzuk aztertzen saiatzen gara lan horrek onarpen "agerikoagoa" eta eraginkorragoa izan dezan formula juridikoak lantzeko. Lehenik eta behin, baztertu egiten dugu etxekoandreak/etxekogizonak aurrekontu publikoetatik "soldata" bat jasotzea. *Lan kontsiderazio horrekin koherentzia falta* erakutsiko luke. Nork bere etxean jardutea lana bada, horretakotzat hartzea merezi du. Eta gainera, *familia unitate ekonomikotzat*, denbora eta ahalegina inbertitzen diren *enpresa txikitzat hartzearekin ez letorke bat*. Giza kapitaletako inbertsioa jasotzen duen horrek sortu beharko lituzke baliabideak etxekoa bezain lan atipiko, ikusezin, ezkutuko bat juridikoki ageriko bihurtu dadin.

14. Norbere etxeko lana lantzat onartzeak etxekoandreak/etxekogizonak, langile den aldetik, eskatzeko eskubidea duen eskabide batzuk aintzakotzat hartzea eskatzen du.

Euren artean, erretiroko pentsio bat gozatzeko nahia azpimarra dezakegu, Gizarte Segurantzaren erregimenaren barruan jaso ditzaketen beste batzuek gain (amatasuna, lanerako ezintasuna). Eskubide horiek onartzeko etxeoandrentzat/etxekogizonentzat apropos sortutako kontribuzio sistema bat ezarri beharra dago. Eta gai juridiko laboralaz gaindik, ezkontza eta ekonomiako beste gai batzuk planteatzen dira. Oinarrizko oztopoa etxeo lana ordaindua ez izatea da, beraz Gizarte Segurantzari egin beharreko ekarpenak familiaren ondarean inkardinatu beharko lirateke. Erregimen batean edo bestean (irabaziena, bananketakoa,...) kotizazio gisa ekarritako kopuruei eman beharreko kalifikazioa aztertzea eskatuko luke, kontuan izanik ezkontzan zehar egindako lanaren konpentsazio moduko bat dela ezkontza iraungitzen bada. Beste irtenbide alternatibo bat ezkontide edo elkarrekin bizi diren pertsonen Gizarte Segurantzako kuotak irabazitakotzat jotzea izango litzateke, interesatuek horrela nahi badute, eurentariko bakoitzak, dibortziaz gero edo oro har, bakarka aseguru karrera independenteak izan ditzaten. Etxekoandrentari/etxekogizonari etxeo lana zeharka onartuko litzaiotke ezkontidearen kanpoko lan ordainduagatik sortuko liratekeen ekarpenak erdi banatuta. Azken aukera hau ekonomikoki egingarriagoa da, baina ez du etxeo lanak egitea berezkitzat onar dadin laguntzen. Etxeko lanok egiten dituenak jasotzeko eskubidea izango lituzkeen prestazioak ez lirateke bere eskubidez sortuak, beste pertsona baten jarduerak sortuak lirateke.

HIRUGARREN ZATIA: ETXEKOANDREAREN/ ETXEKOGIZONAREN LANA ZERGA ZUZENBIDEAREN IKUSPEGITIK

1. Zerga Zuzenbideak ez du etxeoandrentzen/etxekogizonaren egoera ia kontuan hartzen, nahiz eta pertsona honek egiten duen lanak gizartearentzat duen balioa agerikoa izan.

Zerga-arauek hirugarren batentzat ordainduta egiten den etxeo lana kontuan hartzen badute, etxeoandrentzen/etxekogizonaren egoera ahazteko egon daitekeen arrazoi bakarra hauxe izan daiteke: familiaren barruan egiten denean ez dela ordaintzen. Hala ere, ordainketa edo errentarik ez jasotzea beste kasu batzuetan ere gertatzen da (gobernuz kanpoko erakundeak, irabazasmorik gabeko erakundeak,...), baina guk aztertzen dugun kasuan ez bezala, zerga-araudiak bai jasotzen ditu.

Gure iritziz, egoera hau zuzendu egin beharko litzateke, etxeko lanari benetako balioa aitortzeko egoki diren neurri fiskalak hartuz.

2. Etxeko lanaren balioa aitortze bidean, Zerga Zuzenbideak funtsezko zeregin bat du, dedukzio, hobari, eta lan honetan diharduten pertsonentzat pentsatuta dauden beste zerga-hobari batzuetara joz, pertsona horiek gizarteari egiten dioten "gauzatako" ekarpena konpentsatzeko zergen bidez. Ildo honetatik ideia bat dedukzio gehigarri bat aurreikustea izango litzateke, nork bere kargura dituen aurreko eta ondorengo ahai-deentzat aurreikusitakoez gain, pertsona hauek familiako batek zaintzen baditu. Horretara saihestu egingo litzateke pertsona horiek administrazioak zaindu eta horretarako baliabide publikoak bideratzea.

3. Gaur egunean jaiotzak sustatzeko politikak emakume langileak seme-alaba gehiago izatera bideratuta daude huts-hutsean, eta ahaztu egiten dira badaudela beste emakume batzuk etxea zaintzen aritzen direnak eta jaiotza-tasa handitzen lagunduko luke tenak zenbait eskubide, laguntza, edo euren egoerara bereziki egokitutako mekanismoak aitortuz gero.

Gure ustez, gaur eguneko gizarteak, gaur eguneko zuzenbideak, pertsona bati nahi duen laneko edo familiako bizi-tza hautatzeko aukera emateko bezain heldua izan behar du (bakoitzak dituen posibilitate edo egoeren barruan). Hala, emakumeen kasuan zein gizonenean, erabakia hartzen dutenek lanpostu bat izateko, karrera profesionala garatzeko aukera izan dezatela, ama izateari uko egin barik, seme-alabekin bizi eta eurak hezteari uko egin barik, eta kontrakoa erabakitzen dutenek etxea eta familia zain dezatela etorkizuneko prestazioei begira eskubide batzuei uko egin barik, ezta etxerako eta etxekoan zerbitzura egindako lanagatik ordain-saria jasotzeari ere.

4. Etxeko lanetan diharduten pertsonen arazoak aztertzean, etxeko lanetan huts-hutsean diharduten pertsonak eta kanpoan lanaldi partzialean dihardutenak hartu behar ditugula ardatz uste dugu. Bi kasuetan helburua izango litzateke, soldata osoa ez bada ere, Gizarte Segurantzako lanaldi osoko kotizazioa behintzat lortzea. Badakigu jakin emakume askok lanaldi osoan kanpoan lan egin eta gero etxeko lanei aurre egin behar dietela eta oso egoera bidegabea dela. Hala ere, pertsona horiek ez ditugu kontuan hartuko, kotizazio batzuk dagoeneko sortu egiten dituztelako eta egiten duten lanagatik ordain-sari bat lortzen dutelako. Ez da hori gertatzen, ordea, etxekoandarearen/etxekogizonaren kasuan, eta, hain zuzen ere, puntu hori da gure lanaren abiaburu nagusia.

5. Etxekoandarentzako/etxekogizonentzako soldata, edo gutxienez, kotizazio bat izateko eskubidea aitortzeko orduan dagoen zailtasun nagusia finantzazioa aurkitzea da. Administrazio Publikoek dagoeneko eman diote ezetza finantzazioari, gastu publi-

koa biderkatu egingo litzatekeelako kotizazio eta/edo soldata horiek ematea euren esku egonez gero. Ez dirudi bidezkoa, ez egokia ez bideragarria, halaber, gastu guztia familiek ordaintzea.

Egoera bi hauek aurrean ditugula, kofinantzazio formula batetik abiatuko litzatekeen eredu baten aldekoagoak gara, bidea urratu ondoren, pixkanaka administrazio publikoen eta familien ekarpenetan eta eskubideen antolakuntzan eta hobekuntzan lan egiteko.

Bide honi jarraitzen dio lanaren bukaeran proposatzen dugun ereduak. Kostua banatu egingo litzateke, nahiz eta gure ideia arabera interesgarriena autofinantzazio formulatara jotzea izan.

6. Familia-unitateko kide batek etxeko lanak egiten dituen kasurako PFEZen arauak planteatzen dituzten dedukzioen inguruko punturik interesgarrienetariko bat lan horretan diharduten pertsona guztiei (egoera ekonomikoaren arabera) aplikatu dakiekeen ala ez erabakitzea litzateke.

Lanaren balioaren ikuspegitik, lan hori berdin baloratu behar dela uste dugu familiak duen ahalmen ekonomikoa alde batera utzita, nahiz eta politika ekonomiko fiskal moduan planteatu daitekeen honenbesteko diru-sarrerak dituzten familiei etxeko lanarekin lotutako murriztapenik edo dedukziorik ez aplikatzea, baina aurrekoa gertatuz gero konpentsazioko dedukzio bat sortuko da etxe-zerbitzuko prestazioa ordaintzeko kopuruaren gainean. Horretara etxeko lanak egiteko hirugarren pertsona bat kontratatzea sustatuko litzateke, eta gainera, ezkutuko ekonomiaren barruan, inolako babes eta kotizaziorik gabe, etxeko lanetan ari diren langile askoren laneko egoera argitara ekarriko litzateke.

7. Bestalde, seme-alaba txikiak dituzten familietan jaiotza-tasa sustatzeko diru-laguntzak aitortu egin beharko lirateke eta umea hartu beharko lukete ardatz, eta ez ama, aita edo umearen familia-unitatea. Era horretara ziurtatu egiten da diru-laguntzak pertsona batekin bizi diren onuradun kopuruaren arabera biderkatzea, eta laguntza hori mantendu edo aldatu egin daiteke umeak hazi eta beharrianak aldatu ahala.

Emakumeentzako enplegua sortzeko eta bide batez jaiotza-tasa igotzeko zerga arloan soil-soilik proposa daitezkeen beste laguntza batzuk amatasuneko/aitatasuneko baja edo baimenetan lortutako errentei zerga-exentzio edo hobaria aitortze bidean egin daitezke. Gainera beste hoberi batzuekin osa ditzake goiko hoberia hartzen duen pertsonak seme-alaba kopuruaren arabera. Hoberi handiagoa ematea ere planteatu daite-

ke, aitatasun baja aitak hartzen badu eta ez amak, horretara gizonek ere aukera hori egin dezaten sustatzeko.

Hala ere, PFEZen araudian jaiotza-tasa sustatzeko egin daitezkeen zerga neurriek adinako garrantzia edo handiagoa izan dezaketela uste dugu Sozietateen gaineko Zergetan egin daitezkeenek, kasurako amatasun/aitatasun bajaran dagoen pertsonaren ordeztartzen den beste baten soldataren gaineko dedukzioekin lotutakoek. Dedukzioak handiagoak izan litezke ordeztartzea emakume batek egiten badu. Neurri hauen bidez bakarrik lortu ahal izango da, denboraren poderioz, enpresak emakumeen benetako aukera berdintasunean inplikatzea lanpostu bat lortzeko orduan.

8. Aurreko ideia guztiak ikusita, gure ustez, emakumeek burutzen duten benetako lan jardueraren eta lan horren benetako balio ekonomikoaren inguruan, eskubideak eta soldata aitortzeko lehen urratsak etxekoandreen/etxekogizonen kooperatiba bat antolatzen eman daitezke. Kooperatiba horren barruan etxeko lanetan ari diren eta talde horretara euren borondatez bildu nahi duten pertsonak egongo lirarteke, inolako lan-hitzarmenik ez dutenak, etxeko lanei erabat emanik daudelako, edo lan-hitzarmena izan arren jardunaldi osoa estaltzen ez dienak, gainerako denboran etxeko lanetan ari direlako.

Proposatzen dugun formularen abantailak, gure ikuspuntutik behintzat, hauetan bil ditzakegu:

Lehenik, administrazioaren eta familien arteko finantzazio eredu batetik abiatzen da, eta kotizazioaren pisu guztia ez da administrazioan edo familiaren lepotik egiten. Horrela egiteak saihestu egiten du bi erakundeok eredu guztiz baztertea.

Administrazioari dagokion finantzazio zatia mailakatu egin dezake erakunde honek, zer den gehien interesatzen dena kontuan izanda: kooperatiba osoa finantzatzea edo diruz laguntzea ala egoera ekonomiko batera iristen ez diren pertsonen kooperatiban parte hartzea edo sartzea finantzatzea.

Familien lepora datorren finantzazio zatia dirua ematen duenaren PFEZaren bidez konpentsatzea proposatzen da. Horrela, guztiz edo neurri batean, kontzeptu bategatik egiten duen ekarpena (etxea zaintzen diharduen pertsonaren etxeko lana ordaintzea) beste batekin konpentsatzen da, PFEZean gutxiago ordainduz.

Bigarrenik, eredu gutxieneko eredu da, uste dugulako egin litekeen zerbaiten oinarriak jartzea dela inportanteena, hasi pixkanaka-pixkanaka gehiagora joateko (hori da buruan dabilgun asmoa). Planteamendu horretatik abiatuta, etxeko lanak Gizarte Segurantzari izan ditzakeen prestazio eskubide guztien aitorpena bilatuko genuke

lehendabizi, geroago soldata bat jasotzera pasatzeko. Ikuspegi praktiko batetik, agian hasieratik dena eskatzeak ezer ez lortzea ekar dezake.

Hirugarrenik, proposatu dugun ereduaren hirugarren abantaila etxeakoandreak/etxe-kogizonaren inguruan eratuta egotea da, eta ez onuradunen inguruan. Sistema onuradunek etxeakoandreak alde egiten dituzten kotizazioetatik abiatzen denez, kotizazio horiek etxeakoandreak geratzen dira eta ez du inporta etxeakoandreak horrek onuradunak aldatzen baditu (ezkontidea edo bikotekidea aldatzea, osaba zaintzen nuen eta orain izekoa zaintzen dut, e.a.). Onuradun berriek pertsona beragatik kotizatzen dute. Ez da hori gertatzen, kasurako, ezkontideak nire pentsio-planera ekarpenak egitearen zain banago. Halakoetan ezkontidea aldatzeak, ekarpen gehiago ez egitea dakar eta plan horietatik sortzen diren eskubideak desagertzea.

Beste abantaila bat ere badu formula honek: etxeakoandreak jarduera alda dezake, egoera berriak kotizazioei kalterik egin gabe: kooperatibarako etxeakoandreak lan egiten dut aldi batean eta kotizatu egin dut, eta ondoren inoren kontura lan egiten hasten naiz eta kotizatzen jarraitzen dut. Eta alderantziz: lanean urte batzuetan kotizatzen egon naiz, lan gabe geratu naiz, eta kotizatzen jarraitzen dut kooperatibarako etxeakoandreak lanean arituz.

Azken abantaila hau, beste era batera, lanaldi partzialeko kontratua duten pertsonentzat ere badago, zeren gainerako lanaldian euren etxerako lan egiten badute, kooperatibaren bidez, lanaldi osoari dagokion kotizazioa lor dezakete.

Laugarrenik, etxeakoandreei/etxe-kogizonei kooperatiban integratzeak lan merkatuan sartzea errazten die, euren etxea zaintzea eta lan bera hirugarren batzuentzat egiteko posibilitatea ematen baitie, eta azken bide horretatik, zalantzarik gabe soldata eskuratuko lukete.

Bosgarrenik, formula honek gaur egun inorentzat egiten den lana eta ia oinarritzko eskubiderik gabe egiten dena (altarik, lan-hitzarmenik,... ez dagoelako) azaleratzea ekarriko luke. Lan hori kooperatibaren bidez egiteak eskubideak sortuko lituzke.

Azkenik, argi dago bide honetatik Gizarte Segurantzako kotizazioak, sor litzakeen BEZ bidezko zergak gehitzea, langabezia murriztea,... ekarriko lukeela.

9. Edozelan ere, argi dago etxeko lana era batera edo bestera aitortu beharra dagoela, eta ahal dela, guk apaltasun osoz proposatzen duguna bezala, lana baloratzeko formulen bidez, etxeakoandreak senti dezatela euren lana baloratu egiten dela, ez dezatela pentsa "mesedea" egiten zaiela, "eskubidea" aitortzen zaiela baizik, ahaleginez sortutako eskubidea, hain zuzen.



BIBLIOGRAFIA



EGILE BATZUK, *Comentario al Estatuto de los Trabajadores*, Comares, 1998.

EGILE BATZUK, *Regímenes Especiales de la Seguridad Social*, Tirant lo blanch, Valencia, 2. arg., 2000.

EGILE BATZUK, *Partekatzea, partitzea, banatzea*, Bilboko Udala, Emakumearen Udala Zerbitzua, 2002ko martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna.

EGILE BATZUK, "Estudio técnico y económico sobre la posible inclusión en el campo de aplicación del Régimen Especial de Trabajadores por Cuenta Propia o Autónomos de quienes trabajan al cuidado de su propio hogar y no estén amparados por otras prestaciones contributivas", Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Secretaría de Estado de la Seguridad Social, Madrid, 1998ko martxo.

EGILE BATZUK, *La situación jurídica de la mujer en los supuestos de crisis matrimonial*, IV Seminario de estudios jurídicos, Servicio de Publicaciones de la Universidad de Cádiz y Departamento de la Mujer del Ayuntamiento de Jerez de la Frontera, Cadiz, 1996.

ALBALADEJO, M., *Derecho de familia*, in Curso de Derecho civil, IV, 8. arg., Bosch, Barcelona, 1997.

ÁLVAREZ CAPIROCHIPI, *El enriquecimiento sin causa*, Granada, 1989.

BECKER, G.S., *A treatise on the family*, enlarged edition, Harvard University Press, Cambridge-Massachusetts, 1993 (4. arg., 1998); lehen argitaraldiaren gaztelaniazko itzulpena, Tratado sobre la familia, itzultzailea: C. PERAITA DE PRADO, Alianza, Madrid, 1988.

BLASCO LAHOZ, J.F., *Sujetos incluidos en el Régimen especial de trabajadores autónomos*, Tirant lo blanch, Valentzia, 1996.

BROCAS, A., CAILLOUX, A. eta OGET, V., *Las mujeres y la Seguridad Social. Los progresos de la igualdad de trato*, OIT, Informes, Centro de publicaciones Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madrid, 1990.

CAMPUZANO TOMÉ, H., *La pensión por desequilibrio económico en los casos de separación y divorcio. Especial consideración de sus presupuestos de otorgamiento*, Bosch, 3. arg., Barcelona, 1994.

CARRASCO BENGOA, C (arg.), *Mujeres y economía. Nuevas perspectivas para viejos y nuevos problemas*, Icaria, Madrid, 1999.

— *El trabajo doméstico, un análisis económico*, Madrid, 1991.

CERDÁ GIMENO, J., "Un retorno a mi pesar, a un olvidado tema. De nuevo sobre "parejas no casadas", *RDP*, otsaila (2001) 91-140. orr.

CLEMENTE MEORO, M., "Efectos comunes a la nulidad, separación y divorcio", in V.MONTES eta E.ROCA, *Derecho de familia*, 2. arg., Tirant lo blanc, Valentzia, 1995.

CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL, "Panorama sociolaboral de la mujer en España", 26. buletina, 2001eko azaroa.

CORRAL GIJÓN, M.C., "Las uniones de hecho y sus efectos patrimoniales", *RCDI*, martxoa-apirila (2001), 559-622. orr.

COUNCIL OF EUROPE, *National machinery to promote gender equality and Action Plans (Guidelines for establishing and implementing National Machinery to promote equality, with examples of good practice)*, Strasbourg, 2001eko maiatza.

DE LOS MOZOS, J.L., "Comentario al artículo 1.438", in *Comentarios al Código civil y las Compilaciones Forales*, zuz. M.ALBALADEJO, Madril, 1985, 374-379. orr.

DÍEZ-PICAZO, L., *Sistema de Derecho civil*, II. lib., 9. arg., Tecnos, Madril, 2001.

DURÁN HERAS, M^a.A. (zuz.), *La contribución del trabajo no remunerado en la economía española: alternativas metodológicas*, Instituto de la Mujer. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Madril, 2000.

ESTÉVEZ GONZÁLEZ, "Proyección en el Derecho aplicable de las distintas Concepciones del enriquecimiento sin causa", *ADC*, 2000, 511. or. eta h.

EUROSTAT, "100 Basic indicators from Eurostat. Yearbook 2001. The statistical guide to Europe. Data 1989-99" (Labour force survey, results 1999).
— "Women in decision making" (<http://europ.eu.int>).

EUSTAT, "Cuenta satélite de la producción doméstica para la C.A. de Euskadi", 38. koardernoa, 2000.

FERNÁNDEZ GONZÁLEZ, M^a. B., "Comentario a la ley valenciana por la que se regulan las uniones de hecho", *Actualidad civil* (2001eko abendua-2002ko urtarrila).

FERRER RIBA, J., "Relaciones familiares y límites del derecho de daños", *INDRET*, urria (2001) 1-21. orr.

GALA VALLEJO, C., *Régimen Especial de la Seguridad Social de los trabajadores por cuenta propia o autónomos*, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Madril, 3. arg., 1996.

GÓMEZ CABALLERO, P., *Los trabajadores autónomos y la Seguridad Social: campo de aplicación y acción protectora del RETA*, Tirant lo blanch, Valentzia, 2000.

GALLEGO DOMÍNGUEZ, J., *Las parejas no casadas y sus efectos patrimoniales*, Centro de Estudios Registrales, Madril, 1995.

GARCÍA SERRANO, A., "Notas sobre el trabajo doméstico", *ADC*, 38. zk. (1985) 3. lib., 583-622. orr.

GONZÁLEZ DE CHÁVEZ, M^a A., *Familia, maternidad y paternidad*, Alcalá de Henareseko Udala, Madril, 1995.

GOSTA ESPING-ANDERSEN, "La necesidad de una nueva política de familia", *El País* 2001-11-22.

GUTIÉRREZ SOLAR CALVO, B., "La política de empleo autónomo", *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 33. zk., 2001, 263-278. orr.

LUJÁN ALCARAZ, J., *El Régimen Especial de la Seguridad Social de los Empleados de Hogar*, Aranzadi, 2000.

MARTÍN VALVERDE, A., RODRÍGUEZ-SAÑUDO GUTIÉRREZ, F. eta GARCÍA MURCIA, J., *Derecho del Trabajo*, 7. arg., Técnos, 1998.

INSTITUT CATALÀ DE LA DONA, "Prefaci a l'elaboració del comptes satèl·lits de la producció domèstica per a Catalunya. Estimació de l'efecte d'incloure la producció domèstica dins del PIB", *Jornadas sobre el trabajo doméstico* (Bartzelona, 2001 ko urriak 5-6).

INSTITUTO DE LA MUJER, *Mujeres en cifras* (1996-2000).

INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA, *España en cifras*, 2001.

IPIÑA, A., "Las cuentas satélites consolidan los sistemas de información sociales y ambientales", *Fuentes estadísticas. Estadísticas regionales*, 35. zk., 1998ko maiatza.

LACRUZ BERDEJO, J.L., "Elementos de Derecho civil", in *Derecho de familia*, IV-1, Bosch, Bartzelona, 1990.

LALANA DEL CASTILLO, C.E., *La pensión por desequilibrio en caso de separación o divorcio*, Bosch, Barcelona, 1993.

LASARTE, C. eta VALPUESTA, M.R., "Comentario de los artículos 97 a 101 del Código civil", koord. J.L.LACRUZ BERDEJO, Civitas, Madrid, 1982.

LÓPEZ-MUÑIZ, M., *Las uniones paramatrimoniales ante los procesos de familia*, 3. arg., Colex, Madrid, 1999.

LLORENS, L., "El Plan vasco de estadística 2001-2004", *Revista Fuentes Estadísticas. Fuentes autonómicas*, 44. zk., 2000ko maiatza.

MESA MARRERO, C., *Las uniones de hecho*, Aranzadi, 2. arg., Pamplona, 2000.

MONTES PENADES, V., "Comentario al artículo 1.438", in *Comentario del Código civil*, Ministerio de Justicia, Madrid, 1993, 863-869. orr.

MOYÚA PINILLOS, I. "Políticas Públicas de igualdad de oportunidades en el empleo", Neticoop (<http://www.neticoop.org>).

NUÑO GÓMEZ, Laura (Coord.), *Mujeres: de lo privado a lo público*, Tecnos, Madrid, 1999.

OIT. COMUNICACIÓN. *La remuneración por el trabajo de la mujer: Una curiosa paradoja*. (<http://www.ilo.org/public/spanish/bureau/inf/pkits/women2.htm>).

OIT. COMUNICACIÓN. *La mujer y el mundo del trabajo: los costos sociales de un verdadero progreso* (<http://www.ilo.org/public/spanish/bureau/inf/pkits/women1.htm>).

PALOMEQUE LÓPEZ, M.C. eta ÁLVAREZ DE LA ROSA, M., *Derecho del Trabajo*, 7. arg., Centro de Estudios Ramón Areces, 1999.

PEÑA BERNALDO DE QUIRÓS, M., *Derecho de familia*, Servicio de publicaciones Universidad Complutense, Madrid, 1989.

PÉREZ-FUENTES HERNÁNDEZ, P., "El trabajo de las mujeres: una mirada desde la historia" (<http://www.ehu.es/lsvweb/txt/lanN1-2/pilar.htm>).

PÉREZ MARTÍN, A.J., "El procedimiento contencioso de separación y divorcio", in *Derecho de familia*, Lex Nova, 2. arg., Valladolid, 1998.

PIÑEYROA DE LA FUENTE, A.J., *La Seguridad Social de los trabajadores autónomos*, Estudios de Derecho Laboral, 1995.